


# ASKATASUNAREN BIDEA

Florentino Goikoetxea eta beste hernaniar  
batzuk nazismoaren aurkako borrokan  
bigarren Mundu Gerran



*Juan Carlos Jiménez de Aberásturi*

© Hernaniko Udal - Udal Artxiboa • Ayuntamiento de Hernani - Archivo Municipal  
Egilea / Autor: Juan Carlos Jiménez de Aberásturi  
Azala / Portada: "Aviateurs et résistants: Comète". ICARE Revue de l'aviation  
française 151, tome 4.  
Itzultzalea: Karlos Zabala  
ISBN: 84-934193-3-8  
Lege Gordailua / Depósito Legal: SS-944/06  
Diseinu Orokorra / Diseño General: Jorge Ullate Diseño Gráfico

## **ASKATASUNAREN BIDEA**

**Florentino Goikoetxea eta beste hernaniar  
batzuk nazismoaren aurkako borrokan  
bigarren Mundu Gerran**



# AURKIBIDEA

Hitzaurrea

7

Florentino Goikoetxea eta beste hernaniar batzuk nazismoaren aurkako borrokan Bigarren Mundu Gerran

9

Florentinoren irudia

35

Florentino jardunean

43

“Dédée”, Frantzia Usandizaga eta Juan Manuel Larbururen atxiloketa;  
Florentino libre

65

Florentino Britainia Handiko zerbitzuek “bahitua”  
73

Ofizioaren arriskuak: Florentinoren atxilotzea eta askatzea  
79

Lekukotasunak  
93

Ekitaldiak  
103

Traduction française  
115

English translation  
135



## HITZAURREA

Florentino Goikoetxea ez zen politikaria, intelektuala, zientzialaria, kirolari famatua... Eta historiara pasatuko da, ordea. Beharbada ez da agertuko entziklopedia bateko /G/ letran, baina haren oroitzapena bizirik egongo da bai salbatu zituen ehunka pilotu aliaturen eta erresistentzia-kideren bihotzean, bai haien familiakoenean ere. Eta halaxe egongo da, era berean, sarearen beste laguntzaile batzuekin batera, Hernaniko Udalak, hernaniar talde batek II. Mundu-Gerran askatasunaren borrokan egindako lana datozen belaunaldiei oroitarazteko asmoz, Osiñagako bidean jarri zuen monumentuan ere. Eta haren oroitzapenak bizirik jarrai dezan nahi dugu baita liburu honen bidez ere, non Florentinoren bizitza, izaera, askatasun grina, indar fisikoa, gizatasuna eta bere buruaz ahazturik besteen alde jarduteko gaitasuna deskribatzen diren.

Joxan Rekondo  
Hernaniko Alkatea





Florentino Goikoetxea II. Mundu-Gerra bukatu berritan, Jean François Nothomb "Franco" bere lagun eta "Comète" sareko kideak ateratako argazki batean.

## FLORENTINO GOIKOETXEA ETA BESTE HERNA- NIAR BATZUK NAZISMOAREN AURKAKO BORROKAN BIGARREN MUNDU GERRAN

Juan Carlos Jiménez de Aberasturi

1939ko irailaren 1ean Bigarren Mundu-Gerra hasi zen. Hainbat hilabetez apena izan zen mugimendurik Europako lehorreko fronteetan, baina, 1940ko maiatzean, naziek eraso azkar batí ekin zioten bat-batean eta, aste gutxiren buruan, Belgika, Herbehereak, Luxenburg eta Frantzia errrendiarazi eta okupatu egin zituzten. Ez ezerk ez inork ezin zuen Alemania nazia geldiarazi, nonbait. Bretainia Handia baino ez zegoen libre artean, nahiz eta nazien aire-eraso ikarrigarriari aurre egin behar, "Ingalaterrako Bataila" deitutakoan.

Nazien erasoaldiak exodo handia eragin zuen, eta, jende-lekualdaketa horietan, belgikarrak izan ziren abian jarri ziren lehenengoak. Horrela bada, talde bat iritsi zen Belgikatik Frantzia aldeko euskal kostaldeko herrietara babes bila,

gerratik ihesi. Haien artean, De Greef familia zegoen, Fernand de Greef aita, Elvire ama, Freddy semea eta Janine alaba, Angeluko "Voisin" etxearen kokatu zirenak.

Aldi bertsuan, nazien aurkako erresistentzia-taldeak antolatzen hasi ziren Belgika okupatuan. Talde horietako batean, Andrée de Jongh izeneko neska gazte belgikarra aritzen zen, geroago klandestinitatean "Dédée" izengoitia hartuko zuena. Haien lehenengo helburua Talde Espedizionarioko soldadu bretainiarra babesean jartzea izan zen, kapitulazioaren ondoren Belgikan han-hemen ezkutaturik gelditu baitziren, naziek harrapatzeko arriskupean. Harrapatze horiek saihesteko, eta luze pentsatu ondoren, "Dédée"k bidaia bat antolatu zuen Baionara etortzeko, Arnold Deppé adiskidearen laguntzaz. Deppé, Gaumont enpresa zinematografikoko soinu-ingeniarria, urte askoan aritu zen lanean Bordeletik eta Tolosatik Espainiako mugara bitartean zeuden zinema-aretoetan, materialaren mantentze-lanen arduradun. Zinema-areto asko euskal kostaldean zeuden, eta, horregatik, Deppé, ezkongabea artean, Donibane Lohizunera etorri zen bizitzera, 1928. urtean. Donibanen harremanak izan zituen bertako kontrabando-giroarekin eta muga pasatu ere egin zuen ezkutuan behin baino gehiagotan, Espainiako gerra zibilaren garaian<sup>1</sup>. Bidaia hartan, "Dédée" eta Deppé harremanetan hasi ziren De Greef senar-emazteekin, Angelura etorri berriak baitziren, eta, haien laguntzaz, ihesbide-sare bat antolatzea erabaki zuten, iheslariak Espainia frankistaraino ekarri eta handik, Portugalen edo Gibraltaren barrena, aliatuen aldera eramateko.

"Dédée"k bretainiarrekin zuzeneko harremana izatea hobe zela pentsatu eta Bilboko Kontsuletxera jotza erabaki zuen. Lehenik muga igaro behar zuen, ordea, eta, horretarako, Donibane Lohizuneko kontrabando-giroko jendearengana hurbildu zen. Alejandro Elizalde errefuxiatu nafarrak Tomas Anabitarte Zapirain mugalaria aurkeztu zion, eta "Dédée"k mugaz bestaldera eraman zezan konbentzitu zuen azkenerako, mugalaria ezezkoa eman baitzion hasieran, neska gazte hark ibilaldia egiteko nahiko indar izango ez zuelakoan. Tomas Anabitarte Hernanin jaioa zen, "Otsuene-Aundia" baserrrian, eta Frantzian babesia hartu zuen gerra zibilean.



Tomas Anabitarte Zapirain, 1994ko maiatzaren  
2n hil baino lehentxoengoko argazki batean.

---

<sup>1</sup> Europen gerra hasi zenean, Deppé Espainian zegoen, eta handik Frantziara itzuli zen muga Azkain aldean mendiz mendi igarota. Berehala Belgikara joan zen, armadan sartzeko, eta 1940ko maiatzaren 23an preso hartztu zuten. Alemaniarren eskuetatik ihes egin zuen, ordea, lehenengo momentuetako anabasaz baliaturik. Vid. Rémy: *Mission Marathon*. Librairie Académique Perrin. Paris, 1974.

Horrela bada, Anabitarteren eragozpenak gainditurik, "Dédée" k bideari ekin zion 1941eko abuztuaren 19an, taldean lau iheslari zeramatuztela. "Dédée" buru zela eta Anabitarte gidari, Bidasoa zeharkatu zuten, eta, ibilaldi guztiz nekagarri baten ondoren, Hernaniko baserri batera iritsi ziren egunsentian. Han, iheslariak baserritarren kargu utzi nahi izan zituen gidariak, uko egiten baitzion Donostiaraino laguntzeari, poliziaren beldurrez. "Dédée" kexatu zen, mehatxu egin zion, eta, etengabeko oldar hora ikusita, Anabitartek ziurtatu zien lagun bat etorriko zela Donostiatik haien bila. Eta, izan ere, handik pixka batera, lagun hori agertu zen. Bernardo Arakama donostiarra zen, Frantzian errefuxiaturik ibilitako gudari ohia, Agirre Miramon kalean garaje bat zuena -"Aracama autoeskola" gaur egun-. Arakamak Donostiara eraman zuen taldea, bere etxera, eta, han, iheslariek beren burua garbitu eta atseden hartu zuten. Horrelaxe hasi zen Arakama geroago "Comète" izenaz ezagutuko zen sarearekin elkarlanean.

Baina polizia alemaniarra eta kontsulatu frankista adi zeuden eta Donibane Lohizune inguruan bizi ziren mugalarien eta errefuxiatuen jarduera hurbiletiak zelatzen zuten. Horrela bada, Antonio Maria Agirrek, Hendaiako kontsul frankistak, eskualdeko euskal "separatisten" zerrenda bat egiten ari zela adierazi zuen Madrileko Kanpo-Arazoetako Ministeriora 1942ko apirilaren 24an bidalitako gutun batean. Horretarako, eskualdean babes hartutako egoiliar guztien zerrenda aztertu zuen, eta Kontsuletxean izena eman ez zutenak alde batera bereizti zituen. Eta, horien artean, "Comète" sarearen hainbat laguntzaile zeuden: Alejandro Elizalde nafarra, Hendaian bizi zena; Ambrosio San Vicente Arrieta, Donibane Lohizunen bizi zena, eta Tomas Anabitarte Zapirain, Hernaniko mugalaria<sup>2</sup>.

Gero, 1943ko maiatzaren 24an, Kanpo-Arazoetako Ministerioaren "Europa" Zuzendaritzak "Gobernu honen iritziz mugatik urrundu beharrekoak diren errefuxiati gorrien zerrenda" bidali zion Madriletitik Berlingo enbaxadore espainiarra, hark agintari nazien aurrean egin beharreko gestioak egin zitzan. Handik bi hilabetera, Donibane Lohizunen sarearekin elkar-



<sup>2</sup> Tomas Anabitarte 1912ko ekainaren 8an jaioa zen, eta 29 urte zituen orduan. Frantzian bizi izan zen gerra ondoren ere, Rosario bere arreba gaztearekin, eta 1994ko ekainaren 8an hil zen, Ziburun.

lanean ziharduten euskal errefuxiatu batzuk atxilotu zituzten, Ambrosio San Vicente Arrieta, Martin Hurtado de Saracho Murua eta Alejandro Elizalde, esate baterako. Beste batzuek, aldiz, Anabitartek eta Maritxu Anatol irundarrak, kasu, ihes egitea lortu zuten<sup>3</sup>.

“Dédée” Bilbora joan zen zerbitzu britainiarrekin hitz egitera, eta haien hitza eman zioten laguntza emango zietela eta iheslarien kargu egingo zirela. Arakamatarren etxera itzuli zen, Donostiara, eta, han zegoela, beste mugalari bat aurkitzeko beharrean gertatu zen, Tomas Anabitarte desagertu baitzen arrastorik utzi gabe, polizia espainiarren ihesi, antza denez. Nolanahi ere, “Dédée”k, britainiarren laguntza eskuratu eta gero, beste gidari bat nahi zuen, abiadore aliatuak mugaz bestaldera pasatzeko lanari bete-betean lotu zitekeena. Arakamak irtenbide bat aurkitua zuen ordurako, eta, arratsalde hartan bertan, mugalari berriarengana eraman zuen “Dédée”, bere gasogenozko autoan. Mugalari berria Florentino Goikoetxea Beobide hernaniarra zen, eta, une hartatik aurrera, sarearen barruan lanean arituko zen etengabe, ihesbidearen azken zatian guztiz funtsezkoa izanik. 1941eko udan gauude. Horrela sortu zen Florentinoren eta “Comète” sarearen arteko lankidetza eta adiskidetasun estua, haren zerbitzuan jardun baitzuen leial 1944. urterako arte.

Florentinok 43 urte zituen garai hartan. Hernanin jaio zen 1898ko martxoaren 14an, “Altzueta” baserrian, eta bertan eman zuen gaztaroko zati bat. Ehiztari amorratua zen -iaioa zen hudoak, lepazuriak, lepahoriak, igarabak eta basaka-



Goikoetxea Beobide familia, Hernaniko Altzueta baserrian, 1926 inguruau. Argazkian Florentino falta da.

---

<sup>3</sup> Kanpo-Arazoetako Ministerioaren agiritegia (Madril). R-Leg. 2224. 23 zk.ko espd.


tuak harrapatzen, ugariak baitziren bailaran-, eta izokin-arrantzale amorratua-goa. Bere anaia Pedrorekin eta Martin Errazkin eta Tomas Anabitarte bere lagunekin ibiltzen zen ehizan eta arrantzan -Anabitarte "Dédée"ren ondoan ikusi dugu dagoeneko, lehenengo muga-igaroaldian-. Bakarrik jardun zalea, buru-jabea eta anarkikoa -batzueta baserritik alde egin eta inork ez zekien nor zebilen bolada batean-, Donibane Lohizuneko zerrategi batean aritu zen lanean gerra aurretik; eta, hori dela-eta, pentsatzekoa da orduz gero bazituela ezagunak eta lagunak eskualde hartan. Haren aitak herrira itzultzea nahi zuen, eta, horretarako, gabarra bat erosi zion (oraindik ere ikus daiteke, "Altueta" sagardotegian), Urumeatik hondarra ateratzen ibil zedin Donostiako Gros auzoaren parean. Eta hala ibili zen denboraldi batean. Gabarra bete eta Urumearen estuarioan gora Martuteneko Portutxura (Garziategi) edo Ergobiako lehorreratze-lekuetara jo tzen zuen. Laster hasi zen kontrabandoan.

Gerra zibila sortu zenean, egun batean Guardia Zibila "Altueta"ra agertu zen Florentinoren bila. Ezin dugu zehaztu ez urtea, ezta motiboa ere, salaketaren bat beharbada, edo agintari militarren aurrera aurkezteko deia. Florentinok baimena eskatu zuen bizikleta bere anaia Nikolasi eramatera joateko, Hernaniko Karkaberaz kaleko iturgidegi batean aritzen baitzen lanean. Guardia Zibileko ofizialak, Pescara izenekoak, bizikleta eramatzen utzi zion eta Florentinok mendira egin zuen berehala. "Juan Antonenea" baserritik pasa zen, han bizi baitziren Erdoziarrak, bere lagunak, eta gero Frantziara ihes egin zuen. Ziburun kokatu zen; eta han kontrabandoan jardungo zuen seguruenik, eta Kattalin Agirre ezagutu zuen, geroago erresistentzia frantsesaren laguntzaile izango zena eta "Comète" sarean laster sartuko zena.

Alemaniaren okupazioaren urteetan, Florentino mugalari ibili zen, "Comète" sarean. Sare horrek abiadore aliatuak jasotzen zituen, Alemaniara aire-erasoa egitera joan eta itzuleran Belgikan, Herbehereetan eta Frantziaren iparraldean lurrera botatzen zitzenean. Gero, ibilera ugari eta arriskutsuak egin ondoren, euskal kostaldera ekartzen zitzuten, Donibane Lohizunera eta Ziburura. Han, iluntzean, Florentinok talde txikietan hartzen zituen, eta gauean



*Florentino Goikoetxea, Donibane Lohizunen, okupazio-garaian.*



abiatzen ziren oinez. Lehenbizi, Ziburutik Urruñako "Bidegain-Berri" baserrira, eta handik, atsedenaldi labur bat eginda, Bidasoaraino. Gauez lau orduan ibili eta gero iristen ziren ibaira.

Ibaia leku berean zeharkatzen zuten beti, "San Migel" izeneko tren-geltoki zaharraren parean (gaur egun oraindik ikus daiteke, errepeidearen ezkerraldean, Endarlatsako Zubira iritsi aurretik, Behobiatik Berara joanda). Ibaia igaro eta han bertan trenbidea eta errepeidea zeharkatzen zituen Florentinok bere abiadore-ekin, eta arin baino arinago Erlaitz eta Pagogañara igotzeko malda pikoa igotzen hasten ziren, Oiartzunera bidean. Oiartzunen, Garaiartarren kargu uzten zituen abiadoreak (hernaniarrak hauek ere, nahiz eta Oiartzungo Altzibarren bizi), eta Ziburura itzultzen zen, Euskal Herriaren alderdi okupatuaren aurkitzen zailak ziren produktuez kargaturik edo Frantziako erresistentziaren erakundeetarako posta zeramala. Alemaniarren okupazioak iraun zuen bitartean egin zuen Florentinok ibilaldi hori, eta haren irudi miragarria sinbolo bat izango da nazien tiraniatik ihes egiten zuten guztientzat.

Bidasoa harekin igaro zutenek Hernaniko baserritar haren irudi bitxia hartuko zuten gogoan, Oiartzunera joateko mendi aldapatsuak igoarazten zizkien bitartean. "Berrehun metro" esaten zien ahapeka, iluntasunaren erdian, eta handik pixka batera berrehun haien beste berrehun bilakatuko ziren, eta gero beste berrehun, eta horrela iheslariei bukaerarik gabea iruditzen zitzaien bide haren burura iritsi arte.

Modu inozente samarra Oinartzunera ia 8 orduz gauean ibili eta gero leher eginda iristen ziren abiadoreei adorea emateko. Florentinok, ordea, bazituen beste baliabideak bidaia arintzeko. Batzueta, mendi artean, ilunpetan, bere burua lurrera bota eta botila bat koñak ateratzen zuen zuhaitz bateko zulo batekin, "Terry" markakoa, aurreko buelta batean han ezkutatu zuena, eta, denek edaten zituzten zurrut batzuk, bideari berriz ere lotu baino lehen.

Merezi du "Dédée" k, "Comète" sarearen sortzaile eta buruzagiak, Bidasoa Florentinorekin igaro zuen lehen aldia nola kontatzen duen hemen jasotzea<sup>4</sup>:

*«("Dédée")... haren gidariaren atzetik joan zen, Florentinok zapaltzen zuen lekua zapalduz, haren arrastoa galtzeko beldurrez, hain zen handia iluntasuna atergabe ari zuen euriaren pean. Berehala konturatu zen, haren ibilera kolokarenagatik, euskalduna mozkorturik zegoela. Haren itxura apur bat hobetu zen, aldapan gora abiatzean.*

*Horrela iritsi ziren biak lehen mendixkaren gailurrera, eta maldan behera hasi, gero. Handik pixka batera, Florentino erori egin zen. Horrelako trantzean suertatu denak badaki aurreko erori dela entzun eta ahal den guztia egiten dela gauza bera ez egiteko, baina haren gainera erortzen dela azkenerako, espartina-ren zolan itsatsitako lokatzak txirrist egiten baitu lehen erorikoan kendutako lokatzean.*

<sup>4</sup> Rémy: *La ligne de Démarcation, Réseau Comète*. Tome 1, Librairie Académique Perrin, Paris, 1966, 78. or.

*Florentino gehiagotan erori zen jaitsiera bukatu aurretik eta aldiro-aldiro "Dédée" haren gainera irristatu zen. Eta aldiro-aldiro Florentinok besoetan hartu eta "pequeño beso" esaten zion. "Dédée"k gaztelera jakin beharrik ez zuen, kontua zein zen jakiteko, eta kontra egiten zion: "¡no, no!".*

*"Por qué no?" esaten zion Florentinok.*

*"Dédée"k ez zuen etsitzen, zutik jartzen zen. Florentinok gauza bera egiten zuen, abian jartzen zen eta aldendu egiten zen gehixeago. Komeria hasten zen berriz, eta zortzi ordu iraun zuen, ilunpetan eta euritan. »*

Florentinok umore ona erakusten ere bazekien, nahiz eta haren ateraldiek harrituta uzten zitzuten iheslari iztuak, Bidasoako muga arriskutsua segurtasunik handienarekin eta ahal zen bezain azkar igarotzea beste nahirik ez zutenak. 1942ko azaroan, Belgika aldean "Comète" sarearen hainbat kide atxilotu ondoren, Gestapok jazarritako lagun batzuek muga igarotzea eta Londresera itzultzea erabaki zuten. Haietako batek, Georges d'Oultrémont-ek, honela gogorazten zuen Florentinorekin egindako ibilaldi hura:

*«Inoiz probatu dituzu Euskal Herrian jaten diren babarrun beltz-beltz horiek, baba lodi antzeko batzuk, hesteetan hutsik egin gabe ondorio jakina sortzen dutenak? Florentinok haien platerkada handi bat irentsi zuen, nonbait, bideari ekin aurretik. Buru zihoan, gau erabat beltzean, eta gu haren atzetik genbiltzan, bata bestearren atzean. Gelditu zen bat-batean eta "shiii" entzun genuen. Bihotza taupaka genuen, etsaien patruila bat zelakoan, baina ikaragarrizko brrrrrunnn! batek durundi egin zuen eta mendiz mendi zabaldo zen haren oihartzuna. Florentino izan zen, haizeak pilatu zitzaitzkon urdailean nekez digeritutako babarrunak zirela-eta, eta zarata handiz bota berri zituen. Geure onera etorri aurretik, guregana itzuli eta esan zuen: "Francorentzat!"<sup>5</sup>.*

Egia da Florentinok halako lizentzia batzuk hartzen zituela bere lan gogorran, baina egia da, era berean, bere aldeko adostasuna lortu zuela berarekin jardun zuten lagun guztien artean, hori ohikoa ez izan arren. Bai "Comète" sarearen kideak, bai haren gidaritzapean muga hain egoera larriean igaro zuten abia-

---

<sup>5</sup> Rémy, aipatu obra. I. liburukia, 338-9. or. Margarita de Gramont-ek, "Réseau Margot"en sortzaileak eta Florentinoren zerbitzuak batzuetan erabili zuenak "le pétomane" izendapenarekin aipatzen du. Vid. Emilienne Eychenne: *Les Pyrénées de la Liberté, 1939-1945. Le franchissement clandestin des Pyrénées pendant la Seconde Guerre Mondiale*. Editions France Empire, Paris, 1983, 177-78. or. Beste alde batetik, eta nahiz zalantzak ez egon Florentino, bere xalotasunean, egiazko antifrankista izan zela, ez dirudi gerra zibilean borrokan ibili zenik, Rémyk (I, 18. or) eta Alan W. Cooper-ek beren obretan kontrakoa esan arren (Alan W. Cooper, *Free to Fight Again. RAF Escapes and Evasions. 1940-45*, William Kimbler, Northamptonshire, England, 1988, 135. or). Beste egile batek, Jean Hondart-ek, honela idatzi zuen *Le Monden "Les évadés de France via l'Espagne"* gaiari buruz 1988ko urriaren 23-24an agertutako artikulu batean: Florentino «ayant combattu pendant la guerre civile dans le camp républicain et figurant sur la liste des "rouges" a fusiller en cas d'arrestation en Espagne, aurai pu chercher à se faire oublier. Il fut cependant, celui qui, de tous les passeurs basques, prit le plus de risques». Esanak esan, Florentino, antza denez, gerra zibilean ez zen soldadu ibili, eta Guardia Zibila etxera bila etorri zitzaionean joan zen Frantziara ihesi, arestian azaldu denez.

doreak bat zetozen: leiala zen guztiz, buru-belarri aritzen zen, eta ardura osoa eta seriotasuna agertzen zituen beti une zailetan.

“Dédée”ren ahizpak, Suzanne Wittek-ek (“Cecile Jouan”), Bruselan sarearen laguntzailea zenak eta “Dédée” bezala Alemaniara deportatu zutenak, liburu bat idatzi zuen gerra ondoren, eta honela deskribatzen du bertan Florentino: «... *euskaldun jatorra, zintzoa, leiala, erabateko fideltasuna zuena. Konfiantza osokoa* »<sup>6</sup>.

Itxura xaloa zuen, hitz gutxikoa zen, baina Florentinok egindakoa aparta izan zen, berebizikoak: makina bat abiadore eta gizon eraman zituen mugaz bestaldera, bai eta erresistentziarako posta ugaria ere, eta, “Comète” sarearekin ez ezik, “Nana” eta “Margot” sareekin ere aritu zen, Kattalin Agirre bere lagun handiarekin batera.

Okupazioaren bukaera aldera, aliatuak Frantzian lehorreratu eta armada naziiek borrokan latz ari zirenean, Florentinok lehenengo ezbehar larria izan zuen.

1944ko uztailerako bukatu ziren abiadoreen muga-igarotzeak, frontea Frantzian bertan egonda Donibane Lohizunera iristea ezinezkoa zen eta. Florentinok, hala ere, muga zeharkatzen jarraitzen zuen, De Greeftarrek Donostiako zerbitzu bretainiarrei bidaltzen zien posta garraiatzeko. Joan-etorri horietako batean, uztailaren bukaeran, alemaniarrekin topo egin zuen ustekabeen, Oiartzundik Donibane Lohizunera itzultzen ari zela. Alemaniarrek mugako zaintza handiagotu zuten, eta, norbait zebilela sumaturik, tiro egin zuten metrai-ladorez. Lau balak zauritu zuten Florentino bernan, izterrean eta sorbaldan, eta lurrera erori zen. Aldean zeuzkan agiriak ezkutatzea lortu zuen, baina atxilotu eta Baionako ospitalera eraman egin zuten, zentzuzko hitzik atera ezin ziotela. Ez zekiten zer garrantzia zuen atxilotutakoak eta kontrabandista soila zela pensatuko zuten beharbada. Galdeketa atzeratu nahiago izan zuten, zauritua apur bat sendatu eta garraiatzeko moduan egon arte. De Greeftarrak laster jarri ziren martxan eta alderdi hartako erresistentzia-kideen laguntzaz, eta batez ere Angeluko Udaleko erresistentzia-taldearen laguntzaz, alemaniarren uniformea jantzi eta Florentino askatu egin zuten eta Miarritzen ezkutatu. Antoine Lopez polizia gazteak zuzendu zuen erreskatea, eta Jules Artola adiskidea izan zuen laguntzaile. Florentino ezkutuan egon zen egun batzuetan, baina 1944ko abuztu bukaeran naziiek Euskal Herria utzi zuten, beren atzera egite orokorrean. Florentino herren ibili zen pixka bat orduz geroztik.

Abenturaz beteriko bizimoduia izan zen Florentinorena, eta “Comète” sarearekin egindako ibilaldiak izan ziren handienak; eta ez da ahaztekoa, bestalde, garai hartan, naziiek atxilotuz gero, kontzentrazio-esparru batera bidaltzen zintzutxela, Gestapok egoki galdekatu ondoren, eta horrek bertan hiltzea zekarrela sarri askotan.

Baina Florentino, polizia espainiarrek ere harrapatu nahi zuena, ez zen kikildu zaitasun horiengatik. Adiskidetasun handia izan zuen, lehenbizi “Dédée”-

<sup>6</sup> Cécile Jouan: *Comète. Histoire d'une ligne d'évasion*. M.Thomas éditeur. Les éditions du Beffroi. Furnes. Belgique. 1948. 15. or.

rekin, sarearen sortzailearekin, eta gero, 1943ko urtarrilaren 15ean "Dédée" atxilotua izan ondoren, Jean François Nothomb "Franco" bere lagun eta kidearekin, eta adiskidetasun horrek haien arteko lankidetza markatu zuen, "Comète" sarearen kideen artetik bizirik atera ziren guztiak gogoratzen duten moduan.

Airey Neave, espioitza zerbitzuetako militar bretainiar bat, "Comète"ren abenturan Londrestik eta Gibraltarretik parte hartu zuena, honela oroitzentz dà Florentinoz mirespenez:

«Bikote bitxia osatzen zuten ("Dédée" eta Florentino): batetik, mendiko gizona, handia, indartsua, baina letragabea, koñak zalea baina nekaezina eta arriskuaz arduratzen ez zena, eta, bestetik, "Dédée" saiatu eta delikatua, beti lasaia. Pirinioetako mendiak talde desberdinekin 25 aldiz zeharkatzeko arriskuak eraman zituzten elkarrekin, eta beti onik itzuli ziren Frantziara. Florentinok aurpegian zeraman bere egiazko handitasuna, batera zimurrak eta finak ziren hazpegi haietan; animalia paregabe bat ekartzen zizun gogora. Bere lorategian zutik, udako egun eder batean, lore dirdiratsuen eta tximeleten artean, halako edertasun errespetagarri bat zerion. Haren sudurak eta ahoak naturarekin bat egiten duenaren indar lasaia zeukaten. Haren eskuak ahaltsuak ziren. Zabar janzten zen, eta kulunka zeraman txapela handia buruan. Mendia ikaragarri ondo ezagutzen zuen. Beti aurkitzen zuen bidea, baita kopa batzuk hartuta txispatuta zebilenean ere. Bidexka guztiak ezagutzen zituen, bidezidor guztiak, eta arriskua sumatzen zuen, zakur batek egingo zukeen gisan. Egunduko indarra zuen, eta, hari esker, erraz eraman zituen etengabeko ibilaldi haietako nekeak, udan zein neguan, 1941etik Frantzia 1944an liberatu zen arte.

Behe-laino heze itogarrian ere aurkitzen zuen bidea Florentinok. Pixka batean gelditu eta lur gogorra jotzen zuen espartinen zolarekin. Bidea aurkitzen zuelarik, agudo ibiltzen zen, taldeko besteak estropezu egin eta irristatzen ziren bitartean. Batzuetan, gau ilunean gelditu eta hark bakarrik ikusten zuen enbor edo harkaitz batera jotzen zuen.

Arin bilatu eta espartin pare bat edo botila bat koñak ateratzen zuen, hiru hilabete aurretik han ezkutatua. Euskaraz besterik ez zuen egiten. Gaineroakoan, "doucement, doucement", "espere un poco" eta "tais-toi" ziren harren erdarazko hitzegia osatzen zuten hitzak »<sup>7</sup>.



Florentino oso lotua egon zen beti Hernanirekin, bere jaioterriarekin. Han zuen, eta du, bere familia guztia. Bai eta gazte-denborako lagun batzuk ere, bere ezkutuko lanean laguntzaile izan zituenak. Martin Errazkin Iraola, gorago aipatutakoa, nabarmentzen da haien artetik, zeina 1909ko otsailaren 10ean jaio



Martin Errazkin Iraola.

---

<sup>7</sup> Airey Neave: *Petit Cyclone*. Editions "Novissima". S.C. Bruxelles. 1954, 61-62. or.





Ezkerrean, Florentino, Antoine D'Ursel kondearen eta USAAFeko John Burch teniente ipar-amerikarraren oroitzapenetan jarritako gurutzearen ondoan, Bidasoaren alde frantsescan. Itota hil ziren 1942ko abenduaren 23an, ibaia zeharkatu nahirik. Martin Errazkin eta Manuel Iturrioz izan ziren mugalari aldi hartan. Argazkiko gurutzea ur handi batek eraman zien, eta gaur egun euskal hilari bat dago haren ordez, gorago, mendiaren hegalean, eskuineko argazkietan ikus ditzakegunez.

baitzen zen “Otsu-Enea” baserrian, Tomas Anabitarteren baserriaren ondo-ondoan. Martinek itsas-armadan egin zuen soldadutz, Ferrolen, gerra zibilaren aurretik, eta Frantziara ihes egin zuen, Florentino bezala, gerra bukatutakoan. Perpinyàtik sartu zen Frantziara 1939ko otsailaren 10ean, eta Guruko kontzentrazio-eremura eraman zuten, Kataluniatik zetozten errepublikazale espaniar, brigadista atzerritar eta euskaldun askoren moduan. Mundu-gerra hasi zenean, lan-konpainia batera bidali zuten, armada frantziarraren 182 zenbakiko infanteria-erregimentuaren menpe, eta Giraondako Saint Jean de Illac herrian eta Landetako Luxey-ko abiazio-zeliairen eraikuntzan aritu zen lanean, Frantziak 1940ko ekainean porrota izan zuen arte. Geroago, Euskal Herrira etorri zen bizi-tzera, eta hemen Florentinorekin harremanetan hasi eta, hark bezala, kontrabandoan jardun zuen.

Abiadore aliatuak mugaz bestaldera pasatzen ere aritu zen, Florentinorekin batera zenbaitetan, eta protagonista izan zen “Comète” sareak muga-inguruan izandako gertaerarik zorigaiztokoenetako batean. Izan ere, 1943ko eguberri-bezperan, Florentino gripeak jota zegoen, eta egun hartarako antolatuta zegoen muga-igarotzean ezin zuen parte hartu. Ibaiak ur handia zekarren. Florentinok bi mugalari bidali zituen bere ordez. Haietako bat Martin Errazkin zen, eta bestea



mikelete izandako bat, Orexakoa, Manuel Iturrioz izena zuena eta Hernanirekin lotura izan zuena, aurrerago ikusiko den bezala. Taldea nekez igaro zen beste aldera, handiegia izan arren, baina bi lagun atzean geratu ziren. Guardia Zibila ibai aldean mugimendua zegoela konturatu eta tiroka hasi zen ilunpetan. John Burch abiadore ipar-amerikarra eta Antoine d'Ursel, "Jacques Cartier" izangoitikoa, "Comète" sarenaren kide eta Belgikan antolakuntza-arduraduna zena, itota hil ziren, ur-laster biziak eramanda. Gainerako guztiak atxilotu zitzuzten, bi mugalariek



izan ezik. Martin Errazkinek zoritzarreko zeharkatze haren oroitzapena izan zuen gogoan bizitza guztian. Donibane Lohizunen bizi izan zen, eta hango "SOLUCO-Société Luzienne de conserves" kontserba-fabrikan lan egin zuen, erretiroa hartu arte. Han hil zen, 1990eko azaroaren 13an, eta hango hilerrrian dago lurperaturik. Aliatuen alde egindako lana eskertzeko asmoz, bai Britainia Handiko gobernuak, bai AEBetakoak diploma bana eman zioten, bat Eisenhower generalak izenpetua, eta bestea Tedder aire-armadako mariskal britainiarak.

Hori ez da, ordea, gorago aipatutako Anabitarte gain, "Comète" sarean aritu zen hernaniar bakarra. Hasieran, 1941. urtean, Urruñako "Thomas-Enea" base-

rria "Comète"k abiadoreak pasatzeko eta elkartzeko erabiltzen zituen puntueta-ko bat zen. Baino kontrabandista bat 1942ko uztailean gertatutako istripu batek beste leku bat bilarazi zien. Babes-gune berria, Bidasa zeharkatu aurrekoa, "Bidegain-Berri" baserria izan zen ordutik aurrera, Frantzia Usandizagaren baseria<sup>8</sup>, Urruñako mendietan zegoena, mugara bidean. Frantzia alarguna zen, hiru seme-alabarekin eta laborantza-lanean laguntzen zion errefuxiatu hernaniar batekin, Juan Manuel Larbururekin, bizi zen, lur-soro txiki batek eta behi gutxi batzuek ematen ziotenarekin bizimodua atereaz. Orduz geroztik, baserri horretara bildu ziren iheslariak, muga pasatzen saiatu baino lehen. Batzuetan, eguraldia oso txarra denean, bertan gaua eman ere egiten zuten. Juan Manuel Larburu Odriozola, "Comète" sareari buruzko bibliografian eta bereziki Remyren obran Jean Larburu gisa aipatzen dena, Hernaniko "Berakorte" baserriko seme zaharrena zen, eta 1912ko abuztuaren 20an etorri zen mundura. Gerra zibilean armada frankistan sartu eta Lleidako iparraldeko frontera bidali zuten, Aragoiko mugan. Han, Hernaniko auzikide batek, haren konpainia berean zegoenak, "gorri"tzat salatu zuen. Zer gertatuko zitzzion beldur zen, eta buruan izango zuen, inondik ere, bere lehengusu Juan Jose Elustonodori, Urnieta "Eula" baserrikoari, gertutakoa, Andoainen fusilatu zuten-eta, salaketa batengatik atxilotu ondoren. Frantziara desertatzea erabaki zuen, eta Frantziatik Bartzelonara eraman zuten, han Errepublikako Gobernuak eusten baitzion artean. Bartzelonan Miguel Lizeaga Larburu sozialistak lagundu zion. Lizeaga haren aitaren lehengusua zen, hernaniarra, Ereñotzukoa, Irungo Udaletxearen zinegotzia eta Errepublikaren Gobernuak 1936ko martxoan osatutako Gipuzkoako Batzarde Kudeatzaileko presidentea izandakoa. Hark lana aurkitu zion, eta elkarrekin erbesteria joan ziren, Errepublikaren porrotaren ondoren. Frantzian zegoen berriz, eta, Ameriketara joatea buruan erabili ondoren -Lizeagak egin bezala-, Ipar Euskal Herrian geratu zen. Hainbat baserritan ibili zen lanean, harik eta "Bidegain-Berri"n gelditu zen arte, non



Juan Manuel Larburu Odriozola.

<sup>8</sup> Françoise Haltzuet zen haren izena, ezkondu aurretik. Philippe Usandizaga izan zuen senarra, 1939ko abuztuan hil zena. Frantzia Beran jaioa zen.

Frantxiari laguntzen baitzion nekazaritza-lanean, gorago azaldu den moduan. Concha, haren arreba, Jose Maria Goikoetxearekin zegoen ezkonduta, Florentinoren anaia batekin, eta, Jose Maria gerra ondoren hil zenean, Pedro Goikoe txarekin ezkondu zen, beste anaietako batekin. Larburu Hernanira itzuli zen zenbaitetan ezkutuan, bere gurasoei bisita egitera<sup>9</sup>.

1943ko urtarrilaren 15ean, gauez, "Bidegain-Berri" baserrian abiadore-talde bat "Dédée"rekin Bidasoa aldera noiz abiatuko zain zeudela, alemaniarrek ustekabean baserrian sartu eta Frantzia Usandizaga etxejabea, Juan Manuel Larburu, "Dédée" eta han ziren abiadoreak eraman zituzten. Kalbario luzea hasi zen haientzat horrela, erbesteratzearkin bukatuko zena. "Dédée"k itzultzea lortu zuen, baina ez Frantxiak, nazien esparru batean hil baitzen 1945eko apirilaren 12an, 36 urte zituela, hiru seme-alaba umezurtz utzita.

Juan Manuel Larburu Baionatik Fresnesera eraman zuten 1943ko ekainaren 3an, Jean Dassié-rekin batera ("Comète"ko kidea hau ere), eta handik, sei egun geroago, Compiégneko esparrura. Esparru hori Alemaniara erbesteratzeko aurreko urratsa zen, baina Larburuk, herrialde neutral bateko nazionalitatea izan-

<p><b>MINISTERE DES ANCIENS COMBATTANTS ET VICTIMES DE GUERRE MENDEZ DE GIBRALTAR</b></p> <p><b>BUREAU DE PARIS</b> Avenue Foch PARIS XVI<sup>e</sup> —1—</p> <p><b>ACTE DE DISPARITION.</b></p> <p>LE MINISTRE DES ANCIENS COMBATTANTS ET VICTIMES DE GUERRE, Vu l'article 88 du Code Civil (Ord. du 30 octobre 1945); Après examen des pièces du dossier portant le n° 65-425 DECLARE :</p> <p>La disparition de L A R B U R U — O D R E Z O L A — Juan Manuel né le 20 Août 1912 à HERNANI (Espagne) dans les conditions indiquées ci-après : interné le 3 Janvier 1945 à FLOTTES transféré le 5 Juin 1945 à COMPIÈGNE Sans nouvelles depuis</p> <p>Par le Ministre des Anciens Combattants et Victimes de Guerre Par décret, le Directeur du Commissariat à l'Assurance des Invalides</p> <p>P. D. — Le chef du Bureau du Génie Civil Département </p> <p><b>REMARQUES IMPORTANTES</b></p> <p>1<sup>er</sup> Cet acte de disparition n'est pas un titre de décès. Il ne doit pas être inscrit sur le registre des morts de la mairie. 2<sup>me</sup> La ville ou dont place ou caractère de ce titre. En cas de besoin pour faire valoir ses droits, cette indication sera fournie par le maire ou le commissaire de police. 3<sup>me</sup> La date à laquelle il devra être déclaré.</p> <p>— sur un papier timbré de deux francs, par exemple lettres adressées au Procureur de la République, du greffe de la mairie, ou à une autre personne désignée par le maire ou le commissaire de police.</p> <p>Le greffe de la mairie, ou une autre personne désignée par le maire ou le commissaire de police, devra être informée de la nécessité d'apporter à l'une des personnes mentionnées ci-dessus, Procureur de la République, ou greffe de la mairie, ou toute autre personne désignée par le maire ou le commissaire de police, une copie de l'acte de disparition, ou un exemplaire de ce qui est écrit ci-dessus. Il est à noter que les deux dernières personnes doivent être informées de ce fait le 22 septembre 1945, soit dans les 15 jours de l'acte de disparition, ou au plus tard le 1<sup>er</sup> octobre 1945.</p> <p>D'autre part, il faut soumettre l'acte de disparition pour être transmis par la Direction du Génie Civil à l'Administration des Anciens Combattants et Victimes de Guerre.</p> <p>E. S. 1945 75804</p>	<p><b>RÉPUBLIQUE FRANÇAISE</b></p> <p>Paris, le 19 AVRIL 1949</p> <p><b>Sterbeurkunde</b></p> <p>Sonderstandesamt Arolsen, Kreis Waldeck, Abt. F Nr. 574/1950 Juan Larburu, _____ katholisch, _____ wohnsitz in Ursuene, Departement Basses Pyrenees, _____ geboren am 5. April 1944, _____ 7 — Uhr — Minuten in Flossenbürg _____ verstorben. Der Verstorbene war geboren am 20. August 1912. in Hernani, _____ Der Verstorbene war nicht verheiratet.</p> <p>Arolsen, den 27. April 1961 Der Standesbeamte  </p> <p>219 - 8 Mai 1961</p>
---	--

Juan Manuel Larburu Odriozolarenen desagertze-akta eta Juan Larbururen heriotza-egiaztagiria. Juan Manuel Larburu Fresneseko presondegitik eta Compiégneko kontzentrazio-esparrutik pasa eta gero desagertu zen, eta Juan Larburu 1944ko apirilaren 4an hil zen Flossenburgeko kontzentrazio-esparruan.

<sup>9</sup> Ion Zabaleta Larbururekin egindako elkarritzeta. Urnieta, 1995eko urtarrilaren 4a.

nik, erbesteratuko ez zutela eta berehalako Urruñara itzuliko zela espero zuen. Compiégneko 1944ko urtarrilera arte egon zen gutxienez, 15.557 matrikula-zenbakirekin. Hilabete horrek 19 zituenan, Parisko S.D.ren aginduz (polizia nazia), Buchenwald-eko kontzentrazio-esparrura bidali zuten (40.644 matrikula-zenbakia), eta geroxeago, otsailaren 22an, Flossenbürg-ekora (6.558 matrikula-zenbakia). Harekin batera ihesbide-sareko beste bi lagunzaile deportatu zituzten, eta Larbururen berri eman zuten haien 1960an. Ambrosio San Vicente harekin egon zen Compiégne, Buchenwald eta Flossenbürgen, eta, adierazi zuenez, Larburu Flossenbürgen ikusi zuen azken aldiz eta “egoera benetan tamalgarrian zegoen, oinez ibiltzeko ere indarrik ez zuela, eta gauza ez zela ematen ziguten apurra jateko”. Eta lekukotasun horrekin bat dator Martin Hurtado de Saratxorena, horren arabera “haren egoera hain zen desesperatzeko modukoa, ezen jan ere ezin baitzuen egin”. Deportatutako beste euskaldun bat, Santiago Anabitarte Altuna, orduan Donibane Lohizunen bizileku zuena, Compiégne eta Buchenwalden egon zen harekin, eta azken esparru honetara iristean honela zegoela adierazi zuen: “erabat nahastuta eta leher egina, ez zuen jaten, eta arrazoitzeko gauza ere ez zen, hain nekatua egonda nekez ulertzten baitzitzaien esaten zuena”. Geroago Flossenbürgera bidalitako lagun batzuek Anabitarteri esan ziotenez, “gero eta nahastuago zegoen, etsipena hartua, eta han hil zen”<sup>10</sup>.

Han hil zen, izan ere, 1944ko apirilaren 4ean, 32 urte zituela, Frantzia baino urtebeteko lehenago, ia-ia<sup>11</sup>. Heriotzaren kausa, esparruko erregistroaren arabera, “Herzschwäche” izan zen, “bihotzeko ahulezia!” edo antzeko zerbaite.

Harrigarria bada ere, haren izena ez zen urte askotan agertu Urruñako “Monument aux Morts” monumentuan, zalantzak gabe han egotekoaren bazeen ere hasieratik, Frantzia Usandizagaren ondoan. “Akatsa” orain dela urte gutxi batzuk zuzendu zuen Urruñako Udalak, “Comète sarearen lagunak” izeneko elkartea hala egiteko eskatu zionean. Juan Manuel Larburuk AEBen “Medaille



*The President  
OF THE UNITED STATES OF AMERICA  
has directed me to express to  
JUAN LARBURU*

*the gratitude and appreciation of the  
American people for gallant service  
in assisting the escape of Allied  
soldiers from the enemy*

*Dwight D. Eisenhower*

DWIGHT D. EISENHOWER  
General of the Army  
Commanding General United States Forces European Theater

<sup>10</sup> Martin Hurtado de Saracho, Ambrosio San Vicente eta Santiago Anabitarte Altunaren lekukotasunak, Donibane Lohizunen jasoak, 1960ko irailaren 26an, abenduaren 22an eta urriaren 7an, hurrenez hurren.

<sup>11</sup> Nazioarteko Gurutze Gorria. Service International de Recherches. Genève. Juan Larburu Odriozolaren fitxa. Sterbeurkunde Nr. 574/1950.

from Freedom"<sup>12</sup> eta Eisenhowerrek izenpetutako diploma jaso zituen hil ostean, etsaietatik ihes egindako soldatu aliatuei emandako laguntza eskertu nahian.

Garaiartarrek ere parte hartu zuten "Comète" sarearen ekintzetan, baina hauek Oiartzunen aritzen ziren. Familia honek Hernaniko jatorria zuen, eta Oiartzungo Altzibar auzoan bizi zen. Abiadoreak Bidasoa zeharkatu eta Oiartzungo "Sarobe" baserrira iristen ziren lehenik, baina ez ziren han luzaro gelditzen. Atseden-leku bat besterik ez zen, Oiartzunera jaitsi aurretik. Handik Altzibarrera joan behar zuten, non Garaiartarrek zuten etxeen babesten ziren. Batzueta, Florentino bera jaisten zen "Sarobe"tik Altzibarrera, abisua ematera. Gero, Altzibarretik Garaiartarren familiako norbait igotzen zen, abiadoren kargu hartzera. Behean, "Bastero-Berri" izeneko etxeen ezkutatzen ziren ("Torre" ere deitzen zaio). Etxe horretan ostateko sagardotegi moduko bat zuten Pedro Arbide Martiarena oiartzuarak, "Aldako" baserrikoak, eta Maria Garaiar Rekalde haren emazteak. Maria Garaiar (1894-1984) Hernaniko "Lizarraga" baserriko zen, eta hura zen "Comète"rekin harremanetan zegoena, Pedro haren senarra alde batera geratzen baitzen.

Pedro Arbideren eta Maria Garaiarren seme-alabek ere esku hartu zuten amaren ekintzetan, "Comète" sareari laguntza emanez. Garai hartan zazpi senide ziren: Juanita, Luciano, Manuel (hildako bakarra), Venancio, Vicente, Nicolas eta Maria Teresa.

Abiadoreak eta iheslariak "Sarobe"tik "Bastero-Berri"ra iristen zirenean, zer-bait jan eta atseden hartzen zuten pixka batean. Zenbaitetan 12 lagun ere izan ziren batera, eta, nahiz jeneralean goizez berehala abiatu Erreenteria aldera, batzuetan gaua han pasatzen zuten, egoera noiz hobetuko zain.

Sarri askotan, Venanciok eta haren anaietako batek abiadoreei laguntzen zieten Erreenteriaraino. Abiadoreak hiru izaten ziren, eta bidea bizikletaz egiten zuten, ondoko hirira lanera joaten ziren oiartzuarren artean nahastuta. Bizikleta zen orduan ibiltzeko modurik ohikoena, eta horrela inori ez zioten arreta hartzen Larzabaleko bidegurutzea igarotzean, non egoten baitzen Guardia Zibilaren kontrola.

Abiadoreek Donostiara joateko tranbia hartzen zutenean, Venancio Arbidek Erreenteriako bere osaba-izeben etxeen uzten zituen bizikletak. Han, Maria Arbidek, aitaren aldeko izebak, janari-denda bat zeukan Biteri kalean, non Ignacio Urbieta bere senarrarekin batera aritzen baitzen lanean -gaur egun Lekuona gozo-denda dagoen lekuan-. Gero, Venanciok bizikletak hartu eta etxera eramaaten zituen, Altzibarrera.

Ondo-ondoan, "Bastero-Txiki" izeneko etxeen -Altzibarreko eskola zaharra-, Mariaren anaia bat eta haren emaztea bizi ziren. Anaiak Francisco Garaiar zuen izena, nahiz jendeak "Paco" edo "Patxi" deitu (1981ean hil zen), eta haren emaztea Claudia Escudero<sup>13</sup> zen, oiartzuarra, Artikutzako errepidean dagoen "Aritz-

---

<sup>12</sup> John T. Perry kapitaina eta sezkio-buruak 1947ko maiatzaren 19ko gutunaz bidaliko zitazioaren arabera ("MIS-X Section, 7707 Military Intelligence Service Center European Command U.S. Army").

<sup>13</sup> 1995eko otsailaren 15ean hil zen.

luzieta-Goikoa” baserriko. Bost seme-alaba zituzten orduan, eta haien denek laguntzen zioten “Comète”ri, bai eta haien ahaideek eta auzokoek ere.

1943ko azaroaren 13an Bizkaiko Brigada Mugikorreko agente batek eta Madrileko Brigada Politiko-Sozialeko beste batek Bernardo Arakama atxilotu zuten eta Bizkaiko Polizia-Buru Nagusiaren esku jarri Gipuzkoako Gobernu Zibilaren ziegetan, eta, handik egun batzuetara, polizia Altzibarren agertu eta Oiartzungo auzo honetan “Comète” sarean aritzen zirenak atxilotu zituzten. Azaroaren 28an, Pedro Arbide Martiarena, 57 urtekoa, kontratista, Ondarretako presondegian sartu zen, Segurtasun Zuzendaritza Nagusiaren esku, eta han egon zen 1944ko maiatzaren 31 arte. Haren emaztea, Maria Garaiar Rekalde, 50 urtekoa, “etxeakoandrea” fitxaren arabera, egun berean sartu zuten<sup>14</sup>. Francisco Garaiar Donostian zegoen atxiloketak egin zituztenean, kontsulatutik abisua hartu eta ezkutatu egin zen. Haren emaztea, Claudia Escudero Aranburu, 36 urtekoa, bihamarunean eraman zuten Ondarretara, eta ez zen handik atera 1944ko apirilaren 20 arte. Garaiar-Escudero senar-emazteen bost seme-alabak senideen artean banatu ziren. Kontsul britainiarak Oiartzunera ez itzultzeko aholkatu zien, eta Behobiara joan ziren bizitzen, hasiera batean, eta, geroago, 1947an, Frantziara, ez baitziren seguru sentitzen<sup>15</sup>.

Ezin da aipatu gabe utzi “Comète” sarearen beste kide konfiantzazkoa, hernaniarra hau ere, Donostian bizi bazen ere: Federico Armendariz. Izan ere, Armendariz “Comète”k Donostian zuen beste laguntza-puntuaren, Arakamarekin tartekatzen zena, egoeraren arabera.

Federico Armerdariz Ugalde 1897ko ekainaren 16an jaio zen Hernanin. Haren aita Hernanira joan zen bizitzen Zaldibiatik, eta gurdiak egiteko eta konpontzeko lantegia jarri zuen bertan, aurrerago ibilgailuen karrozeria konpontze-ko tailerra izango zena. Armendaritzarrak Hernanin bizi izan ziren eta lantegi horretan lan egin, Federicok anaia-rekin desadostasun batzuk izan eta Tolosara joan zen arte. 1923an, Maria Dolores Irazustabarrena Arregirekin ezkondu zen, Donostiako Artzain Onaren elizan. Maria Dolores ere hernaniarra zen, “Zabalaga” baserriko, non haren gurasoak maizter bizi baitziren. Tolosan karrozeria-tailerra jarri zuen, baina, frankistek herria hartu eta nazionalista iza-teagatik jazarri zutenean, Donostiara aldatzea erabaki zuen. San Bartolome kalean kokatu ziren, eta beste karrozeria-tailer bat jarri zuen, Triunfo kalearen 5.ean. Gero, Antiguo auzora aldatu zen, eta labegin tzan aritu. Gose-sasoi bete hartan, ogia etxearen egiteko balio zuen labe bat asmatu zuen. Pixkanaka-pixkanaka, negozia handituz joan zen, eta mota guztietako labeak, kafe eta kakaoa txigortze-ko gailuak, gozotegiko labeak, okindegikoak... egiten hasi zen. Horrela bada, mundu-gerraren ondoren, 1947. urtearen inguruan, “Hornos Bertan” empresa sortu zuen Antiguoan, Juan de Garai kalearen atzealdean, beste lau bazi-kiderekin: Victor Gorospe, Juan de Gelbenzu, Jose Tejeria eta Garpar Iraola.

<sup>14</sup> Ondarretako (Martutene) Presondegi Probintzialaren artxiboa. Fernando Martinez Sarasolaren espedientea eta Pedro Arbide Martiarenaren eta Maria Garaiar Rekalderen fitxak.

<sup>15</sup> Maria Luisa Garaiar Escuderorekin 1992ko otsailaren 27an Hendaian izandako elkarrizketa.



Ezkerrean Armendariz senar-emazteak —Federico eta Dolores Irazustabarrena— Kontxako barandaren parean Robert eta Ivonne Lapeyre-rekin. Azken hauek muga igaro berriak ziren, 1943ko martxoaren 13an, Florentinok gidaturik, eta Estatu Batuetako enbaxadak Gibraltarrera eramateko zain zeuden.

rrak ezagutu zituzten sasoi hartan. Gaur egun ere gogoratzen dute nola igaro zuten Bidasoa 1943ko martxoaren 13tik 14erako gauean, Florentinok eta Patxi Okamika haren laguntzaileak gidaturik, Albert Johnson ("B") britainiararekin eta STOti ihes egindako hiru "refractaire" frantsesarekin batera<sup>16</sup>. Endarlatsa-Oiartzun-Errenerria ibilbide ohikoa egin ondoren, Donostiara iritsi eta han Federico Armendarizen eta Dolores Irazustabarrena haren emaztearen etxearen hamabost egunez ezkutatu ziren, Marina kaleko 3. zenbakiko 2.ean, Kontxako hondartzatik hurbil, beren bila noiz etorriko zain. Azkenerako, Donostiako kon-tsulorde britainiararekin, William Harold Goodman-ekin, harremanetan jarri ondoren, AEBetako enbaxadak bidalitako autora Igeldoko errepidean igo eta Madrilera abiatu ziren. Han, hilabetea egin behar izan zuten, Gibraltarrera igaro aurretik, eta, handik, beste hilabete bat esperoan eman eta gero, Londresera iritsi ziren, konboi batean sei eguneko zeharkaldia egin ondoren.

Federico Armendariz 1963ko otsailaren 23an hil zen, 66 urte zituela. Eta Dolores haren emaztea urte batzuk geroago hil zen, 1965eko urriaren 10ean, 67 urterekin. Ez zuten seme-alabarik izan.

Derrigorrezkoa da, era berean, Manuel Iturrioz aipatzea, Orekan jaio arren, gorago esan bezala, Hernanirekin lotuta baitago hau ere. Gerra zibila hasi baino lehentxeago, Aldundiaren Mikelete taldean sartu eta Hernanira bidali zuten, non jende askorekin izan zuen harremana. Gerran "Dragones" izeneko batailoian ibili zen, Hernaniko jendearekin, Erdoziatarrekin besteak beste, eta, iparraldeko frontea erorita Bartzelonara joan ondoren, Frantziara erbesteratu eta Donibane

Baliteke Arakama izatea "Comète" sarean sartu zuena, karrozeria-negozioa zela-eta elkar ezagutu baitsezaketen. Eta ez zen harritzekoia izango arrazoi horregatik beragatik Alejandro Elizalde nafarra ere gerra-aurretek ezagutzea, Donibane Lohizunen erbestera-tutako sare-kide hau ere automobil-sektorean aritzen baitzen lanean. Kontuan hartu behar da garai hartan ibilgailuekin loturiko negozioak ez zirela oso ugariak. Baionako Lapeyre senar-emazteek, Dassietarren ahaide zirenek eta Gestapok haien ekintzen berri izatean Londresera ihes egingo zutenek, Armendarizta-

<sup>16</sup> STO siglak Derrigorrezko Lan Zerbitzua esan nahi du.

Lohizunera joan zen bizitza, non kontrabandoan eta pertsona-garraioan hasi baitzen alemaniarrek lurraldea okupatu zutenean. Tomas Anabitarterekin eta Santurtziko nazionalista batekin, Lezo Urreztietarekin, estuki loturik jardun zuen "Comète" sarean, eta sarri askotan lagundu zien "Franco"ri eta "Dédée"ri. 1942ko apirilaren 19an atxilotu zuten Erreenterian, autobusez Donostiatik Oiartzunera zihoala. Irungo Komisariara eraman zuten, eta han Bazán famatuak galdekatu zuen, zeinak Ortega koronela eta Manzanas komisarioa lankide baitztituen errepresio-lanetan. Bere zaindaria deskuidatu eta ziegatik ihes egin zuen. Mendira jo zuen. San Martzial aldera igo zen eta muga pasatzen saiatu, baina ezin izan zuen, zaintza oso handia zelako. Alemaniarrek haren etxeen azaldu ziren, Donibane Lohizunen. Orduan ezkutuan itxarotea erabaki zuen, eta "Aritzluzieta" baserrian hartu zuen babesra, Artikutzatik hurbil, Oiartzunen, non Manuel Escudero bizi baitzen bere arreba Maria Asuncionekin. Apirilak 22 zituen. Manuel Escudero hurbileko kobazulo batean gorde zuen, egoera noiz lasaituko zain. Han jakin zuen bere hiru lagun, mikeleteak, atxilotu zituztela berari laguntzeagatik. Orduan baserriko mutila, 14 urtekoa, Hernanira bidali zuen, bere lagun batekin harremanetan jartzeko. Jose Erdozia zen, "Juan Antonenea" baserrikoa, gerran harekin ibilitakoa eta Avilesen preso hartu zutena. Elkarrengana bildu ziren azkenerako, eta tarteka elkarrekin batzea erabaki zuten. Erdozia, Hernanitik hiru orduko bidea eginez, Oiartzungo kobazulora joaten zen astean behin, eskopeta eta txakurra hartuta zenbaitetan, ehiztari baten antzera. Erdoziak tabakoa, egunkariak eta albisteak ekartzen zizkion. Hainbat hilabete eman zituen horrela mendian. Behin, Iturriotz bere etxeraino joan zen mendian barrena, Orexara, eta Oiartzunera itzuli zen berriz. "Franco"rekin harremana berreskuratu ere egin zuen, eta, are gehiago, erresistentzia frantseserako irratu-instalazio bat pasatzen ere lagundu zuen. Baino eskualde hura zorrotz zainduta zegoen. Eta egoera larriagotu zen, Dibisio Azuleko hainbat kide deser-tatu eta Guardia Zibila haien bila ahaleginean aritu zenean. Eta, horretaz gain, preso batzuek ihes egin zuten Santoñako presondegitik eta muga igaro nahi zutela espero zuten. Hernaniko mendietan barrena Orexara, Goizuetara, Gorritira eta abarrera joan-otorrian ibili zen, poliziaren ihesi beti ere, eta, halako batean, ezkutuan ezkontzea erabaki zuen. Emaztegia Maria Asuncion Escudero oiartzuarra zen, "Aritzluzieta" baserritik hurbileko kobazuloan gorde zuen Manuelem arreba, hain zuzen. 1942ko azaroaren 23an izan zen ezkontza, Orexako elizan. Paco Garaiar hernaniarraren koinatu bihurtu zen horrela, Cláudia haren emaztearen ahizparekin ezkondua baitzen. Ezkontzaren ondoren Hernanira joan zen, Erdozia bere lagunaren "Juan Antonea" baserrira, eta hantxe eman zuen bolada bat, inguruko mendietan barrena ibilaldiak eginez, polizia gertu beti. 1944ko irailaren 10ean, zazpi laguneko talde bat eraman zuen, Jose Erdoziak eskaturik. Lagun horiek Frantziara pasatu nahi zuten, Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jartzeko. Muga-igarotze honetan lagundu zie-zaion, Iturriotzek Hernaniko bere beste lagun bat eraman zuen, Patxi Goia Zubiri, gerra zibila zela kausa Frantziara babestera pasa eta iparraldeko zenbait baserritan "morroi" ibili zena. Han ezagutu zuen Patxik Florentino, zeinak


Hernanira ekarri baitzuen, eta kontrabandoan ibili zen garai hartan, Oiartzun aldean gehienean. Iheslari-talde horretan Andres Prieto eibartarra zegoen, geroago "Gernika" batailoian sartuko zena. Gerra, ordea, bukatzen ari zen, eta

Iturrioz nekatuta zegoen arriskuz eta larrialdiz beteriko bizimodu latz horrekin. Ezkonduta zegoen, eta bi seme zituen. Donibane Lohizunera aldatu zen, eta espartingintzan hasi zen lanean. Handik pixka batera, emaztea eta semeak ekartzea lortu zuen Oiartzungo "Aritzluzieta" baserritik, eta Frantzian gelditu zen luzaro. 1981ean Donostiara etorri zen bizitza, eta han hil zen 1991n.

Florentino hizpide hartuko dugu berriz ere, "Comète"rekin lankidetzan ibilitako beste hernaniarrak aipatu ondoren. Esker onezko eta adiskidetasuneko erakutsi handiak jaso zituen, muga pasaraziz salbatu zituen abiadureenak ez ezik, baita gobernu aliatuenak ere. Domina eta insignia ugari eman zizkioten, gaur egun Hernaniko "Altueta" baserrian begirunez gordetzen direnak.

Florentino hiru aldiz gonbidatu zuten agintari britainiarrek Londresera, Europa guztiko erresistentzia-kideak omentzeko antolatutako ekitaldietan parte hartzeko. Horietako batean, "King's Medal for Courage In the Cause of Justice" eman zioten, eta, erregeak kondekorazioa eman behar zion ekitaldian, importazio-esportazio lanean aritutakoa zela esan zuten haren aurkezpenean, haren kontrabando-ibilerak gogoan<sup>17</sup>.

1977ko ekainaren 2an, Ohorezko Legio frantsesa eman zioten, soldadu ibilitakoien delegazioen aurrean. Abiadore kanadarrak, australiarra, britainiarra eta ipar-amerikarrak zeuzkan inguruau, Bidasoaz bestaldera berak eramandakoak asko; haren emaztea eta Hernaniko haren familia ere han zegoen, bai eta "Comète" sareko haren lagun belgikarrak eta frantsesak ere. Armada frantsesak "Croix de Guerre avec Palme" ematerakoan egin zioten laudoriozko aipamenak egoki laburbiltzen du erresistentzian egindako lan ausarta:




Manuel Iturrioz.

---

<sup>17</sup> Alan W. Cooper: *Free to Fight Again. RAF Escapes and Evasions. 1940-45.* W. Kimber, England, 1988, 64. or.




Florentino gerran ibilitako soldadu eta erresistentzia-kide talde batetik Komunen Ganberan eskainitako harrera jaian, Londresen, 1970eko maiatzaren 1ean.



«Goikoetxea, Florentino, 1898ko martxoaren 14an Hernanin jaiotakoa, lehen orduko patriota bikaina, gogotsua eta ausarta, "Nana", "Comète" eta "Margot" sareetako kidea eta posta-lerro askokoa. Etsaien okupazioan, 1941eko irailetik



Baionako suprefetak, Biacabe jaunak, "Ohorezko Legioa" Florentinori jartzen, 1977ko ekainaren 2an, Miarritzeko "Monument aux morts" monumentuan. Eskuin aldean, Florentinoren anaiaak, Antonio eta Pedro.



1944ko uztailera, 227 abiadore aliatu eta agente frantzes zein belgikar ugari mugaz bestaldera eraman zituen, Gestapok eta polizia espainiarak muga zorrotz zaindu arren.

1944ko uztailean misio batetik zetorrela, patruila alemaniar batek ustekabean topatu eta metraileta baten tiro-segidaz zaurreditu zuen. Atxilotu eta Baionako Ospitalera bidalita, "Comète" sareko erresistentzia-talde batek ausardi handiz askatu eta 1944ko uztailaren 26ra arte ezkutaturik egon zen».



"Ohorezko Legioko zalduna" diploma, Giscard d'Estaing presidenteak izenpetua, eta hainbat estatuk Florentinori okupazioan egindako lanarengatik emandako dominak. Beheko argazkian, Pedro eta Antonio anaien ondoan, 1977ko ekainaren 2an bertan, ohore-domina jaso eta gero.



Florentinoren argazkiak, "Ohorezko Legioa" jaso zuen ekitaldian, Miarritzen, 1977ko ekainaren 2an, familiakoekin, "Comète" sarearen lagunekin eta gerran abiadore ibilitako britaniar, australiar eta kanadar batzuekin.

Frantziako armadako gurutzea jaso eta hiru urtera, Florentino hil zen. Hileta-elizkizunak Ziburuko elizan izan ziren, eta bertara, senide eta lagunez gain, erresistentziaren ordezkari ofizialak, "Comète"ko kideak eta "Royal Air Force Escaping Society"koak etorri ziren, udal agintariekin, eskualdekoekin eta abarrekin batera. Anne haren emaztea eta beste senideak izan ziren segizioko buru. Hilkutxa bandera frantsesak biltzen zuen, eta haren gainean Florentinok jasotako bederatzi kondelkorazio frantses eta atzerritarra zeuden jarriak. Hileta Darraido parrokoak zuzendu zuen euskaraz eta frantsesez. Lore-koroa ugari eta erresistentziako elkarteen bandera eta ezaugarriak ageri ziren hilkutxaren inguruan. Parrokoak hitz hauekin gogoratu zuen Florentino: «*gizon bipila zen, hitz horren esanahirik nobleenean, gogor eta eskuzabal saiatzen zena beti besteen alde, bere buruari uko eginez. Nork daki zenbat gau eman zituen Florentinok mendian, eguraldiak edo urtaraoak axolarik ez ziotela, beti askatasunaren eta elkartasunaren alde lanean!*». Meza, euskal kantuekin, aita Onaindiak eman zuen, familiako laguna baitzen, eta oso sermoi hunkigarria egin zuen, Florentinoren irudia goraipatz eta besteen aldeko ekintzez beteriko haren bizitza gogoratz: «*Florentinok on egiten zuen berez, munduko gauzarik naturalena bezala, batere harrokeriarik gabe, eginbeharrez eta gizakia harentzat gauza handia zelako*».



Florentinoren ehorzketa, Ziburun, 1980ko uztailaren 30ean.

Elizkizuna bukatutakoan, Ziburuko hilerrrian lurperatu zuten. Haren hilobiarren aurrean bi hitzaldi egin zituzten, bat Michou Ugeux (Dumont) belgikarrak, "Comète" sareko lehendakariaren izenean, eta bestea M. Sidney Holroyd-ek, "Royal Air Escaping Society"ko lehendakariak. Bertan agintari eta pertsona ospetsu asko izan ziren; hala nola, Bernard Marie diputatua; Alliot andrea, haren ordezkoa; Jean Poulou, Ziburuko alkatea, zenbait zinegotzirekin batera; Marcel Suares, "Compagnon de la Libération"; Paul Dutournier, Lapurdiko alkateen presidente; elkarrekin lehendakariak, erresistentzia-kideak, Frantziatik ihes egindakoak, FFLen ordezkariak, domina militarren erakunde-enak, soldadu ohiak, ihesaldi-sareen ordezkariak -batzuk urrutitik etorritakoak, Michou Ugeux, Pierre Ugeux, Sidney Holroyd, esaterako-, Florentinoren lagun asko, haren familia, bai eta Higgins andrea, "France-Etats Unis" elkarteko burua eta Bell jauna, "Association France-Grande Bretagne" elkarteko burua.

Han datza Florentino, bere emaztearen ondoan, itsasoa parean duela, menditik ozta-ozta ikusten zuen itsaso hura bera aurrean duela, gau beltzean-nazismoaren gau ilunean- Hondarribiako itsas-argiaren distirek bide onean zebilela adierazten ziotenean bezala.

*"Royal Air Forces Scaping Society" k Florentinoren ohoretan egindako oroitzapen-plaka Ziburuko hilerran jartzen (1987ko maiatzaren 24an).*



1996an, Sokoan, "Allée Florentino Goikoetxea" izeneko hiribidea inauguratu zen, mugalarri hernaniarraren oroitzapenetan.





# FLORENTINOREN IRUDIA



## "MENDIAN IBILZEKO SENA"

Peter Eisner Peter Eisner "The Washington Post" egunkariaren nazioarteko saileko zuzendari-ordea da. 1991n, Prentsaren Amerika-arteko Elkarteaaren saria lortu zuen eta beste bi liburu eman ditu argitara: "Death Beat", Kolonbiako narkotrafikoaren gerrei buruzkoa eta Manuel Noriegaren biografia, "America's Prisoner" izenburuko. Haren liburua "Comète" sareari buruz idatzi den azkenekoa da. (Peter Eisner: "La línea de la libertad". Editorial Taurus. Madrid, 2004. 28-33. or.).

"Florentinok urteak zeramatzen Frantziaren eta Spainiaren arteko mugaren bi aldeetako polizietatik gordetzen, eta iseka ere egiten zien, noizik behinka mendietatik jaitsi eta, lagunei bisita egiteko, herrian agertuta. Nahi zuen lekura joateko eskubidea sortzez bazuela uste zuen, eta horregatik aurre egiten zien agintaritzako agenteei. Txapela handi ilun bat, talo bat bezain zapala, ageri zen haren buruaren gainean, eta ile-xerlo beltz galdu bat ateratzen zitzaion txapela-ren erditik behera, kopetan modu irregularrez itsatsita. Baserritar legera janzen zen, jertse grisa, artilezko txamarra beltz zahar bat, marinelenaren antzekoa, eta lan egiteko galtza lodiak, zapaten gainetik altxatuak. Zutik, ezkerreko besoa gerrian zuela, erronka jotzaile bezain menderakaitz ageri zen, eta haren kopeta sartuaren azpian, haren euskal sudur liluragarriaren azpian, irribarre ulergaitz bat igartzen zitzaion.

Florentino baserritar familia batean sortua zen, euskal mugaren alde espainiarrean. 1989an jaio zen, Spainia eta Estatu Batuak Kubarengatik gerran batu zireneko urtean, eta haur eta gazte denboran borroka haien inguruko istorioak entzun zituen, nola senide batzuek infernuko oihan hartan gelditzea erabaki zuten, nola beste batzuk bertan hil ziren.

Bai Florentino, bai Pedro haren anaia txikia, mendian hazi ziren, baina Florentinok besterik ez zuen tamaina miresgarri hura lortu, idia bezain bizkar-zabal eta esku izugarri handi haietan. Nerabezaroan, dragatze-lanetan ibili zen Bizkaiko golkoan. Lan nekagarria zen guztiz, baita hura bezalako gizon baten-tzat ere, eta ahal izan zuenean alde egin zuen ibaitik.

Florentino gauza zen hirian barrena itzal bat bezala igaro eta arbasoen etxera tarteka igotzeko, Hernaniko "Altueta" baserrira. Hango mendixketatik Bizkaiko golkoa ikusten da azpian...

... "Dédée" konturatu zen ihesaldiaren azken kilometroak ezin zirela egin errepeideetan edo trenbideetan zehar. Mendizale onak eta fidatzekoak beharko zituzten Frantziatik Spainiara pasatzeko. Florentino aukeratu zuten aho batez. Frantziara ihes egin zuen Spainiako gerra zibilean. Gizon zaildua zirudien, guztiz bestelakoa Erresistentziako beste kideen aldean. Urte gehiago zituen, haietan halako bi, eta apenas hitz egiten zuen frantsesez edo gazteleraz. Bere hizkuntzaz ere, euskaraz, hitz-urria zen eta harira joaten zen. Baino "Dédée"k adina gorroto zituen faxismoa eta okupazioa. Florentino harro agertzen zen abiadore aliatuei ihes egiten laguntzeaz.

Hondarra ateratzeko lana utzi ondoren, kontrabandoan hasi zen, baina Euskal Herrian horrek ez du konnotazio txarrik: mugan bizi zen edozeinek parte hartzen zuen horretan edo onartu egiten zuen bizirik irauteko. Espainiako gerra zibilaren ondorengo gosetean, Florentinok edozein gauza lortu zezakeen: kafea, tabakoa, babarrunak, behi-okela, lentzeria fina, bai eta arkume edo zekor gizen bat ere. Mendien aldeko maitasunak bultzaturik eta bidean hartzen zituen kopa koñakek bizkorturik, gau guztia eman zezakeen oinez. Haren abantaila handia tontorrak hain zehatz ezagutzea zen: bazekien bidegurutzearako xendra guztiak nora joatekoak ziren. Asko edanda ere, ez zuen inoiz balantza egiten, garraioan zeramatzen lagunak irristatu eta atzean geratzen bazitzaizkion ere.

Mugaren alde batean zein bestean, alde handia kentzen zien beti bere jazarleei. Bere trebeziarenengatik ia legenda bat zen Euskal Herrian, eta hango jendeen artean halako ospea izatea ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula, horrelako dohai-nak ez baitira han urriak.

Izen ona hartu zuen baita ibaia zeharkatzen laguntzen zien abiadoren artean ere. Espainiara pasatzeko bidaian baten bat ur-laster bizian leher eginda erortzen bazen, Florentinok beste aldera garriatzen zuen, bere hankek uraren indarrari eutsiz, nahiz eta ur hori beste batzuk herrestan eramateko modukoia izan.

Herbert J. Spiller, Errege Aire Indar Britainiarrekoa (RAF), Florentinok nazietatik ihes egiteko Pirinioen beste aldera pasatzen lagundi zuen abiadore horietako bat izan zen. “*Haren begitarre luze okerrak, intxaurrondo koloreko azala belztukoak, halako noblezia baldar bat zuen, txapela beltz zapal batek estalita*”, idatzi zuen Spillerrek, Florentinorekin izandako topaketa gogoan. Eta hauxe gehitu zuen: “*Zenbat eta gehiago ezagutu, orduan eta miresgarriagoa zen guretzat haren indarra, haren gaitasuna arriskua igartzeko eta haren sena mendian ibiltzeko. Sen horri esker, gauza zen gauean abiadura ikaragarriaz ibilaldiak egiteko, oztopoak saihestuz eta atseden hartzeko leku seguruak aurkituz. Hari eskerrak emateko arrazoiaik bagenituen, segurtasunera eramatzen gintuenean erakusten zituen adeitasun eta pazientziarengatik*”.

Ingalaterrara itzulita, soldaduek istorio gehiago eta gehiago aurkitzen zituzten mendian barrena egindako ihesaldien inguruan. Spiller eta beste abiadoreak etxera iritsi zirenean, nazien eskuetatik salbatu zituzten jende ausart eskuzabal haien berri eman zuten. Haien txostenek itxaropena eta lasaitasuna eman zizkien etsaien lurraldera hegaldatzeko prestatzen ari ziren abiadore gero eta ugaria-goei. Lurrera botatzen bazituzten, bazekiten gero eta aukera gehiago zitztela etxera itzultzeko. Florentinoren kemena eta “Dédée”ren edertasun eta trebezia mito bihurtzen ari ziren Ingaliterrako landa zabaletan barreiaturik zeuden hamaika aerodromoetako abiadoreentzat.

Florentinok abiadoreak leku seguruan utzi eta ez zen luzaro gelditzen Espainia barruan. Iheslarien gisa bizi zen, Guardia Zibila haren atzetik baitzebillen kontrabando-ekintzak zirela kausa. Gerra zibilean, Guardia Zibilaren kuarterlean agertzeko agindu zioten, eta halaxe egin zuen, bere bizikletaren gainean. Ofizial arduradunak, gaztelerez hitz eginda Florentinok ulertuko ez ziola pentsaturik, honela esan zuen:

- *Ondo da, gizon hau Ondarretako presondegira eramango dugu.*

Florentinok arretarik gabe begiratu zien eta zera esan zion interpretariari:

- *Arraioa, hau luzerako bada, utzi nazatela bizikleta anaiari itzultzen, lane-rako behar du-eta!*

Poliziak uste izan zuen arazorik ez zuela ekarriko, kuartelean bere borondatez agertu zen eta. Konforme, esan zioten, itzul iezaiozu bizikleta anaiari eta zatoz berriz hona. Baina Florentinok bazekien kontua zertan zen. Bizikletarekin joan zen eta Guardia Zibilak ez zuen berriz haren arrastorik izan”.

## FLORENTINO, ERRALDOIA

1942ko maiatzaren 30etik 31ra bitarteko gauean RAFek lehenengo erasoa egin zuen Kolonia hirian mila bonbaketari bidaliz. Erasoan parte hartu zuen eskuadroietako bat 50 zenbakikoa izan zen, basea Skellingthorpe-n zuena. Hegazkinetako batean, Leslie Baveystock sargentua ziholan nabigatzaile, Leslie Manser kapitainaren aginteapean. Erasoalditik bueltan, hegazkina lurrera bota zuten Tongerloo parean, Belgikaren eta Herbehereen arteko mugan. Baveystock sargentua erresistenzia jaso eta Baionara iritsi zen, beste lagun batzuekin, 1942ko ekainaren 11n. Handik hiru egunera, Baveystock Donibane Lohizunetik Bidasoa aldera atera zen hegazkinlari-talde batean, “Dédée”rekin. Hainbat urte geroago, honela gogoratzen zituen Florentino eta muga-igarotze hura.

“Gizon ikaragarri handi bat, iristen ari ginela leihotik guri begira egon zena, mahaira hurbildu eta eskua estutu zigun. Florentino zuen izena. Bob eta biok mahaira eseri ginen eta laster Hal de Mone irribarretsua eta haren lagun belgikar gaztea elkartu zitzaitzak. Katilu bat esne eta gazta motaren bat eskaini ziguten, eta hantxe eserita gelditu ginen, giroak pixka bat aztoratuta, “Dédée” Florentinorekin hizketa bizian entzuten genuen bitartean. Ezin jakin guk zer geratzen zen haien artean, baina bistakoa zen elkarrekin oso lotuta zeudela. Florentino, izan ere, gizon aparta zen. Ia bi metro luze izango zen, eta zezen bat bezain indartsua, esku handi-handiak eta sorbaldak guztiz zabalak zituen. Aurpegia eguzkiak eta haizeak belztua zeukan, eta nolabaiteko distira zerien haren hazpegi gogorrei. Haren sudurak eta ahoak naturari atxikita bizi diren gizonen indar isila zuten, eta, txapela beltza buru gainean zuela, benetako euskaldun baten irudi bizia zen. Orain ulertzten nuen zergatik “Dédée” esan zuen, nire sudurra eta begitarrea aztertu ondoren, ez nuela arazorik izango hesia pasatzeko Donibane Lohizuneko geltokira iristen ginenean. Haren antza nuen. Nahiz ni itzal zurbil-zurbila izan Florentinoren aldean, ni bezalako bi bizkarrean eramateko gai baitzen.

Abiatzeko unea eterri zen. Han gelditzen zirenak agurtu eta haien aldeko gure esker ona betikoa izango zela esan genien. Gero, bata bestearen atzetik, Florentinori jarraitu genion eta iluntasunean barneratu ginen. Hotsik ez ateratzeko esan baziguten ere, Andrée (De Jongh) ahopeka xuxurlatuz zihoa etengabe. Gaua ilunagotu zen, hodeiak loditu. Igelen baten korrokak eta Florentinoren hesteen eztanda ozenak baino ez zuten isiltasuna urratzen noizik behinka; Andréek barre txepela egiten zuen eta zera zioen: “Ni ez naiz izan, baina usainari jarraitzea besterik ez duzue”. Florentinok edaten zuen ardo beltz merkeak, izan ere, txikizio handiak egiten zituen ahuntz-gaztarekin nahastuz gero.

Tarteka-tarteka, Florentino gelditu egiten zen, entzun, eta beste norabide bat hartzen zuen. Hodeiak lodiak ziren oso, eta euriz beterik zeuden, Andréek esan bezala. Aurrera genbiltzan, mendietan gora, pausuak nekez baino ezin emanik. Euri-izpika hasi zuen berehala, eta geroxeago euria ari zuen atergabe. “Ondo, pentsatu nuen nire artean, zakur aztarnariez kezkatu beharrik ez”.

Bi ordu geroago, ibai batera iritsi ginen. Andréek esan zigun hura muga zela, eta kontu handiz ibili behar genuela. Florentinok agindu zigun ur-ertzaren ondoko zuhaixka batzuetan ezkutatzeko; gurutzatzeko leku seguru baten bila eta ea patruilarik ageri zen ikustera joan zen orduan. Isilik egon ginen zain, eta, handik minutu batzuetara, tabako-kea usaindu eta patruila entzun genuen; biz-pahiru guardia igaro ziren bidean aurrera, gure ezkutalekuaren eta ibaiaren artean; hain zegoen ilun, entzun besterik ez nien egin. Florentino noiz itzuliko zain egon ginen pazientzia hartuta; luze baino luzeago iruditu zitzaigun tarte hura, nahiz eta minutu gutxi batzuk baino izan ez. Ibia ez zela agudo igaro behar esana ziguten; urte-sasoi hartan ura gerriraino baino ez zen iristen, eta astiro zeharkatu behar genuen, hotsik ez ateratzeko.

Florentino itzuli zen eta abian jartzeko agindua eman zigun; arinegi ez joateko esan zigun berriz ere, lasai joan beharra zegoela. Poliki-poliki, bihotza azkar tau-paka eta adrenalinaz gainezka, Florentinoren atzetik joan ginen ilaran, benetan gerriraino baino iristen ez zitzaigun ur hotz-hotzeten aurrera, eta, minutu batzuk geroago, onik geunden beste aldean. Baino beste ataka gaizto bati aurre egin behar. Malda piko baten behealdean geunden, eta gora igo behar genuen ilun-ilunean eta ahal zen hotsik txikiiena aterearaz. 220 oin ziren ia-ia aldapan gora. Pixkanaka gure gidariaren atzetik joan ginen, isil-isilean. Hotzik ez genuen sentitzen, arropak blaiblaieginda edukita ere, berotu egin ginen igo ahala. Azkenerako, hogei bat minutu aurrerago, gailurrera iritsi ginen. Atseden hartzeko betarik ez, bide luzea gelditzen zen oraindik ere; isiltasuna nagusi zen gure artean.

Espainian bageunden ere, espainiarak kontrabandista-ehizan ibiltzen ziren beti, eta aise egiten zuen tiro batzuetan.

Espainiara iritsitakoan, Donostiako Kontsuletxe Britainiarrera eraman gituzten, eta handik Madrileko Enbaxadara<sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> Alan W. Cooper: Free to Fight Again. RAF escapes and evasions. 1940-1945. William Kimber, England, 1988, 158-60. or.

## INDARTSUA, INDARTSURIK BADA

“Indartsua, indartsurik gabe, Florentino Goikoetxeak, “Dédée”ren mugalari euskaldun famatuak, begirunea eta beldurra sentiarazten zizkion mundu guztia. 1941eko udazkenetik Liberaziora, “Dédée”k eta haren kideek mugaraino eraman zituzten gizon guztiak hari eskerrak igaro zuten mendia. Agure itzaltsu jatorra, Florentino Ziburuko herrian bizi da gaur egun, Donibane Lohizunetik hurbil. Hain ondo ezagutzen zuen mendiaren semea, euskaldun harro hau, ez frantsesez ez gazteleraez hitzik sekula ulertu ez zuena, bere herriko hizkuntzaz baino ez da mintzatzen. Gerra-garaian koloso nekaezin izukaitz hau gai zen gizon bat bizkarrean hartu eta Bidasoa ur handietan gurutzatzeko! Haren laguntzarik gabe, “Dédée”k eta “Comète” sareak ez zuten inondik ere hainbeste lagun eraman ahal izan Pirinioen beste aldera”<sup>2</sup>.

## FIDELA GUZTIZ

“Florentino Donibane Lohizunen bizi da, Angelutik 17 kilometrora. Muga pasatzeko mugalari berria da. “Dédée”k nahiago izan zuen Tomás [Anabitarte] baino, zeinak lehen bidaia egin baitzuen Arnoldek (Deppe) erreklutaturik. Francoren erregimenak Espainiatik kanporatutako euskalduna da, eta laster Frantzian ere haren atzetik ibiliko da Gestapo, harrapatu nahian. Florentinok mENDIA ONDO BAINO HOBETO EZAGUTZEN DU. BEHE-LAINOA OINAREKIN LURRA JOKA AURKITZEN DU BIDEA. MENDIAK EZ DU SEKRETURIK HARENTZAT. “ESPERA UN POCO” ESATEN DU GAZTELERAZ, IBILALDI BATEN ERDIAN, GAU BELTZ-BELTZ BATEAN; ETA, HARK BAKARRIK IKUSI DUEN ZUHAITZ BATEN ENBORRETIK BOTILA BAT KOÑAK EDO ESPARTINA PARE BAT ATERATZEN DU, HILABETE BATZUK LEHENAGO HAN ERRESERBARAKO GORDEAK. SARRI ASKOTAN ARDOAK TXOLINDUTA ZEBILEN, EZ GENUEN BESTERIK BEHAR! BAINA ODOL HOTZA ERAKUSTEN ZUEN BETI, MUGARA HURBILTZEAN. ETA, HORRETAZ GAIN, USAIMEN HARRIGARRIA DU (FIDA ZAITEZ HAREKIN MUGAZAIN BAT EHUN METROTIK IGARTZEKO), ETA ZALDI BAT BEZAIN INDARTSUA DA: GIZON BAT BIZKARREAN HARTU ETA BIDASOA ZEHARKATZEN DU, JOLASEAN BALEGO BEZALA.

Florentino euskaldun jatorra zen, zintzoa, leiala, beti erabateko fideltasuna agertzen zuena. Konfiantza oso-osokoa beti ere”<sup>3</sup>.

<sup>2</sup> Airey Neave: *Les chemins de Gibraltar*. Editions France Empire, Paris, 1972, 264. or.


<sup>3</sup> Cecile Jouan: *Comète. Histoire d'une ligne d'évasion*. Editions du Beffroi. Furnes, Belgique, 1948, 14-15. or.





**FLORENTINO JARDUNEAN**





## JEAN FRANÇOIS NOTHOMB "FRANCO" Oroitzapenak

Jean François Nothomb, klandestinitatean "Franco" izengoitia izan zuena eta "Comète" sarearentzat abiadore iheslariak Bidasoaz bestaldera eramateko pertsona guztiz garantzizkoa izan zena, honela mintzo da denbora luzean abentura-kide izan zuen lagunaz, argitaratu gabeko bere "Oroitzapenak" idazkian:

"Egia, Pirinioak zeharkatzeko ibilaldia liluragarria da. Urruñako baserri batetik atera gara, Donibane Lohizuneren hegoaldetik kilometro batzuetara; bata bestearen atzetik gabiltza gauean, oinak espartzuzko espartinen barruan, lurraldi hobeto atxikitzen zaizkiolako, nahiz eta bide-bukaeran zakarretara botatzeko moduan egon. Bi ordu inguruko bidea egin eta lehen gaina igaro dugu, Larrun mendia ezkerraldean utzita (1.000 metrokoa gutxi gorabehera), eta gero beste bi orduko jaitsiera etorri da, Bidasoa ibairaino, non muga dagoen. Beste aldera pasatu gara ibi batean zehar; ibaiak ur gutxi zekarren, belauneraino besterik ez. Mendian mugazain alemaniarrak ibili ohi dira, baina gauez ez dira

ageri. Espainiako aldean, ordea, zaindari asko izaten da mugan. Florentino, gure mugalaria, ardura handiz ibili da ibai ondoan dagoen Elizondo-Irun trenbide meharreko burdinbidea zeharkatzean, eta ardura handiagoz burdinbidearekin paraleloan doan errepeide nazionala gurutzatzean. Aldapan gora igo behar atze-ra ere, errepeidea pasatu orduko, eta han lasaitasun osoa berriz. Bideak Aiako Harria inguratzen du (edo Trois Couronnes, 950 metroko mendi ederra guztiz), eta behera berriz ere, lau orduko bidearen ondoren, Oiartzun aldera. Nekea sumatzen hasi gara, abiadoreetako batzuk batez ere, gehiago ibili ezinik baitau-de, entrenamendu-faltaz eta urduritasunez. Aurkitzen dugun lehenengo base-rrian gelditu gara. 5 gizon eta bikote bat bizi dira bertan, eta harriturik gelditu naiz andreak ez beste guztiak euskaraz baino egiten ez dutela ikusita, hitz bakar bat ere ez gazteleraz eta –zer esanik ez– frantsesez! Gure mugalaria, gainera, ohiko euskalduna da, sendoa eta indartsua haritza bezala, Espanian zein Frantzian jazarria: kontrabandoa besterik ezin egin eta mendia etxeko sukaldea baino hobeto ezagutzen du. Florentino, hura gizona! Frantsesez bi hitz eta gaz-teleraz hainbat esaldi baino ez daki esaten, eta ez darama Franco bihotzean, horixe da hari buruz esan daitekeen gutxiena. Baserrian pixka batean baino ez gara gelditu, eta beherantz jarraitu dugu Oiartzungo sarrerara iritsi arte. Han baserri-ostatu baten aurrean gelditu gara. Goizeko 5ak dira. Florentinok harri batzuk bota ditu lehen solairuko leihor batera, argi bat piztu eta geroxeago 20 urteko emakume batek atea zabaldu digu. Sukalde zabal batean sartu gara isil-isilik, hitz batzuk euskaraz eta emakumeak sekula ahaztuko ez dudan tortilla espaniar gozo-gozoa prestatu digu, hain goseak geunden denok. Jan egin dugu tortilla ogi bikain ugariarekin eta ardo beltz mikatza edanez. Otordua bukatze-ko, emakumeak ahuntz-gazta bat ekarri du, itxuraz ganbaran hainbat hilabete lehortzen pasatu dituena; harria bezain gogorra da, eta emakumeak ebaki zue-nean har txiki pila bat joan da ihesi gatzaren zulo guztietatik..., baina ez du importa, har eta guzti jan dugu, irrikaz eta gosez. “Dédée”k mugitzeko esan digu, auto bat dugula zain. Federico Armendarizena da, Donostiak iheslari alia-tuak etxe an hartzen dituztenetako batena. Ostatutik ehun bat metrora aurkitu dugu. Lau ingelesak autoan sartu dira, eta “Dédée”k eta biok oinez jarraitu dugu. 5 bat kilometro eginda, Erreneriako hiri txikira iritsi gara, eta han trena harti dugu Donostiara joateko. Lotan geratu gara biok ala biok. Donostiara iritsi gara 45 minutu geroago, eta Federicoren etxera joan gara. Hantxe daude ordurako 5 ingelesak. Ingaliterrako kontsulak ohartuta, Britainia Handiko enbaxadak auto diplomatiko bat bidali digu, abiadoreak Madrilera, enbaxada-ren egoitzara, eramateko. Onik daude orain, eta gu Frantziara itzul gaitezke, gure zereginha burututa.

Horrelakoxea dira bidaia guztiak oro har. Programa bat dago aldez aurretik finkatua, eta hari jarraitzen zaio ahal den neurrian eta noizik behinka gertatzen diren ustekabekoek eta nahasmenduek uzten dutenaren arabera”.

"Sekula ez dut ahaztuko beste gau batean gertatutakoa. Florentinorekin itzultzen ari nintzen bakarrik eta Bidasoa parean iristean ibaiaren goialdean eroritako euriek ura zakartu zuela ikusi genuen.

Ingelesak gurekin zeudenean, haiak zaintzeko ardura genuen; bidean hainbat ordu eginda, neka-neka eginda zeuden; eta nik ulertu egiten nituen, Paristik atera ondorengo hiru egunak akigarriak izan baitziren guztiz. Gure helburutik hurbilago, eta orduan eta beldur handiagoa zuten abiadoreek, alemaniarrek aurkituko ote gintuzten; ez zekiten soldadu hutsak eta mugazainak bereizten, eta ohikoa zen mendian baten bat lur jota geratu eta Florentinok edo nik (edo "Dédée"k, han baldin bazen) ibiltzen lagundu behar izatea... Itzulera askoz ere errazagoa zen. Jeneralean bizkar-zorro handiak eramatzen genituen, Frantzian aurkitu ezin ziren gauzez beteak, gure lagunen pozgarri. Gau hartan, Florentino, Bidasoa aztertu ondoren, ez zegoen ziur ibitik pasa zitekeen edo ez. Ezezkoan, Oiartzunera itzuliko ginengoa eguraldia noiz hobetuko zain. Baina, hala eta guztiz ere, ahalegina egin nahi zuen. Spainiako aldean geratzeko eskatu zidan eta arropa erantzi zuen lehen saioa berak bakarrik egiteko. 10 minuturen buruan etorri zen eta zeharkatzeko moduan zegoela esan zidan. Berriz gurutzatu zuen bere arropa eta bizkar-zorroa eramateko, eta, berriz ere, nire arropa eta bizkar-zorroarekin, eta laugarren aldiz, azkenerako, biak elkarrekin, galtzontzilotan... Mugazainenek harrapatu izan bagintuzte biak, edo ni bakarrik, ibai-ertzean larru bizirik, "pudoreari laido" egitea leporatuko ziguten. Azken aldi horretan Florentinorekin ibitik pasatu nintzenean, galtzak lepo inguruau neuzkan bildurik eta, beste eskuarekin makila batean bermatzen nintzen hirugarren hanka batean bezala; baina, laguntza horiengatik guztiengatik ere, ur-lasterra hain zen bortitzeta eta zakarra, ezen hosto baten gisa eramango ninduen. Urrats bakoitzean oina atzeraka herrestan zeramatela sentitzen nuen. Baina Florentino, berriz, seguru eta lasai zihohan aurrera. Zuhaitz zahar bat bezain indartsua da. Hotz egiten bazuen ere, ur-lasterraren aurka borroka egiteak berotu gintuen".

## "POLIKI-POLIKI..." "

Cecile Jouan izan zen Suzanne de Jongh-ek erabili zuen goitizena, eta Andrée de Jongh "Comète" sarearen sortzailearen ahizpa zen ("Dédée"ren ahizpa). Suzanne Bruselako Schaerbeek lizeoko irakaslea zen gerra-hasieran, eta Paul Wittek orientalista austriarrarekin zegoen ezkonduta. Belgikan sareari laguntza emateagatik atxilotu eta Alemaniara bidali zuten, bizia salbatu bazuen ere. Gerra ondoren, "Comète" sarearen abenturari buruz argitaratutako lehen liburua idatzi zuen<sup>4</sup>.

<sup>4</sup> Cecile Jouan : *Comète. Histoire d'une ligne d'évasion*. Editions du Beffroi. Furnes, Belgique, 1948, 23-25. or.

—“Doucement, doucement” -esan du Florentinok ahopeka (frantseset “doucement” -poliki-poliki- eta “tais-toi” -ixo- besterik ez du esaten, ez baitu hitz egiten euskaraz eta pixka bat gazteleraez baino).

Malda hasi da. Gizonek Urruñako baseria utzi dute ilundu duenean, “Dédée”ren azken gomendioak entzun ondoren. Florentino aurrena doa, bizkarrean iheslarien gauzak daramatzala bizkar-zorro astun batean. “Dédée” harén jarraian, bizkar-zorroaz kargaturik hau ere. “Les enfants” azkenak, bata bestearren atzetik, isil-isilean. Gaua iluna da, ilargirik gabea. Euri-konturik ez da, zorionez; Bidasoa ibitik zeharkatzeko moduan egongo da. Eguraldi txarra denean, ibaia ezin da igaro eta ur-jauzi baten gainean zintzilik dagoen zubi batetik zeharkatu behar da, zentral elektriko baten argi bizi-bizien pean: ibilaldi desatsegina da, eta itzulinguruak bost ordutan luzatzen du bidea.

Lehen atsedenaldea, maldaren erdian. Alde frantsesean dena ilun dago. Alde espainiarrean, aldiz, mendi-gailurren isla ageri da zero izartuan, artean ikusezin diren hirietako argiek pixka bat argiztaturik. Aurrera berriz ere. Argi keinukari gero eta handiago bat igartzen da eskuinaldean, gain batean. Bat-batean sortzen da, bortitz, biratu ahala inguru guztiak agertuz. Irungo itsasargia da, Hondarribiako muturrean. Laster, beste argi batzuk azaltzen dira haren ondoan. Irungo hiria dago han, Bidasoaren bokalean. Urrutiago, aurrerantz joanda, Donostia ageri da, lasai, argi txiki askoren distira batean, beste itsasargi baten inguruan, eta, zerumugan bertan, gaua oso iluna eta behe-lainorik gabekoa bada, Bilboko itsasargia jiratzen ikus daiteke.

Lehenengo kaskora iritsi eta ibilera arindu da. Jaitsiera hasi da, eta baita ero-rikoak ere, harekin batera. Nolatan erortzen dira gizonak Florentino eta baita “Dédée” baino askoz ere gehiagotan, bermatzeko makila eramanda ere? Ohitura falta! Malda handia da. Argiak desagertu dira batzuk besteen ondoren. Ibaurrean behe-behean bihurka dabilen hari zuria Espainiako errepidea da. Noizik behinka, auto bateko bi argiak ibiltzen dira hartan zehar, mugaren lerroa marraztuz.

Ur-laster oldartsu baten hotsa sumatzen da. Hotsa gero eta handiagoa da. Florentinok “grand silence!” eskatu du keinu bat eginda. Ura oso hurbil dago. Bi zuhaitzen artean azaldu da: Bidasoa, agudo-agudo bi ur-bazterren artean, zakarra eta zalapartatsua. Florentinok galtzen hankak gora bildu ditu, gizonek imitatu diote. Mugalariak baten eskua hartu eta ibian sartu da. Ur handirik ez dakar. Gizona aise iristen da beste aldera. Besteak adore hartu eta pasatu egiten dira. Jadanik talde guztia dago Espainiako aldean.

Ez da oraindik, ordea, pozezko oihuak egiteko ordua! Unerik arriskutsuena iritsi da: errepidea zeharkatu behar da, eta patruila espainiarrek zaintzen dute, tiro egiteko zalantzarik ez dutenak. Zelai bat gurutzatzen dute kontu handiz, trenbide bat gero. Errepidea pixka bat gorago dago, sasitan gora egin behar, haraino iristeko. Tentuz, Florentinok burua atera du adar babesleetatik kanpo, bazterrak begiratu eta... inor ez! Errepidera salto egin, korrika abiatu, haitz batera igo... Gizonak atzetik, “Dédée”k bat altxatzen du, irrist egin du eta. Denak desagertu dira beste aldean.

Maldan gora atzera ere, eta aldapa oso pikoa da oraingo honetan. Gizonak nekaturik daude. "Dédée" k esan die laster geldituko garela. "Berrehun metro", ziurtatzen du Florentinok. Bainha harentzat dena da berrehun metro! Hala ere, handik bost minutura, geldialdia egin dugu. Gizonek zigarro bat erre dezakete eta emandako mokadu bat jan. Florentinok botila bat koñak eta bere zahatoa atera ditu. Ahuntz-larruz egindako kantiplora moduko bat da zahatoa, eta bertako ardoz beterik dago. Gizonek ez dezatela gehiegi edan batez ere! Bidean egin berri dituzten lau orduek nekatu dituzte, eta beste hainbeste falta zaie babesle-kura iristeko.

Median gora jarraitu dugu, oso astiro orain. Ez da harritzeko tarte honetan "les enfants" etako bat atzean gelditzen hastea. Adoretu beharra dago, indar-falta aurpegitatu. Lotsa pixka bat ematen die "Dédée" ri nekatuta daudela aitortzeak, hura aurrera eta aurrera baitoa, kexarik gabe. Gainera, malda bukatu da. Florentino Trois Couronnes inguratzan duen bide zabalera iritsi da. Mendiaren hiru tontorrak nagusi dira zeruan. Bidea ibilgailuak ibiltzeko modukoa da. Argiak agertu dira berriz, oso hurbil, ardiek ihes egiten dute oin-hotsa entzun orduko, haien ezkilek dilin-dilin egiten dute gauean. Iristeko ordua da, eguna argitzen hasi du. Gizonek azken ahalegina egiten dute. Behera doa bidea... "Dédée" k baserri-ostatua erakusten die ibarraren beheko aldean. Han bukatzen da ibilaldia. Herri bat, trenbide baten luzeran... Hemen dago etxea. Florentinok harri bat bota du leihoa baten kontra, eta geroxeago atea zabaldu da. Gizonek beren burua aulkietan erortzen utzi dute, eta, bitartean, etxe-koandreak, hitz eta pitz, sua piztu eta tortilla bat prestatu du, zeinaren sekretua berak bakarrik dakien.

Jan ondoren, gizonek lo egingo dute. "Dédée" k arropa aldatu eta beste bost kilometro egingo ditu, Erreenteriaraino. Handik, tranbiaz Donostiara, Bernardoren (Aracama) etxera, eta han atseden hartuko du azkenerako, gauera arte. Orduan Bernardo eta biak "les enfants" en bila joango dira, eta handik tartetxo bat egingo dute oinez errepide batera iristeko, non auto ingeles bat egongo baita haien zain.

## "FLORENTINOK PRESA DU"

*Idazleak iheslari baten lekukotasuna jasotzen du hemen, zeinak 1943ko udazkenean Florentinok gidaturik muga igaro baitzuen. Ibaia ur handia zekarren eta ordezko ibilbidea, luzeagoa, hartu zuten, Irun-Endara zentral elektrikora zeramana, Endarlatsa pasatuta Berara bidean. Han zintzilik dagoen zubi kili-kolo batetik igaro behar da, eta, ibaia zeharkatu orduko, malda pikoa gora abiatu.*

"Baseria utzi genuen iluntzean. Ile beltzko gizonea genuen gidari. Haren atzetik, Donibane Lohizuneko kale ilunak zeharkatu genituen eta mendian barneratu. Bost lagun ginan; gurekin ofizial holandar bat zegoen, Alemaniako ihes egin eta ia bi urte eman zituena Espaniako mugaino iritsi arte. Gu baino zaharragoa zen -berrogei urte inguru- eta gure gidaria beldur zen bidaia ez ote zuen jasango. Bidean beste pertsona bat elkartu zen taldera, mugaz bestaldera era-mango gintuen mugalaria zen. Gizon handi indartsua zen, euskalduna. Haren buruak prezioa jarria zuen bai Frantzian bai Espanian.

Bi orduz ibili ondoren, baserri isolatu batera iritsi ginan eta bertan sartu. Subazterrean jende asko zegoen: bi gizon gazte, agure bat, haien emazteak, eta adin guztiak ume kopuru sinesgaitz bat. Katilu bana esne bero edan genuen, eta aurrera jo genuen. Ikusi ere ez zen ezer egiten, han ilun zegoen, eta denek musu-zapi zuri bana lotu genuen lepoan.

Bidexka oso meharra zen orain, oinak jartzeko adinakoa ozta-ozta. Nonbait ere, behealdean, ur-laster baten hotsak durundi egiten zuen. Euria ari zuen. Laster egon ginan hezurretaraino blai-blai bustita. Haizea atera zuen eta haren boladek euria bultzatzen ziguten aurpegiaren kontra gogor. Modu horretan hiru ordu eman eta gero, holandarra makal ibiltzen hasi zen. Ahal nuen guztia egin nuen hari laguntzeko, baina belaunak min ematen zidan. Erorikoaren ondorengo ibilaldi luzean min ematen hasi eta oraindik ez zitzaidan erabat oneratu; nekez nenbilen aurrera.

Georges niregana bildu zen; zer ordu zen galdetu nion. Ordu bata besterik ez! Goiza segidan etorriko zela iruditzen zitzaidan; eta sei ordu baino ez ziren pasatu, abiatu ginenez gerotzik.

Aldapan gora abiatu ginan, eta gure gidari gazteak ibarraren beste aldean dirdir egiten zuten argiak erakutsi zizkigun.

-Horra hor Spainia -esan zigun.

Baina okerrena etortzekoa zen oraindik.

Mendixkaren behealdean, ur-laster bizi-bizi baten parera iritsi ginan. Igaro egin behar. Kate bat eginez zeharkatu genuen, elkarri eskua emanet (gerriraino genuen ura, eta oso-oso bortitz zebilen). Baino holandarra, antza denez, atzean geratu zen: leher eginda zegoen. Beste aldera heldu eta ur-ertzera igotzen ginan bitartean, mugalaria haren bila itzuli eta sorbalden gainean ekarri zuen. Sekula ez dut antzekorik ikusi. Bidasoa pasatu genuela uste genuen. Baino, bai zera! Haren ibai-adar txiki bat besterik ez zen. Ibai nagusiak ur handiegia zekarren, euria zela-eta, eta zubi batetik igaroko genuen. Zubi horretaraino joan behar orain.

Errepide bat, ibarraren bihotzean zegoen herri txiki batera joateko... Han zegoen zubia, uharraren gainean zintzilik. Oholez eginda zegoen. Bata bestearren segidan jarrita zeuden, eta bi kableren artean esekirik. Gerriaren parean zegoen soka batek barandarena egiten zuen. Baino potentzia handiko bi arku-lanparak dena argitzen zuten... Bata bestearren atzetik igaro ginan beste aldera; taulak kulunka zebiltzan oinen azpian; ur-jauzia borborka, burrunbatsu, gure azpian. Ez nintzen harrituko, harrera tiroka egin izan baligute.

Gora berriz ere. Igoera hain zen aldapatsua eta hain zegoen sastraka itxiz nahaspilatua, ezen ez bainuen ezer ere ikusten aurrean. Bidexka bat, azkenera-

ko! Holandarra erortzeko zorian zegoen, eta guk ere ezin askoz gehiago. Gure mugalariak, ordea, gauean barneratzen jarraitzen zuen zitzu bizian. Gidaria aurrena zihoan eta noizik behinka, haren abiadura moteltzen saiatzen zen:

—Florentino! polikiago!

—Bai! bai! —erantzuten zion Florentinok eta are bizkorrago jarraitzen zuen. Azkenerako, herrixka baten itxura zuen etxe-multzo baten ondoan, gizon gazteak eta mugalariak elkarritzeta labur bat izan zuten, eta lehenengoak aurrera egin zuen holandarrarekin. Minutu batzuk geroago itzuli zen bakarrik.

—Hemen geratuko da —esan zuen—. Ezin du gehiago. Bihar etorriko gara haren bila.

Trenbide bat eta errepide bat zeharkatu genituen, horma txiki baten gainetik salto egin, eta trenbidean zehar jo genuen aurrera. Trenbidea tunel batean sartzen zen, eta han barneratu ginen. Iluntasuna erabatekoa zen, hain lodia, ezen ukitu ere egin zitekeen. Isilik genbiltzan, eskutik oraturik. Munduaren azkena ote zen hora, naturaz gaindiko abentura miragarri batean sartuak ote ginen? Ez dakit zenbat iraun zuen ilunpeetako bidaia hark, denbora geldirik zegoela ematen zuen-eta, baina azkenerako argitasun ahul bat urrunean nola agertzen zen ikusi genuen. Gero eta handiagoa egin zen, eta aurrekoen buruak igar genitzakeen, berriz aurkitutako zeruanislaturik.

Mendixkak eta mendixkak, besterik ez... Ez zirudien argietara hurbiltzen ari ginenik; batzueta, desagertu egiten ziren eta galdu genituela zirudien. Egunsentia zurbil ageri zen zerumugan eta oilarraukukurru kuka ari ziren urrun, dorre borobil abandonatua atzean utzi genuenean. Handik hurbil zegoen Espainiako muga-postua. Ibiltarien ilara gero eta luzeagoa zen. Georges eta biok ginen azkenak, Florentino guregana hurbiltzen zen noizik behinka agudoago ibil gintezen eskatzera, egunsentia baino lehen iritsi behar baikenuen. Azkenerako, pausorik egiteko gauza ez ginela uste genuenean, errepidea biratu eta ibarrean ezkutaturiko baserri baterantz jaisten zela ikusi nuen. Kea nagi zeruratzen zen teilatutik.

Ez zen dena bukatu, ordea! Dennis eta haren hiru lagunak, hamabi orduko ibilaldiak akiturik, zain zituzten oheetara joan ziren, baina, etzanda jarri orduko, alarma-oihu bat izan zen.

Bat-batean ahots batzuk entzun ziren gaztelerez hizketan, eta ile beltzeko gure gidari gaztea logelan sartu zen oldarrean.

—Agudo! Arropa! Soldaduak datozi!

Berehala jantzi genituen gure arropa zurrun bustiak, eta eskaileretan behera jaitsi ginen ukuilura. Handik ordu erdi batera, Florentinoren atzetik atera eta zelaiak zeharkatu genituen hurbileko baso bateraino iristeko.

Azkenerako, gure gidaria bila etorri zitzaigun: joanak ziren soldaduak. Gure artetik Florentinok hartu zuen lasaiturik ederrena: poliziak ezagutzen zuen, eta, atxilotuz gero, ez zion ihes egingo exekuzio-pelotoiarri<sup>5</sup>.

<sup>5</sup> Cecile Jouan : *Comète. Histoire d'une ligne d'évasion*. Editions du Beffroi. Furnes, Belgique, 1948, 118-121. or.

## “ZAUDE PIXKA BATEAN”

Gilbert Renault bretoia zen jatorriz, 1904. urtean jaio zen, eta erresistentzian “Rémy koronela” goitizenarekin ezagutu zuten. Ez zuen porrota onartu, eta 1940ko uztailaren lehen egunetan Londresera joan zen, De Gaulle jeneralaren jarraitzaileekin bat egiteko asmoz. Gutxi ziren garai hartan. Han, Londresen, Dewavrin koronelarekin, Frantzia Askaren zerbitzu sekretuen buruarekin, ados etorri eta Frantzia okupatura itzuli zen, Spainian zehar, zeregin zehatz bat betetzera: Frantziako portuak zelatatzeko informazio sare handi bat antolatzera. “Confrérie Notre-Dame” izena hartu zuen sare horrek. Gerra-ren ondoren, RPF (Rassemblement du peuple français) alderdi gaullistaren sorreran parte hartu zuen eta haren batzorde exekutiboko kide izan zen, nahiz eta geroago harrem-nak hautsi zituen De Gaullerexin. 1984. urtean hil zen. Idazle emankorra izan zen; lan asko idatzi zituen erresistentziaren historiari buruz, eta ikerketa-lan handia argitaratu zuen hiru liburutan “Comète” sareari buruz.

Andrée (de Jongh) Florentinori jarraitzen dio orpoz orpo. Florentino haren-gana itzuli da:

–Zaudе pixka batean –esan dio ahapeka gaztelera.

Espania aldera abiatu dira berriz ere. Oraingo honetan, hiru abiadore daramatzate, kanadar bat eta bi poloniar. Lehen begiratuan, Florentinok hiru gizonen indarra aztertu du, zenbateraino eutsiko dioten nekeari neurtuz. Dagoeneko badu Andréeren iraupenaren berri, askotan egiaztatu baitu bidean. Lehen egunetik beretik, haren sen ahaltsuak, haren sen ia-ia basatiak, aise aditzera eman dio neska gazte haren gorputz meheak, mendiari aurpegi emateko janzent dituen jertseak eta oihal lodiko galtza urdinek argalago egiten dutenak, inoren aurrean makurtzen ez den borondate batean berme hartzen duela.

Florentino sendoa da, eta ederra, baldarra izan arren; harena lehoiaren edertasuna da kasik. Handia, indartsua eta mardula, txapela zapala buruan, begitar-te atsegina, kopeta sartua eta zimurrez betea, ile beltzko adats itxiz estalia. Haren belarri handi zabalak, bi maskor handi haragitsuren pare, karraskarik ñimiñoena, kirrikarik arinena, zaratarik motelena nabaritzeko gauza dira, eta haren begirada, bitartean, gai da besteek ikusten ez dutena, besteei beharbada kezkarik ere sortzen ez diena, bereizteko. Kokotsa sendoa du eta adoretsua, eta, haren gainean, estuturik izaten ditu ezpainak. Bere izate guztiari kemen ahitu ezina eta erabateko leialtasuna darizkiola sentiarazten dizu.

Esku latz handiek belaunetan jarri ohi ditu ahurrez behera, lanik gogorrenak mantso egiteak ematen duen duintasunaz horniturik. Nolabait irudikatu behar izanez gero, nik aurkitzeko ohorea izan nuen Florentino hura haritz bat zela esango nuke, haritz bat, harkaitz batetik sortua.

–Zaudе pixka bat –esan du berriz ere gaztelera, ahopeka–. *Tais-toi (Ixo!) gehitzen du frantsesez.*

“Dédée” ez zen konturatuz hika hitz egiten ziola. Horrelako gizon baten ahoan, hiketa adiskidetasun-adierazgarri paregabea da.

Atzean Frantzia dago, okupazioaren kapa beltzaz estalirik, zeinaren azpian hainbeste arrisku dagoen ezkutuan. Haien buruen gainean zerua dago, izarrez betea eta Spainian altxatzen den mendi garai baten gailurrik moztua. Eskuinaldean, tarteka-tarteka, beste distira bat, aldizkakoa baina handiagoa: Higer lurmuturreko itsasargia da, Hendaiaz bestaldera, Bidasoaren bokaleaz harago. Gero hirugarrenez zeharkatu beharko da ibaia: ez, bosgarrenez, itzuleran ere igaro behar baita. Andrée de Jongh-ek hamasei aldiz egin du joan-etorri nekagarri hori, eta, beraz, berak bakarrik hogeita hamabi aldiz gurutzatu du Bidasoa norabide batean edo bestean, euri zein ateri, hotz nahiz bero.

Gau honetan Florentinok azaldu die ibaia igarotzea ez dela zaila izango, baina, euri-zaparrada handia egiten duenean, ibilaldia bost ordutan luzatu beharra dagoela eta, muga pasatu ondoren, ur-jauzi baten gainean zintzilik dagoen zubi bat igaro behar dela, zentral elektrika bateko argi bizien pean.

Orain, bere belarri handietako bat lurraldi itsatsita, Florentinok mendiko soinuak entzuten ditu erne. Bizkarrean, zorro handi bat darama, sekulako konkor bat bailitzan, hiru abiadoreen ekipaiarekin. Haren atzean ahoz behera etzanda, bizkar-zorroa sorbaldetan, Andrée zain dago, Florentinok aurrera jarraitzeko keinua noiz egingo. Atzean etzanda, bata bestearen atzean, hiru abiadoreak daude.

Zelatan dagoen piztia baten antzera, euskalduna geldi-geldirik dago. Andréek badaki Florentinok zuhaitz guztiak, sasi guztiak, harkaitz guztiak eta ia harri guztiak ere ezagutzen dituela. Baserritik atera baino lehen, espartinak probatu ditu abiadoreen oinetan. Bidean nonbait behe-laino lodia aurkitu dute, baster guztieng elkarri: pazientzia gutxiko mando bat bezala, Florentinok lurra jo du espartuzko zolarekin eta belarria zorroztu du, berak baizik sumatzentz ez duen oihartzun baten zain; gero, aurrera egin du zalantzak gabe. Aurreraxeago, Andréek harri batekin estropezu egiten du eta harria pirritan erori da harkaitzez harkaitz. Florentinok bira egin eta *doucement!* esan du xuxur-la batean. Nire lagun batek antzeko abentura bat bizi zuen behin Oloron aldeko mendietan, eta honelaxe esan zidan: “Nire artean esan nuen ni egon nienteke-ela harri hori erori zen leku... Azken finean, nahiago iluntasun hartan jarraitu; bertigoak joko ninduen, bestela, nik uste”.

Florentinok zahatoa darama soinean saiheska, aker-larruz egindako ontzia ardo lodi ia urdin batez bete zuen, baina oraindik ez du handik ezer edan. Andréek zuhaitz ihar batean gelditu dela ikusi du. Enborraren hutsunetik botila batzuk atera ditu: “koñak!” esaten die, eta neska gaztea kontrabandoa dela konturatzen da. Florentinok zahatoa hartzen du sorbaldatik, larruzko lokarri bati lotutako tapoia kendu, eta Andréeri eskaintzen dio. Honek pixka bat edan du ardo zakar garratz horretatik. Gero Florentinok abiadoreei pasatzen die zahatoa, eta barre egiten du poloniarrek zanga-zanga nola edaten duten ikusita. Gero bere txanda dator; zahatoa altxatzen du besoaren muturraino, burua atzera bota eta ahoa ardozko hari finarekin betetzen du; eztarriaren hondoraino erortzen uzten du eta den-dena irensten batera, arnasarak hartu gabe. Tentetzen da, tapoia itxi, zahatoa sorbaldan jarri eta, mendiaren masa beltz eskerga erakutsiz, zera esaten du:

-Monter, monter, monter, monter! (igo, igo, igo, igo)

Bideari ekin diogu haren atzetik, gainaren ertzera iritsi gara, eta berehala Irungo argiak agertzen dira urrunean, giralda baten itxuran; eskuinaldean, Hondarribia pasatuta, Higer muturreko itsasargiaren distira ahalsua ageri da; eta atzealdean, askoz ere urruagi, eskuinaldeko muturrean, Bilboko itsasargia dabil keinuka, hiru abiadoreen ibilaldiaren azken puntu seinalatuz, non kon-tsulatuaren kargu jarriko diren. Luzea izango den zerrenda batean lehenengoak dira hauek, eta Andréeek irribarre egiten du bere lagun Timothyk [M. Creswell] sentituko duen poza gogoan harturik. Orain mendian behera egin behar, eta ia igotzea baino nekagarriagoa da.

Kanadarrik galdetzen du harrituta: "Baina Espanian gauez lan egiten al da?"

-Zuek ez, edo zer? -erantzuten dio Andréeek.

John Ivesek azalpena ematen du: Inglaterra *black-outen* (itzalaldi) murgilduta dagoenetik ez zuen argirik ikusi gauean. Berehalaxe, birao egin du: makila batean bermatzen bada ere, irristatu, erori eta pixka bat aurrerago gelditu da lurrean. Florentinok bira egin eta *doucement!* gomendatzten die.

John Ives zutik jarri da, eskutik galdu duen makila bilatu du hartzamuka, aurkitu du, eta bideari ematen diote berriz ere. Mendian behera egin ahala, Irungo argiak aienatzen dira, eta gero Higerreko itsasargiaren distira ere desagertzen da. Makilaren puntarekin, Andréeek lurra aztertzen du kontu handiz, espartzuko zolako espartinen azpian zer dagoen jakiteko.

-Zaude pixka batean! -dio Florentinok gaztelera. Eta ibarraren behealdean bihurgune bihurriak marrazten dituen lerro zuri luzea seinalatzen du behatzarekin.

-Espainia!

Eta arrazoi duela egiazatzeko, argizko bi zirkulu handi agertzen dira behalde harten bihurguneei jarraika, errepeidearen lerroa argitzen dutela. Auto bat da, eta oso bitxia gertatzen da argiak geruza urdin fin zeharrargi batez margoturik ez dituela ikustea, hala egitera behartzen baitute alemaniarrek. Laster, auto espainiarra puntu gorri bat besterik ez da, errepeidearen bihurgune batek iresten duena.

Belarria zorrotuz, Bidasoak ura hurbileko itsasorantz azkar-azkar nola daraman entzun daiteke. Florentino gelditu da berriz ere, bira egin, eta, bere behatz handi haietako bat ezpaineran jarrita, zera aholkatzen die:

-*Grand silence!* -Behealderantz abiatu dira. Bat-batean ibaia agertu da; bi ibai-bazterren arteko ur-laster bizi horrek muga non dagoen markatzen du hemen. Florentinok galtzak erantzi eta haren hankak lotu ditu lepoaren inguruan; keinu batez halaxe egiteko gonbidatzen die hiru gizonei. Andréeek egin du dagoeneko, baina uko egiten dio lehenbizi pasatzeari:

-Haiek aurretik -esan du.

Buruko keinu batez ados dagoela adierazita, euskaldunak kanadarra eskutik hartu eta beregana dakar. Ura borborka dabil, aparrez betea. Andrée poloniarrei imintzio bat egin, ibi ikusezinean ausardiaz sartu eta Florentinorekin elkartu da beste aldean.

Fusila bizkarrean daraman gizonarena eginez, hantxe itxaroteko gonbidape-na egiten die Florentinok taldeko lagunei. Denek ulertu dute karabinero-patrulla batekin topo egiteko arriskua dagoela, eta horiek aise ematen diote behatza fusileko katuari. Euskalduna herrestan igo da ibai-bazter malkartsuan gora. Gorputza pixka bat altxatu du bere esku zabaletan bermatuz, entzuteari lotu, zutik jarri, eta bere atzetik etortzeko adierazi die. Arretaz ibai-ertzaren ondoko zelai bat gurutzatu du, trenbide baten lubetak zeharkatzen duena. Mugalariaren atzetik, trenbide hori igaro dute denek. Orain, zuhaixka batzuk seinalatu ditu:

—Zaudete pixka batean —xuxurlatzen du.

Andrée eta abiadoreak ezkutatu dira, eta, bitartean, gidaria urrundu da, bakarrik, adarrak baztertuz, batere hotsik atera gabe. Gorputz erdia atera du, ezker-eskuin begiratu, eta bat-bateko mugimendu bat egiten du besoarekin. Haren atzetik errepidearen galtzada inor-gabea pasatzen dute lasterka, bidexka harritsu batean gora igo, eta gelditu egiten dira harkaitz baten babesean, arnasa bere onera ekartzeko. Bazen garaia! Motore baten orroak urratu du gaueko isol-tasuna, hotsa handituz doa, bi faro handik argitzen dute ingurua, eta auto bat pasatzen da, urrunean galtzen da.

—Berrehun metro! —dio Florentinok, zeruan gora altxatzen den masa iluna erakutsiz.

Berreun metro: haur-jolasa. Bideari ekin berriz ere, baina segituan ikusten da berrehun metro horiek luzeegiak direla... Indarrak ahuldurik hainbat aste itxialdian eman eta gero, hiru abiadoreak gero eta astiroago dabilta, “Dédée” adorea ematen saiatu arren. Ahal duen guztian laguntzen ahalegintzen da, baina hiru gizonek ezin dute gehiago eta gelditu egiten dira. Haserre, Florentinok bira egin eta, behatza aldaparen gain aldera luzatuz, honela esaten die:

—Berrehun metro!

Sekula bukatzen ez diren berrehun metro horiek beti.

Ez al daki Florentinok zenbaki handiagorik gaztelerezala?

Ahalegin ikaragarria eginez, hiru abiadoreek aurrera jarraitzen dute maldan gora. Gidaria berehala konturatua da ez direla oso urrutira iritsiko, eta, sakonune batean daudela aprobetxatz, atsedenaldia egitea erabakitzuen du.

—*May I smoke a cigarette?* —galdetu du John Ivesek, itxaropen handirik gabe.

Florentinok, ordea, baietz erantzun du, ustekabean, abiadorearen pozgarri. Poloniairek agudo imitatu diote, eta kanadarrak lehen ahokada botatzen du atseginez. Zuhaitz hustu baten enborretik, beste zahato bat atera du Florentinok.

—Koñak!

Orain bai da koñaka, edo gutxi gorabehera. Koñak espainiarra. Gozoegia da baina berotu egiten du, eta badu gurearen antza pixka bat ere. Hiru abiadoreek zurrutada ederra edan dute, “Dédée”k bizkar-zorrotik Tante Go (Elvire De Greef) adeitsuak prestatutako ogitartekoa ateratzen duen bitartean. Florentinok bere partea jasotzen du, eta saiheska daraman zahatotik ateratzen den urdin koloreko ardo beltzezko hari bukaezin batekin bustitzen du.

—*Monter, monter, monter, monter!* —esaten die, azken mokadua jan eta gero.

Bideari lotu dira berriz ere, eta oraingo aldapa lau ordukoa da. Abiadoreak

gero eta nekezago ibiltzen dira. Gehiegizko karga garraiaturik itsasoan lorratza temati uzten duen itsasontzi bat bezala, Florentinok aurrera egiten du abiadura berberaz beti, zaku handia bizkarrean duela.

Azkenerako, goialdera iritsi gara. Errepide bat dago han, eta ekialdean dezentez handiagoa den gailur bat ageri da, malkartsua eta koskaz betea, argitzen hasitako zerua ebakitzentzat.

—Aiako harria —esaten du Florentinok.

Guk les *Trois Couronnes* deitzen dugun menda da, ibarrera jaisteko errepideak inguratzen duena. Ezkila-zaparrada asaldatu batek ahuntz-talde ikusezin baten presentzia adierazten du. Haien loa urratu dugu eta ihesi doaz itsumus-tuan, beherago.

Nolako atsegina izango litzatekeen gure oin nekatuentzat errepide horretan barrena ibiltzea! Baino Florentino irmo agertu da: errepidea zeharkatu eta behabehean ikusten den herriraino iritsi beharra dago hartzintxarrez estalitako lurretan zehar. Herri horretan tren-geltokia ikusten da, zenbait farolek argiturik, eta trenbidea, erdirik erdi gurutzatzen duena. Zorionez, malda ez da oso pikoa.

Herriaren bukaeran, baserri isolatu bat dago. Florentinok harri bat hartu eta kontraleho baten kontra jaurti du. Zurezko leihoko-tapak itxita segitzen du, baina, minutu baten buruan, morroilo batek kirrinka egin eta ate astuna erdi irekitzen da. Bata bestearren atzetik iheslariak sartzen dira gela nagusira, Florentinori jarraituz. Atea eta morroiloa itxi, eta baserritarra argia piztu du. Oinutsik, eta soinean mantarra eta marra beltzedun gonazpiko gorria besterik ez duela, emakume batek su egin du beheko suan, koipez zartagin bat igurtzi, arrautzak hau-tsi, irabiatu, urdai-zati batzuk bota, eta tortilla harro bat prestatzen du, denek gose handiz sabeleratzten duguna.

—Orain lotara —esan die “Dédée”k bere hiru “enfants”ei.

Besterik ez dute nahi, baina zerbaitek aztoratzen du kanadarra:

—Et zu?

—Ni ez nago nekatua —erantzun zion neska gazteak—. Arropa aldatu eta Erreenteriara joango naiz. Hemendik oso hurbil dago; ezta, Florentino?

—Eta gero? —galdezka jarraitzen du John Ivesek, Andréeren kemenak eta irauenak miretsirik.

—Gero? Donostiara joango naiz tranbian, eta zuen bila itzuliko naiz Santiago-rekin (Aracama).

Florentino, berriz, ezin da baserri honen babesetik kanpora arriskatu, karabineroak aspaldi baitabilitza hura harrapatu nahian. Andréek arropa aldatu eta oinez abiatzen da Erreenteriarantz: beste bost kilometro, mendikoei gehitu beharrekoak. Tranbia kirrinkari hori batera igo da, eta Pasaiako portuan barrena Donostiara iristen da. Santiago bere gasogenozko auto zaharra hartu eta “umeak” hartzera doa. Geldialdi labur baten ondoren, Bilbora joango dira goizeko trenean, barazkiak saltzen doazen baserritarren artean<sup>6</sup>.

---

<sup>6</sup> Rémy: *Réseau Comète*. Librairie Académique Perrin, I. liburukia. Paris, 1966 (143-149. or.).

## MUGALARI IAIOA

*George Duffe, lanbidez British Airwayseko pilotu izandakoa, Halifax bonba hegazkin bateko kopilotua izan zen, alemaniarrek hegazkin erasotzaileen % 8 lurrera botatzen zutela kalkulatzen zen garaian. Bere lehen eraso-irteera 1942ko ekainaren 22n egin zuen. Mulheim hiria zuten jomuga. Zortzi laguneko eskifaia zen, eta Georgek ez zuen inor eza-gutzen aurretik. Holanda zeharkatzean, DCAk hegazkina ikusi eta tiro egin zien. Lurrera erori ziren, eskuineko hegala errrotik aterata. Georgek paraxutaz salto egin zuen lurretik 500 metrora zegoela. Bere lagunetako bat airean hil zen, eta beste bi atxilotu zituzten, lurrera iristean. Georgek ihes egin zuen. Erresistentziako talde batzuk deseginda zeuden, Gestapok infiltratuak sartzea lortu baitzuen, eta, hori zela eta, George Dufek 10 hilabete eman behar izan zituen Holandan ezkutaturik. 1943ko irailean iritsi zen Euskal Herrira, ebakuazio luze zail baten ondoren. Bi egun pasatu zituen ezkutuan Kattalin Agirreren etxearen, Ziburun. Abiatzeko egunean, Florentino eta "Franco" zeuzkan zain Hendaia-Paris trenbidearen tunelean:*

"Eguna argitu aurretik pedalei eragiten ari ginen jadanik errepide lasai estu batean, Donibane Lohizunetik Ziburura joateko. Ziburun etxe seguru batean ostatu eman ziguten, herria esnatu baino lehen. Lehotik itsasoia ikusten zen, bai eta kostaldeko defentsak eta soldadu alemaniar zenbait ere. Etxean beste pilotu batekin elkartu ginen; hegoafrikarra zen eta derrigorrez lurreratu behar izan zuen Frantziako iparraldean hiru aste aurretik. Ez zen segurua denok han ego-tea; gau hartan zeharkatuko genituen Pirinioak mugalari iaio batekin. Eguna ilundu bezain laster etortzkoa zen gure bila. Egun gehiena atsedenean eman genuen, bizikletazko bidaiaiak leher eginda utzi baikintuen, eta indarrak bildu nahi genituen gaeke ibilaldirako. Mendi-gidariak (Florentino) olanazko zapata-pare batzuk ekarri zituen, ibiltzean soinurik atera ez genezan. Sakeletan genuen diru frantses guztiaz gabetze agindu zigun; bestela, Spainian harrapatuz gero, dibilita-kontrabandoa legalki leporatu eta Britainia Handiko kontsulak nekez aterako gintuen kartzelatik. Dena prest zegoenean, etxekoandareari (Kattalin Agirre) agur egin genion etxe-atarian eta aurreko gidaria (François Nothomb), Bordeletik lagundu ziguna, gurekin abiatu zen Donostian agintari britainiarrei bisita egiteko.

Gaua oso iluna zen eta euria ari zuen. Nekez ikusten genuen aurrean zegoe-na. Zazpi ginen eta eskutik oratu genion batak besteari, elkarri laguntzen genion malda pikoetan gora igotzen.

Orduak eta orduak eman genituen aldapan gora, gutxi batzuek baino eza-gutzen ez zituzten bide mehar inor-gabeetan aurrera, hezurretaraino blaitzen ziguten uhar biziak gurutzatzen. Apenas hitz egin genuen ordu luze nekagarri haietan. Gero atertu zuen, hodeiak desagertu ziren eta azkenerako mendien isla aparta ikusi ahal izan genuen zeru izartuan ebakita. Patruila alemaniarra eta espinolak zebiltzan mendian, eta bagenekien, guardia espiniarrek harrapatuz gero, alemaniarren eskuetan utziko gintuztela, Espainiako lurretan egonik ere.

Aldapan gora jarraitu genuen, aurretik zebiltzanen urratsei segika, alboetan zer zegoen jakin gabe, iluntasunak dena hartzen baitzuen. Ibitik pasatu beharreko erreka, barea eta ez oso sakona normalean, emari handiko ibai bihurtua zen, arriskutsuegia oinez gurutzatzeko. Beste aukera bat besterik ez zegoen: zubia erabiltzea, baina zaindu egiten zuten.

Argi bat ageri zen txabola batean, zubi estu zintzilikariaz bestaldean. Pixkanaka joan ginenei aurrera, bi minututik bi minutura, astiro-astiro, zubia zabunka ibil ez zitezen. Une larriak izan ziren guztiz. Azkenerako, denek zeharkatu genuen zubia eta aurrera jo genuen. Euri-zaparrada handia hasi zuen, eta gure janzkiak, ahaleginean lehortu zitzaitzigunak, busti egin zitzaitzigun berriz ere. Malda ia bertikal batean gora igo ginenei, zuhaixkei oratuz, nahiz eta eskuetan ebakiak egin eta hankak eta aurpegia harramazkaz bete. Gero, aldapan behera egin genuen, estropozuka; eta, bat-batean, gure azpian, guri zenbait miliakoa iruditzen zitzaignean tarte baten ondoren, Espainiako argiak agertu ziren, Askatasunera iristeko gure atea. Minutu batzuen buruan, Frantziako lurraldetik Espainiakora paseak ginenei. Baina ez geunden oraindik seguru. Saihestu egin behar guardia espainiarra, eta eguna argitzen ari zuen.

Gure arazoak ez zeuden oraindik konponduta, espainiarrek jendea ziega zikin zorriz beteetan sartzeko ohitura desatsegina baitzuten, eta hantxe uzten zitzutzen betebehar guztiak osatu bitartean. Nabaria zen guk ez genuela espainiarren itxurarik, ilehorriak baikinen batez ere. Mugalarriak esandako etxe batean afaldu eta gosaldo egin genuen; gure oin minberatuak garbitu eta gure harramazkak aztertu genituen. Pilotu kanadarrak oinak odoletan eta babaz beteak zeuzkan, baina merezi izan zuela ziurtatu zigun. Ibilaldian hamalau ordu igaro genituen oinez gelditu gabe.

Donostia kontsuletxe britainiarrean bazekiten iristekotan geundela, eta auto bat prestatu zuten gau hartan bertan Madrilera zuzenean joan gintezen.

George Duffeek idatzia (DFC).  
India 1946.



Florentino Goikoetxea eta George Duffee pilotu britainiarra Bidasoa aldeko mendietan. 1955. urtean.

## “GAU MINEAN”

Airey Neave, politikari kontserbadore britainiarra, 1916an jaio zen. Bretainia Handiko tropa expedizionarioetakoia izanda, Frantzian harrapatu zuten alemaniarrek, Calaisen, 1940ko maiatzean, eta kontzentrazio-esparru batera bidali zuten. Handik ihes zuen, baina Gestapok atxilotu eta Colditz-ko gazteluan sartu zuten. Handik ere, hainbat saiotan huts egin ondoren, ihes egin zuen eta Frantzia-Espainia-Gibraltar bidean zehar Londresera iritsi zen 1942. urtearen hasieran. Han zerbitzu sekretu britainiarreko M19 atalean hasi zen lanean. Atal horren zereginan soldadu aliatuei Europa okupatutik ihes egiten laguntza zen, eta orduan harreman estua izan zuen “Comète” sarearekin. Alderdi Kontserbadoreko ordezkari garrantzitsua izan zen eta Margaret Thatcherren hurbileko lankidea. IRAK hil zuen 1979an.

“Comète” sareari buruzko bere liburuan Florentinoren atze-aureak mirespenez kontatu zituen:

“Gaua etorri eta Florentino “Dédée”k gidatzen zuen ilararen buru jartzen zen. Bikote aparta, mendiko erraldoi hori eta haren lagun zimela!

Florentinok berezko sena, berezko ezagutza zuen mendian ibiltzeko! Gaurik ilunenean, elurterik gorrienean edo behe-lainorik itxienean, infernuko abiadura berean ibiltzen zen beti, sekula ere galdu gabe.

Noizik behinka gelditu eta arrastoa usaintzen zuen ehiza-zakur baten antzeera; lurra jotzen zuen espartinarekin eta are arinago jarraitzen zuen, bere erraldoi-ibileraz; leher egindako gizon haiiek jarraitzen zioten, iluntasunean estropezuka eta irristaka, eta astiroago joateko alferrik erregutzen ziotela. Halako eta holako enborraren ondotik pasatzean edo ezagutzen zuen haitz batera iristean, besoa sartu eta koñak botila edo espartin pare bat ateratzen zuen, hilabete batzuk aurrerago han ezkutatu zituenak. Euskaraz baino ez zuen egiten, frantsesez *doucement! doucement!* eta *tais-toi!* besterik ez zuen esaten, esapide horiek sarri askotan erabiltzen bazituen ere.

Frantxiaren (Usandizaga) baserritik abiatu aurretik, “Dédée”k hainbat gomendio egiten zizkien bere ardurapekoei, eta Florentinori jarraitu behar ziota la azaltzen zien, bata bestearen atzetik, isiltasun osoan, eta bidean emango zi-tzaizkien aginduei kontra egin gabe. Horren ondotik, Florentinok bere egundoko bizkar-zorroa ixten zuen, koñak zurrupada luzeak muturretik edaten zituen bitartean, eta, gero, abiadoreek jantxitako espartinak aztertzen zituen. Jarraian, mendiko makila sendoak banatzen zitzaizkien.

Ehun iragazgaitzez egindako galtza urdinak eta jertsea jantzia, “Dédée”, bitartean, alde batera gelditzen saiatzen zen eta bizkar-zorroaren uhalak finkatzen zituen bere sorbalda ahuletan.

Errenkada gaez abiatzen zen, Urruñatik urrundu eta mendiari aurre egiten zion, lehenengo aldian hamabi bat kilometroko bidea eginez, Hondarribiako itsas-argia ikustera iristeraino, zeinaren argiak inguruko mendixken tontorrak korritzen baitzituen bere distira horiarekin.

Ordubete geroago, Espainiako herrietako lehenengo argiak agertzen ziren, eta, ibarraren azpialdean, Irun muga-hiria, Bidasoaz harago<sup>7</sup>.

Hemendik aurrera abendura arriskutsua izaten zen –eguraldia kaxkarra baldin bazen, batez ere–, ibairaino jaisteko bide-zidorra malda handikoak baitzen eta euriak edo elurra guztiz irristakor bihurtzen baitzituzten. Ibaia inguratzen zuten haitzarte sakonetan barneratu ahala, gero eta ilunagoa zen gaua. Batzueta, ur-lasterraren goraldi handiegi batek ibitik igarotzea galarazten zuen eta itzulinguru luze bat egin beharra zegoen, ondo argituta eta karabinero espainiarrek zainduta egoten zen zubi batera iristeko.

Ibaira hurbildu zirenean, iheslariek Espainiako ur-ertzaren ondoko errepidea eta haren azpiko trenbidea ikusi zituzten. Ibaiko ura bortizki eta orroka oldartzen zen itsasorantz. Han, Florentinok eskua jaso eta geldi zitezela eta sasien artean kokoriko jar zitezela agintzen zien denei, berak aurrerago egiten zuen bitartean, bazterrak aztertzeko. Gaua argitsua zenean, karabineroren bat errepidean zehar igaro zitekeen patruilatzen, ibaiaren beste aldean, eta kontuz ibili beharra zegoen, gizon haien mugitzen zen guztiari aurre-abisurik gabe tiro egiteko agindua baitzuten.

Dena lasai zegoela baieztautu ondoren, Florentinok keinu bat egiten zion “Dédée”ri, eta honek, hotsik atera gabe, galtzak kentzeko eta lepo-inguruuan lotzeko agintzen zien denei.

Taldetxoaren aurretik, Florentino ur-lasterrera jaisten zen orduan, hondoa ikertzeko. Ibitik pasatzea bazegoela irudituz gero, gizonek kate bat osatzen zuten eskua elkarri emanet eta, euskalduna gidari, ibaiaren zeharkatze arriskutsua hasten zen, gerriraino ur izoztuan sartuta. Pausu txiki bat gaizki egiteak itotzea ekar zezakeen<sup>8</sup>.

“Dédée” azkena izaten zen, eta makina bat aldiz lagundu behar izan zion baten bati. Haren ardurapeko gizon haiek harriturik gelditzen ziren neskak egoera guztiaren erakusten zituen indarra eta iraupena zircla-eta.

Espainiako ibai-bazterrera iritsita, hotzez hezurretaraino, gizonek galtzak janzten zituzten trenbidearen ezponda harritsuaren gora igotzeari ekin aurretik. Igoera gogorra zen, baina egin beharrekoan, trenbidea zeharkatu behar baitzen errepidera ailegatzeko. Sasitan uzkurturik, trenbidetik hurbil, Florentinok errepidea eta muga-postu espainiarren argiak aztertzen zituen. Postuaren surrealdean, mugazain bat zegoen, oinak lurraren kontra joka berotu nahian, Florentino ezkutaturik zegoen lekutik tarte batera.

Karabineroak bira egin bezain laster, Florentinok ezpondari ekin zion, eta, jauzi batez trenbidea gurutzatuta, errepidera iritsi zen. Harago, beste ezponda bat zegoen, alboetan sustraiak eta sasi arantzatsuak zeuzkana. Besoen indarraz altxaturik, segundu batzuk aski zituen euskaldun ahaltsu hark sasien babesean gordetzeko, eta haraino jarraitzen zioten banan-banan abiadoreek, lur jota.

---

<sup>7</sup> Ibai horrek Frantzia eta Espainia bereizten ditu 12 km-tan eta Bizkaiko Golkoan itsasoratzen da. Ibai horretan Faisai uhartea dago, non Pirinioren Ituna izenpetu baitzen 1659an.

<sup>8</sup> Horrela hil zen 1943ko abenduan Antoine de Ursel kondea, “Comète” sarearen agintaritzan Jean Greindol ordezkatu zuena.

Sarri askotan, abiadore bat edo beste bidean erori eta "Dédée"k esku hartu behar zuen, errepiidearen beste aldean zegoen ezpondaren aldapa pikoa igotzen lagunduz.

"Dédée" sekulako ausardiaz eta iraunpen fisikoaz horniturik zegoen, eta ez zuen behin ere ahuleziarik agertzen. Bere ereduarekin eta bere adore menderae-zinarekin, bidekideen bihotza altxatzen lortzen zuen beti, eskumuturrez baliaturik ere batzuetan!

1942ko uztailaren gau gabean, Florentino, "Dédée" eta abiadore-talde bat Espainiara bidean zihoazela ia-ia erori ziren zuhaixken artean ezkutaturiko bi soldadu alemaniarrek mugatik hurbil jarri zieten segadan.

Iheslariek ozta-ozta ihes egin zuten jazarleen zelatatik eta basoan barreiatu ziren. Han egon ziren ezkutuan, arriskua noiz bukatuko zain. "Dédée"k bildu zituen orduan, eta Frantxiaren (Usandizaga) baserrira itzuli ziren. Handik bi egunera abiatu ziren berriz, eta helburua lortu zuten bigarren hartan.

Behin edo behin gizonen bat galdu zen gauean –oso-oso gutxitan baina–, eta, Espainiako Guardia Zibilak atxiloturik, Miranda de Ebroko preso-esparrura bidaltzen zuten usteltzera.

Muga igarota, Florentino Espainiako isurialdea igotzen hasten zen, Aiako Harriko tontorrera zeraman mendian gora. Abiadoreek asnasestuka jarraitzen zioten, ziraldoka ibiliz nekea zela-kausa. Haietako batek egun batean aitortu zidan "Dédée"ren zango lirainak ikustea, bere aurretik baitzioan nekaezin, eman ziola azkeneraino jarraitzeko borondatea! Ordu batzuetan ibili behar horrela oraindik ere.

Gizonen bat etsitzen hasten zela ikusiz gero, "Dédée"k atzera egin eta haren ondoan ibiltzen zen alai hizketan, animoak emateko, eta ez zuen onartzen inondik inora bere mutilak koñak edo ardo zurrutada bat edatea babeslekura iritsi arte, gehiegi lasaitu eta ibiltzeko gogoa galduko zuten beldurrez! Aiako Harriko gailurretik behera, jaitsiera leuna zen, belardi zabaletan zehar, non ezin konta ahala artalde baitzebiltzan bazkan.

Kontu handiz, zerumugan Guardia Zibilaren uniforme berdea agertzeko beldurrez, talde txikiak atseden hartzen zuen baserri bakarti batetik hurbil, azkenetako.

Florentino bakarrik aurreratzen zen etxeraino, gainerakoak belar luzeen artean ezkutaturik gelditzen ziren bitartean, eta harri koxkor bat leiho batera boteaz iragartzen zen iritsiak zirela. Atea zabaltzen zen azkenerako, etxe-koandراءaren aurrean, eta honek keinu bat egiten zion Florentinori inguruan dena lasai zegoela adierazteko. Abiadoreak zorioneko sukalde hartako epelean sartzen ziren oldarrez, eta blai-blai egindako arropak lehortzen jartzen zituzten segituan, etxe-koandراءak patata-tortilla eder bat prestatzentzien bitartean.

Sabela berdinduta eta bero-bero, gizonak ahal bezala paratzen ziren lotarako eta indarberritzeko. "Dédée"k, bitartean, blusa eta gona berriz jantzi eta bost kilometro gehiago egiten zituen mendian zehar, Errenteriako hiri txikira iritsi eta, han tranbia hartuta, Donostian sartzeko.

Bere lagun Bernardoren etxera joaten zen [Arakama], eta han atseden hartzen

zuen gauera arte. Gero, elkarrekin autoa hartu eta baserriraino joaten ziren, abiadoreak hartu eta Donostiako errepidean aurrera abiatzeko.

“Monday” (Michael Cresswell) autoaren bolantean zain zuten guneraino ailegatzen ziren; “Dédée”k eta Bernardok (aracama) harekin hitz eta argibide batzuk trukatu eta nork bere bidea hartzen zuen.

“Monday”k eta abiadoreak kontsuletxe britainiarreko bidea hartzen zutén orduan, eta Bernardo, bitartean, “Dédée” baserrira eramatzen zuen. Han Florentino zeukan zain.

“Monday”k Jean Greindlentzat emandako mezuak eta dirua aldean zeramatzala, “Dédée”k Frantziako bidea hartzen zuen berehalan.

Kontaketa zoragarri eta zirraragarri hori entzun nuen astero-astro, 1942. urtearen bukaera arte! Lekukotasun horiek bihotzeraino hunkiturik, nire artean esan nuen nahiatezkoa zela M19 atala bere esku zegoen guztia egitea bai “Dédée”ri laguntzeko bai etsaien eskuetan eror ez zedin kosta ahala kosta sainesteko!


Atxilotuz gero zer gertatuko zitzaison ondo baino hobeto jakin arren, “Dédée”k sekula ez zuen onartu bere zeregin arriskutsuan ordezkatua izatea!<sup>9</sup>

---

<sup>9</sup> Airey Neave: *Les chemins de Gibraltar*. Editions France Empire. Paris, 1972, 268-273. or.







**“DÉDÉE”, FRANTXIA USANDIZAGA  
ETA JUAN MANUEL LARBURUREN  
ATXILOTZEA. FLORENTINO LIBRE**



## “BIHAR, EURIRIK EZ”

1943ko urtarrilaren 13ko gauean, “Dédée” eta “Franco” (Jean François Nothomb) Paris-ko Austerlitzeko tren-geltokitik abiatu ziren Donibane Lohizune aldera, abiadore-talde batekin. Haiez gain, tren bereko beste konpartimentu batean “Dédée”ren aita zegoen, Frédéric de Jongh, Londresera eraman behar baitzuten alemaniarrak haren atzetik zebiltzalako. Hilaren 15ean Urruñako “Bidegain-Berri” baserrirainoko ibilaldia antolatu zen. Han, Frantzia Usandizaga baserri-jabeak hartuko zituen, Juan Larburu errefuxiatu hernaniarraren laguntzaz, gauez Bidasoa aldera egiteko unea etorri arte. Hiru errefuxiatu euskaldun, Maritxu Anatol, Ambrosio San Vicente eta Alejandro Elizalde iheslariei lagundu zieten mendiko bidearen hasieran:

“Laster utzi gintuzten –gogorarazten zion “Dédée”k Rémy koronelari– eta Frantxiaren baserrirantz abiatu ginen. Gure hiru mutilak nekatuta zeuden ordurako eta ez zuten ekipo egokirik eguraldi txarrari aurre egiteko; eta bada-kizu jeneralean abiadoreei ez zaientza ibiltzea gustatzen. Gainera, hiruetako batek sendatu gabeko zauri bat zuen eta hanka bat arrastaka zeraman. Ibilaldiak ez zuen batere xarmarik; hori baino gutxiago ezin esan: gogoan dut nola euri-bolada izoztuek jotzen gintuzten elur urtu moduko bat gure gainera boteaz.

Bidean Florentino elkartu zen taldearekin. “Zer? Gaur gauean pasatuko gara, zure ustez?” galduen zion Andréeek. Euskaldunak zalantza erakutsi zuen burua astinduz, hiru abiadoreak nola zebiltzan ikusita. “Bihar euria egingo du?” jakin nahi izan zuen Andréeek. Florentino bide-zidorren ondoko erreka baten aurrean gelditu zen eta euria uretan nola erortzen zen begiratu zuen. “Bihar –esan zuen gazteleraz–, euririk ez”.

–Ondo da –esan zuen Andréeek–. Gizonak baserrira nola iristen diren ikusi eta orduan erabakiko dugu zer egin.

Urruñako baserrirainoko bidea bi ordukoa zen gutxi gorabehera, eta lur heze eta lokaztuetan barrena igaro behar zen askotan, errepidea alde batera utzi behar baizen arriskua txikitzea. Hiru gizonek Frantxiaren baserrian sartzean zer itxura zuten ikusita, Andréeek pentsatu zuen bere artean: “Gaur gauean ezin dira inondik inora pasa”. Leher eginda zeuden, izan ere.

Tante Go (Elvire De Greer) Donibane Lohizunera jaitsi zen berriz, Florentinok utzitako bizikletarekin, eta, bitartean, Andréeek gaua gidariarekin eta hiru gizonekin Frantxiaren etxeen ematea erabaki zuen. Frantxiak kontra egin zion, ordea. “Beldurrak nago –esan zuen–. Espainiara pasatzen den jendea hartzen dutela esaten ari dira bazter guztieta. Ez dut nahi zuek gaua hemen pasatzerik”.

–Baina –protesta egin zuen Andréeek–, nora joatea nahi duzu? Gorde egingo gara, ez gara behin ere agertuko.

–Ondo da –onartu zuen Frantxiak–, atzoko gelara joan zaitezte eta ez zaitezte handik mugitu. Ez dut nahi inork aurrealdean ikus zaitzaten.

Surik ez zegoen sartu ziren gela hartan. Barruko harrak bultzaturik, Frantzia

segituan itzuli zen: "Zatozte berotzera –esan zien gizonei, hotzez akabatzen bai-tzeuden–. Ez da inor etorriko euri honekin.

Andréek keinu bat egin zien hiru abiadoreei bere atzetik joateko, eta sala handira igaro ziren Florentinorekin. Zurezko su ederra erretzen ari zen tximinia garai batean. Berehala, Frantxiaren zakurrak zaunka egin zuen gauean. André altxatu zen, mundu guztia lehengo gelara atzera ere eramateko prest, baina Frantxiak ez mugitzeko adierazi zion keinu batez, eta bere semea bidali zuen zer gertatzen zen ikustera. Mutil pijoia berehalako batean itzuli zen, amari zerbait euskaraz esan zion, eta amak azaldu zuen: "Ezer ez da, datorrenak ezagutzen zaituzte, eta badaki gizonak pasatzen laguntzen dudala." Andréek baserriko morroia sartzen ikusi zuen. Bitarteko gisa erabili zuen gizon hori, bere bizkar-zorrotik hainbat gauza falta zirela konturatu zen arte. Gizon hark lapurtu zituen? Edo haren patroiak? Andréek ezin zuen esan, baina ez zuen batere atseginik sentitu gizon hark arratsalde-tarte bat Frantxiarenean ematen zuela ikusirk.

Biharamun goizean, Florentinok Donibane Lohizunerako joateko proposamen-a egin zion neska gazteari, erosketa batzuk egin behar baitzituen han, baina Andréek uko egin zion gonbiteari: "Ez –errefusatu zuen–. Ez dut ezer egiteko han behean eta, behingoz atseden hartzeko aukera izanda, nahiago hemen gelditu."

Florentino Donibane Lohizunera joan zen. Herri hartara iristean, San Vicenteren etxetik pasatu zen, eta Tante Go-rekin elkartu zen han.

—"Nik han pasatu nuen aurreko gaua –esan zidan Greef andreak–, bezperan beranduegi egin zitzaidan-eta Angelura itzultzeko eta, gainera, blai-blai eginda nengoen. Maritxuk [Anatoli] txabusina bat utzi zidan eta nire arropak lehortzen jarri zituen, pontxe bero-bero bat edaten nuen bitartean. Ni larriturik nengoen, "Dédée" arriskuan zegoela susmatzen nuen, eta gogoan dut nola esan nion Maritxuri: "Aizu, Maritxu, susmo txarra hartu dut. Bihar goizean Angelura joango naiz eta arratsaldean baserrira itzuliko naiz. Zerbait gertatzen bada, badakizu zer egin behar dugun: Baionako telefono-zentralera deitu eta, ez baduzu lortzen Dassié jaunarekin hitz egitea, esan ezazu "lehengusina txikia gaixo dagoela", besterik ez. Emango diote mandatua, eta jakingo du horrek zer esan nahi duen. "Ulertu duzu?" Hala egingo zuela agindu zidan".

"Goizean Florentino iritsi zen. Zaila zen zer esan nahi zuen ulertzea harekin hitz egiteko ohiturarik ez zenuenean, eta "Dédée" k baserrira itzultzeko manda-tua eman ziola esan nahi zidala ulertu uste nuen. "Egun argiz!" –esan nuen–, erokeria da hori! Ez diozu erantzun segur asko joango nintzela?"

"Florentinok burua astindu zuen, eta zera zioela ulertu nuen: "Ez, ez, behar-bada." Atseden hartzera joateko aholkatu nion, eta eguna ilundu arte zain ego-teko, itzultzeko bideari ekin aurretik. Nire arropak lehor zeuden, eta etxera itzu-li nintzen, bidean "B" rekin [Albert Johnson] gurutzatu nintzela oharkabean. "B" Frantxiaren etxera zihoan, beti bezala, abiadoreei azken unera arte uzten zizkien nortasun-agiri faltsuak berreskuratzera. Angelun inork ere ez zekien mugazeharkatzea hogeta lau orduz atzeratu zela".

Gau osoan ondo lo egin ondoren, abiadoreek indarrak bildu zituzten, eta eguerdian atzeko gelan eseri ziren Andréerekin baziakatzeko. Andréek Frantxiari

bazkaria prestatzen lagundu zion. Hiru gizonetako batek oliba-kolorea zuen; Venezuelakoa zen jatorriz.

Frantzia Usandizagaren baserriak “Bidegain-berri” izena zuen, eta handik hurbil zegoen baserriak, Kattalin Agirreren laguna zen Gracy Ladouce ande-reñoaren amaren sortetxeak, “Bidegain”, besterik gabe.

*“1943ko urtarrilaren 15 hartan –Ladouce andereñoak idatzi zidan–aita, ama eta Jean anaiarekin nengoen. Zerria hil berria genuen, eta sukaldea mukuru zegoela oroitzen naiz.*

*Eguerdi aldera, betiko lasaitasun handiaren erdian, motore batzuek sortutako iskanbila entzun genuen, eta bat-batean isildu egin zen: zer gertatzen zen? Orduan, pausu-hotsa entzun genuen, presaka zebiltzan, eta alemaniar batzuk sartu ziren sukaldean: “Nortasun-agiriak!”. Gure txartelak erakutsi genizkien lehiaz.*

*–Etxean nor gehiago dagoen jakin nahi dugu! –esan zuen buru egiten zuen alemaniarrak.*

*Nork bere burua aurkeztu zuen, baina ez ziren gure bila etorri. Ordurako konturatuak ginen nora zihoazten...”.*

Handik pixka batera, Andréek eta hiru abiadoreek auto bat gelditzen zela entzun zuten. Txantxetan, Andréek esan zuen: “Gestapo!”, eta abiadoreetako batek, jolasari jarraituz, labana sakelatik atera, ahoa ireki, eta ate aldera joan zen mehatxuzko keinu barregarriak eginez. Bainan salan bota-hotsak durundi egin zuen, eta aginduak ematen zitzuten oihuka alemanez. Andréek eta hiru gizonek atea nola pixka bat zabaltzen zen ikusi zuten, bai eta nola agertzen zen zirrikutik metraileta-kanoi bat. “Hände hoch!” esan zuen ahots batek garrasika, eta atea ostiko batez bultzatu zuten. Men egin behar eta horma aldera bira egin, eskuak buruaren parean, guztiak, Andréek izan ezik, betebehar horretatik salbuetsi baitzuten.

–Non dago bosgarrena? –galdetu zuen buruzagiak. Galdera horrek kontuari zion Andréeri bezperan Frantxiaren etxera bisitan etorritako baserriko morroiak saldu zituela. Nola, bestela, jakin baserrian bost lagun zeudela? Florentino baino ez zen falta koadroan.

Morroi horren izena Kattalin Agirreren etxean ahoskatu zuten nire aurrean. “Hura izango zen segur aski –esan zuen Ivonne Lapeyre–. Mundu guztia salatzen joan zen alemaniarrengana. Beste aldetik – gogoratzentzat Kattalin–, libera-zioan Spainiara ihes egin zuen, eta inork ez du behin ere ikusi.

Alemaniarrek bazter guztietan bilatu zuten Florentino, mandioko saralean ziztaka ere ibili ziren baioneta-kolpez, han ezkutaturik ez zegoela ziurtatzeko. “Non dago bosgarrena?”, errepikatu zuen buruzagiak. Eta, inork erantzunik eman ez zionez, iseka-barre egin eta honela esan zien: “Hitz egingo duzue, lagunok, hitz egingo duzuenez!”

Baserriaren aurreko aldera denak aterarazi eta agindu bat eman zuen zakar. Ehun lodizko jaka eta galtzak jantzita, Andréek Frantxiari begiratzen zion disi-

muluan. Aurpegia zurbil, nahasmenduak jota, haren laguna bere hiru seme-alabei begira zegoen. Negarrez ari ziren isilean.

Hamar soldadu armatu inguruan, eta bidea zabaltzen zuren bi *Feldgendarmen* atzetik, atxilotuak ilaran jaisten ziren Andréek hainbeste aldiz ibilitako bidean behera. Florentinok bezperan sumatu bezala, ez zuen euririk egin.

Abiadore ingelesa buru ziohan, haren atzetik bi amerikarrak, Andréeren aurretik, eta Frantzia hurrengoa. Juan Larburu azken lekuan, eskuak sorbaldean, hiru abiadoreak bezala.

"Eguraldi bikaina muga pasatzeko!" zioen Andréek bere artean, burua atzera biratzen zuela etengabe, mendi aldera begiratzeko. Grazia egin zion alemaniairren begiradetan kezkatzen hasiak zirela ikustea, Andréek alde hartatik laguntza espero zuela uste baitzuten. "Urdazuriaren gaineko zubia igarotzean –esan zuen berekiko–, uretara salto egin eta bi uren artean lasterka ihes egiten saiatuko naiz, ibaian gora. Baliteke aukera izatea."

Baina zorte onak, luzaro haren alde agertu ondoren, bizkarra eman zion orduko hartan: marea behean zegoela ikusi zuen Andréek, zubira iristean.

... Segizioa Donibane Lohizunen sartu zen, bertan zebiltzanen begirada atsekabetuen artean. *Villa Angèle* deitzen zuten espoxera eraman zituzten sei presoak<sup>10</sup>.



Ilustrazio honetan "Dédée" eta Florentino abiadore iheslariekin, Bidasoa aldera abiatu baino lehen ("Abiadoreak eta erresistentzia-kideak: Comète"). ICARE, Frantziako abiazioaren aldizkaria, 151, 4. liburukia).

<sup>10</sup> Rémy: *Réseau Comète*. Librairie Académique Perrin, Paris, 1966, 1. liburukia, 371-76. or.







**FLORENTINO BRITAINIA  
HANDIKO ZERBITZUEK  
“BAHITUA”**



## **“FLORENTINO, BIHAR! BIHAR, FLORENTINO! ”**

1944ko ekainaren 6an, “Tante Go”, hau da, Elvire de Greef errefuxiatu belgikarra, “Comète” sareak euskal eremuan izan zuen euskarrietako bat, Donostiara iritsi zen, muga Saran igaro ondoren. Bere seme-alabetako birekin joan zen, haiek Londresera eramatea erabaki baitzuen, arriskuan zeuden-eta, Gestapo haien etxera, “Voisin” egoitzara, hainbat aldiz agerturik. Gipuzkoako hiriburuan elkarritzeta bat izan zuen Michael Creswell-ekin (“Timothy”rekin), zeina MI 9 atalak (Escaping Section) Madrileko enbaxada britainiarrean zuen ordezkaria baitzen, bai eta “Comète” sarearekiko harremamen arduradun ofiziala ere. “Tante Go”, Antonia Sarasolaren etxearen bizi zen Donostian (Antonia Sarasola, “Dolores” goitizenekoa, Bernardo Arakamaren emaztea zen, eta bakarrik zegoen garai hartan, Bernardo atxilotu eta Madrilera hesbesteratu baitzuten), eta Angelura itzultzea erabaki zuen, nahiz “Timothy” esan eta esan aritu horrelakorik ez egiteko eta seme-alabekin batera Londresera joateko. Handik urte batzuetara, “Tante Go”k honela kontatu zion Rémy koronelari nola aurkitu zuen Florentino, haren bila joan zenean, Angelura bueltan Bidasoa zeharkatzen lagundu ziezaion:

“Orduan, seme-alabak besarkatu eta Donostiara itzuli nintzen, Doloresekin batera. Berehala konturatu nintzen “Timothy”k ezkutuan hainbat jarraibide eman zizkiola Doloresi, eta hau ez zen behin ere urruntzen niregandik. “Edonola ere, ezin zara itzuli –esan zidan–. Ingelesek Florentino bahitu dute.”

–Bahitu egin dutela?

–Hain kezkatuta zegoen zuregatik, non jateko gogoa ere galdu zuen. Orduan ingelesek edanarazi zioten goizetik gauera, eta oraindik ez zaio aitzurra pasatu.

–Dolores –erantzun nion–, nik ez dut inoren beharrik Frantziara itzultzeko; bakarrik joan naiteke Saran barrena, edo Bidarrain barrena, bai eta abiadoreen bidean barrena ere. Bainago nahiago nuke Florentinorekin joan, han haren beharra dugu eta.

Doloresen senarra iritsi zen une hartan. Hark arrazoia eman zidan eta, biaramunean, Florentino ekarri zuen niregana. Ezagutzen du, ezin hartaz esan hitzontzia denik... Hainbeste alkohol irentsarazi zioten, non aldi hartan ezinezkoa zen guztiz hitz bakar bat ere ateraraztea. Bainago hainbeste aldiz errepikatu nion: “Florentino, bihar! Bihar, Florentino!”, ezen azkenerako xuxurlatu zuen: “Bai, bai, bai.” Gero, harengan jarri nuen konfiantzaz ohartu izan balitz bezala, zera gehitu zuen, alkoholez mozkor-mozkor eginda oraindik ere: “Moi plus boire. Fini” (Ez dut gehiago edango. Kito).

Abiatu egin ginien, bada. Indarrik ez hanketan, Florentino nekez aurreratzen zen ukuiluaren hurbiltasuna sumatzen duen abere gaixo akitu baten pare, eta nire zorroa hartu nahi zuen kosta ahala kosta. Zorroan komandante alemaniaarrak normaltzat hartuko zituen hornidurak neramatzan, bai eta “Timothy”reko elkarritzetan hartutako oharrak eta mugaz bestaldean jantziko nuen arropa ere. Arropa horiek eta Espanian jantzi nituenak oso bestelakoak ziren, alemaniarrek informazioa nork emango baitzeukaten Donostian. Beti bezala, atseden

hartzeko leku bat baguenen bide-erdian; baserri apal bat zen, non kontrabandoan zebiltzan gure ezagun batzuekin topo egin behar baikuenen.

Ezin izan nuen galarazi Florentinok zahatotik maiz zurrutada ederrak har-tea, haren agindua gorabehera, kontu handiz beteta zuen-eta koñak espinaria-rraz, nahiz eta baserrian gidarietako batek –gerra ondoren modu misteriotsuan desagertua– honela esan zidan: “Ez duzu ikusi zer gaizki dagoen Florentino? Gera gaitzen hemen mozkorraldia pasatu arte, eta geroago jarraituko dugu elkarrekin”. Ezezkoa eman nion, nire printzipioetako bat baita aurrera jarraitza hasierako oldarraz baliaturik, behin abian jarriz gero, eta “Dédée”ren atxiloketa gertatu zen moduak printzipio hori zuzena zela erakutsi zidan. Arropa aldatu nuen eta mutil bat bezala jantzi nintzen. Lan-jantzi urdina soinean, espartinak oinetan, eta euskal txapela, ilea ezkutatzeko, mendia zeharkatzen duten andre guztien antzera, baina nire zorroa han utzi nuen, gidariari esanez Florentinori jasoaraziko niola geroago. Florentinok eta biok bideari ekin genion.

Goizean goiz iritsi ginuen Bidasoara. Badakizu nola, Spainiako aldean, erre-pidea zeharkatu behar zen lehenago eta trenbidea gero, ibaira ailegatuurretik. Errepidea guardia-postuz betea egoten zen, eta karabineroak bidean ibiltzen ziren etengabe, bata bestearengana joan, elkartu eta buelta ematen zuten. Elkarrekin topo egin eta buelta eman arte zain egon behar zen, ibaira iristeko falta ziren berrehun-hirurehun metroak egiteko. Ibai-bazterra malda handia zuen; lauoinka igo behar zen beste norabidean etorriz gero, eta bizkarra lurraldi emanez jaitsi, Frantziara joaterakoan, goiz hartan bezala. Ondo joan zen dena, estualdi txiki bat kenduta. Florentino egarriak itotzen zegoen; ibaia igaro ondo-ren, ahoz behera hasi zen ura milika edaten, zakur batek bezala, eta harri batzuk bota zituen, altxatzerakoan. Haserre, niregana bihurtu zen, nik erorarazi izan banitu bezala, eta “chut!” xuxurlatu zuen (ixo!). Florentinok atseden pixka bat hartu behar zuela ohartu nintzen eta gerritik tiraka eserarazi nuen, esanez: “*Moi fatiguée*” (“nekatuta nago”). Bizkarra lurrean, luze-luze jarri zen, oinak zuhaitz txiki batzuen enborren kontra bermaturik, eta zurrungaka hasi zen berehala. Karabineroak ikusi gintuzten beste ur-ertzean, eta garrasi handiz deitu ziguten, baina nik kasurik ez: mugaz bestaldean geunden. Florentino esnatu zen azkerako, zutik jarri eta bideari lotu ginuen. Goizeko zazpiak inguruau iritsi ginuen bigarren babes-baserrira. Han, Florentino zerraldo erori zen iritsi bezain laster.

–Ene Jainkoa! –oihu egin zuen etxeandreak–. Zer egin diozue?

–Et, et, et, et; ea zer esaten duzun! –erantzun nion–. Ez da nire kontua izan! Ni Frantziara ekartzea galarazi nahi izan ziotenek dute errua!

Angelura joateko jantzi nahi nuen arropa Spainia aldeko baserrian utzi nuen zorroan neukan. “Zer egingo zaio -esan nuen nire artean-. Saiatuko naiz inoren aten-tzioa hartu gabe etxeraino joaten arropa honekin”. Katilu bat esne irentsi ondoren, prestatu zidaten gizon-bizikleta hartu-horrelakoetan ibili ohi nintzen; emakumeenak astunegiak iruditzentzitzaizkidan-, eta Kattalinen (Aguirre) etxeraino jaitsi nintzen ziztu bizian, norbaitek ikusiz gero mutila nintzela pentsatzeko moduan. Han, arropa aldatu, lan-jantzia eta bizikleta utzi, eta *Villa Voisinera* joan nintzen lasai-lasai. Han ikusi nuenez, nire senarrak lan ederra egin zuen, ni kanpoan emandako denboran.

“Timothy”rekin adostu zuen hegoaldetik iristen jarraituko zuten abiadoreak han elkartzeko, eta Florentinoz baliatu ginen beste bizpahiru alditan oraindik ere. Doloresen etxera joaten zen gure postarekin; han Doloresi eman eta honek “Timothy”ri helarazten zion, eta “Timothy”k Donostiara guretzat eramanarazi-tako posta Florentinoren esku uzten zuen<sup>11</sup>.

---

<sup>11</sup> Rémy: *Réseau Comète*. Librairie Académique Perrin, Paris, 1968, III. liburukia, 384-7. or.





# **OFIZIOAREN ARRISKUAK: FLORENTINOREN ATXILOTZEA ETA ASKATZEA**



## “BIHAR, ORDU BIETAN”

Florentinok, zaitasun handiei aurre eginez, hiru urtez zeharkatu zituen Pirinioak, Donibane Lohizunetik Espainiako lautadaraino. Berrehun abiadoreri baino gehiagori lagundu zien muga igarotzen. Normandiako lehorreratzearen ondoren, alde batetik bestera pasatzen jarraitzen zuen, Bidasoa gurutzatzen eta Aiako Harria inguratzen, Espainiako kostaldea ikusten zuen arte.

“D” egunetik hilabetera, azken aldiz igaro zen. Aldi hartan, abiadorerik ez, paper-zati ñimiño batzuk zeramatzan, Inteligentzia-Zerbitzu aliatuentzako mezuak.

Esku onetan utzi eta gero, itzuli egin zen, beti bezala, Frantzia aldera.

Goizeko hiruretan, Florentino Bidasoa zeharkatu eta Urruña aldera jaisten ari zen. Bat-batean, gau beltzean, tiro bat entzun zen. Florentino lurrera erori zen; hanka bat hautsia zuen eta odoletan. Oinaze zorrotz batek hartu zuen, baina, adorez betea beti bezala, brusatik paper sekretuak atera eta haitz baten azpian sartu egin zituen.

Gero, jasaten ari zen min zorrotza gorabehera, maldan behera erortzen utzi zuen bere burua, iluntasunean. Alemaniarren oihuak hurbildu ziren... azkenerako aurkitu eta inguratu zuten, eta galderaz josi.

Ez zuen erantzun, eta torturak pazientziar jasan zituen, muga-postu batera zeramaten bitartean. Handik, poliziaren koartel nagusira eraman zuten autoz, Hendaiara. Autotik baldar altxatu eta lurrean utzi zuten bulego batean.

-Nola duzu izena?

Florentinok etzanda iraun zuen, begiak itxita, erantzun gabe. Interpreteak ekarri zitzuten, frantsesez, gazteleraz eta euskaraz galdeka ziezaioten, baina ez zuen hitzik esan nahi izan.

Alemaniarrak duda-mudan ibili ziren luze, eta, azkenerako, Baionako ospitale zibilera bidali zuten. Haren hanketako bat ikaragarri hautsita zegoen: hezurra erabat txikituta zegoen.

Tante Gok gertatutakoaren berri izan zuen. Zerbait egiteko irrika biziz, abiatu egin zen zernahi egiteko prest.

Hogeita lau ordutan lortu zuen, bere lagun eta laguntzaileekiko harremanen bitartez, istripuari zegokion guztiaz jabetzea. Bazekien Florentino non zegoen, zein ospitaletan, zein gelatan eta zein zen haren ohearen zenbakia.

Florentinoren ondoan gazte frantses bat zegoen, bombardaketa batean zauritua. Gazte haren izena jakin zuenean, “Tante Go”k hari bisita egin eta pastelak eta frutak eramateko plana egin zuen.

Goiz batean, gela hartan ausardiaz sartu eta, gaztearen ohera joanda, haren aurrean geratu zen zutik.

Florentino ez zen mugitu, ez zuen inolaz ere adierazi ezagutzen zuela. Ordu erdi batean, Tante Go oheburuan egon zen, gaztearekin hizketan, zeina poz-pozik baitzegoen bisitarekin. Gero, alde egiterakoan, poltsa lurrera erortzen utzi eta, hura jasotzeko bi ohean artean makurturik, honela esan zuen gazteleraz xuxurla batean:

-“Mañana a las dos”.

Florentino, ordea, batere ez zen mugitu orduan ere. Etzanda zegoen han, loi- txuran. Apenas hitz egin zuen inorekin, ezta sendaketa egiten zioten mojekin ere, inori ezer ez esatera deliberaturik.

Ordu bietan zarata atera zen, eta zalaparta txiki bat izan zen gelako sarreran. Alemania batzuen ahots zakarrek gaixoak izutu zituzten. Begitarte serioko hiru tipo eztabaidan ari ziren Errukiaren mojekin.

-Ezin da hemendik eraman! Arriskutsua litzateke! -esaten zuten mojek garra- sika.

Gizonek, protestei entzungor, mojak gogor utzi zituzten alde batera; batek paper bat erakusten zuen. Kapelak buruan kiribilkatuta, Gestaporen ohiturari jarraiki, Florentinoren oheraino hurbildu eta beste ospitale batera eraman behar zutela esan zioten alemanez, hizkuntza horretan tutik ulertzen ez bazuen ere.

Florentino sorgor zegoen, zirknik egin gabe, esku zimel handiak maindirea- ren gainean zituela.

Haren aurpegi zimurrak, mendiko bizimodu gogorrak zailduak, ez zuen ezer ere adierazten. Arin ekarritako esku-ohe batek hartu zuen haren gorputza, eta esku-oheak instant batean irentsi zuen barrura. Gizonak ez ziren orain alemanez mintzatzen, eta haien keinu serioak desagertu ziren. Florentinok buruzagia eza- gutu zuen berehala: “Oncle” (Fernand De Greef) kementsua zen, “Tante Go”ren senarra, haren bi lagunekin.

De Greef jaunak, Angeluko udaldeetxeen interprete zegoela aprobetxatuz, Gestaporen agindu faltsu bat egin zuen, Florentino Baionatik Miarritzera erama- teko. Agiri horrekin, Baionako udal anbulantzia bat bahitu zuten.

Florentinoren erreskateak ez zuen hogei minutu ere iraun; tarte horretan, Angelu inguruko etxe batean ezkutatu zuten kontu handiz. Eta han zegoen, hain zerbitzu ona eman zien aliatuek herria liberatu zutenean, handik aste gutxi ba- tzuetara.

Zoritzarrez, haren hanka, zirujau on baten faltaz gaizki sendatua, desitxura- tuta gelditu zen.

Askatzaileek Parisko ospitale batera eraman zuten, baina, tamalez, ezinezkoa izan zen hanka bat bestea baino laburragoa geldi zedin saihestea.

Florentino mendiko erregea zen. Goietako egurats basatiaren parte zen eta han bizi zen benetan, gailurretako argi urdin, berde eta urre-kolorekoan. Ezin aurrerantzean bide harritsuetan zehar ibili, haren ibilera dotorearekin, “¡Espera un poco!” esaka.

Hala ere, barreka jarraitzen du, edontzi bat ardo edaten duen bitartean, gau gogor-gogor haiiek gogoan hartuta. Euriak, aurpegian jotzen zionean, tontorre- ra bultzatzen zuen. Leher eginda eta arnastestuka zebiltzan abiadore ingeles eta amerikarrei honelaxe esaten zien, atseden txiki bat egiteko geldi zitezen erregu- tzen ziotenean:

-¡Doscientos metros!

Haren zorioneko “berrehun metroak”, bidexka ilun eta irristakorrean!

Florentinon Ziburun bizi da gaur egun, Tante Go, “B” Johnson, Franco eta

beste hainbaten oroitzapena gogoan. Bainatx bida bestetatik bereizten zaiona, haren handitasunarengatik.

“Dédée”z hitz egingo dizue nahasketez beteriko bere hizkera bitxi horretan, egunsentia Donibane Lohizuneko badiaren arrantza-ontzien gainetik gora egiten hasten den arte. Begirunez mintzo da neska hartaz: mendian gizonak baino hobeto ibiltzen zen, eta denei adore ematen zien gauean aurrera egiteko”<sup>12</sup>.

## EGINKIZUN AUSARTA ETA ARRISKUTSUA

*Florentino Baionako ospitalean zegoen, Gestapo galdekatzeari ekiteko noiz agertuko zain –eta agertzeko zorian zegoen–, eta lagun batzuek sartu eta eraman egin zuten handik. Behin baino gehiagotan kontatu izan da nola askatu zuten, baina bertsioen artean desberdintasunak daude eta hainbat puntu garrantzizko argitu gabe uzten dituzte. Gainera, pasadizoa ez dute zuzenean kontatu hartan parte hartu zutenek. Horregatik, orain arte inon agertu gabeko bertsioa argitaratzen dugu hemen. Antoine Lopezek idatzi zuen, duela zenbait urte, askatzearen antolaztale eta egile nagusiak berak.*

*Antoine Lopez jatorri espanyiarreko polizia gazte bat zen sasoi hartan -haren gurasoak Aragoitik Frantziera 1880an joandako etorkinak ziren-, eta, aspalditik erresistentziako kidea izanik, hainbat ekintzetan jarduna zen. 1943an Miarritzera bidali zuten Mont-de-Marsandik, eta erresistentziaren hainbat saretan ibili zen, “Andalousie” izenekoan, esaterako, eta batez ere Lyon aldeko taldeetan. Ehun bat nortasun-txartel eskuratu zizkien eskualde hartako taldeei. Mauleko makiekin harremananak izan zituen, herri hartan bizi izan baitzen tarte batean bere familiarekin. Lopez Hendaiako komisario berezia izendatu zuten 1944an, gero Perpignanera aldatu zen, eta, geroago, Afrikan eta Parisen aritu zen lanean. 1944an ekintza bat antolatu zuen Jules Artola bere lagun eta lankidearekin, “Masuy” torturatziale nazia Donostian bahitzeko (“Masuy”, Georges Delfane nazi belgikar famatuaren izengoitia zen, Parisen Abwehr-eko agentea izan zen eta “bainuontzia” izeneko torturaren asmatzailea izan omen zen). Bahiketak porrot egin zuen azken unean, eta Lopez atxilotu eta Ondarretako presondegiari sartu zuten.*

*Miarrizten bizi izan zen, erretiroa hartuta, eta hantxe hil zen 2005eko uztailaren 9an. Testu labur hau, non lehenengo aldiz protagonistetako batek kontatzen baitu nola liberautu zuten Florentino 1944ko uztailean, garai hari buruzko ‘Oroitzapenak’ idazlan argitaragabearren zati bat da. 1944ko uztailaren 26an gaude:*

<sup>12</sup> Airey Neave: *Petit Cyclone*. Editions Novissima. Bruxelles, 1954, 218-23. or.

"Biharamun arratsaldean, sei eta erdian, Artola bisitan eterri zitzaidan etxera. Bertako erresistentziaren kide batek berarekin hitz egin zuela adierazi zidan. Konfiantza osoko laguna zen eta ekintza arriskutsu bat aipatu zion. Hartan parte hartzea onartuz gero, biharamunean bederatzietan Georges Delord jaunaren etxera joan behar nuen. Miarritzeko hiriko ingenaria zen Delors jauna. Ados eterri nintzen eta, biharamunean, Artola eta biok ekintza-plana antolatzeko bilerara agertu ginen. Sei lagun zeuden han.

Bat baizik ez nuen ezagutzen: Delord jauna. Besteak ez nituen behin ere ikusi ordura arte. Delord jaunak Lazari andrea eta jauna, Miarritzeko haginlaria, aurkeztu zizkidan, bai eta beste bi lagun ere, zeinen ez izenik ez aurpegirik ez ditu dan gogoratzen.

Delordek De Greff andreatsi eman zion hitza. Hark zuen interesik handiena. Andre txikia zen, ilehoria, begi urdin distiratsuak zituen, eta itxura ausarta. Egoeraren laburpena egin zigun. Hiru aste lehenago, alemaniarrek Comète sarearen mugalaria, Florentino, ezustean harrapatu zuten, Espainiatik Frantziara pasatzeko muga zeharkatzen ari zela. Ihesi joaten saiatu zen, baina alemaniarrek geldiarazi zuten metrailetzat tiro eginez. Lau bala hartu zituen sorbaldan eta izterretan. Zauritua egon arren, zeramatzan agiriak harri baten azpian ezkutatu zituen eta mendian behera pirritan bota zuen bere burua, leku hartatik ahal zen gehienetan urruntzeko. Horregatik alemaniarrek merezi zuen garrantzia ez zioten eman euskaraz baizik mintzatzen ez zen kontrabandista hari. Edo beharbada galdekatzeko larriegi zegoela pentsatu zuten. Kontua da Baionako ospitalera eraman zutela, han zaindu zezaten. Baina gauzak bat-batean aldatzekotan zeuden, antza. Bezperan, Florentino zaintzeko ardura zuen sendagile frantsesari Hendaiko Gestapoko buruak deitu zion telefonoz.

Biharamunean entregatu behar zuen berandu gabe. Sendagilea entrega atzeratzen saiatu zen, hankan igeltsua berriz jarri behar zitzaiola eta biharamunean arratsalde bukaeran egingo zuela esanez. Gero De Greff andreatsi ohartarazi zion. Hurrengo orduetan egin behar egin beharrekoa. De Greff andreak han geunden guztiei zuzendu eta bi boluntario eskatu zituen Florentino Baionako ospitaletik ateratzeko. Barre egin nuen nire artean, hasieratik bainekien Jules eta biok han baldin baginen ekintzaren ardura guk hartzeko zela.

Aitzakia bila hasi ziren denak, arrazoi serioez justifikatuta, noski. Kontua ez zen txantxetakoa, eta ni eta nire laguna arduratuko ginela Florentinoren erreska-teaz esan nuen. De Greff andreak erreskatea egiteko taxututako planaren berri eman zidan. Jules Artolarekin eta nirekin baino ez zuen hitz egiten. Bileran zeuden gainerakoak dekoratuaren parte besterik ez ziren. Eguerdiko ordu batetik ordu bat eta bostera bitartean egin behar zen ekintza, hori baitzen, andreak berak egindako ikerketaren arabera, ordurik egokiena ospitaleko hainbat puntutan guardian zeuden soldaduak saihesteko.

Bi agiri eman zizkidan, Gestaporen zigilua zutenak. Batek Florentino agiria-ren eramailearen esku uzteko agintzen zien agintari frantses guztiei. Bestean Baionako udal anbulantzia egun horretako 12 eta erditik ordu bat erdira konfisatuta zegoela adierazten zuen. Salto egin nuen, irakurri bezain laster! Nola pla-

neatu zuten horrelako operazioa? Anbulantziako bi gidari ezezagunek egiten genuen guztiaren berri izango zuten; biskortasuna zen gure ekintzaren oinarria, eta bi lagun horiek trabatu zezaketen eta arriskuan jarri bai Florentino, bai hura bere etxeen gorde behar zuen laguna.

Beste alde batetik, ezin alde batera utzi anbulantzia hori ez ote zuten egun hartan bertan alemaniarrek konfiskatuko, maiz egiten zuten bezala, eta, Bainako agintari alemaniarrek Hendaiako Gestaporekin telefonoz hitz eginda, ez ote zen agerian geldituko dokumentu hori gezurrezkoa zela eta guri ez ote ziguten antolatuko harrera-batzorderik ospitalera iristen ginenerako. Kalkulu-akats horrek kezka handia sortzen zidan, eta De Greefek ospitalari buruz emandako argibideak zalantzan jartzen hasi nintzen. Kamioneta bat eta esku-ohe bat eskatu nituen. Nahitaezko baldintza zen nik parte hartzeko. Ibilgailu horrek, konfiantzazko txofer batekin, Artola eta biok 12:50ean jaso behar gintuen ospitaletik ehun metrora. Gainerakoa nire kontu: De Greef andrea asaldatu zen nire doinuarekin, baina segituan oneratu eta, bere senarrari zuzenduz, zeinari tutik ez nion entzun ordura arte, esan zion edo, hobeto esanda, agindu zion esandako leku eta orduan ibilgailu horrekin agertzeko. Aise moldatuko zara Angeluko udaletxean -esan zion-, ordu horretan inor ez da egoten eta!

De Greef jaunak lan egiten zuen udalean, alemanezko interpretea baitzen, eta lagunak zeuzkan han. Arazoaren alde hori bazter batera utzi nuen, jaiki egin nintzen, denok agurtu nituen eskuarekin keinu bat eginez, eta aretotik atera nintzen Artolarekin. Miarritzeko erdigunera iristean, nire beldurrrak kontatu nizkion. Inondik ere, Erresistentziaren kide ilustre haien hasiberriak baino ez ziren, eta segur aski sekula ez zioten aurre egin zuzeneko arrisku bati. Ikus zitekeenez, ni ez nengoen lasai. Abentura hartara itsu nindoala iruditzen zitzaidan.

De Greef andreak horrelako kontuetan eskarmenturik ez zuela agerian utzi zuen goizeko bileran, eta horrek haren ikerketaren seriotasuna zalantzan jartzea bultzatzen ninduen. Eguerdiko ordu bata pasa bezain laster jarduteko adierazi zuen, zer esan nahi zuen horrek, guardia alemaniarra magiaz-edo desagertzen zirela ordu horretan? Datu zehatz-zehatz hori susmagarria iruditzen zitzaidan. Nik ez nuen Baionako ospitalea ezagutzen, ez eta hango guardia-zerbitzu alemaniarren antolaketa ere. Florentinoren oheak areto komunean non zegoen, horixe zen argibide baliagarri bakarra. Areto horretara zuzenean iristen zen sarreratik, non harrera-lekua baitzegoen. Sarbidearen ezkerraldean, korridore luze bat zegoen; gure aldekoa zen hori, 15 metro baino ez baikenituen egin behar, kamionetaren atzealdea sarbidera igotzeko eskailereren kontra jarrita. Nire plana bizkor egitekoa zen guztiz; ez zegoen beste planik arrakasta lortzeko egokia, eta, horrekin batera, gure segurtasuna gordetzeko modukoa zenik. 12:50ean, De Greef gure aurrean gelditu zen, atzean atea zuen kamioneta beix baten bolantean. Igo aurretik, Artolak aurreko eta atzoko matrikula-plaketan ukitu batzuk egin eta irakurrezinak utzi zituen. Atzealdean igo zen, eta ni, aldiz, aurrean, De Greef jaunaren aldamenean.

Ospitalera iritsi eta autoa errepidearekin elkarzut geldiarazi nuen, kapota burdinesi itxiaren parean zuela. Gestaporen agente baten larruan sartuta, burdi-

nesiko bi ateak zabaldu nituen autoritatez, autoa pasatzen uzteko. Espero nuen bezala, atezaina agudo baino agudoago atera zen garitistik, deabruak ekarrita, guri errietan bortitz. Gestaporen zigilua zuen dokumentu faltsua jarri nion muturraren aurrean, eta berehala lasaitu zen, ziklope baten begia bezain itxurazkoa izanik. Ez nintzen gelditu. Segituan joan behar genuela- eta ateak zabalik uzteko agindu nion frantseset, baina azentu aleman nabarmenez. Orrazkera ere aldatua nuen. Ni jeneralean ilea atzeka orrazten dut baina, ospitalera joan aurretik, erdian artesia eginda bereizi eta belarrien gainera erortzen zitzaidan, horrela nire itxura alemaniarragoa zelakoan! Atezaina, agiria ikusi ondoren lasaiturik, garitara itzuli zen, batere gustatu ez zitzaidan moduan begiratzen zidala. Bainaz ezin orduan denbora galtzen hasi. De Greefek eskaileren aurrean gelditu zuen autoa eta, ibilgailuaren atzealdea eskaileren kontra uzteko 180 graduoko bira egiten zuen bitartean, motorea ez itzaltzeko aholkatu nion. Artola eta biok batera atera ginan. Esku-ohea zeraman hark. Kanpoan ezker-eskuin begiratu nuen. Uniforme alemaniarrik ez zen inon ageri, ezer susmagaririk ez atarian, ezta harrera-lekuan edo korridorean ere. Zorionez, ondoko ohean ez zegoen inor. Artolak esku-ohea han jarri eta, hitzik esan gabe, burusiak jaitsi, Florentino hartu, hark hanketatik, nik sorbaldetatik, arin-arin baina kontu handiz esku-ohean jarri eta goazen hemendik ziztu bizian! Lasterka kamionetan jarri eta Artolak atea itxi zuen. Eskailera-maila gutxi haiiek jaistekotan nengoela, esku indartsu batek oratu zidan besotik eta ahots haserre batek kontuak eskatu zizkidan nire jokamolde kalifikaezin hura zela-eta. Moja erizain bat zen, eta haren ahotsa gero eta ozenagoa zen, kezkatzeko moduan. Askatu nintzen, paper famatua eskuetan jartzen niola, eta zera esan nion: "Andre hori, barkatu, polizia alemaniarra". De Greefen ondoan jarri nintzen, eta honek formula 1eko pilotu bat bezain bizi abiatu zen. Igarotzean, atezaina ikusi nuen, gure autoaren matrikulazienbakia zein zen ikusi nahian. Irregularitasunen bat antzeman zuen zalantzarak gabe, eta ezin alde batera utzi beharbada postuko alemaniarreko guardiei ohartarazi ez zienik. Ospitalean bi minutu baino gehiago ez genuen egin. Burniesia zeharkatzean, Miarritzera zuzenean joan beharrean, Kanboko errepidea hartzeko esan nion De Greefi. Okerrenean, hamar minutu kenduko genien, tarte hori behar baitzuten alemaniarrek Gestaporen agindua egiazatzek; eta Espainiako errepidea hartu genuela sinestarazita bilaketa zailduko genien.

Miarritzera itzultzeko, Arrangoitze aldera biratu ginan, eta, bide nagusiak saihestuz, Miarritzera iritsi ginan arazorik gabe, Reine Nathalie ibilbidera, Charles Gaumont jaunaren etxera. Gaumont jauna Erresistentziaren aspaldiko kidea zen, eta dudarik ez zuen egin Florentino bere etxearen hartzeko. Lehenago, Arrangoitzeko errepidea hartu aurretik, geldialdi bat egin genuen, matrikulaplatak lehen bezala uzteko, eta nik atzean igotzeko aprobetxatu nuen, Artola eta Florentinorekin joateko. Florentinok izerdi-tanto handiak zeuzkan eta begi finkoek beldurra adierazten zuten. Lasaitzeko, eskua estutu eta esan nion gazteleraz: "Lagunak gara, salbatua zaude!". Nire hitzak ez ziren haren burmuinean sartu eta etzanda jarraitu zuen pixka batean. Aurrerago esan zidan azken ordua iritsia zitzaiola uste zuela, ezin baitzuen sinestu salbatu genuela.

Ereskate horrek alemaniarrak sutan jarri zituela gehitu behar. 15 egunez kontrolak handitu zitzuten geltoki eta autobusetan, barrera gehiago jarri zitzaten errepiteetan eta posta lupaz aztertu zuten Miarritz, Baiona eta Angelun, baina batere arazorik ez genuen izan".



Florentino Goikoetxea Baionako ospitaletik 1944ko uztailean ihes egin berritan, ohean oraindik, Miarritzen, Charles Gaumont-n etxeen ezkutaturik. (Argazkia: Antoine López).

ÉTAT FRANÇAIS		N° 6635
CARTE D'IDENTITÉ		
Nom	Etcheto	
Prénoms	Jean	
Domicile	rue des Champs	
Profession	cultivateur	
Né le	23 juillet 1906	
à	Ascar	
fil de		
et de		
Nationalité	Français	
Signature du titulaire.		
Timbre d'état. Cachet de la poste Signature		
INSTITUT NATIONAL DE LA STATISTIQUE ET DE L'INFORMATIQUE		
SIGNALEMENT		Changements de Domicile
Taille	175	
Visage	mat	
Teint	foncé	
Cheveux	noirs	
Moustache	large	
Front	brun	
Yeux	jaunes	
Nas	petit	
Bouche	mince	
Menton	rond	
Signes particuliers	nez	
26 JUIN 1943 194		
Ministère de l'Intérieur		
Gardien de la paix		

Florentinoren nortasun-agiri faltsua.  
Fernand De Greefek faltsutu zuen  
Angeluko udaletxean.

## Jules Mendiburu

*erresistentziako kide gazte bat da, Angeluko udaletxean lan egiten duena. Han Fernand De Greefekin lankidetzan jardun zuen, bai administrazioaren eguneroko lanean, bai okupatzaileen aurkako borroka ezkutukoan. Udaletxetik Florentino askatzeko operazioan lagundu zuen:*

“Florentinoren ihesaren egunean Udaletxean geratu nintzen eguerdiko atsedernaldian, telefonoa hartzeko asmoz, halakorik beharrezkoa izanez gero. De Greef jaunak Gestaporen morroi baten rola hartu zuen, eta Antoine Lopezek eta Jules Artolak laguntzen zioten. Raymond jaunak, Udaletxeko atezaínak anbulantzia gidatzen zuen. Ezin dizut ukatu denbora luzea iruditu zitzaidala... Anbulantzia 15:00ak arte ez zen itzuli Miarrizetik. Gogoan dut nola kexatzen zen Gaumond jauna, Florentino bere etxean hartu zuena, bere apopiloa beti goseak zegoelako, eta horrek ama eta biok behartu gintuen baserriz baserri ibiltzera, arrautzak, urdaiazpikoa edo jateko beste edozein gauza erosteko. Hori dela-eta, gure auzokoek merkatu beltzko tratulari zikinak ginela uste izan zuten. Florentino larri zauritu zutenean harri baten azpian ezkutatutako posta oso-osorik berreskuratu zen”<sup>13</sup>.

---

<sup>13</sup> *La dernière guerre. Une épopee de la Résistance en France, en Belgique et au Grand-Duché de Luxembourg.* Alpha pour tous. Fascicule, n° 47. Paris, 1976, 284. or.

## ALEJANDRO ELIZALDEK gerra bukatu berrian “Comète” sarearen jarduerei buruz aurkeztutako txostenaren laburpena. 1945.

*Alejandro Elizalde Iribarren Elizondon jaioa zen, 1894ko otsailaren 1ean. Elizaldek merkataritza-irakasle izateko ikasketak egin zituen Zaragozan, eta gero Donostiarra etorri zen “Ford” agentziara, autoak saltzera. Militarren altxamendua gertatu zenean, Donostian zegoen. Euzko Gudarostean sartu zen auto-gidari, eta han harremanak izan zituen Bernardo Arakama donostiarrarekin, bera bezala geroago “Comète” sarearen laguntzaile izan zenarekin. Porrotaren ondoren, Elizalde Frantziara eraman zuten eta Donibane Lohizunen kokatu zen beste euskal herbesteratu batzuekin batera, Eusko Jaurlaritzaren agintariekin harremanetan. Jaurlaritzaren ordezkarria Isaac Lopez Mendizabal zen une hartin, eta honek Moulié kapitaina aurkeztu zion, armada frantsesaren Deuxième Bureaukoa. Gerra zibilaren nondik norakoaren berri eman zion Mouliári, hasiera batean, eta, mundu-gerra hasi aurretik, espioi nazien bila aritu zen euskal kostaldean, harekin lankidetzan.*

*Geroago, 1942ko martxotik aurrera, Frantzia alemaniarren menpe zegoela, Elizalde “Comète” sarean parte hartzen hasi zen. Sareak eskualdean zituen kontaktuen ardura zuen, “Tante Go”rekin lotuta batez ere (Elvire De Greff), eta iheslariei ostatua bilatzen zien Espainiara pasatu aurretik. Arakama harengatik hasi zen “Comète” sareari lagunten Donostian.*



“Comète” sareak Donibane Lohizune eta Ziburu aldean zuen taldea, gerraondoko argazki batean. Ezkerretik eskuinera: Manuel “Zestoa” (Florentinoren laguna eta mugakide laguntzailea), Gracie Ladouce, docteur Spéraber, Kattalin Agirre, Florentino Goikoetxea, XXX, Josephine Agirre eta Martin Hurtado de Saratxo.

## **1945eko txostena**

“1941. urtearen hasieran, Mouliá jaunak Deppé ingeniari belgikarra aurkeztu zidan, eta honek militar eta politikari aliatuak Spainiara nola pasatu antolatzeko proposamena egin zidan, eta, normala denez eta aliatuen kausari laguntzeko guztian ni beti prest egonda, hala nengoela esan nion eta nahi zuena lehenbaile-hen prestatuko nuela agindu nion, eta, izan ere, Deppé jauna itzuli zenerako, dena zegoen prest eginkizunerako.

Taldea lanean hasi zen eta gogo handiz jardun zuten guztiekin, baina Gestapok atxilotu ninduen arte nirekin aritu diren lagun guztien zerrenda agertu nahi dut:

Florentino Goikoetxea, lehen postuan agertu beharrekoa gu guztion gainetik, gizon miresgarria izan baita denbora guztian, eta espero dut jadanik hala agertuko zutela haren lanaren berri dakitenek.

Tomas Anabitarte, hau aurrekoaren laguntzailea izan zen hasieran, baina ez da denbora guztian aritu, batzuetan huts egiten baitzuen bidaietan.

Francisco Okamika, honek ordezkatu zuen aurreko eta denbora guztian aritu da nire atxilotetara arte eta hartaz ondo lan egin duela esan dezaket.

Beragne jauna, hasiera batean bitartekoia izan zen Donibane Lohizuneren eta Angeluren artean eta jaun honetaz Dédée andereñoak egin du behar den justizia.

Forgue jauna, Ocean hotelekoa, bolada batean bere etxeant hartu zituen abiadoreak Donibane Lohizunen zeudela, beti gogo onez eta gartsu.

Muruaga andrea eta andereñoa, Euskalduna hotelekoak, aurrekoak bezala egin zuten.

Maritxu Anatol andereñoa, San Vicente jaunaren etxeant abiadoreei jaten emateko eta zaintzeko lana egin du denbora guztian, bai eta haren gain uzten ziren bestelako zereginak ere, eta haren berri Dédék, De Greefek eta "Bi" jaunak ematen dute.

Martin Hurtado, erbesteratu politikoa, gogo handiz aritu da denbora guztian zeregin zail eta arriskutsuetan kausaren eta ihesbidearen alde.

Ambrosio San Vicente, abiadoreak hartu zituen bere etxeant eta 80 bat pasatu ziren gutxi gorabehera, eta hura ere Alemaniara deportatu zuten.



*Kalitate txarreko argazki honek interesa du “Comète” sarean ibilitako euskal errefuxiatu taldea agertzen delako. Gerra bukatu berrian aterea dago, eta ezkerretik eskuinera honako hauek agertzen dira: Alejandro Elizalde, Maritxu Anatol, Ambrosio San Vicente, Martín Hurtado de Saratxo eta Florentino Goikoetxea. (Argazkia: Elizalde familia).*

Eta nire buruaz, ez dut ezer esateko, ez bada behin ere ez diodala ezetzik eman eskatu didatenari, eta nire eginbeharra konplitu dudala gogorik bizienaz eta fideltasunaz. Alemaniara deportatu ninduten...

Eta orain, argi eta garbi eta leialtasunez, zera esatea besterik ez zait falta, ez dugula saririk eskatzen, baina ez genukeela gu ahazterik nahi halakoak jasotzeko merezimendua egin baditugu.

Lehen, Deppé jauna, lagunak eta lankideak izan ginen faxismoaren aurkako borrokan, eta orain, Alemaniako esparruetan jasan genituen sufrimenduen ondoren, zilegi bekit gure anaitasunik zintzoena eta gure leialtasunik erabatekoena eskaintza, bai eta zoriontza ere bizia salbatu izanagatik. Har ezazu besarkada bat nire izenean eta nire lankide guztienean”.





# LEKUKOTASUNAK



## JOSEPHINE AGUIRRE “FIFINE”

*Josephine, Kattalin Agirreren alaba, amarekin bizi zen garai hartan Ziburuko Docteur Micé kalean, non iheslariak elkartzen baitziren mendira abiatzeko, “Bidegain-Berri” baserrirantz, Bidasoa aldera jaisten hasi baino aurreko etapan.*

“Okupazioa gertatu zenean, 1940. urtean, nik 12 urte zituen. 1943an, sarea bete-betean aritzen zenean, 15. Orduan nire amak “Euskaldunak” hotelean lan egin zuen, Donibane Lohizunen. Hotelaren lehen jabea haren lehengusina zen. Gure aitonaren arreba. Une hartan jabea haren alaba zen, Mercedes Muruaga. Hotel horretan exiliatu euskaldunak maiz ibiltzen ziren. Hara jotzen zuen, esaterako, Martin Hurtado de Saratxo bizkaitarrak, Ambrosio San Vicente arabarrak, Alejandro Elizalde nafarrak, Manuel Iturrioz mikelete izandakoak, Maritxu Anatol irundarrak, Tomas Anabitarte hernaniarrak, eta Florentinok. Lezo de Urreztieta hotelean bizi zen eta besteekin elkartzen zen. Ziburuko pilotalekura biltzen ziren askotan, Victor Mugerzaren tabernan. Florentino ere agertzen zen hara. Okupazio-aldian, alemaniarrek hotela konfiskatu zuten eta *Feldgendarmerieko* egoitza jarri zuten bertan (polizia alemaniarra). Amatxik han jarraitu zuen lanean eta nazien elkarrizketak entzuten zituen, haien paperak ikusten, eta abar. Donibane Lohizuneko herritarren aurkako salaketen berri izan zuen horrela, eta batzuetan haiei ohartaraztea lortu zuen. Ikaragarria zen. Alemaniarrek irratiz Hitlerren hitzaldi bat entzuten ari ziren batean, argia kendu zien. Hura amorrua haiena!

Florentino gizon askea zen. Oso iaioa zen arrantzan eta ehizan. Amuarrainak eskuz hartzen zituen eta zepoak egin eta jarri egiten zituen untxiak eta txoriak harrapatzeko. Florentino gure etxera etortzen zen abiadoreak hartzera, baina ez zen behin ere sartzen barrura, kanpoan gelditzen zen zain, arto-landaren batean edo huribileko baso batean, eta guk elkargunera laguntzen genien abiadoreei. Handik hasten zen ibilaldia. Kontuan izan behar da alemaniarrok nonahi zeudela eta beti zelatan. Florentino zuhurra zen oso, eta elkargunea aldatzen zuen aldi oro. Dirua edozein tokitan uzten zuen, armairu baten atzealdean, zulo batean... eta batzuetan desagertu zitzaison. Hartaz aprobetxatu zenik ere izan zen. Gerraren ondoren, lorazain ibili zen Darricau zirujauaren etxearen. Klinika hemen zuen zirujau horrek, Ziburun, gaur egun “Caravelle” hotela den horretan. Garai hartako pasadizo batez oroitzen naiz. Loreak zaindu behar zituen, baina, landareen artean lur asko aprobetxatu gabe zegoelakoan, letxugak landatu zituen! Florentinoren beste oroitzapen bat ere dut gogoan. Londresera joan zen gonbidatua, “Comète” sarearen eta erresistentziaren beste kide batzuen artean, eta, ekitaldien ondoren, agintariekin eta ordezkariekin baziak zituen ari zirela, bere labana txikia atera zuen jateko. Haren aurretik plater bat pasatzen zen bakoitzean, zati bat hartzen zuen, zerbitzatu arte zain egon gabe. Urteetan ondo aurreratua, Anne Zubururekin ezkondu zen. Senperekoa zen, eta Parisen sukaldari ibilitakoa (haren nagusiak etxe bat zuen hemen). Garai hartan hemendik hurbil bizi zen, goraxeago, eta ia egunero etortzen zen gure etxera Amatxirekin egotera”.

## ANDRÉE DE JONGH, "Dédée"

"Goibel nago oso, ezin bainaiz zuen artean egon Florentino Goikoetxea gure mendi-gidaririk onenaren oroitzapena ohoratzeko.

Niretzat lagun ahaztezina da eta ezinbestekoa izan zen Comète sarean.

Ausarta zen, bere burua eskaintzeko beti prest zegoena eta konfiantza oso-koia, egiatan dohain baliotsuak, denak batera agertzen direnean.

Abiadore batiek mendian aurrera jarraitu ezin zuela ohartzen zenean, Florentinok bizkar-zorroa zuhaitz barru-huts batean gorde (Pirinioetako zoko guzti-guztiak ezagutzen zituen) eta leher egindako gizona sorbaldetan eramatzen zuen. Zorionez hori ez zen maiz gertatzen.

Espaniatik bueltan Florentino eta biok geundenean, Bidasoa uhanditua etortzen zen maiz. Orduan bizkarrean hartzen ninduen, bizkar-zorroaz gain, busti ez nendin.

Hura poza sentitu nuena gerraren ondoren elkartu ginenean, herren gelditu bazen ere.

Hankako zauria mendietan egin zioten guardiako soldadu batzuek.

Lagun ona zen, harekin gurutzatu nituen askotan Pirinioak eta haren oroitzapen preziatua niregan iraungo du ahaztezin".

"Dédée" De Jongh  
(2005eko abuztua)

*Florentino Ibardin, gerra ondoren, telebista britainiarrentzat erreportaje bat grabatzen zuten bitartean. Haren ezkerraldean, Kattalin Agirre ageri da, "Dédée" De Jongh bizkarrez eta "Tante Go" bizikleta gainean.*



## MICHOUX UGEUX

Kattalin Agirreren etxean aurkitu nuen lehen aldiz Florentino, 1944ko urtarrilaren bukaera aldean: zenbait ohar; espartinak, kantinplora, mendian orpoz orpo hari jarraitu, beti erne, harririk maldan behera pirritan ez bota, ez hitzik egin, beso bat altxatzen badu bertan gelditu eta hari kasu egin. Arratsaldeko seitán abiatuko, gorago, mendian.

Bakarrik nihoan gaeuan ezezagun batekin eta beldurrik ez, ordea; egia esanda, Florentino guztiz ospetsua zen garai hartan Comèteko pribilegiatuentzat!

Sarri askotan joan-etorria egin nuen Florentinorekin Spainiara, abiadoreekin harantzean, bakarrik honantzean. Azken aldia 44ko maiatzean, Inglaterrara alde egin nuenean.

Florentino menditar bikaina zen, haren ibilera ahaltsua zen, haren senak babestu zuen istripua izan arte.

Gizon isila, bidaide harrigarria, mendi latzean eta Bidasoako ibian zehar agente eta abiadore nekatuak gidatzeko gauza.

Gutxi aski zuen bizitzeko, nahikoa zuen mukuru betetako zahato batekin, gizon hark konfiantza ematen zigun gaeuan. Gizon handia, eta apal-apala.

Mila esker Florentino!

(2005eko abuztua)

## JEAN FRANÇOIS NOTHOMB “FRANCO”

“Florentino -Florentino handia-, gure sarearen sinboloa izan zen gizona.

Gizon “paregabea” zen. Oso hurbiletik ezagutu nuen. Bere dohainak sustriietaraino sartuta zeuzkan; leiala zen orbanik gabe, tinko eusten zion emandako hitzari, hitz gutxi eta lana zintzo: konfiantzako gizona guztiz, harekin ez nuen sekula zalantzakiztan. Beti ausarta, gizon baldresa baina ona, onik bada; zer nahitarako prest, gaixotasunean eta arriskuan. Egin behar zuen guztia ondo egiten zuen: horrelakoa zen berez. Hainbeste gauza esan nitzake baina aski da horrekin...”.

(2005eko abuztua)

## JANINE DE GREEF<sup>14</sup>

*Janine De Greef "Tante Go"ren alaba eta kolaboratzaleak Florentinoren irudia eta garai hartan berarekin izandako harremana ekarri zituan gogora duela urte batzuk egindako el-karrizketa batean:*

*"Pertsona horietako bat, famatuenetako bat, Florentino gidaria izan zen?*

Florentino bai, Donibane Lohizunen zegoen; mugako gidari handia izan zen.

*Orduan zuk ondo ezagutu zenuen?*

Bai, bai, jakina.

*Hitz egin iezañazu pixka bat Florentinoz batez ere, nolakoa zen?*

Mendiko gizona zen, naturako gizon benetakoa, isila gehienean. Lotsatia oso, behin ere ez zizun begietara begiratzen, paretara begiratzen zuen eta burua goraka. Oso ausarta zen, oso fidela. Eta amak, gero, azkenean oso-oso pozik zegoen hura izateagatik, ikusi zuelako zenbateraino zen..., baina hori bukaera-bukaeran izan zen, haren historiaren bukaeran, mendian behera bueltaka bere burua erortzen utzi zuenean... zauritua zegoenean eta alemaniarrek papera haiiek, amaren kontu haiiek, ez hartzeko, baina hori bukaera-bukaeran izan zen, gerraren bukaeran, nolabait esanda.

*Eta kausarekin bat eginda eta guztiz konbentzituta al zegoen?*

Zera zen, benetako kontrabandista bat, baina, horretaz gain, kausaren aldeko... Bainan gutxi hitz egiten zuen, frantses ez baitzekien, gaztelera pixka bat bai beharbada, euskara batez ere, baina bazituen lagun euskaldunak itzuli egiten ziotenak.

*Orduan, egia esateko, zuk ia ez zenuen elkarrizketa zuzenik izan harekin?*

Ez, gizon hark ez zuen elkarrizketa luzerik izaten, ez, ez. Bainan tira; estimua zegoen, pertsona segurua zela sentitu zitekeen.

*Eta orduan ordaindu egiten zitzaison norbait pasatzen zuen guztian?*

A bai, bai, hori, beste aldetik, erabili ziren kontrabandista guztiei, gidariei, gida-riak deitzen zitzaien-eta, normala zena ordaintzen zitzaien, arriskua hartzen zuten eta benetan... Haien ofizioa zen, egia esan, haiiek, haiiek merkantziak pasatzen zitzuten gizonak pasatzen zitzuten bezala, nik uste".

---

<sup>14</sup> Yvan Sevenans kazetari belgikarrak Bruselan 1992ko urtarilean jasotako lekukotasuna (Belgikako TV Belga -Charleroi-).

## YVONE LAPEYRE

"Florentino Goikoetxea 1943ko martxoaren 13an ezagutu nuen Urruñako "Gatxu Baïta" baserrian, non Arretxe familia bizi baitzen. Hara iritsi zen Florentino Goikoetxea egunaren bukaeran.

Ni hantxe nengoentzako orduan, Ziburu-Urruña tartea Arretxetar esneketarien gurdian egin eta gero. Egunez beste bi gazte elkartu ziren niregan (beste sare batetik etorriak). Nire senarra, Robert Lapeyre, egunaren bukaera aldera iritzi zen Ziburutik, Kattalin Agirrek lagunduta. Kanpoaldean ezkutaturik, "Be" Johnson (gure "Comète" sarekoia) taldera elkartu zen, eta 22:30ean baserritik abiatu ginen. Florentinok haien ondasunak hartu eta bere bizkar-zorro handian sartu egin zituen, denei banan-banan espartinen lokarriak lotu ondoren. Bidean, beste gidari bat batu zitzagun, Patxi izenekoa (geroago itsasoan hil zena).

Taldearen aurretik, mutil gazte bat ziohan esploratzaile, ibilbidearen lehenengo zatian. 8 lagunek osatzen zuten konboa.

Bide luzea egin genuen gauez, harriz betetako lur malkartsuetan, zuhaitz handien artean, eta goizeko ordu bat eta erdian Bidasoako ur-bazterrera iritsi ginen (ordu horretan karabineroen zaintza ez zen hain handia). Uhanditura zetorren ibaia, eta, taldeko emakume bakarra izanik, Florentinok bere beso indartsuetan altxatu ninduen, gurutzatzeko. Gurutzatze arriskutsua zen, Spainiako aldean militarren kuarterela baitzegoen (gero desagertua) eta zentinelak baitzuden batzuk bestetatik hurbil jarrita zeuden garitetan. Florentinok erabateko isiltasuna eskatzen zuen, batzuetan geldiarazten eta makurtarazten gintuen, hotsik nimiñoenarekin sumatzeko.

Beste ur-bazterrera "San Miguel" etxearen parean iritsirik, Iruñako errepidea zeharkatzen genuen, mendi aldapatsu samar batean gora igo eta, ibilbidearen erdian gutxi gorabehera, poliziarekin topo egiteko arriskua txikiagoa zen tokian, atsedernaldi bat egiten genuen; Florentinok aurreko bidaia batean Spainiatik bueltan zuhaitz-enbor batean ezkutatutako botila ateratzen zuen, eta suspertu egiten ginen zurru-tada bat koñak edanda.

Goizeko sei eta erdietan, angelusa Oiartzungo kanpan-dorrean; neka-neka eginda iritsi ginen baserri batera mendiaren erdian. Aterpea zen guretzat. Nire senarra, "Be" Johnson, eta biok han




Florentino Goikoetxea xanpainez topa egiten Yvonne Lapeyre (Iribarren) lagunarekin parlamentu britainiarreko Komunen Ganberan, 1970eko maiatzaren 1ean.

jaso gintuzten eta jaten eman ziguten, eguna ilundu arte, gero Erreneriara joan ginan oinez eta Donostiarra tranbiaz. 15 egun igaro genituen Armendariz jaun-andreen etxearen gorderik, Marina kalearen 3. zenbakian.

Oiartzunera iristean, Florentinon utzi egin gintuen eta taldeko gainerakoak barreiatu ziren.

Gerraren ondoren, “Comète” elkartu zen berriz, eta horrela elkartu ginen Kattalin Agirre, haren alaba “Fifine” (Castet andrea), Gracie Ladouce, Martin Hurtado, Florentino, eta beste batzuk.

Horregatik batzuei eta besteei laguntza emateko moduan egon nintzen hainbat gestio, espediente eta abar betetzen, eta Florentinori zegokionez, bereziki, hari nazionalitate frantsesa lortzeko esku hartu bainuen (beste bi personarekin batera), haren irrika biziari jarraituz. 1965eko apirilaren 30eko dekretu baten bidez lortu zuen, zeina 1965eko maiatzaren 16an argitaratu baitzen Aldizkari Ofizialean.



*Florentino  
Goikoetxearen  
nortasun-  
agiria, 1965ean  
nazionalitate  
frantsesa  
hartzerakoan.*

Hainbat erakunde militarretara lagundu nuen, haren elbarritasun-pentsioa (alemaniarrek mendian zauritua) eta okerragotze-gekikuntzak tramitatzeko.

Bizitzako azken egunetan bisita egin nion Baionako ospitalean; hiltzeko bezperan moja bat zegoen haren oheburuan (iloba bat, nik uste). Ez zuen hitzik egiten, baina indarrez estutu zizkidan eskuak, une ahaztezin eta hunkigarria izan zen.

Haren hileta Ziburun egin zen, 1980ko uztailaren 30ean.

Baionan, 2005eko abuztuaren 31n.







**EKITALDIAK**



Hernaniko udalak eta herriak, 2005eko irailaren 26an, hainbat ekitaldi antolatu zituen II. Mundu-Gerran nazismoaren aurkako borrokan parte hartu zuten hernaniarren gorazarretan. Tomas Anabitarte, Florentino Goikoetxea, Juan Manuel Larburu eta Martin Errazkin gogoratu zituzten, Comète sareari eta antzeko ihesbide aliatuei lagundu zietenak, besteak beste. Bai haiek, bai animatuan lan egindakoek harrotasunaz betetzen zituzten eta betetzen dituzte hernaniar guztiak, eta, beraz, egin beharrekoa zen egin zitzaien omenaldia.

“Comète” Sarearen VI. Zeharkaldia egin zen 2005eko irailaren 24 eta 25ean. Ibilaldi horrek mugalariek eta abiadore aliatuek askatasunaren bila ibilitako bidea berreskuratzen du Ziburutik Erreenteriaraino, “Comète sarearen lagunak” elkartea eta Erreenteriako Urdaburu mendi-taldeak antolaturik. Urte horretan, zeharkaldia zela-eta, gonbita egin zitzaien sarean parte hartutakoei. “Comète sarearen lagunak” elkarteko kideak etorri ziren, eta, haietan batera, II. Mundu-Gerran soldadu ibilitakoak, aipatutako hernaniarren familiaoak, eta Florentino Goikoetxearenengana eta beste hernaniar haiengana askatasunera zeramatzen zubiak aurkitu zituzten hainbat soldadu eta abiadore britainiar, kanadiar-eta hurbildu ziren omenaldira.



Angelu, 2005eko irailaren 23a. Hernaniko Udalak “Comète sarea Euskal Herrian” VI. Zeharkaldiaren aurkezpenean izan zuen ordezkaritza. Sare harten ibilitakoei gonbita egin zitzaien, Hernanin egingo ziren ekitaldietan parte hartzeko.  
(Argazkia: JM Gómez).



II. Mundu Gerran Europaren askatasunaren alde aliatuen ihesbide-sareetan laguntzen jardun zirenak gogoan hartu eta goretsi nahi ditu **Hernaniko Udalak irailaren 26an**. Honen bidez, egingo diren ekitaldietan parte hartzera gonbidatu nahi zaitutze bertako Alkate Joxan Rekondo jaunak.



#### EGITARAUA

**10:30:** Ekitaldira etorriko direnak Donibane Lohitzunen jaso eta Hernanira ekarri.

\* Zehaztajun gehiago nahi izateko, je Aprobación de Amigos de la Red Comète elkartera.

**11:30:** Ongietoria Gudarien plazan eta Hernaniko Udaletxean.

**11:45:** Ezohiko bilkura: II. Mundu Gerran aliatuen ihesbide-sareetan laguntzen jardun ziren Florentino Goikoetxea eta beste hernaniar batzuk goraipatzeko mozioa. Horren ondoren, Red Comète taldeari buruzko filma ikusiko da, eta lunch xumea emango da segidan.

**13:00:** Hernaniko Osiñaga bailarara.

**13:15:** II. Mundu Gerran aliatuen ihesbide-sareetan laguntzen jardun ziren hernaniarren omenez eginko obra oroigarria inauguratuko da, Loidin, Hernaniko Osiñaga bailaran.

**13:45 – 14:00:** Altzueta Sagardotegian bazkaria.

\* Etertzekoak zaretenek, mesedez, delta + 943 33 70 30 zenbakira baileztatzeko.

**15:00:** Donibane Lohitzunera itzuli.

Hernani, septiembre 2005

Abratea

Joxan Rekondo

Gudarien Plaza 1 - Tel. 943 337 000 - Fax 943 55 11 41 - e-mail: erregistroa@hernani.net

*Hernanin 2005eko irailaren 26an eginko ekitalditarako gonbidapena.*



*Florentino Goikoetxea eta  
Kattalin Agirrearen gorazarretan  
Ziburuko hilerrrian egindako  
ekitaldiak. Haietan Antonio  
Goikoetxeak, Florentinoren  
anaiak, hartu zuen parte.  
Ziburu, 2005eko irailaren 24a.*

### **COMÈTE SAREKO HERNANIKO KIDEEI (Florentino Goikoetxea eta besteak) ESKER ONA AGERTZEKO EKITALDIEN EGITARAUA**

**11:30:** Ekitaldietan parte hartuko dutenei harrera Gudarien plazan eta Udaletxean.

**11:45:** Osoko Bilkura berezia, non aurkeztu eta onartuko baita "Hernaniko Udalaren Adierazpen Instituzionala, Florentino Goikoetxea eta beste hernaniar batzuk gogoan hartzeko, II. Mundu Gerran nazismoaren kontrako beren borrokan demokrazia-ren sendotzean eta Europaren liberazioan egindako lanarengatik". Ondotik, Comète Sareari eta Florentino Goikoetxeari buruzko dokumentala eta lunch txiki bat.

**13:00:** Osiñaga bailarara joan.

**13:15:** Comète Sarean laguntzen ibili ziren Hernaniarren oroimenez prestatuta ko gunea ezagutaratzeko ekitaldia.

**14:00:** Bazkaria Altzueta Sagardotegian.



Abiadoreak, gonbidatuak "Comète"ko kideak eta lagunak Hernaniko Udaletxera iritsi zirenean.



Hernaniko Udalean egindako ekitaldia: ez ohiko osoko bilkura, deklarazio instituzionalaren irakurketa eta "Comète" sarearen historiari buruzko dokumental emanaldia.

## **HERNANIKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, FLORENTINO GOIKOETXEA ETA BESTE HERNANIAK BATZUK GOGOAN HARTZEKO, II. MUNDU GERRAN NAZISMOAREN KONTRAKO BEREN BORROKAN DEMOKRAZIAREN SENDOTZEAN ETA EUROPAREN LIBERA- ZIOAN EGINDAKO LANARENGATIK**

Azken hilabeteotan Europako hiriburu zenbaitetan ekitaldiak ospatu dira II. Mundu Gerra (1939-1945) bukatu zenetik 60 urte pasa direla gogoratzeko. Hernanik ere, bere ekarpen xumea, beharra ikusi du ospakizun horiekin nolabait ere bat egin eta hainbat hernaniarrek garai hartan egindako lana gogoan hartu eta goresteko.

60 urte igaro dira okupazio nazionalistaren ondoren Europaren liberazioa ekarri zuen gerra hura bukatu zenetik, eta, halaber, gaur egun oraindik eraikitzen ari den Europa sortzen hasi zenetik.


Era berean, joan den uztailaren 27an hogeita bost urte bete ziren FLORENTINO GOIKOETXEA BEOBIDE hernaniarra hil zela. Florentino Goikoetxea Behobide artean nazien mende zegoen Europaren askapenerako egindako lanarengatik ezaguna da nazioartean. Ehunka pertsona libratu zituen nazien eskutan erortzetik, izan ere Belgika, Holanda edota Frantzia okupatuaren abaidutako soldadu edo hegazkinlariak libratzeko eratutako aliatuen ihesbide-sareetako kide ezaguna izan zen. Sare haietako garrantzitsuena COMÈTE SAREA izan zen. Gaur sare horretako kide izan ziren zenbait lagun ditugu gurekin, bai eta hona etorriz Florentinori egindako lanarengatik esker ona agertu nahi dioten pertsonak ere.

Baina bada gerra hartan nazien aurka eta Europaren askapenaren alde borroka egin zuten beste hernaniarrik ere, hala nola, TOMAS ANABITARTE, MARTIN ERRAZKIN, JUAN MANUEL LARBURU, ARBIDE-GARAYAR familia, etab. Haiek, eta segurki beste askok eta askok, neke eta sakrifizio izugarriak pairatuko zitzuzten Europaren askatasuna lehengoratzeko.

Historiak jarri du agerian kausa haren bidezkotasuna. Comète Sareko gizon-emakume haien ekintzek, berriz, beren gizalege eta demokratikotasun bizia. Jende haren ekintzaile-itsukeria harrotasunez betetzen gaitu gaur. Eta gure aberkide ereduzkoen adore nekaezinak beti aldarrikatu izan zuten herriaren irudi bikaina ematen du gainera.

Horregatik guztiarengatik, Hernaniko Udalatzak, ez ohiko osoko bilkuran elkarturik, hau **ERABAKI DU**:

1. Goian aipatu ditugun hernaniar guztiak gerra garaian totalitarismo nazi eta faxistaren aurka emandako anaitasun eta demokratikotasun eredu ikaragarria **OHORATZEA**.
2. Jende hark askatasunaren izenean soldaduei laguntzeko zeukan betebehar morala betetzeko pairatutako neke eta sakrifizio izugarriak **AITORTZEA**.
3. Hernaniko herriak Florentino Goikoetxea bera eta Europa nazien atzparretatik libratzeko laguntza eman zuten gainerako hernaniar guztiak memoria historikoan berealdiko estimutan gordetzen dituela **ADIERAZTEA**.
4. FLORENTINO GOIKOETXEA BEOBIDE, TOMAS ANABITARTE ZAPIRAIN, MARTIN ERRAZKIN IRAOLA, JUAN MANUEL LARBURU ODRIOZOLA eta gainerako hernaniarren oroimenerako gune bat ERAIKITZEA. Leku horrek II. Mundu Gerrako ehunka soldaduren salbazio eta askapenerako “ZUBIA” eta Europaren sendotze demokratikoa eta liberazioa sin bolizatuko du.





*Orri honetan eta aurrekoan Osiñaga bailaran askatasunerako zubia sinbolizatzen duen eskultura inauguratu zeneko hainbat une. George Duffee abiadore aliatuen ordezkaria Antonio Goikoetxea agurtzen.*





Bazkaria "Alzueta" sagardotegian. Mahai gainean, jantokiko sarreran, agintari aliatuek Florentino Goikoetxeari emandako domina eta diplomak.







**TRADUCTION FRANÇAISE**



# FLORENTINO GOIKOETXEA DANS LA LUTTE CONTRE LE NAZISME DURANT LA II<sup>ème</sup> GUERRE MONDIALE

Juan Carlos Jiménez de Aberásturi

Le 1<sup>er</sup> septembre 1939 éclatait la II<sup>ème</sup> Guerre Mondiale. Après quelques mois d'inactivité sur les fronts terrestres européens, les nazis déclenchaient une offensive foudroyante, en mai 1940, qui s'acheva en quelques semaines par la reddition et l'occupation de la Belgique, la Hollande, le Luxembourg et la France. Rien ni personne ne semblaient capables de freiner l'Allemagne nazie. Seule la Grande Bretagne demeurait encore libre, bien que soumise à la terrible offensive aérienne connue ensuite comme la «Bataille d'Angleterre».

L'exode provoqué par l'offensive nazie avait entraîné de forts déplacements de population. Les Belges avaient été les premiers à se mettre en mouvement. C'est ainsi qu'un groupe d'entre eux, fuyant la guerre, était arrivé dans des localités de la côte basque de France pour y chercher refuge. Parmi eux se trouvait la famille De Greef formée par Fernand de Greef, sa femme Elvire et leurs deux enfants, Freddy et Janine, qui s'installèrent dans la villa "Voisin" à Anglet.

Presque en même temps, en Belgique déjà occupée, des groupes de résistance contre les nazis commencent à s'organiser. Dans un de ces groupes, une jeune belge appelée Andrée de Jongh, qui plus tard sera connue dans la clandestinité sous le nom de «Dédée», commence à agir. Le premier objectif qu'elle se fixe est de mettre en sûreté les soldats britanniques du Corps Expéditionnaire qui sont restés cachés dans divers endroits de Belgique après la capitulation et qui risquent de tomber entre les mains des nazis. Pour éviter cela et après avoir mûrement réfléchi, «Dédée», avec son ami Arnold Deppé, organise un voyage à Bayonne. Deppé, ingénieur du son dans l'entreprise cinématographique Gaumont, avait travaillé durant des années comme responsable de la maintenance du matériel des cinémas de la zone qui, depuis Bordeaux et Toulouse, s'étendait jusqu'à la frontière espagnole. Nombre d'entre eux se situaient sur la Côte Basque et c'est pourquoi Deppé, alors célibataire, s'était établi à Saint Jean de Luz lorsqu'il arriva dans la région en 1928. Là, il eut des contacts avec le milieu de la contrebande de la zone et il lui arriva même de traverser clandestinement la frontière à plusieurs occasions durant la guerre civile espagnole<sup>1</sup>. Une fois sur place, ils entrent en contact avec le couple De Greef, récemment installé à Anglet, et avec leur concours, ils décident de monter une filière d'évasion con-

<sup>1</sup> A l'heure où éclate la guerre en Europe, Deppé qui se trouve alors en Espagne, retourna clandestinement en France traversant la montagne par Ascan. Il se rendit aussitôt en Belgique pour être incorporé dans l'Armée, étant fait prisonnier le 23 mai 1940, réussissant à échapper aux Allemands en profitant de la confusion des premiers instants. Cf. Rémy: *Mission Marathon*. Librairie Académique Perrin. Paris, 1974.

duisant les fugitifs jusqu'en Espagne franquiste et de là, dans le camp des alliés à travers le Portugal ou Gibraltar.

«Dédée», pensant qu'il vaut mieux entrer directement en contact avec les Britanniques, décide de se rendre au Consulat de Bilbao. Mais auparavant, elle doit franchir la *muga-ligne* frontalière et pour cela elle entre en relation avec le milieu de la contrebande de Saint Jean de Luz. Là, le réfugié navarrais Alejandro Elizalde lui présente le passeur Tomás Anabitarte Zapirain qu'elle persuade de l'emmener avec lui car au début il refusait, convaincu que la jeune «Dédée» n'aurait pas la force nécessaire d'effectuer la traversée. Tomás Anabitarte était originaire d'Hernani (Guipúzcoa), de la ferme «Otsuene-Aundia» et s'était réfugié en France lors de la guerre civile.

Ainsi, vainquant les résistances d'Anabitarte, «Dédée» entreprend le passage le 19 août 1941 et finalement, guidée par lui, le groupe de fugitifs formé de quatre personnes, avec «Dédée» en tête, traverse la Bidassoa. Après une marche épuisante, ils arrivent à l'aube à une ferme d'Hernani où le passeur les laisse aux soins des *baserritarras*-fermiers, refusant de les accompagner à Saint Sébastien par crainte de la police. «Dédée» proteste et menace et, devant son insistance, Anabitarte lui affirme qu'un correspondant viendra de Saint Sébastien pour les chercher. Effectivement, peu après, cet intermédiaire apparaît. Il s'agit de Bernardo Aracama, un habitant de cette ville et ancien *gudari*-combattant réfugié en France, qui possède un garage dans la rue Aguirre Miramón -actuellement "Auto-école Aracama"- et qui conduit le groupe chez lui à Saint Sébastien où les fugitifs peuvent se laver et se reposer. Aracama commence donc ainsi à collaborer avec ce qui sera appelé plus tard le réseau «Comète».

Mais le groupe de passeurs et de réfugiés qui vivaient aux alentours de Saint Jean de Luz était surveillé de près par la police allemande ou le consulat franquiste, attentifs à leurs mouvements. Ainsi le 24 avril 1942, Antonio M<sup>a</sup> de Aguirre, consul franquiste à Hendaye, adressait une lettre au Ministère des Affaires Etrangères de Madrid dans laquelle il disait préparer une liste des «séparatistes» basques de la zone. Pour cela, il consulta la liste de tous les résidents réfugiés dans la région, relevant tous ceux qui ne s'étaient pas inscrits au Consulat. Parmi eux figuraient plusieurs réfugiés comme le navarrais Alejandro Elizalde, résidant à Hendaye, l'alavaise Ambrosio San Vicente Arrieta à Saint Jean de Luz et aussi Tomás Anabitarte Zapirain, le *mugalari*-passeur d'Hernani, tous collaborateurs du réseau «Comète»<sup>2</sup>.

Postérieurement, en date du 24 mai 1943, depuis Madrid, la Direction pour l'«Europe» du Ministère des Affaires Etrangères adressait cette liste à l'ambassadeur à Berlin avec l'indication «*Liste des réfugiés rouges qui en accord avec ce gouvernement doivent être éloignés de la frontière*», afin que les démarches nécessaires soient réalisées par les autorités nazies. Deux mois plus tard, certains de ces réfu-

---

<sup>2</sup> Tomás Anabitarte Zapirain, né le 8 juin 1912, avait alors 29 ans. Après la guerre il continua de vivre en France, avec sa jeune sœur Rosario, décédant le 8 juin 1994, à Ciboure.

giés basques collaborateurs du réseau à Saint Jean de Luz -Ambrosio San Vicente Arrieta et Martín Hurtado de Saracho Murua, ainsi qu'Alejandro Elizalde seront arrêtés, alors qu'Anabitarte tout comme l'irunaise Maritxu Anatol réussissaient à s'échapper<sup>31</sup>.

Après s'être entretenue et être arrivé à un accord avec les services britanniques qui l'aideront et prendront en charge les fugitifs, «Dédée» qui retourne à Saint Sébastien, chez les Aracama, est dans l'obligation de trouver un nouveau passeur car Tomás Anabitarte a disparu sans laisser de traces, poursuivi, semble t-il, par la police espagnole. De toute façon, «Dédée», qui compte maintenant avec l'aide britannique, veut rechercher un autre passeur pour s'occuper exclusivement du passage des aviateurs. Aracama a déjà pensé à une solution et dans l'après-midi même, dans sa voiture à gazogène, il emmène «Dédée» au rendez-vous avec le nouveau passeur qui n'est autre que Florentino Goikoetxea Beobide, lui aussi d'Hernani, qui, à partir de cet instant, commencera à travailler de manière permanente pour la filière, devenant son maillon essentiel dans le trajet final. Nous sommes en été 1941. C'est ainsi que naît ce qui deviendra une étroite collaboration et une amitié entre Florentino et le réseau «Comète», qu'il servira fidèlement jusqu'en 1944.

Florentino, qui est né le 14 mars 1898 à la ferme «Alzueta» d'Hernani, a donc 43 ans à cette époque. Il a passé une partie de sa jeunesse à Hernani. Passionné de chasse, expert dans la capture de furets, loutres, genettes, martres et fouines alors très abondants dans cette contrée (*huruba, lepatxuria, lepo-oria, iyaraba et basakatua*) et surtout de pêche au saumon, il pratique ces activités avec son frère Pedro et ses amis Martín Errazkin et Tomás Anabitarte que nous avons vu œuvrer avec «Dédée» lors de sa première traversée. Individualiste, libre et anarchique, - il avait l'habitude de disparaître quelques temps de la ferme -, avant la guerre, il travailla dans une scierie de Saint Jean de Luz, ce qui permet de penser qu'il tissa déjà des liens et des amitiés dans cette région. Son père, qui voulait le voir revenir au pays, lui acheta une gabarre (que l'on peut encore voir actuellement à la cidrerie «Alzueta»), afin qu'il se consacre à l'extraction du sable sur l'Urumea à la hauteur du quartier de Gros de Saint Sébastien, ce qu'il fit pendant quelques temps. La gabarre remplie, il se dirigeait par l'estuaire de l'Urumea jusqu'aux embarcadères de Portutxu (Garziategi) à Martutene ou Ergobia. Il se consacra rapidement à la contrebande aussi.

Après le déclenchement de la guerre civile, un jour, sans que l'on sache exactement à quelle date, la Garde Civile accourt à «Alzueta» à la recherche de Florentino, sans que l'on sache non plus pour quel motif exact, peut-être sur dénonciation ou pour lui demander de se présenter aux autorités militaires. Florentino demande l'autorisation d'aller laisser sa bicyclette à l'atelier de plomberie où travaille son frère Nicolás, dans la rue Cardáveraz d'Hernani. L'officier de la Garde Civile, nommé Pescara, le laisse partir et Florentino s'enfuit immédiatement dans la montagne et après être passé par la ferme «Juan Antonenea»

<sup>31</sup> Archives du Ministère des Affaires Etrangères (Madrid). R-Leg. 2224. Expd. 23.

de ses amis les Erdocia, il s'échappe en France. Il s'installa à Ciboure où, probablement, il continua de se consacrer à la contrebande et où il se lia d'amitié avec Kattalin Aguirre, future collaboratrice de la Résistance française et qui aussi fera rapidement partie du réseau «Comète».

Pendant les années de l'occupation allemande, Florentino interviendra comme passeur (*mugalari*) se consacrant à faire franchir la frontière, ce qu'il faisait presque toujours au même endroit. «Comète» se chargeait de recueillir les aviateurs alliés qui étaient abattus au-dessus de la Belgique, la Hollande et le Nord de la France au retour de leurs incursions aériennes sur l'Allemagne. Ensuite il les acheminait, après de longues et périlleuses étapes, jusqu'à Saint Jean de Luz et Ciboure, sur la Côte Basque. Là, à la tombée de la nuit, Florentino les recueillait par petits groupes et cheminant de nuit, à pied, depuis Ciboure, ils gagnaient la ferme «Bidegain-Berri» d'Urrugne d'où, après s'être reposés un moment, ils repartaient vers la Bidassoa où ils parvenaient après 4 heures de marche nocturne.

A la hauteur de «San Miguel», ancienne gare des chemins de fer de la Bidassoa, que l'on peut toujours voir aujourd'hui (à gauche de la route, un peu avant d'arriver au pont d'Endarlaza, en venant de Béhobie), Florentino traversait la voie et ensuite la route, avec ses aviateurs, et commençait la montée vers Erlaitz et Pagogaña, sur la voie menant à Oyarzun. Là, Florentino les laissait aux soins des Garayar, originaires eux aussi d'Hernani, bien qu'habitant dans le quartier d'Alzibar, et s'en retournait à Ciboure, chargé de marchandises difficiles à trouver dans la zone occupée du Pays Basque ou avec du courrier pour les organisations de la Résistance en France. Ce parcours, Florentino le réalisera tant que durera l'occupation allemande et sa figure légendaire deviendra un symbole pour tous ceux qui fuyaient la tyrannie nazie.

Ceux qui franchirent la Bidassoa avec lui garderont en mémoire la figure pittoresque du *baserritarra*-fermier d'Hernani leur faisant grimper les montagnes escarpées conduisant à Oyarzun tandis qu'à voix basse, au milieu des ténèbres, il les encourageait avec sa phrase favorite: «*Deux cents mètres*», qui peu après se convertissaient en deux cents autres mètres et cela de façon continue, et presque éternelle pour les fugitifs, jusqu'à ce qu'ils parviennent à destination.

Manière ingénue de motiver les aviateurs exténués qui arrivaient à Oyarzun au bord de l'épuisement après avoir marché de nuit durant presque 8 heures. Mais Florentino avait d'autres ressources pour rendre le voyage supportable. Parfois, en pleine montagne et en pleine obscurité, il s'allongeait par terre et du tronc creux d'un arbre il sortait une bouteille de brandy (de la marque «Terry») qu'il y avait caché lors d'un précédent passage et après avoir partagé quelques rasades, il reprenait la marche.

Cela vaut la peine de transcrire les impressions ressenties par «Dédée», la dirigeante et fondatrice de «Comète», la première fois qu'elle franchit la Bidassoa avec Florentino<sup>4</sup>:

---

<sup>4</sup> Rémy: *La ligne de Démarcation, Réseau Comète*. Tome 1, Librairie Académique Perrin, Paris, 1966, page. 78.

*«(Dédée)... suivit son passeur, mettant les pieds là où Florentino les avait mis de peur de le perdre, tant l'obscurité était profonde sous la pluie qui ne cessait de tomber. Au vu de la démarche zigzagante du basque elle se rendit rapidement compte qu'il était ivre. Son aspect s'améliora quand il commença à grimper.*

*Tous deux arrivèrent au sommet de la colline et, ensuite, la descente commença. Soudain, Florentino chuta. Ceux qui ont vécu une expérience semblable savent que l'on entend tomber celui qui vous précède, que l'on fait tout son possible pour ne pas l'imiter mais que l'on tombe sur lui car la boue collée à la semelle de l'espadrille glisse sur la boue arrachée lors de la chute initiale.*

*Florentino tomba plusieurs fois avant de terminer la descente et à chaque fois Dédée tombait sur lui. Chaque fois aussi, Florentino la prenait dans ses bras en disant «un petit baiser». Dédée n'avait pas besoin de connaître l'espagnol pour savoir ce qu'il voulait et protestait —«non, non!»*

*«Pourquoi non», disait Florentino.*

*Dédée ne cérait pas, se relevait. Florentino faisait de même, reprenait la marche et se séparait un peu plus. La comédie recommençait et elle dura huit heures, dans l'obscurité et sous la pluie».*

Florentino savait aussi avoir ses traits d'humour bien que leur manifestation laissât stupéfaits les fugitifs terrifiés qui tentaient de mener à bien le périlleux passage de la frontière dans les meilleures conditions de sécurité et le plus vite possible. En novembre 1942, après toute une série d'arrestations dans le secteur belge de «Comète», plusieurs de ses membres, poursuivis par la Gestapo décident de franchir la frontière et d'aller à Londres. Des années après, l'un d'eux, Georges d'Oultrémont, se souvenait encore de son inoubliable traversée avec Florentino:

Florentino gehiagotan erori zen jaitsiera bukatu aurretik eta aldiro-aldiro "Dédée" haren gainera irristatu zen. Eta aldiro-aldiro Florentinok besoetan hartu eta "pequeño beso" esaten zion. "Dédée"k gaztelera jakin beharrik ez zuen, kontua zein zen jakiteko, eta kontra egiten zion: "¡no, no!".

"Por qué no?" esaten zion Florentinok.

"Dédée"k ez zuen etsitzen, zutik jartzen zen. Florentinok gauza bera egiten zuen, abian jartzen zen eta aldendu egiten zen gehixeago. Komeria hasten zen berriz, eta zortzi ordu irau zuen, ilunpetan eta euritan.»

Florentinok umore ona erakusten ere bazekien, nahiz eta haren ateraldiek harrituta uzten zituzten iheslari izutuak, Bidasoako muga arriskutsua segurtasunik handienarekin eta ahal zen bezain azkar igarotzea beste nahirik ez zutenak. 1942ko azaroan, Belgika aldean "Comète" sarearen hainbat kide atxilotu ondoren, Gestapok jazarritako lagun batzuek muga igarotzea eta Londresera itzultzea erabaki zuten. Haietako batek, Georges d'Oultrémont-ek, honela gogorazten zuen Florentinorekin egindako ibilaldi hura:

«Inoiz probatu dituzu Euskal Herrian jaten diren babarrun beltz-beltz horiek, baba lodi antzeko batzuk, hesteetan hutsik egin gabe ondorio jakina sortzen dutenak? Florentinok haien platerkada handi bat irentsi zuen, nonbait, bideari ekin aurretik. Buru zihuan, gau erabat beltzean, eta gu haren atzetik genbiltzan, bata bestearren atzean. Gelditu zen bat-batean eta "shii" entzun genuen. Bihotza taupaka genuen, etsaien patruila bat zelakoan, baina ikaragarrizko brrrrrunnn! batek durundi egin zuen eta mendiz mendi zabaldu zen haren oihartzuna. Florentino izan zen, haizeak pilatu zitzakion urdailean nekez digeritutako babarrunak zirela-eta, eta zarata handiz bota berri zituen. Geure onera etorri aurretik, guregana itzuli eta esan zuen: "Francorentzat!"<sup>5</sup>.

Egia da Florentinok halako lizentzia batzuk hartzen zituela bere lan gogorran, baina egia da, era berean, bere aldeko adostasuna lortu zuela berarekin jar-dun zuten lagun guztien artean, hori ohikoa ez izan arren. Bai "Comète" sarearen kideak, bai haren gidaritzapean muga hain egoera larrieta igaro zuten abia-

<sup>5</sup> Rémy, aipatu obra. 1. liburukia, 338-9. or. Margarita de Gramont-ek, "Réseau Margot"en sortzaileak eta Florentinoren zerbitzuak batzuetan erabili zuenak "le pétomane" izendapenarekin aipatzen du. Vid. Emilienne Eychenne: *Les Pyrénées de la Liberté, 1939-1945. Le franchissement clandestin des Pyrénées pendant la Seconde Guerre Mondiale*. Editions France Empire, Paris, 1983, 177-78. or. Beste alde batetik, eta nahiz zalantzarik ez egon Florentino, bere xalotasunean, egiazko antifrankista izan zela, ez dirudi gerra zibilean borrokan ibili zenik. Rémyk (I, 18. or) eta Alan W. Cooper-ek beren obretan kontrakoa esan arren (Alan W. Cooper, *Free to Fight Again. RAF Escapes and Evasions. 1940-45*, William Kimbler. Wellingborough, Northamptonshire, England, 1988, 135. or). Beste egile batek, Jean Hondart-ek, honela idatzi zuen *Le Monde*: "Les évadés de France via l'Espagne" gaiaari buruz 1988ko urriaren 23-24an agertutako artikulu batean: Florentino «ayant combattu pendant la guerre civile dans le camp républicain et figurant sur la liste des "rouges" à fusiller en cas d'arrestation en Espagne, aurai pu chercher à se faire oublier. Il fut cependant, celui qui, de tous les passeurs basques, prit le plus de risques». Esanak esan, Florentino, antza denez, gerra zibilean ez zen soldadu ibili, eta Guardia Zibila etxera bila etorri zitzainean joan zen Frantziera ihesi, arrestian azaldu denez.

doreak bat zetozen: leiala zen guztiz, buru-belarri aritzen zen, eta ardura osoa eta seriotasuna agertzen zituen beti une zailetan.

"Dédée"ren ahizpak, Suzanne Wittek-ek ("Cecile Jouan"), Bruselan sarearen laguntzailea zenak eta "Dédée" bezala Alemaniara deportatu zutenak, liburu bat idatzi zuen gerra ondoren, eta honela deskribatzen du bertan Florentino: "... euskaldun jatorra, zintzoa, leiala, erabateko fideltasuna zuena. Konfiantza osokoa »<sup>6</sup>.

Itxura xaloa zuen, hitz gutxikoa zen, baina Florentinok egindakoa aparta izan zen, berebizikoa: makina bat abiadore eta gizon eraman zituen mugaz bestaldera, bai eta erresistentziarako posta ugaria ere, eta, "Comète" sarearekin ez ezik, "Nana" eta "Margot" sareekin ere aritu zen, Kattalin Agirre bere lagun handiarekin batera.

Okupazioaren bukaera aldera, aliatuak Frantzian lehorreratu eta armada naziekin borrokan latz ari zirenean, Florentinok lehenengo ezbehar larria izan zuen.

1944ko uztailerako bukatu ziren abiadoreen muga-igarotzeak, frontea Frantzian bertan egonda Donibane Lohizunera iristea ezinezkoa zen eta. Florentinok, hala ere, muga zeharkatzen jarraitzen zuen, De Greeftarrek Donostiako zerbitzu bretainiarrei bidaltzen zien posta garraiatzeko. Joan-etorri horietako batean, uztailaren bukaeran, alemaniarrekin topo egin zuen ustekabe-an, Oiartzundik Donibane Lohizunera itzultzen ari zela. Alemaniarrek mugako zaintza handiagotu zuten, eta, norbait zebilela sumaturik, tiro egin zuten metraladorez. Lau balak zauritu zuten Florentino bernal, izterrean eta sorbaldan, eta lurrera erori zen. Aldean zeuzkan agiriak ezkutatzea lortu zuen, baina atxilotu eta Baionako ospitalera eraman egin zuten, zentzuzko hitzik atera ezin ziotela. Ez zekiten zer garrantzia zuen atxilotutakoak eta kontrabandista soila zela pentatuko zuten beharbada. Galdeketa atzeratu nahiago izan zuten, zauritua apur bat sendatu eta garraiatzeko moduan egon arte. De Greeftarrak laster jarri ziren martxan eta alderdi hartako erresistentzia-kideen laguntzaz, eta batez ere Angeluko Udaleko erresistentzia-taldearen laguntzaz, alemaniarren uniformea jantzi eta Florentino askatu egin zuten eta Miarritzen ezkutatu. Antoine Lopez polizia gazteak zuzendu zuen erreskatea, eta Jules Artola adiskidea izan zuen laguntzaile. Florentino ezkutuan egon zen egun batzuetan, baina 1944ko abuztu bukaeran naziek Euskal Herria utzi zuten, beren atzera egite orokorrean. Florentino herren ibili zen pixka bat orduz geroztik.

Abenturaz beteriko bizimodua izan zen Florentinorena, eta "Comète" sarearekin egindako ibilaldiak izan ziren handienak; eta ez da ahazteko, bestalde, garai hartan, naziek atxilotuz gero, kontzentrazio-esparru batera bidaltzen zintzutxela, Gestapok egoki galdekatu ondoren, eta horrek bertan hiltzea zekarrela sarri askotan.

Baina Florentino, polizia espainiarak ere harrapatu nahi zuena, ez zen kikildu zaitasun horiengatik. Adiskidetasun handia izan zuen, lehenbizi "Dédée"-

<sup>6</sup> Cécile Jouan: *Comète. Histoire d'une ligne d'évasion*. M.Thomas éditeur. Les éditions du Beffroi. Furnes. Belgique. 1948. 15. or.

rekin, sarearen sortzailearekin, eta gero, 1943ko urtarrilaren 15ean "Dédée" atxilotua izan ondoren, Jean François Nothomb "Franco" bere lagun eta kidearekin, eta adiskidetasun horrek haien arteko lankidetza markatu zuen, "Comète" sarearen kideen artetik bizirik atera ziren guztiek gogoratzten duten moduan.

Airey Neave, espioitza zerbitzuetako militar bretainiar bat, "Comète"ren abenturan Londrestik eta Gibraltarretik parte hartu zuena, honela oroitzen da Florentinoz mirespenez:

*«Bikote bitxia osatzen zuten ("Dédée" eta Florentino): batetik, mendiko gizona, handia, indartsua, baina letragabea, koñak zalea baina nekaezina eta arriskuaz arduratzentz ez zena, eta, bestetik, "Dédée" saiatu eta delikatua, beti lasaia. Pirinioetako mendiak talde desberdinak 25 aldiz zeharkatzeko arriskuak eraman zitzuten elkarrekin, eta beti onik itzuli ziren Frantziara. Florentinok aurpegian zeraman bere egiazko handitasuna, batera zimurrak eta finak ziren hazpegi haitan; animalia paregabe bat ekartzen zizun gogora. Bere lorategian zutik, udako egun eder batean, lore dirdiratsuen eta tximeleten artean, halako edertasun errespetagarri bat zeron. Haren sudurak eta ahoak naturarekin bat egiten duenaren indar lasaia zeukaten. Haren eskuak ahaltsuak ziren. Zabar janzten zen, eta kulunka zeraman txapela handia buruan. Menda ikaragarri ondo ezagutzen zuen. Beti aurkitzen zuen bidea, baita kopa batzuk hartuta txispatuta zebilenean ere. Bidexka guztiak ezagutzen zituen, bidezidor guztiak, eta arriskua sumatzen zuen, zakur batek egingo zukeen gisan. Egunduko indarra zuen, eta, hari esker, erraz eraman zituen etengabeko ibilaldi haietako nekeak, udan zein neguan, 1941etik Frantzia 1944an liberatu zen arte.*

Behe-laino heze itogarrian ere aurkitzen zuen bidea Florentinok. Pixka batean gelditu eta lur gogorra jotzen zuen espartinen zolarekin. Bidea aurkitzen zuelarik, agudo ibiltzen zen, taldeko bestek estropozu egin eta irristatzentz ziren bitartean. Batzueta, gau ilunean gelditu eta hark bakarrik ikusten zuen enbor edo harkaitz batera jotzen zuen.

*Arin bilatu eta espartin pare bat edo botila bat koñak ateratzen zuen, hiru hilabete aurretik han ezkutatua. Euskaraz besterik ez zuen egiten. Gainerakoan, "doucement, doucement", "espere un poco" eta "tais-toi" ziren harren erdarazko hiztegia osatzen zuten hitzak »<sup>7</sup>.*

Florentino oso lotua egon zen beti Hernanirekin, bere jaioterriarekin. Han zuen, eta du, bere familia guztia. Bai eta gazte-denborako lagun batzuk ere, bere ezkutuko lanean laguntzaile izan zituenak. Martin Errazkin Iraola, gorago aipatutakoa, nabarmentzen da haien artetik, zeina 1909ko otsailaren 10ean jaio



Martin Errazkin Iraola.

<sup>7</sup> Airey Neave: *Petit Cyclone*. Editions "Novissima". S.C. Bruxelles. 1954, 61-62. or.




Ezkerrean, Florentino, Antoine D'Ursel kondea eta USAAFeko John Burch teniente ipar-amerikarraren oroitzenetan jarritako gurutzearen ondoan, Bidasoaren alde frantsesean. Itota hil ziren 1942ko abenduaren 23an, ibaia zeharkatu nahirik. Martin Errazkin eta Manuel Iturrioz izan ziren mugalari aldi hartan. Argazkiko gurutzea ur handi batek eraman zuen, eta gaur egun euskal hilarri bat dago haren ordez, gorago, mendiaren hegalean, eskuineko argazkietan ikus ditzakegunez.

baitzen zen "Otsu-Enea" baserrian, Tomas Anabitarteren baserriaren ondoondoan. Martinek itsas-armadan egin zuen soldadutz, Ferrolen, gerra zibilaren aurretik, eta Frantziara ihes egin zuen, Florentino bezala, gerra bukatutakoan. Perpinyàtik sartu zen Frantziara 1939ko otsailaren 10ean, eta Gurseko kontzentrazio-eremura eraman zuten, Kataluniatik zetozentz errepublikazale espanyiar, brigadista atzerritar eta euskaldun askoren moduan. Mundu-gerra hasi zenean, lan-konpainia batera bidali zuten, armada frantziarraren 182 zenbakiko infanteria-erregimentuaren menpe, eta Giraondako Saint Jean de Illac herrian eta Landetako Luxey-ko abazio-zelaiaren eraikuntzan aritu zen lanean, Frantziak 1940ko ekainean porrota izan zuen arte. Geroago, Euskal Herrira etorri zen bizi-tzera, eta hemen Florentinorekin harremanetan hasi eta, hark bezala, kontrabandoan jardun zuen.

Abiadore aliatuak mugaz bestaldera pasatzen ere aritu zen, Florentinorekin batera zenbaitetan, eta protagonista izan zen "Comète" sareak muga-inguruaren izandako gertaerarik zorigaitzokoenetako batean. Izan ere, 1943ko eguberri-bezperan, Florentino gripeak iota zegoen, eta egun hartarako antolatuta zegoen muga-igarotzean ezin zuen parte hartu. Ibaiak ur handia zekarren. Florentinok bi mugalari bidali zituen bere ordez. Haietako bat Martin Errazkin zen, eta bestea

mikelete izandako bat, Orexakoa, Manuel Iturrioz izena zuena eta Hernanirekin lotura izan zuena, aurrerago ikusiko den bezala. Taldea nekez igaro zen beste aldera, handiegia izan arren, baina bi lagun atzean geratu ziren. Guardia Zibila ibai aldean mugimendua zegoela konturatu eta tiroka hasi zen ilunpetan. John Burch abiadore ipar-amerikarra eta Antoine d'Ursel, "Jacques Cartier" izangoitikoa, "Comète" sarearen kide eta Belgikan antolakuntza-arduraduna zena, itota hil ziren, ur-laster biziak eramanda. Gainerako guztiak atxilotu zitzuten, bi mugalariaiak



izan ezik. Martin Errazkinek zoritzarreko zeharkatze haren oroitzapena izan zuen gogoan bizitza guztian. Donibane Lohizunen bizi izan zen, eta hango "SOLUCO-Société Luzienne de conserves" kontserba-fabrikan lan egin zuen, erretiroa hartu arte. Han hil zen, 1990eko azaroaren 13an, eta hango hilerran dago lurperaturik. Aliatuen alde egindako lana eskertzeko asmoz, bai Britainia Handiko gobernuak, bai AEBetakoak diploma bana eman zioten, bat Eisenhower generalak izenpetua, eta bestea Tedder aire-armadako mariskal britainiarak.

Hori ez da, ordea, gorago aipatutako Anabitarte gain, "Comète" sarean aritu zen hernaniar bakarra. Hasieran, 1941. urtean, Urruñako "Thomas-Enea" base-



ria "Comète"k abiadoreak pasatzeko eta elkartzeko erabiltzen zituen puntuetako bat zen. Baino kontrabandista bat 1942ko uztailean gertatutako istripu batek beste leku bat bilarazi zien. Babes-gune berria, Bidasoa zeharkatu aurreko, "Bidegain-Berri" baseria izan zen ordutik aurrera, Frantzia Usandizagaren baseria<sup>8</sup>, Urruñako mendietan zegoena, mugara bidean. Frantzia alarguna zen, hiru seme-alabarekin eta laborantza-lanean laguntzen zion errefuxiatu hernaniar batekin, Juan Manuel Larbururekin, bizi zen, lur-soro txiki batek eta behi gutxi batzuek ematen ziotenarekin bizimodua aterezaz. Orduz geroztik, baserri horretara bildu ziren iheslariak, muga pasatzen saiatu baino lehen. Batzueta, eguraldia oso txarra denean, bertan gaua eman ere egiten zuten. Juan Manuel Larburu Odriozola, "Comète" sareari buruzko bibliografia eta bereziki Remyren obran Jean Larburu gisa aipatzen dena, Hernaniko "Berakorte" baserriko seme zaharrena zen, eta 1912ko abuztuaren 20an etorri zen mundura. Gerra zibilean armada frankistan sartu eta Lleidako iparraldeko frontera bidali zuten, Aragoiko mugan. Han, Hernaniko auzikide batek, haren konpainia berean zegoenak, "gorri"tzat salatu zuen. Zer gertatuko zitzzion beldur zen, eta buruan izango zuen, inondik ere, bere lehengusu Juan Jose Elustonodori, Urnieta "Eula" baserrikoari, gertutakoa, Andoainen fusilatu zuten-eta, salaketa batengatik atxilotu ondoren. Frantziera desertatzea erabaki zuen, eta Frantziatik Bartzelonara eraman zuten, han Errepublikako Gobernuak eusten baitzion artean. Bartzelonan Miguel Lizeaga Larburu sozialistak lagundu zion. Lizeaga haren aitaren lehengusua zen, hernaniarra, Ereñotzukoa, Irungo Udaletxearen zinegotzia eta Errepublikaren Gobernuak 1936ko martxoan osatutako Gipuzkoako Batzarde Kudeatzaileko presidentea izandakoa. Hark lana aurkitu zion, eta elkarrekin erbestera joan ziren, Errepublikaren porrotaren ondoren. Frantzian zegoen berriz, eta, Ameriketara joatea buruan erabili ondoren -Lizeagak egin bezala-, Ipar Euskal Herrian geratu zen. Hainbat baserritan ibili zen lanean, harik eta "Bidegain-Berri"n gelditu zen arte, non



Juan Manuel Larburu Odriozola.

<sup>8</sup> Françoise Haltzuet zen haren izena, ezkondu aurretik. Philippe Usandizaga izan zuen senarra, 1939ko abuztuan hil zena. Frantzia Beran jaioa zen.

Frantxiari laguntzen baitzion nekazaritza-lanean, gorago azaldu den moduan. Concha, haren arreba, Jose Maria Goikoetxearekin zegoen ezkondua, Florentinoren anaia batekin, eta, Jose Maria gerra ondoren hil zenean, Pedro Goikoetxarekin ezkondu zen, beste anaietako batekin. Larburu Hernanira itzuli zen zenbaitetan ezkutuan, bere gurasoei bisita egitera<sup>9</sup>.

1943ko urtarrilaren 15ean, gauez, "Bidegain-Berri" baserrian abiadore-talde bat "Dédée"rekin Bidasoa aldera noiz abiatuko zain zeudela, alemaniarrek ustekabeen baserrian sartu eta Frantzia Usandizaga etxejabea, Juan Manuel Larburu, "Dédée" eta han ziren abiadoreak eraman zituzten. Kalbario luzea hasi zen haientzat horrela, erbesteratzearekin bukatuko zena. "Dédée"k itzultzea lortu zuen, baina ez Frantziak, nazien esparru batean hil baitzen 1945eko apirilaren 12an, 36 urte zituela, hiru seme-alaba umezurtz utzita.

Juan Manuel Larburu Baionatik Fresnesera eraman zuten 1943ko ekainaren 3an, Jean Dassié-rekin batera ("Comète"ko kidea hau ere), eta handik, sei egun geroago, Compiégneko esparrura. Esparru hori Alemaniara erbesteratzeko aurreko urratsa zen, baina Larburuk, herrialde neutral bateko nazionalitatea izan-



Juan Manuel Larburu Odriozolaren desagertze-akta eta Juan Larbururen heriotza-egiaztagiria. Juan Manuel Larburu Fresneseko presondegitik eta Compiégneko kontzentrazio-esparrutik pasa eta gero desagertu zen, eta Juan Larburu 1944ko apirilaren 4an hil zen Flossembergoko kontzentrazio-esparruan.

<sup>9</sup> Ion Zabaleta Larbururekin egindako elkarritzketa. Urnieta, 1995eko urtarrilaren 4a.

nik, erbesteratuko ez zutela eta berehalako Urruñara itzuliko zela espero zuen. Compiégnen 1944ko urtarrilera arte egon zen gutxinez, 15.557 matrikula-zenbakirekin. Hilabete horrek 19 zituenean, Parisko S.D.ren aginduz (polizia nazia), Buchenwald-eko kontzentrazio-esparrura bidali zuten (40.644 matrikula-zenbakia), eta geroxeago, otsailaren 22an, Flossemberg-ekora (6.558 matrikula-zenbakia). Harekin batera ihesbide-sareko beste bi laguntzaile deportatu zituzten, eta Larbururen berri eman zuten haien 1960an. Ambrosio San Vicente harekin egon zen Compiégne, Buchenwald eta Flossemberg, eta, adierazi zuenez, Larburu Flossembergen ikusi zuen azken aldiz eta "egoera benetan tamallarran zegoen, oinez ibiltzeko ere indarrik ez zuela, eta gauza ez zela ematen ziguten apurra jateko". Eta lekukotasun horrekin bat dator Martin Hurtado de Saratxorena, horren arabera "haren egoera hain zen desesperatzeko modukoa, ezen jan ere ezin baitzuen egin". Deportatutako beste euskaldun bat, Santiago Anabitarte Altuna, orduan Donibane Lohizunen bizileku zuena, Compiégnen eta Buchenwalden egon zen harekin, eta azken esparru honetara iristean honela zegoela adierazi zuen: "erabat nahastuta eta leher egina, ez zuen jaten, eta arrazoitzeko gauza ere ez zen, hain nekatua egonda nekez ulertzen baitzitzaien esaten zuena". Geroago Flossembergera bidalitako lagun batzuek Anabitarteri esan ziotenez, "gero eta nahastuago zegoen, etsipena hartua, eta han hil zen"<sup>10</sup>.

Han hil zen, izan ere, 1944ko apirilaren 4ean, 32 urte zituela, Frantzia baino urtebete lehenago, ia-ia<sup>11</sup>. Heriotzaren kausa, esparruko erregistroaren arabera, "Herzschwäche" izan zen, "bihotzeko ahulezia!" edo antzeko zerbait.

Harrigarria bada ere, haren izena ez zen urte askotan agertu Urruñako "Monument aux Morts" monumentuan, zalantzak gabe han egotekoa bazen ere hasieratik, Frantzia Usandizagaren ondoan. "Akatsa" orain dela urte gutxi batzuk zuzendu zuen Urruñako Udalak, "Comète sarearen lagunak" izeneko elkarteak hala egiteko eskatu zionean. Juan Manuel Larburuk AEBen "Medaille



The President  
OF THE UNITED STATES OF AMERICA  
has directed me to express to  
JUAN LARBURU

the gratitude and appreciation of the  
American people for gallant service  
in assisting the escape of Allied  
soldiers from the enemy

Dwight D. Eisenhower

DWIGHT D. EISENHOWER  
General of the Army  
Commanding General United States Forces European Theater

<sup>10</sup> Martin Hurtado de Saracho, Ambrosio San Vicente eta Santiago Anabitarte Altunaren lekukotasunak, Donibane Lohizunen jasoak, 1960ko irailaren 26an, abenduaren 22an eta urriaren 7an, hurrenez hurren.

<sup>11</sup> Nazioarteko Gurutze Gorria. Service International de Recherches. Genève. Juan Larburu Odriozolaren fitxa. Sterbeurkunde Nr. 574/1950.

from Freedom"<sup>12</sup> eta Eisenhowerk izenpetutako diploma jaso zituen hil ostean, etsaietatik ihes egindako soldatu aliatuei emandako laguntza eskertu nahian.

Garaiartarrek ere parte hartu zuten "Comète" sarearen ekintzetan, baina hauek Oiartzunen aritzen ziren. Familia honek Hernaniko jatorria zuen, eta Oiartzungo Altzibar auzoan bizi zen. Abiadoreak Bidasoa zeharkatu eta Oiartzungo "Sarobe" baserrira iristen ziren lehenik, baina ez ziren han lizaro gelditzten. Atseden-leku bat besterik ez zen, Oiartzunera jaitsi aurretek. Handik Altzibarrera joan behar zuten, non Garaiartarrek zuten etxeen babesten ziren. Batzuetan, Florentino bera jaisten zen "Sarobe"tik Altzibarrera, abisua ematera. Gero, Altzibarretik Garaiartarren familiako norbait igotzen zen, abiadoreen kargu hartzera. Behean, "Bastero-Berri" izeneko etxeen ezkutatzen ziren ("Torre" ere deitzen zaio). Etxe horretan ostatu edo sagardotegi moduko bat zuten Pedro Arbide Martiarena oiartzuarrok, "Aldako" baserrikoak, eta Maria Garaiar Rekalde haren emazteak. Maria Garaiar (1894-1984) Hernaniko "Lizarraga" baserriko zen, eta hura zen "Comète"rekin harremanetan zegoena, Pedro haren senarra alde batera geratzen baitzen.

Pedro Arbideren eta Maria Garaiarren seme-alabek ere esku hartu zuten amaren ekintzetan, "Comète" sareari laguntza emanez. Garai hartan zazpi senide ziren: Juanita, Luciano, Manuel (hildako bakarra), Venancio, Vicente, Nicolas eta Maria Teresa.

Abiadoreak eta iheslariak "Sarobe"tik "Bastero-Berri"ra iristen zirenean, zer-bait jan eta atseden hartzen zuten pixka batean. Zenbaitetan 12 lagun ere izan ziren batera, eta, nahiz jeneralean goizez berehala abiatu Erreenteria aldera, batzuetan gaua han pasatzen zuten, egoera noiz hobetuko zain.

Sarri askotan, Venanciok eta haren anaietako batek abiadoreei laguntzen zieten Erreenteriaraino. Abiadoreak hiru izaten ziren, eta bidea bizikletaz egiten zuten, ondoko hirira lanera joaten ziren oiartzuarren artean nahastuta. Bizikleta zen orduan ibiltzeko modurik ohikoena, eta horrela inori ez zioten arreta hartzan Larzabaleko bidegurutzea igarotzean, non egoten baitzen Guardia Zibilaren kontrola.

Abiadoreek Donostiara joateko tranbia hartzan zutenean, Venancio Arbidek Erreenteriako bere osaba-izeben etxeen uzten zituen bizikletak. Han, Maria Arbidek, aitaren aldeko izebak, janari-denda bat zeukan Biteri kalean, non Ignacio Urbietak bere senarrarekin batera aritzen baitzen lanean -gaur egun Lekuona gozo-denda dagoen lekuant-. Gero, Venanciok bizikletak hartu eta etxera eraman-t zituen, Altzibarrera.

Ondo-ondoan, "Bastero-Txiki" izeneko etxeen -Altzibarreko eskola zaharra-, Mariaren anaia bat eta haren emaztea bizi ziren. Anaiak Francisco Garaiar zuen izena, nahiz jendeak "Paco" edo "Patxi" deitu (1981ean hil zen), eta haren emaztea Claudia Escudero<sup>13</sup> zen, oiartzuarra, Artikutzako errepidean dagoen "Aritz-

"luzieta-Goikoa" baserriko. Bost seme-alaba zituzten orduan, eta haien denek laguntzen zioten "Comète"ri, bai eta haien ahaideek eta auzokoek ere.

1943ko azaroaren 13an Bizkaiko Brigada Mugikorreko agente batek eta Madrileko Brigada Politiko-Sozialeko beste batek Bernardo Arakama atxilotu zuten eta Bizkaiko Polizia-Buru Nagusiaren esku jarri Gipuzkoako Gobernu Zibilaren ziegetan, eta, handik egun batzuetara, polizia Altzibarren agertu eta Oiartzungo auzo honetan "Comète" sarean aritzen zirenak atxilotu zituzten. Azaroaren 28an, Pedro Arbide Martiarena, 57 urtekoa, kontratista, Ondarretako presondegiaren sartu zen, Segurtasun Zuzendaritza Nagusiaren esku, eta han egon zen 1944ko maiatzaren 31 arte. Haren emaztea, Maria Garaiar Rekalde, 50 urtekoa, "etxekoandrea" fitxaren arabera, egun berean sartu zuten<sup>14</sup>. Francisco Garaiar Donostian zegoen atxiloketak egin zituztenean, kontsulatutik abisua hartu eta ezkutatu egin zen. Haren emaztea, Claudia Escudero Aranburu, 36 urtekoa, biharamunean eraman zuten Ondarretara, eta ez zen handik atera 1944ko apirilaren 20 arte. Garaiar-Escudero senar-emazteen bost seme-alabak senideen artean banatu ziren. Kontsul britainiarra Oiartzunera ez itzultzeko aholkatu zien, eta Behobiara joan ziren bizitzera, hasiera batean, eta, geroago, 1947an, Frantziara, ez baitziren seguru sentitzen<sup>15</sup>.

Ezin da aipatu gabe utzi "Comète" sarearen beste kide konfiantzazkoa, hernaniarra hau ere, Donostian bizi bazen ere: Federico Armendariz. Izan ere, Armendariz "Comète"k Donostian zuen beste laguntza-puntuaren, Arakamarekin tartekatzen zena, egoeraren arabera.

Federico Armerdariz Ugalde 1897ko ekainaren 16an jaio zen Hernanin. Haren aita Hernanira joan zen bizitzera Zaldibiatik, eta gurdia egiteko eta konpontzeko lantegia jarri zuen bertan, aurrerago ibilgailuen karrozeria konpontze-ko tailerra izango zena. Armendaritzarrak Hernanin bizi izan ziren eta lantegi horretan lan egin, Federicok anaiarekin desadostasun batzuk izan eta Tolosara joan zen arte. 1923an, Maria Dolores Irazustabarrena Arregirekin ezkondu zen, Donostiako Artzain Onaren elizan. Maria Dolores ere hernaniarra zen, "Zabalaga" baserriko, non haren gurasoak maizter bizi baitziren. Tolosan karrozeria-tailerra jarri zuen, baina, frankistek herria hartu eta nazionalista iza-teagatik jazarri zutenean, Donostiara aldatzea erabaki zuen. San Bartolome kalean kokatu ziren, eta beste karrozeria-tailer bat jarri zuen, Triunfo kalearen 5.ean. Gero, Antiguo auzora aldatu zen, eta labeginetzan aritu. Gose-sasoi bete hartan, ogia etxeen egiteko balio zuen labe bat asmatu zuen. Pixkanaka-pixkanaka, negozia handituz joan zen, eta mota guztietako labeak, kafe eta kakaoa txigortze-ko gailuak, gozotegiko labeak, okindegikoak... egiten hasi zen. Horrela bada, mundu-gerraren ondoren, 1947. urtearen inguruan, "Hornos Bertan" enpresa sortu zuen Antiguoa, Juan de Garai kalearen atzealdean, beste lau bazkiderekin: Victor Gorospe, Juan de Gelbenzu, Jose Tejeria eta Garpar Iraola.

<sup>12</sup> John T. Perry kapitaina eta sekzio-buruak 1947ko maiatzaren 19ko gutunaz bidaliko zitazioaren arabera ("MIS-X Section. 7707 Military Intelligence Service Center European Command U.S. Army").

<sup>13</sup> 1995eko otsailaren 15ean hil zen.

<sup>14</sup> Ondarretako (Martutene) Presondegi Probintzialaren artxiboa. Fernando Martinez Sarasolaren espidente eta Pedro Arbide Martiarenaren eta Maria Garaiar Rekalderen fitxak.

<sup>15</sup> Maria Luisa Garaiar Escuderoaren 1992ko otsailaren 27an Hendaian izandako elkarritzeta.



*Ezkerrean Armendariz senar-emazteak – Federico eta Dolores Irazustabarrena – Kontxako barandaren parean Robert eta Iovonne Lapeyre-rekin. Azken hauetan muga igaro berriak ziren, 1943ko martxoaren 13an, Florentinok gidaturik, eta Estatu Batuetako enbaxadak Gibraltarrera eramateko zain zeuden.*

rrak ezagutu zituzten sasoi hartan. Gaur egun ere gogoratzen dute nola igaro zuten Bidasoa 1943ko martxoaren 13tik 14erako gauean, Florentinok eta Patxi Okamika haren laguntzaileak gidaturik, Albert Johnson ("B") britainiararekin eta STO'tik ihes egindako hiru "refractaire" frantsesarekin batera<sup>16</sup>. Endarlatsa-Oiartzun-Erreenteria ibilbide ohikoa egin ondoren, Donostiara iritsi eta han Federico Armendarizen eta Dolores Irazustabarrena haren emaztearen etxearen hamabost egunez ezkutatu ziren, Marina kaleko 3. zenbakiko 2.ean, Kontxako hondartzatik hurbil, beren bila noiz etorriko zain. Azkenerako, Donostiako konstulorde britainiararekin, William Harold Goodman-ekin, harremanetan jarri ondoren, AEBetako enbaxadak bidalitako autora Igeldoko errepidean igo eta Madrilera abiatu ziren. Han, hilabetea egin behar izan zuten, Gibraltarrera igaro aurretik, eta, handik, beste hilabete bat esperoan eman eta gero, Londresera iritsi ziren, konboi batean sei eguneko zeharkaldia egin ondoren.

Federico Armendariz 1963ko otsailaren 23an hil zen, 66 urte zituela. Eta Dolores haren emaztea urte batzuk geroago hil zen, 1965eko urriaren 10ean, 67 urterekin. Ez zuten seme-alabarik izan.

Derrigorrezko da, era berean, Manuel Iturrioz aipatzea, Orekan jaio arren, gorago esan bezala, Hernanirekin lotuta baitago hau ere. Gerra zibila hasi baino lehentxeago, Aldundiaren Mikelete taldean sartu eta Hernanira bidali zuten, non jende askorekin izan zuen harremana. Gerran "Dragones" izeneko batailoian ibili zen, Hernaniko jendearekin, Erdoziatarrekin besteak beste, eta, iparraldeko frontea erorita Bartzelonara joan ondoren, Frantziara erbesteratu eta Donibane

Baliteke Arakama izatea "Comète" sarean sartu zuena, karrozeria-negozioa zela-eta elkar ezagutu baitzezaketen. Eta ez zen harritzehoa izango arrazoi horregatik beragatik Alejandro Elizalde nafarra ere gerra-aurretik ezagutzea, Donibane Lohizunen erbesteratutako sare-kide hau ere automobil-sektorean aritzen baitzen lanean. Kontuan hartu behar da garai hartan ibilgailuekin loturiko negozioak ez zirela oso ugariak. Baionako Lapeyre senar-emazteek, Dassietarren ahaide zirenek eta Gestapok haien ekintzen berri izatean Londresera ihes egingo zutenek, Armendariztan.

Lohizunera joan zen bizitzera, non kontrabandoan eta pertsona-garraioan hasi baitzen alemaniarrek lurraldea okupatu zutenean. Tomas Anabitarterekin eta Santurtziko nazionalista batekin, Lezo Urreztietarekin, estuki loturik jardun zuen "Comète" sarean, eta sarri askotan lagundu zien "Franco"ri eta "Dédée"ri. 1942ko apirilaren 19an atxilotu zuten Erreenterian, autobusez Donostiatik Oiartzunera zihoala. Irungo Komisariara eraman zuten, eta han Bazán famatuak galdekatu zuen, zeinak Ortega koronela eta Manzanas komisarioa lankide baitzituen errepresio-lanetan. Bere zaindaria deskuidatu eta ziegatik ihes egin zuen. Mendira jo zuen. San Martzial aldera igo zen eta muga pasatzen saiatu, baina ezin izan zuen, zaintza oso handia zelako. Alemaniarrak haren etxeen azaldu ziren, Donibane Lohizunen. Orduan ezkutuan itxarotea erabaki zuen, eta "Aritzluzieta" baserrian hartu zuen babesra, Artikutzatik hurbil, Oiartzunen, non Manuel Escudero bizi baitzen bere arreba Maria Asuncionekin. Apirilak 22 zituen. Manuel Escudero hurbileko kobazulo batean gorde zuen, egoera noiz lasaituko zain. Han jakin zuen bere hiru lagun, mikeleteak, atxilotu zitzutela berari laguntzeagatik. Orduan baserriko mutila, 14 urtekoa, Hernanira bidali zuen, bere lagun batekin harremanetan jartzeko. Jose Erdozia zen, "Juan Antonenea" baserriko, gerran harekin ibilitakoa eta Avilesen preso hartu zutena. Elkarrengana bildu ziren azkenerako, eta tarteka elkarrekin batzea erabaki zuten. Erdozia, Hernanitik hiru orduko bidea eginez, Oiartzungo kobazulora joaten zen astean behin, eskopeta eta txakurra hartuta zenbaitetan, ehiztari baten antzera. Erdoziak tabakoa, egunkariak eta albisteak ekartzen zizkion. Hainbat hilabete eman zituen horrela mendian. Behin, Iturrioz bere etxeraino joan zen mendian barrena, Orekara, eta Oiartzunera itzuli zen berriz. "Franco"rekin harremana berreskuratu ere egin zuen, eta, are gehiago, erresistentzia frantseserako irratu-instalazio bat pasatzen ere lagundu zuen. Baino eskualde hura zorrotz zainduta zegoen. Eta egoera larriagotu zen, Dibisio Azuleko hainbat kide deseratu eta Guardia Zibila haien bila ahaleginan aritu zenean. Eta, horretaz gain, preso batzuek ihes egin zuten Santoñako presondegitik eta muga igaro nahi zutela espero zuten. Hernaniko mendietan barrena Orekara, Goizuetara, Gorritira eta abarrera joan-etorriaren ibili zen, poliziaren ihesi beti ere, eta, halako batean, ezkutuan ezkontzea erabaki zuen. Emaztegia Maria Asuncion Escudero oiartzuarra zen, "Aritzluzieta" baserrik hurbileko kobazuloan gorde zuen Manuelem arreba, hain zuzen. 1942ko azaroaren 23an izan zen ezkontza, Orekako elizan. Paco Garaia hernaniarraren koinatu bihurtu zen horrela, Cláudia haren emaztearen ahizparekin ezkondua baitzen. Ezkontzaren ondoren Hernanira joan zen, Erdozia bere lagunaren "Juan Antonenea" baserrira, eta hantxe eman zuen bolada bat, inguruko mendietan barrena ibilaldiak eginez, polizia gertu beti. 1944ko irailaren 10ean, zazpi laguneko talde bat eraman zuen, Jose Erdoziak eskaturik. Lagun horiek Frantziara pasatu nahi zuten, Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jartzeko. Muga-igarotze honetan lagundu ziezaion, Iturriozek Hernaniko bere beste lagun bat eraman zuen, Patxi Goia Zubiri, gerra zibila zela kausa Frantziara babestera pasa eta iparraldeko zenbait baserritan "morroi" ibili zena. Han ezagutu zuen Patxi Florentino, zeinak

<sup>16</sup> STO siglak Derrigorrezko Lan Zerbitzua esan nahi du.


Hernanira ekarri baitzuen, eta kontrabandoan ibili zen garai hartan, Oiartzun aldean gehienean. Iheslari-talde horretan Andres Prieto eibartarra zegoen, geroago "Gernika" batailoian sartuko zena. Gerra, ordea, bukatzen ari zen, eta

Iturrioz nekatuta zegoen arriskuz eta larrialdiz beteriko bizimodu latz horrekin. Ezkonduta zegoen, eta bi seme zituen. Donibane Lohizunera aldatu zen, eta espartingintzan hasi zen lanean. Handik pixka batera, emaztea eta semeak ekartzea lortu zuen Oiartzungo "Aritzluizieta" baserritik, eta Frantzian gelditu zen luzaro. 1981ean Donostiarra etorri zen bizitzera, eta han hil zen 1991n.

Florentino hizpide hartuko dugu berriz ere, "Comète"rekin lankidetzen ibilitako beste hernaniarrak aipatu ondoren. Esker onezko eta adiskidetasuneko erakutsi handiak jaso zituen, muga pasaraziz salbatu zituen abiadureenak ez ezik, baita gobernu aliaturenak ere. Domina eta intsignia ugari eman zizkioten, gaur egun Hernaniko "Altueta" baserrian begirunez gordezen direnak.

Florentino hiru aldiz gonbidatu zuten agintari britainiarrek Londresera, Europa guztiko eresistentzia-kideak omentzeko antolatutako ekitaldietan parte hartzeko. Horietako batean, "King's Medal for Courage In the Cause of Justice" eman zioten, eta, erregeak kondokorazioa eman behar zion ekitaldian, importazio-esportazio lanean aritutakoa zela esan zuten haren aurkezpenean, haren kontrabando-ibilerak gogoan<sup>17</sup>.

1977ko ekainaren 2an, Ohorezko Legio frantsesa eman zioten, soldadu ibilitakoen delegazioen aurrean. Abiadore kanadarrik, australiarrik, britainiarrik eta ipar-amerikarrak zeukan inguruau, Bidasoaz bestaldera berak eramandakoak asko; haren emaztea eta Hernaniko haren familia ere han zegoen, bai eta "Comète" sareko haren lagun belgikarrak eta frantsesak ere. Armada frantsesak "Croix de Guerre avec Palme" ematerakoan egin zioten laudoriozko aipamenak egoki laburbiltzen du eresistentzian egindako lan ausarta:



Manuel Iturrioz.



Florentino gerran ibilitako soldadu eta eresistentzia-kide talde batekin Komunen Ganberan eskainitako harrera jaian, Londresen, 1970eko maiatzaren 1ean.




«Goikoetxea, Florentino, 1898ko martxoaren 14an Hernanin jaiotakoa, lehen orduko patriota bikaina, gogotsua eta ausarta, "Nana", "Comète" eta "Margot" sareetako kidea eta posta-lerro askokoa. Etsaien okupazioan, 1941eko irailetik

<sup>17</sup> Alan W. Cooper: *Free to Fight Again. RAF Escapes and Evasions. 1940-45*. W. Kimber, England, 1988, 64. or.



Baionako suprefetak, Biacabe jaunak, "Ohorezko Legioa" Florentinori jartzen, 1977ko ekainaren 2an, Miarritzeko "Monument aux morts" monumentuan. Eskuin aldean, Florentinoren anaiak, Antonio eta Pedro.



1944ko uztailera, 227 abiadore aliatu eta agente frantses zein belgikar ugari mugaz bestaldera eraman zituen, Gestapok eta polizia espainiarrek muga zorrotz zaindu arren. 1944ko uztailean misio batetik zetorrela, patruila alemaniar batek ustekabean topatu eta metraileta baten tiro-segidaz zauritu zuen. Atxilotu eta Baionako Ospitalera bidalita, "Comète" sareko erresistentzia-talde batek ausardi handiz askatu eta 1944ko uztailaren 26ra arte ezkutaturik egon zen».

"Ohorezko Legioko zalduna" diploma, Giscard d'Estaing presidenteak izenpetua, eta hainbat estatuk Florentinori okupazioan egindako lanarengatik emandako dominak. Beheko argazkian, Pedro eta Antonio anaien ondoan, 1977ko ekainaren 2an bertan, ohore-domina jaso eta gero.



Florentinoren argazkiak, "Ohorezko Legioa" jaso zuen ekitaldian, Miarritzen, 1977ko ekainaren 2an, familiakoekin, "Comète" sarearen lagunekin eta gerran abiadore ibilitako britaniar, australiar eta kanadar batzuekin.

Frantziako armadako gurutzea jaso eta hiru urteratik, Florentino hil zen. Hileta-elizkizunak Ziburuko elizan izan ziren, eta bertara, senide eta lagunez gain, erresistentziaren ordezkari ofizialak, "Comète"ko kideak eta "Royal Air Force Escaping Society"koak etorri ziren, udal agintariekin, eskualdekoekin eta abarrekin batera. Anne haren emaztea eta beste senideak izan ziren segizioko buru. Hilkutxa bandera frantsesak biltzen zuen, eta haren gainean Florentinok jasotako bederatzikondetako korazio frantses eta atzerritarra zeuden jarriak. Hileta Darraidou parrokoak zuzendu zuen euskaraz eta frantsesez. Lore-koroa ugari eta erresistentziako elkarteen bandera eta ezaugarriak ageri ziren hilkutxaren inguruan. Parrokoak hitz hauekin gogoratu zuen Florentino: «gizon bipila zen, hitz horren esanahirik nobleenean, gogor eta eskuzabal saiatzen zena beti bestean alde, bere buruari uko eginez. Nork daki zenbat gau eman zituen Florentinok mendian, eguraldiak edo urtaraoak axolarik ez ziotela, beti askatasunaren eta elkartasunaren alde lanean!». Meza, euskal kantuekin, aita Onaindiak eman zuen, familiako laguna baitzen, eta oso sermoi hunkigarrria egin zuen, Florentinoren irudia goraipatuz eta bestean aldeko ekintzez beteriko haren bizitza gogoratuz: «Florentinok on egiten zuen berez, munduko gauzarik naturalena bezala, batere harrokeriarik gabe, eginbeharrez eta gizakia harentzat gauza handia zelako».



Florentinoren ehorzketa, Ziburun, 1980ko uztailaren 30ean.

Elizkizuna bukatutakoan, Ziburuko hilerrian lurperatu zuten. Haren hilobiaurrean aurrean bi hitzaldi egin zituzten, bat Michou Ugeux (Dumont) belgikarrak, "Comète" sareko lehendakariaren izenean, eta bestea M. Sidney Holroyd-ek, "Royal Air Escaping Society"ko lehendakariak. Bertan agintari eta pertsona ospetsu asko izan ziren; hala nola, Bernard Marie diputatua; Alliot Andrea, haren ordezkoa; Jean Poulou, Ziburuko alkatea, zenbait zinegotzirekin batera; Marcel Suárez, "Compagnon de la Libération"; Paul Dutournier, Lapurdiko alkateen presidenteak; elkartea patriotiko ugarien ordezkariak, erresistentzia-kideak, Frantziatik ihes egindakoak, FFLen ordezkaritzak, domina militarren erakundeak, soldadu ohiak, ihesaldi-sareen ordezkariak -batzuk urrutitik etorritakoak, Michou Ugeux, Pierre Ugeux, Sidney Holroyd, esaterako-, Florentinoren lagun asko, haren familia, bai eta Higgins Andrea, "France-Etats Unis" elkarteko burua eta Bell jauna, "Association France-Grande Bretagne" elkarteko burua.



Han datza Florentino, bere emaztearen ondoan, itsasoa parean duela, menditik ozta-ozta ikusten zuen itsaso hura bera aurrean duela, gau beltzean -nazismoaren gau ilunean- Hondarribiako itsas-argiaren distirek bide onean zebilela adierazten ziotenean bezala.

*"Royal Air Forces Scaping Society"ko Florentinoren ohoretan egindako oroitzapen-plaka Ziburuko hilerrian jartzen (1987ko maiatzaren 24an).*



PILOTA PLAZA



1996an, Sokoan, "Allée Florentino Goikoetxea" izeneko hiribidea inauguratu zen, mugalari hernaniarraren oroitzapenetan.



**FLORENTINOREN IRUDIA**

## "MENDIAN IBILTZEKO SENA"

Peter Eisner Peter Eisner "The Washington Post" egunkariaren nazioarteko saileko zuzendari-ordea da. 1991n, Prentsaren Amerika-arteko Elkartearren saria lortu zuen eta beste bi liburu eman ditu argitara: "Death Beat", Kolonbiako narkotrafikoaren gerrei buruzkoa eta Manuel Noriegaren biografia, "America's Prisoner" izenburukoak. Haren liburua "Comète" sareari buruz idatzi den azkenekoa da. (Peter Eisner: "La línea de la libertad". Editorial Taurus. Madrid, 2004. 28-33. or.).

"Florentinok urteak zeramatzen Frantziaren eta Espainiaren arteko mugaren bi aldeetako polizietatik gordetzen, eta iseka ere egiten zien, noizik behinka mendietatik jaitsi eta, lagunei bisita egiteko, herrian agertuta. Nahi zuen lekura joateko eskubidea sortzez bazuela uste zuen, eta horregatik aurre egiten zien agintaritzako agenteei. Txapela handi ilun bat, talo bat bezain zapala, ageri zen haren buruaren gainean, eta ile-xerlo beltz galdu bat ateratzen zitzaion txapela-ren erditik behera, kopetan modu irregularrez itsatsita. Baserritar legera janzten zen, jertse grisa, artilezko txamarra beltz zahar bat, marinelenaren antzekoa, eta lan egiteko galtza lodiak, zapaten gainetik altzatuak. Zutik, ezkerreko besoa gerrian zuela, erronka jotzaile bezain menderakaitz ageri zen, eta haren kopeta sartuaren azpian, haren euskal sudur liluragarriaren azpian, irribarre ulergaitz bat igartzen zitzaion.

Florentino baserritar familia batean sortua zen, euskal mugaren alde espainiarrean. 1989an jaio zen, Espainia eta Estatu Batuak Kubarengatik gerran batu zireneko urtean, eta haur eta gazte denboran borroka haien inguruko istorioak entzun zituen, nola senide batzuek infernuko oihan hartan gelditzea erabaki zuten, nola beste batzuk bertan hil ziren.

Bai Florentino, bai Pedro haren anaia txikia, mendian hazi ziren, baina Florentinok besterik ez zuen tamaina miresgarri hura lortu, idia bezain bizkar-zabal eta esku izugarri handi haikekin. Nerabezaroan, dragatze-lanetan ibili zen Bizkaiko golkoan. Lan nekagarria zen guztiz, baita hura bezalako gizon batentzat ere, eta ahal izan zuenean alde egin zuen ibaitik.

Florentino gauza zen hirian barrena itzal bat bezala igaro eta arbasoen etxera tarteka igotzeko, Hernaniko "Altueta" baserrira. Hango mendixketatik Bizkaiko golkoa ikusten da azpian...

... "Dédée" konturatu zen ihesaldiaren azken kilometroak ezin zirela egin errepiteetan edo trenbideetan zehar. Mendizale onak eta fidatzekoak beharko zitzuten Frantziatik Espainiara pasatzeko. Florentino aukeratu zuten aho batez. Frantziara ihes egin zuen Espainiako gerra zibilean. Gizon zaildua zirudien, guztiz bestelakoa Erresistentziako beste kideen aldean. Urte gehiago zituen, haiak halako bi, eta apena hitz egiten zuen frantsesez edo gazteleraez. Bere hizkuntzaz ere, euskaraz, hitz-urria zen eta harira joaten zen. Baino "Dédée"k adina gorroto zituen faxismoa eta okupazioa. Florentino harro agertzen zen abiadore aliatuei ihes egiten laguntzeaz.

Hondarra ateratzeko lana utzi ondoren, kontrabandoan hasi zen, baina Euskal Herrian horrek ez du konnotazio txarrik: mugan bizi zen edozeinek parte hartzen zuen horretan edo onartu egiten zuen bizirik irauteko. Spainiako gerra zibilaren ondorengo gosetean, Florentinok edozein gauza lortu zezakeen: kafea, tabakoa, babarrunak, behi-okela, lentzeria fina, bai eta arkume edo zekor gizen bat ere. Mendien aldeko maitasunak bultzaturik eta bidean hartzen zituen kopa koñakek bizkorturik, gau guztia eman zezakeen oinez. Haren abantaila handia tontorrak hain zehatz ezagutzea zen: bazekien bidegurutzearako xendra guztiak nora joatekoak ziren. Asko edanda ere, ez zuen inoiz balantza egiten, garraioan zeramatzan lagunak irristatu eta atzean geratzen bazitzaizkion ere.

Mugaren alde batean zein bestean, alde handia kentzen zien beti bere jazarleei. Bere trebeziarenengatik ia legenda bat zen Euskal Herrian, eta hango jendeen artean halako ospea izatea ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula, horrelako dohaiak ez baitira han urriak.

Izen ona hartu zuen baita ibaia zeharkatzen laguntzen zien abiadorean artean ere. Spainiara pasatzeko bidaian baten bat ur-laster bizian leher eginda erortzen bazen, Florentinok beste aldera garraiatsu zuen, bere hankek uraren indarrari eutsiz, nahiz eta ur hori beste batzuk herrestan eramateko modukoa izan.

Herbert J. Spiller, Errege Aire Indar Britainiarrekoa (RAF), Florentinok nazieratik ihes egiteko Pirinioen beste aldera pasatzen lagundu zuen abiadore horietako bat izan zen. "Haren begitarre luze okerrak, intxaurrondo koloreko azala beltzukoak, halako noblezia baldar bat zuen, txapela beltz zapal batek estalita", idatzi zuen Spillerrek, Florentinorekin izandako topaketa gogoan. Eta hauxe gehitu zuen: "Zenbat eta gehiago ezagutu, orduan eta miresgarriagoa zen guretzat haren indarra, haren gaitasuna arriskua igartzeko eta haren sena mendian ibiltzeko. Sen horri esker, gauza zen gauean abiadura ikaragarriaz ibilaldiak egiteko, oztopoak saihestuz eta atseden hartzeko leku seguruak aurkituz. Hari eskerrak emateko arrazoiaik bagenituen, segurutanera eramatzen gintuenean erakusten zituen adeitasun eta pazientziarenengatik".

Inglaterrara itzulita, soldaduek istorio gehiago eta gehiago aurkitzen zituzten mendian barrena egindako ihesaldien inguruan. Spiller eta beste abiadoreak etxera iritsi zirenean, nazien eskuetatik salbatu zituzten jende ausart eskuzabal haien berri eman zuten. Haien txostenek itxaropena eta lasaitasuna eman zizkien etsaien lurralderra hegaldatzeko prestatzen ari ziren abiadore gero eta ugaria-goei. Lurrera botatzen bazituzten, bazekiten gero eta aukera gehiago zituztela etxera itzultzeko. Florentinoren kemena eta "Dédée"ren edertasun eta trebezia mito bihurtzen ari ziren Inglaterrako landa zabaletan barreiaturik zeuden hamaika aerodromoetako abiadoreentzat.

Florentinok abiadoreak leku seguruan utzi eta ez zen luzaro gelditzentz Espainia barruan. Iheslarien gisa bizi zen, Guardia Zibila haren atzetik baitzebillen kontrabando-ekintzak zirela kausa. Gerra zibilean, Guardia Zibilaren kuarterlean agertzeko agindu zioten, eta halaxe egin zuen, bere bizikletaren gainean. Ofizial arduradunak, gazteleraez hitz eginda Florentinok ulertuko ez ziola pentzaturik, honela esan zuen:

- *Ondo da, gizon hau Ondarretako presondegira eramango dugu.*

Florentinok arretarik gabe begiratu zien eta zera esan zion interpretariari:

- *Arraioa, hau luzerako bada, utzi nazatela bizikleta anaiari itzultzen, lane-rako behar du-eta!*

Poliziak uste izan zuen arazorik ez zuela ekarriko, kuarterlean bere borondatzez agertu zen eta. Konforme, esan zioten, itzul iezaziozu bizikleta anaiari eta zatoz berri zena. Baino Florentinok bazekein kontua zertan zen. Bizikletarekin joan zen eta Guardia Zibilak ez zuen berri haren arrastorik izan".

## FLORENTINO, ERRALDOIA

1942ko maiatzaren 30etik 31ra bitarteko gauean RAFek lehenengo erasoa egin zuen Kolonia hirian mila bonbaketa bidaliz. Erasoan parte hartu zuen eskuadroietako bat 50 zenbakikoa izan zen, basea Skellingthorpe-n zuena. Hegazkinetako batean, Leslie Baveystock sargentua zihoa nabigatzale, Leslie Manser kapitainaren agintapean. Erasoalditik bueltan, hegazkina lurrera bota zuten Tongerloo parean, Belgikaren eta Herbehereen arteko mugan. Baveystock sargentua erresistenciak jaso eta Baionara iritsi zen, beste lagun batzuekin, 1942ko ekainaren 11n. Handik hiru egunera, Baveystock Donibane Lohizunetik Bidasoa aldera atera zen hegazkinlari-talde batean, "Dédée"rekin. Hainbat urte geroago, honela gogoratzen zituen Florentino eta muga-igarotze hura.

"Gizon ikaragarri handi bat, iristen ari ginela leihotik guri begira egon zena, mahaira hurbildu eta eskua estutu zigun. Florentino zuen izena. Bob eta biok mahaira eseri ginenean eta laster Hal de Mone irribarretsua eta haren lagun belgikar gaztea elkartu zitzazkigun. Katilu bat esne eta gazta motaren bat eskaini zigutenean, eta hantxe eserita gelditu ginen, giroak pixka bat aztoratuta, "Dédée" Florentinorekin hizketa bizian entzuten genuen bitartean. Ezin jakin guk zer geratzen zen haien artean, baina bistakoa zen elkarrekin oso lotuta zeudela. Florentino, izan ere, gizon aparta zen. Ia bi metro luze izango zen, eta zezen bat bezain indartsua, esku handi-handiak eta sorbaldak guztiz zabala zituen. Aurpegia eguzkiak eta haizeak belztua zeukan, eta nolabaiteko distira zeren haren hazpegi gogorrei. Haren sudurak eta ahoak naturari atxikita bizi diren gizonen indar isila zuten, eta, txapela beltza buru gainean zuela, benetako euskaldun baten irudi bizia zen. Orain ulertzen nuen zergatik "Dédée" esan zuen, nire sudurra eta begitarrea aztertu ondoren, ez nuela arazorik izango hesia pasatzeko Donibane Lohizuneko geltokira iristen ginenean. Haren antza nuen. Nahiz ni itzal zurbil-zurbila izan Florentinoren aldean, ni bezalako bi bizkarrean eramateko gai baitzen.

Abiatzeko unea etorri zen. Han gelditzen zirenak agurtu eta haien aldeko gure esker ona betikoa izango zela esan genien. Gero, bata bestearen atzetik, Florentinori jarraitu genion eta iluntasunean barneratu ginen. Hotsik ez ateratzeko esan bazigutene ere, Andrée (De Jongh) ahopeka xuxurlatuz zihoan eten-gabe. Gaua ilunagotu zen, hodeiak loditu. Igelen baten korrokak eta Florentinoren hesteen eztanda ozenak baino ez zuten isiltasuna urratzen noizik behinka; Andréek barre txepela egiten zuen eta zera zioen: "Ni ez naiz izan, baina usainari jarraitzea besterik ez duzue". Florentinok edaten zuen ardo beltz merkeak, izan ere, txikizio handiak egiten zituen ahuntz-gaztarekin nahastuz gero.

Tarteka-tarteka, Florentino gelditu egiten zen, entzun, eta beste norabide bat hartzen zuen. Hodeiak lodiak ziren oso, eta euriz beterik zeuden, Andréek esan bezala. Aurrera genbiltzan, mendietan gora, pausuak nekez baino ezin emanik. Euri-izpika hasi zuen berehala, eta geroxeago euria ari zuen atergabe. "Ondo, pentsatu nuen nire artean, zakur aztarnariez kezkatu beharrik ez".

Bi ordu geroago, ibai batera iritsi ginen. Andréek esan zigun hura muga zela, eta kontu handiz ibili behar genuela. Florentinok agindu zigun ur-ertzaren ondoko zuhaixka batzuetan ezkutatzeko; gurutzatzeko leku seguru baten bila eta ea patruilarik ageri zen ikustera joan zen orduan. Isilik egon ginen zain, eta, handik minutu batzuetara, tabako-kea usaindu eta patruila entzun genuen; biz-pahiru guardia igaro ziren bidean aurrera, gure ezkutalekuaren eta ibaiaren artean; hain zegoen ilun, entzun besterik ez nien egin. Florentino noiz itzuliko zain egon ginen pazientzia hartuta; luze baino luzeago iruditu zitzagun tarte hura, nahiz eta minutu gutxi batzuk baino izan ez. Ibia ez zela agudo igaro behar esana ziguten; urte-sasoi hartan ura gerriraino baino ez zen iristen, eta astiro zeharkatu behar genuen, hotsik ez ateratzeko.

Florentino itzuli zen eta abian jartzeko agindua eman zigun; arinegi ez joateko esan zigun berriz ere, lasai joan beharra zegoela. Poliki-poliki, bihotza azkar tau-paka eta adrenalina zainezka, Florentinoren atzetik joan ginen ilaran, benetan gerriraino baino iristen ez zitzagun ur hotz-hotzeten aurrera, eta, minutu batzuk geroago, onik geunden beste aldean. Bainan beste ataka gaizto bati aurre egin behar. Malda piko baten behealdean geunden, eta gora igo behar genuen ilun-ilunean eta ahal zen hotsik txikiarena atereaz. 220 oin ziren ia-ia aldapan gora. Pixkanaka gure gidariaren atzetik joan ginen, isil-isilean. Hotzik ez genuen sentitzen, arropak blaiblai eginda edukita ere, berotu egin ginen igo ahala. Azkenerako, hogezi bat minutu aurrerago, gailurrera iritsi ginen. Atseden hartzeko betarik ez, bide luzea gelditzen zen oraindik ere; isiltasuna nagusi zen gure artean.

Espanian bageunden ere, espainiarra kontrabandista-ehizan ibiltzen ziren beti, eta aise egiten zuen tiro batzuetan.

Espainiara iritsitakoan, Donostiako Kontsuletxe Britainiarrera eraman gituzten, eta handik Madrileko Enbaxadara<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> Alan W. Cooper: Free to Fight Again. RAF escapes and evasions. 1940-1945. William Kimber, England, 1988, 158-60. or.

## INDARTSUA, INDARTSURIK BADA

"Indartsua, indartsurik gabe, Florentino Goikoetxeak, "Dédée"ren mugalarri euskaldun famatuak, begirunea eta beldurra sentiarazten zizkion mundu guztia. 1941eko udazkenetik Liberaziora, "Dédée"k eta haren kideek mugaraino eraman zituzten gizon guztiek hari eskerrak igaro zuten mendia. Agure itzaltzua jatorra, Florentino Ziburuko herrian bizi da gaur egun, Donibane Lohizunetik hurbil. Hain ondo ezagutzen zuen mendiaren semea, euskaldun harro hau, ez frantsesez ez gazteleraez hitzik sekula ulertu ez zuena, bere herriko hizkuntzaz baino ez da mintzatzen. Gerra-garaian koloso nekaezin izukaitz hau gai zen gizon bat bizkarrean hartu eta Bidasoa ur handietan gurutzatzeko! Haren laguntzarik gabe, "Dédée"k eta "Comète" sareak ez zuten inondik ere hainbeste lagun eraman ahal izan Pirinioen beste aldera"<sup>2</sup>.

## FIDELA GUZTIZ

"Florentino Donibane Lohizunen bizi da, Angelutik 17 kilometrora. Muga pasatzeko mugalarri berria da. "Dédée"k nahiago izan zuen Tomás [Anabitarte] baino, zeinak lehen bidaia egin baitzuen Arnoldekk (Deppé) erreklutaturik. Francoren erregimenak Espainiatik kanporatutako euskalduna da, eta laster Frantzian ere haren atzetik ibiliko da Gestapo, harrapatu nahian. Florentinok mendiaren ondo baino hobeto ezagutzen du. Behe-lainoa oinarekin lurra joka aurkitzen du bidea. Mendiak ez du sekreturik harentzat. "Espera un poco" esaten du gazteleraez, ibilaldi baten erdian, gau beltz-beltz batean; eta, hark bakarrik ikusi duen zuhaitz baten enborretik botila bat koñak edo espartina pare bat ateratzen du, hilabete batzuk lehenago han erreserbarako gordeak. Sarri askotan ardoak txolinduta zebilen, ez genuen besterik behar! Bainan odol hotza erakusten zuen beti, mugara hurbiltzean. Eta, horretaz gain, usaimen harrigarria du (fida zaitez harekin mugazain bat ehun metrotik igartzeko), eta zaldi bat bezain indartsua da: gizon bat bizkarrean hartu eta Bidasoa zeharkatzen du, jolasean balego bezala.


Florentino euskaldun jatorra zen, zintzoa, leiala, beti erabateko fideltasuna agertzen zuena. Konfiantza oso-osokoa beti ere"<sup>3</sup>.

<sup>2</sup> Airey Neave: *Les chemins de Gibraltar*. Editions France Empire, Paris, 1972, 264. or.

<sup>3</sup> Cecile Jouan: *Comète. Histoire d'une ligne d'évasion*. Editions du Beffroi. Furnes, Belgique, 1948, 14-15. or.



FLORENTINO JARDUNEAN



## JEAN FRANÇOIS NOTHOMB "FRANCO" Oroitzapenak

Jean François Nothomb, klandestinitatean "Franco" izengoitia izan zuena eta "Comète" sarearentzat abiadore iheslariak Bidasoaz bestaldera eramateko pertsona guztiz garantzizkoa izan zena, honela mintzo da denbora luzean abentura-kide izan zuen lagunaz, argitaratu gabeko bere "Oroitzapenak" idazkian:

"Egia, Pirinioak zeharkatzeko ibilaldia liluragarria da. Urruñako baserri batetik atera gara, Donibane Lohizuneren hegoaldetik kilometro batzuetara; bata bestearen atzetik gabiltza gauean, oinak espartzuzko espartinen barruan, lurraldi hobeto atxikitzen zaizkiolako, nahiz eta bide-bukaeran zakarretara botatzeko moduan egon. Bi ordu inguruko bidea egin eta lehen gaina igaro dugu, Larrun mendia ezkerraldean utzita (1.000 metroko gutxi gorabehera), eta gero beste bi orduko jaitsiera etorri da, Bidasoa ibairaino, non muga dagoen. Beste aldera pasatu gara ibi batean zehar; ibaiak ur gutxi zekarren, belauneraino besterik ez. Modian mugazain alemaniarrak ibili ohi dira, baina gauez ez dira

ageri. Espainiako aldean, ordea, zaindari asko izaten da mugan. Florentino, gure mugalaria, ardura handiz ibili da ibai ondoan dagoen Elizondo-Irun trenbide meharreko burdinbidea zeharkatzean, eta ardura handiagoz burdinbidearekin paraleloan doan errepide nazionala gurutzatzear. Aldapan gora igo behar atzera ere, errepidea pasatu orduko, eta han lasaitasun osoa berriz. Bideak Aiako Harria inguratzen du (edo Trois Couronnes, 950 metroko mendi ederra guztiz), eta behera berriz ere, lau orduko bidearen ondoren, Oiartzun aldera. Nekea sumatzen hasi gara, abiadoreetako batzuk batez ere, gehiago ibili ezinik baitaude, entrenamendu-faltaz eta urduritasunez. Aurkitzen dugun lehenengo baserrian gelditu gara. 5 gizon eta bikote bat bizi dira bertan, eta harriturik gelditu naiz andreak ez beste guztiak euskaraz baino egiten ez dutela ikusita, hitz bakar bat ere ez gazteleraz eta -zer esanik ez- frantsesez! Gure mugalaria, gainera, ohiko euskalduna da, sendoa eta indartsua haritza bezala, Espanian zein Frantzian jazarria: kontrabandoa besterik ezin egin eta mendia etxeko sukaldea baino hobeto ezagutzen du. Florentino, hura gizona! Frantsesez bi hitz eta gazteleraz hainbat esaldi baino ez daki esaten, eta ez darama Franco bihotzean, horixe da hari buruz esan daitekeen gutxiena. Baserrian pixka batean baino ez gara gelditu, eta beherantz jarraitu dugu Oiartzungo sarrerara iritsi arte. Han baserri-ostatu baten aurrean gelditu gara. Goizeko 5ak dira. Florentinok harri batzuk bota ditu lehen solairuko leihor batera, argi bat piztu eta geroxeago 20 urteko emakume batek atea zabaldu digu. Sukalde zabal batean sartu gara isilisilik, hitz batzuk euskaraz eta emakumeak sekula ahaztuko ez dudan tortilla espainiar gozo-gozoa prestatu digu, hain goseak geunden denok. Jan egin dugu tortilla ogi bikain ugariarekin eta ardo beltz mikatza edanez. Otordua bukatzeke, emakumeak ahuntz-gazta bat ekarri du, itxuraz ganbaran hainbat hilabete lehortzen pasatu dituena; harria bezain gogorra da, eta emakumeak ebaki zuean har txiki pila bat joan da ihesi gatzaren zulo guztietatik..., baina ez du importa, har eta guzti jan dugu, irrikaz eta gosez. "Dédée"<sup>4</sup> k mugitzeko esan digu, auto bat dugula zain. Federico Armendarizena da, Donostiak iheslari aliatuak etxeen hartzen dituztenetako batena. Ostatutik ehun bat metrora aurkitu dugu. Lau inglesak autoan sartu dira, eta "Dédée"<sup>4</sup> k eta biok oinez jarraitu dugu. 5 bat kilometro eginda, Erreneriako hiri txikira iritsi gara, eta han trena hartz dugu Donostiara joateko. Lotan geratu gara biok ala biok. Donostiara iritsi gara 45 minutu geroago, eta Federicoren etxera joan gara. Hantxe daude ordurako 5 inglesak. Inglaterrako kontsulak ohartuta, Britainia Handiko enbaxadak auto diplomatiko bat bidali digu, abiadoreak Madrilera, enbaxadaren egoitzara, eramateko. Onik daude orain, eta gu Frantziara itzul gaitezke, gure zereginan burututa.

Horrelakoxek dira bidaia guztiak oro har. Programa bat dago aldez aurretik finkatua, eta hari jarraitzen zaio ahal den neurrian eta noizik behinka gertatzen diren ustekabekoek eta nahasmenduek uzten dutenaren arabera".

"Sekula ez dut ahaztuko beste gau batean gertatutakoa. Florentinorekin itzultzen ari nintzen bakarrik eta Bidasa parean iristean ibaiaren goialdean eroritako euriek ura zakartu zuela ikusi genuen.

Ingelesak gurekin zeudenean, haien zaintzeko ardura genuen; bidean hainbat ordu eginda, neka-neka eginda zeuden; eta nik ulertu egiten nituen, Paristik atera ondorengo hiru egunak akigarriak izan baitziren guztiz. Gure helburutik hurbilago, eta orduan eta beldur handiagoa zuten abiadoreek, alemaniarrek aurkituko ote gintuzten; ez zekiten soldadu hutsak eta mugazainak bereizten, eta ohikoa zen mendian batetik lur jota geratu eta Florentinok edo nik (edo "Dédée"<sup>4</sup>, han baldin bazeen) ibiltzen lagundu behar izatea... Itzulera askoz ere errazagoa zen. Jeneralean bizkar-zorro handiak eramatzen genituen, Frantzian aurkitu ezin ziren gauzez beteak, gure lagunen pozgarri. Gau hartan, Florentino, Bidasaoa aztertu ondoren, ez zegoen ziur ibitik pasa zitekeen edo ez. Ezezkoan, Oiartzunera itzuliko ginen, eguraldia noiz hobetuko zain. Baina, hala eta guztiz ere, ahalegina egin nahi zuen. Espainiako aldean geratzeko eskatu zidan eta arropa erantzi zuen lehen saioa berak bakarrik egiteko. 10 minuturen buruan etorri zen eta zeharkatzeko moduan zegoela esan zidan. Berriz gurutzatu zuen bere arropa eta bizkar-zorroa eramateko, eta, berriz ere, nire arropa eta bizkar-zorroarekin, eta laugarren aldiz, azkenerako, biak elkarrekin, galtzontzilotan... Mugazaineak harrapatu izan bagintuzte biak, edo ni bakarrik, ibai-ertzean larru bizirik, "pudoreari laido" egitea leporatuko ziguten. Azken aldi horretan Florentinorekin ibitik pasatu nintzenean, galtzak lepo inguruan neuzkan bildurik eta, beste eskuarekin makila batean bermatzen nintzen hirugarren hanka batean bezala; baina, laguntza horiengatik guztiengatik ere, ur-lasterra hain zen bortitzeta eta zakarra, ezen hosto baten gisa eramango ninduen. Urrats bakoitzean oina atzeraka herrestan zeramatela sentitzen nuen. Baina Florentino, berriz, seguru eta lasai zihoan aurrera. Zuhaitz zahar bat bezain indartsua da. Hotz egiten bazuen ere, ur-lasterraren aurka borroka egiteak berotu gintuen".

## "POLIKI-POLIKI..."

Cecile Jouan izan zen Suzanne de Jongh-ek erabili zuen goitizena, eta Andrée de Jongh "Comète" sarearen sortzailearen ahizpa zen ("Dédée"<sup>4</sup>ren ahizpa). Suzanne Bruselako Schaerbeek lizeoko irakaslea zen gerra-hasieran, eta Paul Wittek orientalista austriarra-rekin zegoen ezkondua. Belgikan sareari laguntza emateagatik atxilotu eta Alemaniara bidali zuten, bizia salbatu bazuen ere. Gerra ondoren, "Comète" sarearen abenturari buruz argitaratutako lehen liburua idatzi zuen<sup>4</sup>.

<sup>4</sup> Cecile Jouan : *Comète. Histoire d'une ligne d'évasion*. Editions du Beffroi. Furnes, Belgique, 1948, 23-25. or.

—“Doucement, doucement” -esan du Florentinok ahopeka (frantseset “doucement” -poliki-poliki- eta “tais-toi” -ixo- besterik ez du esaten, ez baitu hitz egiten euskaraz eta pixka bat gaztelera baino).

Malda hasi da. Gizonek Urruñako baseria utzi dute ilundu duenean, “Dédée”ren azken gomendioak entzun ondoren. Florentino aurrena doa, bizkarrean iheslarien gauzak daramatzala bizkar-zorro astun batean. “Dédée” haren jarraian, bizkar-zorroaz kargaturik hau ere. “Les enfants” azkenak, bata bestearren atzetik, isil-isilean. Gaua iluna da, ilargirik gabea. Euri-konturik ez da, zorionez; Bidasoa ibitik zeharkatzeko moduan egongo da. Eguraldi txarra denean, ibaia ezin da igaro eta ur-jauzi baten gainean zintzilik dagoen zubi batetik zeharkatu behar da, zentral elektriko baten argi bizi-bizien pean: ibilaldi desatsegina da, eta itzulinguruak bost ordutan luzatzen du bidea.

Lehen atsedenaldea, maldaren erdian. Alde frantsesean dena ilun dago. Alde espainiarrean, aldiz, mendi-gailurren isla ageri da zero izartuan, artean ikusezin diren hirietako argiek pixka bat argiztaturik. Aurrera berriz ere. Argi keinukari gero eta handiago bat igartzen da eskuinaldean, gain batean. Bat-batean sortzen da, bortitz, biratu ahala inguru guztiak agertuz. Irungo itsasargia da, Hondarribiako muturrean. Laster, beste argi batzuk azaltzen dira haren ondoan. Irungo hiria dago han, Bidasoaren bokalean. Urrutiago, aurrerantz joanda, Donostia ageri da, lasai, argi txiki askoren distira batean, beste itsasargi baten inguruan, eta, zerumugan bertan, gaua oso iluna eta behe-lainorik gabekoa bada, Bilboko itsasargia jiratzen ikus daiteke.

Lehenengo kaskora iritsi eta ibilera arindu da. Jaitsiera hasi da, eta baita eroikoak ere, harekin batera. Nolatan erortzen dira gizonak Florentino eta baita “Dédée” baino askoz ere gehiagotan, bermatzeko makila eramanda ere? Ohi-tura falta! Malda handia da. Argiak desagertu dira batzuk besteen ondoren. Ibarrean behe-behean bihurka dabilen hari zuria Espainiako errepidea da. Noizik behinka, auto bateko bi argiak ibiltzen dira hartan zehar, mugaren lerroa marraztuz.

Ur-laster oldartsu baten hotsa sumatzen da. Hotsa gero eta handiagoa da. Florentinok “grand silence!” eskatu du keinu bat eginda. Ura oso hurbil dago. Bi zuhaitzen artean azaldu da: Bidasoa, agudo-agudo bi ur-bazterren artean, zakarra eta zalapartatsua. Florentinok galtzen hankak gora bildu ditu, gizonek imitatu diote. Mugalariak baten eskua hartu eta ibian sartu da. Ur handirik ez dakar. Gizona aise iristen da beste aldera. Besteak adore hartu eta pasatu egiten dira. Jadanik talde guztia dago Espainiako aldean.

Ez da oraindik, ordea, pozezko oihuak egiteko ordua! Unerik arriskutsuena iritsi da: errepidea zeharkatu behar da, eta patruila espainiarrek zaintzen dute, tiro egiteko zalantzarik ez dutenak. Zelai bat gurutzatzen dute kontu handiz, trenbide bat gero. Errepidea pixka bat gorago dago, sasitan gora egin behar, haraino iristeko. Tentuz, Florentinok burua atera du adar babesleetatik kanpo, bazterrak begiratu eta... inor ez! Errepidera salto egin, korrika abiatu, haitz batera igo... Gizonak atzetik, “Dédée”k bat altxatzen du, irrist egin du eta. Denak desagertu dira beste aldean.

Maldan gora atzera ere, eta aldapa oso pikoa da oraingo honetan. Gizonak nekaturik daude. “Dédée”k esan die laster geldituko garela. “Berrehun metro”, ziurtatzen du Florentinok. Baina harentzat dena da berrehun metro! Hala ere, handik bost minutura, geldialdia egin dugu. Gizonek zigarro bat erre dezakete eta emandako mokadu bat jan. Florentinok botila bat koñak eta bere zahatoa atera ditu. Ahuntz-larruz egindako kantiplora moduko bat da zahatoa, eta bertako ardoz beterik dago. Gizonek ez dezatela gehiegi edan batez ere! Bidean egin berri dituzten lau orduek nekatu dituzte, eta beste hainbeste falta zaie babesle-kura iristeko.

Mendian gora jarraitu dugu, oso astiro orain. Ez da harritzeko tarte honetan “les enfants” etako bat atzean gelditzen hastea. Adoretu beharra dago, indar-falta aurpegiratu. Lotsa pixka bat ematen die “Dédée”ri nekatuta daudela aitortzeak, hura aurrera eta aurrera baitoa, kexarik gabe. Gainera, malda bukatu da. Florentino Trois Couronnes inguratzen duen bide zabalera iritsi da. Mendiaren hiru tontorrak nagusi dira zeruan. Bidea ibilgailuak ibiltzeko modukoa da. Argiak agertu dira berriz, oso hurbil, ardiak ihes egiten dute oin-hotsa entzun orduko, haien ezkilek dilin-dilin egiten dute gaelean. Iristeko ordua da, eguna argitzen hasi du. Gizonek azken ahalegina egiten dute. Behera doa bidea... “Dédée”k baserri-ostatua erakusten die ibarraren beheko aldean. Han bukatzen da ibilaldia. Herri bat, trenbide baten luzeran... Hemen dago etxea. Florentinok harri bat bota du leihoa baten kontra, eta geroxeago atea zabaldu da. Gizonek beren burua aulkietan erortzen utzi dute, eta, bitartean, etxeoandreak, hitz eta pitz, sua piztu eta tortilla bat prestatu du, zeinaren sekretua berak bakarrik dakien.

Jan ondoren, gizonek lo egingo dute. “Dédée”k arropa aldatu eta beste bost kilometro egingo ditu, Erreenteriaraino. Handik, tranbiaz Donostiara, Bernardoren (Aracama) etxera, eta han atseden hartuko du azkenerako, gauera arte. Orduan Bernardo eta biak “les enfants”en bila joango dira, eta handik tartetxo bat egingo dute oinez errepide batera iristeko, non auto ingeles bat egongo baita haien zain.

## “FLORENTINOK PRESA DU”

*Idazleak iheslari baten lekukotasuna jasotzen du hemen, zeinak 1943ko udazkenean Florentinok gidaturik muga igaro baitzuen. Ibaiak ur handia zekarren eta ordezko ibilbidea, luzeagoa, hartu zuten, Irún-Endara zentral elektrikora zeramana, Endarlatsa pasatuta Berara bidean. Han zintzilik dagoen zubi kili-kolo batetik igaro behar da, eta, ibaia zeharkatu orduko, malda pikoan gora abiatu.*

"Baserria utzi genuen iluntzean. Ile beltzko gizona genuen gidari. Haren atzetik, Donibane Lohizuneko kale ilunak zeharkatu genituen eta mendian barneratu. Bost lagun ginan; gurekin ofizial holandar bat zegoen, Alemaniako ihes egin eta ia bi urte eman zituena Espainiako mugaraino iritsi arte. Gu baino zaharragoa zen -berrogei urte inguru- eta gure gidaria beldur zen bidaia ez ote zuen jasango. Bidean beste pertsona bat elkartu zen taldera, mugaz bestaldera era-mango gintuen mugalaria zen. Gizon handi indartsua zen, euskalduna. Haren buruak prezioa jarria zuen bai Frantzian bai Espainian.

Bi orduz ibili ondoren, baserri isolatu batera iritsi ginan eta bertan sartu. Subazterrean jende asko zegoen: bi gizon gazte, agure bat, haien emazteak, eta adin guztietako ume kopuru sinesgaitz bat. Katilu bana esne bero edan genuen, eta aurrera jo genuen. Ikusi ere ez zen ezer egiten, han ilun zegoen, eta denek musu-zapi zuri bana lotu genuen lepoan.

Bidexka oso meharra zen orain, oinak jartzeko adinakoa ozta-ozta. Nonbait ere, behealdean, ur-laster baten hotsak durundi egiten zuen. Euria ari zuen. Laster egon ginan hezurretaraino blai-blai bustita. Haizea atera zuen eta haren boladek euria bultzatzen ziguten aurpegiaien kontra gogor. Modu horretan hiru ordu eman eta gero, holandarra makal ibiltzen hasi zen. Ahal nuen guztia egin nuen hari laguntzeko, baina belaunak min ematen zidan. Erorikoaren ondorengo ibilaldi luzean min ematen hasi eta oraindik ez zitzaidan erabat oneratu; nekez nenbilen aurrera.

Georges niregana bildu zen; zer ordu zen galdetu nion. Ordu bata besterik ez! Goiza segidan etorriko zela iruditzen zitzaidan; eta sei ordu baino ez ziren pasatu, abiatu ginenez geroztik.

Aldapan gora abiatu ginan, eta gure gidari gazteak ibarraren beste aldean dirir egiten zuten argiak erakutsi zizkigun.

-Horra hor Espainia -esan zigun.

Baina okerrena etortzekoa zen oraindik.

Mendixkaren behealdean, ur-laster bizi-bizi baten parera iritsi ginan. Igano egin behar. Kate bat eginez zeharkatu genuen, elkarri eskua emanet (gerriraino genuen ura, eta oso-oso bortitz zebilen). Bainan holandarra, antza denez, atzean geratu zen: leher eginda zegoen. Beste aldera heldu eta ur-ertzera igotzen ginan bitartean, mugalaria haren bila itzuli eta sorbalden gainean ekarri zuen. Sekula ez dut antzekorik ikusi. Bidasoa pasatu genuela uste genuen. Bainan, bai zera! Haren ibai-adar txiki bat besterik ez zen. Ibai nagusiak ur handiegia zekarren, euria zela-eta, eta zubi batetik igaroko genuen. Zubi horretaraino joan behar orain.

Errepide bat, ibarraren bihotzean zegoen herri txiki batera joateko... Han zegoen zubia, uharraren gainean zintzilik. Oholez eginda zegoen. Bata bestearren segidan jarrita zeuden, eta bi kableren artean esekirik. Gerriaren parean zegoen soka batek barandarena egiten zuen. Bainan potentzia handiko bi arku-lanparak dena argitzen zuten... Bata bestearren atzetik igaro ginan beste aldera; taulak kulunka zebiltzan oinen azpian; ur-jauzia borborka, burrunbatsu, gure azpian. Ez nintzen harrituko, harrera tiroka egin izan baligute.

Gora berriz ere. Igoera hain zen aldapatsua eta hain zegoen sastraka itxiz nahaspilatua, ezen ez bainuen ezer ere ikusten aurrean. Bidexka bat, azkenera-

ko! Holandarra erortzeko zorian zegoen, eta guk ere ezin askoz gehiago. Gure mugalariak, ordea, gauean barneratzen jarraitzen zuen ziztu bizian. Gidaria aurrena zihoan eta noizik behinka, haren abiadura moteltzen saiatzen zen:

-Florentino! polikiago!

-Bai! bai! -erantzuten zion Florentinok eta are bizkorrago jarraitzen zuen. Azkenerako, herrixka baten itxura zuen etxe-multzo baten ondoan, gizon gazteak eta mugalariak elkarrizketa labur bat izan zuten, eta lehenengoak aurrera egin zuen holandarrarekin. Minutu batzuk geroago itzuli zen bakarrik.

-Hemen geratuko da -esan zuen-. Ezin du gehiago. Bihar etorriko gara haren bila.

Trenbide bat eta errepide bat zeharkatu genituen, horma txiki baten gainetik salto egin, eta trenbidean zehar jo genuen aurrera. Trenbidea tunel batean sartzen zen, eta han barneratu ginan. Iluntasuna erabatekoa zen, hain lodia, ezen ukita ere egin zitekeen. Isilik genbiltzan, eskutik oraturik. Munduaren azkena ote zen hora, naturaz gaindiko abentura miragarri batean sartuak ote ginan? Ez dakit zenbat iraun zuen ilunpeetako bidaia hark, denbora geldirik zegoela ematen zuen-eta, baina azkenerako argitasun ahul bat urrunean nola agertzen zen ikusi genuen. Gero eta handiagoa egin zen, eta aurrekoen buruak igar genitzakeen, berriz aurkitutako zeruan islaturik.

Mendixkak eta mendixkak, besterik ez... Ez zirudien argietara hurbiltzen ari ginenik; batzuetan, desagertu egiten ziren eta galdu genituela zirudien. Egunsentia zurbil ageri zen zerumugan eta oilarrak kukurruku ari ziren urrun, dorre borobil abandonatua atzean utzi genuenean. Handik hurbil zegoen Espainiako muga-postua. Ibiltarien ilara gero eta luzeagoa zen. Georges eta biok ginen azkenak, Florentino guregana hurbiltzen zen noizik behinka agudoago ibil gintezen eskatzeria, egunsentia baino lehen iritsi behar baikenuen. Azkenerako, pausorik egiteko gauza ez ginela uste genuenean, errepidea biratu eta ibarrean ezkutaturiko baserri baterantz jaisten zela ikusi nuen. Kea nagi zeruratzen zen teilitatutik.

Ez zen dena bukatu, ordea! Dennis eta haren hiru lagunak, hamabi orduko ibilaldiak akiturik, zain zitzuten oheetara joan ziren, baina, etzanda jarri orduko, alarma-oihu bat izan zen.

Bat-batean ahots batzuk entzun ziren gazteleraiz hizketan, eta ile beltzko gure gidari gaztea logelan sartu zen oldarrean.

-Agudo! Arropa! Soldaduak datoz!

Berehala jantzi genituen gure arropa zurrun bustiak, eta eskaileretan behera jaitsi ginan ukuilura. Handik ordu erdi batera, Florentinoren atzetik atera eta zelaiak zeharkatu genituen hurbileko baso bateraino iristeko.

Azkenerako, gure gidaria bila etorri zitzagun: joanak ziren soldaduak. Gure artetik Florentinok hartu zuen lasaiturik ederrena: poliziak ezagutzen zuen, eta, atxilotuz gero, ez zion ihes egingo exekuzio-pelotoiarri<sup>5</sup>.

<sup>5</sup> Cecile Jouan : *Comète. Histoire d'une ligne d'évasion*. Editions du Beffroi. Furnes, Belgique, 1948, 118-121. or.

## “ZAUDE PIXKA BATEAN”

Gilbert Renault bretioia zen jatorriz, 1904. urtean jaio zen, eta erresistentzian “Rémmy koronela” goitizenarekin ezagutu zuten. Ez zuen porrota onartu, eta 1940ko uztailaren lehen egunetan Londresera joan zen, De Gaulle jeneralaren jarraitzaileekin bat egiteko asmoz. Gutxi ziren garai hartan. Han, Londresen, Dewavrin koronelarekin, Frantzia Askearen zerbitzu sekretuen buruarekin, ados etorri eta Frantzia okupatura itzuli zen, Spainian zehar, zeregin zehatz bat betetzera: Frantziako portuak zelatatzeko informazio sare handi bat antolatzera. “Confrérie Notre-Dame” izena hartu zuen sare horrek. Gerra ondoren, RPF (Rassemblement du peuple français) alderdi gaullistaren sorreran parte hartu zuen eta haren batzorde exekutiboko kide izan zen, nahiz eta geroago harremak hautsi zituen De Gaullerekin. 1984. urtean hil zen. Idazle emankorra izan zen; lan asko idatzi zituen erresistentziaren historiari buruz, eta ikerketa-lan handia argitaratu zuen hiru liburutan “Comète” sareari buruz.

Andrée (de Jongh) Florentinori jarraitzen dio orpoz orpo. Florentino haren-gana itzuli da:

-Zaudе pixka batean –esan dio ahapeka gaztelera.

Espania aldera abiatu dira berriz ere. Oraingo honetan, hiru abiadore daramatzate, kanadar bat eta bi poloniar. Lehen begiratuan, Florentinok hiru gizonen indarra aztertu du, zenbateraino eutsiko dioten nekeari neuriaz. Dagoeneko badu Andréeren iraupenaren berri, askotan egiaztatu baietan bidean. Lehen egunetik beretik, haren sen ahaltsuak, haren sen ia-ia basatiak, aise aditzera eman dio neska gazte haren gorputz meheak, mendiari aurpegi emateko janzen dituen jertseak eta oihal lodiko galtza urdinek argalago egiten dutenak, inoren aurrean makurtzen ez den borondate batean berme hartzen duela.

Florentino sendoa da, eta ederra, baldarra izan arren; harena lehoiaren edertasuna da kasik. Handia, indartsua eta mardula, txapela zapala buruan, begitarre atsegina, kopeta sartua eta zimurrez betea, ile beltzeko adats itxiz estalia. Haren belarri handi zabalak, bi maskor handi haragitsuren pare, karraskarik ñimiñoena, kirrikarik arinena, zaratarik motelena nabaritzeko gauza dira, eta haren begirada, bitartean, gai da besteek ikusten ez dutena, besteei beharbada kezkarik ere sortzen ez diena, bereizteko. Kokotsa sendoa du eta adoretsua, eta, haren gainean, estuturik izaten ditu ezpainak. Bere izate guztiari kemen ahitu ezina eta erabateko leialtasuna darizkiola sentiarazten ditzu.

Esku latz handiek belaunetan jarri ohi ditu ahurrez behera, lanik gogorrenak mantso egiteak ematen duen duintasunaz horniturik. Nolabait irudikatu behar izanez gero, nik aurkitzeko ohorea izan nuen Florentino hura haritz bat zela esango nuke, haritz bat, harkaitz batetik sortua.

-Zaudе pixka bat –esan du berriz ere gaztelera, ahopeka-. *Tais-toi (Ixo!)* –gehitzent du frantsesez.

“Dédée” ez zen konturatu hika hitz egiten ziola. Horrelako gizon baten ahoa, hiketa adiskidetasun-adierazgarri paregabea da.

Atzean Frantzia dago, okupazioaren kapa beltzaz estalirik, zeinaren azpian hainbeste arrisku dagoen ezkutuan. Haien buruen gainean zerua dago, izarrez betea eta Spainian altxatzen den mendi garai baten gailurrik moztua. Eskuinaldean, tarteka-tarteka, beste distira bat, aldizkakoa baina handiagoa: Higer lurmuturreko itsasargia da, Hendaiaz bestaldera, Bidasoaren bokaleaz harago. Gero hirugarrenez zeharkatu beharko da ibaia: ez, bosgarrenez, itzuleran ere igaro behar baita. Andrée de Jongh-ek hamasei aldz egin du joan-etorri nekagarri hori, eta, beraz, berak bakarrik hogeta hamabi aldz gurutzatu du Bidasoa norabide batean edo bestean, euri zein ateri, hotz nahiz bero.

Gau honetan Florentinok azaldu die ibaia igarotzea ez dela zaila izango, baina, euri-zaparrada handia egiten duenean, ibilaldia bost ordutan luzatu beharra dagoela eta, muga pasatu ondoren, ur-jauzi baten gainean zintzilik dagoen zubi bat igaro behar dela, zentral elektrika bateko argi bizien pean.

Orain, bere belarri handietako bat lurrari itsatsita, Florentinok mendiko soinuak entzuten ditu erne. Bizkarrean, zorro handi bat darama, sekulako konkorb bat bailitzan, hiru abiadoreen ekipaiarekin. Haren atzean ahoz behera etzanda, bizkar-zorroa sorbaldetan, André zain dago, Florentinok aurrera jarraitzeko keinua noiz egingo. Atzean etzanda, bata bestearen atzean, hiru abiadoreak daude.

Zelatan dagoen piztia baten antzera, euskalduna geldi-geldirik dago. Andréek badaki Florentinok zuhaitz guztiak, sasi guztiak, harkaitz guztiak eta ia harri guztiak ere ezagutzen dituela. Baserritik atera baino lehen, espartinak probatu ditu abiadoreen oinetan. Bidean nonbait behe-laino lodia aurkitu dute, baster guztien estalgarri: pazientzia gutxiko mando bat bezala, Florentinok lurra jo du espartzuzko zolarekin eta belarria zorroztu du, berak baizik sumatzen ez duen oihartzun baten zain; gero, aurrera egin du zalantzarak gabe. Aurreraxeago, Andréek harri batekin estropazu egiten du eta harria pirritan erori da harkaitzez harkaitz. Florentinok bira egin eta *doucement!* esan du xuxur-la batean. Nire lagun batek antzoko abentura bat bizitu zuen behin Oloron aldeko mendietan, eta honelaxe esan zidan: “Nire artean esan nuen ni egon nintekeela harri hori erori zen lekuau... Azken finean, nahiago iluntasun hartan jarraitu; bertigoak joko ninduen, bestela, nik uste”.

Florentinok zahatoa darama soinean saiheska, aker-larruz egindako ontzia ardo lodi ia urdin batez bete zuen, baina oraindik ez du handik ezer edan. Andréek zuhaitz ihar batean gelditu dela ikusi du. Enborraren hutsunetik botila batzuk atera ditu: “koñak!” esaten die, eta neska gaztea kontrabandoa dela konturatzen da. Florentinok zahatoa hartzan du sorbaldatik, larruzko lokarri bat lotutako tapoia kendu, eta Andréeri eskaintzen dio. Honek pixka bat edan du ardo zakar garratz horretatik. Gero Florentinok abiadoreei pasatzen die zahatoa, eta barre egiten du poloniarrek zanga-zanga nola edaten duten ikusita. Gero bere txanda dator; zahatoa altxatzen du besoaren muturreraino, burua atzera bota eta ahoa ardozko hari finarekin betetzen du; eztariaren hondoraino erortzen uzten du eta den-dena irensten batera, arnasarik hartu gabe. Tentetzen da, tapoia itxi, zahatoa sorbaldan jarri eta, mendiaren masa beltz eskerga erakutsiz, zera esaten du:

—*Monter, monter, monter, monter!* (igo, igo, igo, igo)

Bideari ekin diogu haren atzetik, gainaren ertzera iritsi gara, eta berehala Irungo argiak agertzen dira urrunean, giralda baten itxuran; eskuinaldean, Hondarribia pasatuta, Higer muturreko itsasargiaren distira ahaltua ageri da; eta atzealdean, askoz ere urrutia, eskuinaldeko muturrean, Bilboko itsasargia dabil keinuka, hiru abiadoreen ibilaldiaren azken puntu seinalatuz, non kon-tsulatuaren kargu jarriko diren. Luzea izango den zerrenda batean lehenengoak dira hauek, eta Andréeek irribarre egiten du bere lagun Timothyk [M. Creswell] sentituko duen poza gogoan harturik. Orain mendian behera egin behar, eta ia igotzea baino nekagarriagoa da.

Kanadarrak galdezen du harrituta: "Baina Espanian gaez lan egiten al da?"

—Zuek ez, edo zer? —erantzuten dio Andréeek.

John Ivesek azalpena ematen du: Inglaterra *black-outen* (itzalaldi) murgilduta dagoenetik ez zuen argirik ikusi gaeuan. Berehalaxe, birao egin du: makila batean bermatzen bada ere, irristatu, erori eta pixka bat aurrerago gelditu da lurrean. Florentinok bira egin eta *doucement!* gomendatzen die.

John Ives zutik jarri da, eskutik galdu duen makila bilatu du haztamuka, aurkitu du, eta bideari ematen diote berriz ere. Mendian behera egin ahala, Irungo argiak aienatzen dira, eta gero Higerreko itsasargiaren distira ere desagertzen da. Makilaren puntarekin, Andréeek lurra aztertzen du kontu handiz, espartzuzzo zolako espartinen azpian zer dagoen jakiteko.

—Zaudet pixka batean! —dio Florentinok gaztelerez. Eta ibarraren behealdean bihurgune bihurriak marrazten dituen lerro zuri luzea seinalatzen du behatzarekin.

—España!

Eta arrazoi duela egiazatzeko, argizko bi zirkulu handi agertzen dira behalde harten bihurguneei jarraika, errepidearen lerroa argitzen dutela. Auto bat da, eta oso bitxia gertatzen da argiak geruza urdin fin zeharrargi batez margoturik ez dituela ikustea, hala egitera behartzen baitute alemaniarrek. Laster, auto espainiarra puntu gorri bat besterik ez da, errepidearen bihurgune batek iresten duena.

Belarria zorrotuz, Bidasoak ura hurbileko itsasorantz azkar-azkar nola daraman entzun daiteke. Florentino gelditu da berriz ere, bira egin, eta, bere behatz handi haietako bat ezpainenetan jarrita, zera aholkatzen die:

—*Grand silence!* —Behealderantz abiatu dira. Bat-batean ibaia agertu da; bi ibai-bazterren arteko ur-laster bizi horrek muga non dagoen markatzen du hemen. Florentinok galtzak erantzi eta haren hankak lotu ditu lepoaren inguruan; keinu batez halaxe egiteko gonbidatzen die hiru gizonei. Andréeek egin du dagoeneko, baina uko egiten dio lehenbizi pasatzeari:

—Haiiek aurretik —esan du.

Buruko keinu batez ados dagoela adierazita, euskaldunak kanadarra eskutik hartzeta eta beregana dakar. Ura borborka dabil, aparrez betea. Andrée poloniarrei imintzio bat egin, ibi ikusezinean ausardiaz sartu eta Florentinorekin elkartu da beste aldean.

Fusila bizkarrean daraman gizonarena eginez, hantxe itxaroteko gonbidape-na egiten die Florentinok taldeko lagunei. Denek ulertu dute karabinero-patrulla batekin topo egiteko arriskua dagoela, eta horiek aise ematen diote behatza fusileko katuari. Euskalduna herrestan igo da ibai-bazter malkartsuan gora. Gorputza pixka bat altxatu du bere esku zabaletan bermatuz, entzuteari lotu, zutik jarri, eta bere atzetik etortzeko adierazi die. Arretaz ibai-ertzaren ondoko zelai bat gurutzatu du, trenbide baten lubetak zeharkatzen duena. Mugalariaren atzetik, trenbide hori igaro dute denek. Orain, zuhaixka batzuk seinalatu ditu:

—Zaudete pixka batean —xuxurlatzen du.

Andrée eta abiadoreak ezkutatu dira, eta, bitartean, gidaria urrundu da, bakarrik, adarrak baztertuz, batere hotsik atera gabe. Gorputz erdia atera du, ezker-eskuin begiratu, eta bat-bateko mugimendu bat egiten du besoarekin. Haren atzetik errepidearen galtzada inor-gabea pasatzen dute lasterka, bidexka harritsu batean gora igo, eta gelditu egiten dira harkaitz baten babesean, arnasa bere onera ekartzeko. Bazen garaia! Motore baten orroak urratu du gaeuko isiltasuna, hotsa handituz doa, bi faro handik argitzen dute ingurua, eta auto bat pasatzen da, urrunean galtzen da.

—Berrehun metro! —dio Florentinok, zeruan gora altxatzen den masa iluna erakutsiz.

Berrehan metro: haur-jolasa. Bideari ekin berriz ere, baina segituan ikusten da berrehun metro horiek luzeegiak direla... Indarrak ahuldurik hainbat aste itxialdian eman eta gero, hiru abiadoreak gero eta astiroago dabiltza, "Dédée" adorea ematen saiatu arren. Ahal duen guztian laguntzen ahalegintzen da, baina hiru gizonek ezin dute gehiago eta gelditu egiten dira. Haserre, Florentinok bira egin eta, behatza aldaparen gain aldera luzatuz, honela esaten die:

—Berrehun metro!

Sekula bukatzen ez diren berrehun metro horiek beti.

Ez al daki Florentinok zenbaki handiagorik gaztelerez ala?

Ahalegin ikaragarria eginez, hiru abiadoreek aurrera jarraitzen dute maldan gora. Gidaria berehala konturatua da ez direla oso urrutira iritsiko, eta, sakonune batean daudela aprobetxatuz, atsedenaldia egitea erabakitzuen du.

—*May I smoke a cigarette?* —galdetu du John Ivesek, itxaropen handirik gabe.

Florentinok, ordea, baietz erantzun du, ustekabeen, abiadorearen pozgarri. Poloniarrek agudo imitatu diote, eta kanadarrak lehen ahokada botatzen du atseginez. Zuhaitz hustu baten enborretik, beste zahato bat atera du Florentinok.

—Koñak!

Orain bai da koñaka, edo gutxi gorabehera. Koñak espainiarra. Gozoegia da baina berotu egiten du, eta badu gurearen antza pixka bat ere. Hiru abiadoreek zurrutada ederra edan dute, "Dédée"k bizkar-zorrotik Tante Go (Elvire De Greef) adeitsuak prestatutako ogitarkeoa ateratzen duen bitartean. Florentinok bere partea jasotzen du, eta saiheska daraman zahatotik ateratzen den urdin koloreko ardo beltzezko hari bukaezin batekin bustitzen du.

—*Monter, monter, monter, monter!* —esaten die, azken mokadua jan eta gero.

Bideari lotu dira berriz ere, eta oraingo aldapa lau ordukoa da. Abiadoreak

gero eta nekezago ibiltzen dira. Gehiegizko karga garraiatutik itsasoan lorratza temati uzten duen itsasontzi bat bezala, Florentinok aurrera egiten du abiadura berberaz beti, zaku handia bizkarrean duela.

Azkenerako, goialdera iritsi gara. Errepide bat dago han, eta ekialdean dezentez handiagoa den gailur bat ageri da, malkartsua eta koskaz betea, argitzen hasitako zerua ebakitzenten.

-Aiako harria -esaten du Florentinok.

Guk les *Trois Couronnes* deitzen dugun mendia da, ibarrera jaisteko errepideak inguratzen duena. Ezkila-zaparrada asaldatu batek ahuntz-talde ikusezin baten presentzia adierazten du. Haien loa urratu dugu eta ihesi doaz itsumustuan, beherago.

Nolako atsegina izango litzatekeen gure oin nekatuentzat errepide horretan barrena ibiltzea! Baino Florentino irmo agertu da: errepidea zeharkatu eta behabehean ikusten den herriraino iritsi beharra dago hartzintzarrez estalitako lurretan zehar. Herri horretan tren-geltokia ikusten da, zenbait farolek argiturik, eta trenbidea, erdirik erdi gurutzatzen duena. Zorionez, malda ez da oso pikoa.

Herriaren bukaeran, baserri isolatu bat dago. Florentinok harri bat hartu eta kontraleihoko baten kontra jaurti du. Zurezko leihoko-tapak itxita segitzen du, baina, minutu baten buruan, morroilo batek kirrinka egin eta ate astuna erdi irekitzen da. Bata bestearren atzetik iheslariak sartzen dira gela nagusira, Florentinori jarraituz. Atea eta morroiloa itxi, eta baserritarrok argia piztu du. Oinutsik, eta soinean mantarra eta marra beltzedun gonazpiko gorria besterik ez duela, emakume batek su egin du beheko suan, koipez zartagin bat igurtzi, arrautzak hau-tsi, irabiatu, urdai-zati batzuk bota, eta tortilla harro bat prestatzen du, denek gose handiz sabeleratzen duguna.

-Orain lotara -esan die "Dédée" k bere hiru "enfants" ei.

Besterik ez dute nahi, baina zerbaitek aztoratzen du kanadarra:

-Et zu?

-Ni ez nago nekatua -erantzun zion neska gazteak-. Arropa aldatu eta Erreneriara joango naiz. Hemendik oso hurbil dago; ezta, Florentino?

-Eta gero? -galdezka jarraitzen du John Ivesek, Andréeren kemenak eta irau-penak miretsirik.

-Gero? Donostiarra joango naiz tranbian, eta zuen bila itzuliko naiz Santiagorekin (Aracama).

Florentino, berriz, ezin da baserri honen babesetik kanpora arriskatu, karabneroak aspaldi baitabiltza hura harrapatu nahian. Andréek arropa aldatu eta oinez abiatzen da Erreneriarantz: beste bost kilometro, mendikoei gehitu beharrekoak. Tranbia kirrinkari hori batera igo da, eta Pasaiako portuan barrena Donostiarra iristen da. Santiagok bere gasogenozko auto zaharra hartu eta "umeak" hartzera doa. Geldialdi labur baten ondoren, Bilbora joango dira goizeko trenean, barazkiak saltzera doazen baserritarren artean<sup>6</sup>.

<sup>6</sup> Rémy: *Réseau Comète*. Librairie Académique Perrin, I. liburukia. Paris, 1966 (143-149. or.).

## MUGALARI IAIOA

George Duffe, lanbidez British Airwayseko pilotu izandakoa, Halifax bonba hegazkin bateko kopilotua izan zen, alemaniarrek hegazkin erasotzaileen % 8 lurrera botatzen zutela kalkulatzen zen garaian. Bere lehen eraso-irteera 1942ko ekainaren 22n egin zuen. Mulheim hiria zuten jomuga. Zortzi laguneko eskifaia zen, eta Georgek ez zuen inor ezagutzen aurretik. Holanda zeharkatzean, DCAk hegazkina ikusi eta tiro egin zien. Lurrera erori ziren, eskuineko hegala errrotik aterata. Georgek paraxutaz salto egin zuen lurretik 500 metrora zegoela. Bere lagunetako bat airean hil zen, eta beste bi atxilotu zituzten, lurrera iristean. Georgek ihes egin zuen. Erresistentziako talde batzuk deseginda zeuden, Gestapok infiltratuak sartza lortu baitzuen, eta, hori zela eta, George Dufek 10 hilabete eman behar izan zituen Holandan ezkutaturik. 1943ko irailean iritsi zen Euskal Herrira, ebakuazio luze zail baten ondoren. Bi egun pasatu zituen ezkutuan Kattalin Agirreren etxearen, Ziburun. Abiatzeko egunean, Florentino eta "Franco" zeuzkan zain Hendaia-Paris trenbidearen tunelean:

"Eguna argitu aurretik pedalei eragiten ari ginen jadanik errepide lasai estu batean, Donibane Lohizunetik Ziburura joateko. Ziburun etxe seguru batean ostatu eman ziguten, herria esnatu baino lehen. Lehotik itsasoa ikusten zen, bai eta kostaldeko defentsak eta soldadu alemaniar zenbait ere. Etxean beste pilotu batekin elkartu ginen; hegoafrikarra zen eta derrigorrez lurreratu behar izan zuen Frantziako iparraldean hiru aste aurretik. Ez zen segurua denok han ego-tea; gau hartan zeharkatuko genituen Pirinioak mugalari iaio batekin. Eguna ilundu bezain laster etortzekoa zen gure bila. Eguna gehiena atsedenean eman genuen, bizikletazko bidaia leher eginda utzi baikintuen, eta indarrak bildu nahi genituen gaueko ibilaldirako. Mendi-gidariak (Florentino) olanazko zapata-pare batzuk ekarri zituen, ibiltzean soinurik atera ez genezan. Sakeletan genuen diru frantses guztiaz gabetzeko agindu zigun; bestela, Espanian harrapatz gero, dubitsa-kontrabandoa legalki leporatu eta Britainia Handiko kontsulak nekez aterako gintuen kartzelatik. Dena prest zegoenean, etxeoandareari (Kattalin Agirre) agur egin genion etxe-atarian eta aurreko gidaria (François Nothomb), Bordeletik lagundu ziguna, gurekin abiatu zen Donostian agintari britainiarrei bisita egiteko.

Gaua oso iluna zen eta euria ari zuen. Nekez ikusten genuen aurrean zegoena. Zazpi ginen eta eskutik oratu genion batak besteari, elkarri laguntzen genion malda pikoetan gora igotzen.

Orduak eta orduak eman genituen aldapan gora, gutxi batzuek baino ezagutzen ez zituzten bide mehar inor-gabeetan aurrera, hezurretaraino blaitzen ziguten uhar biziak gurutzatzen. Apenas hitz egin genuen ordu luze nekagarri haitan. Gero atertu zuen, hodeiak desagertu ziren eta azkenerako mendien isla aparta ikusi ahal izan genuen zero izartuan ebakita. Patruila alemaniarak eta espaniolak zebiltzan mendian, eta bagenekein, guardia espainiarrek harrapatz gero, alemaniarren eskuetan utziko gintuztela, Espainiako lurretan egonik ere.

Aldapan gora jarraitu genuen, aurretik zebiltzanen urratsei segika, alboetan zer zegoen jakin gabe, iluntasunak dena hartzen baitzuen. Ibitik pasatu beharreko erreka, barea eta ez oso sakona normalean, emari handiko ibai bihurtua zen, arriskutsuegia oinez gurutzatzeko. Beste aukera bat besterik ez zegoen: Zubia erabiltzea, baina zaindu egiten zuten.

Argi bat ageri zen txabola batean, zubi estu zintzilikariaz bestaldean. Pixkanaka joan ginan aurrera, bi minututik bi minutura, astiro-astiro, Zubia zabunka ibil ez zitezen. Une larriak izan ziren guztiz. Azkenerako, denek zeharkatu genuen Zubia eta aurrera jo genuen. Euri-zaparrada handia hasi zuen, eta gure janzkiak, ahaleginean lehortu zitzazkigunak, busti egin zitzazkigun berriz ere. Malda ia bertikal batean gora igo ginan, zuhaixkei oratuz, nahiz eta eskuetan ebakiak egin eta hankak eta aurpegia harramazkaz bete. Gero, aldapan behera egin genuen, estropezuak; eta, bat-batean, gure azpian, guri zenbait miliakoa iruditzen zitzazigun tarte baten ondoren, Espainiako argiak agertu ziren, Askatasunera iristeko gure atea. Minutu batzuen buruan, Frantziako lurraldetik Espainiakora paseak ginan. Bainaz ez geunden oraindik seguru. Saihestu egin behar guardia espainiarak, eta eguna argitzen ari zuen.

Gure arazoak ez zeuden oraindik konponduta, espainiarrek jendea ziega zikin zorriz beteetan sartzeko ohitura desatsegina baitzuten, eta hantxe uzten zituzten betebehar guztiak osatu bitartean. Nabaria zen guk ez genuela espainiarren itxurariak, ilehoriak baikinen batez ere. Mugalarriak esandako etxe batean afaldu eta gosaldo egin genuen; gure oin minberatuak garbitu eta gure harramazkak aztertu genituen. Pilotu kanadarrak oinak odoletan eta babaz beteak zeuzkan, baina merezi izan zuela ziurtatu zigun. Ibilaldian hamalau ordu igaro genituen oinez gelditu gabe.

Donostiako kontsuletxe britainiarrean bazekiten iristekotan geundela, eta auto bat prestatu zuten gau hartan berrian Madrilera zuzenean joan gintezen.

George Duffee idatzia (DFC).  
India 1946.



Florentino Goikoetxea eta George Duffee pilotu britainiarra Bidasoa aldeko mendietan. 1955. urtean.

## “GAU MINEAN”

Airey Neave, politikari kontserbadore britainiarra, 1916an jaio zen. Britainia Handiko tropa espedizionarioetakoak izanda, Frantziarrak harrapatu zuten alemaniarrek, Calaisen, 1940ko maiatzean, eta kontzentrazio-esparru batera bidali zuten. Handik ihes egin zuen, baina Gestapok atxilotu eta Colditz-ko gazteluan sartu zuten. Handik ere, hainbat saiotan huts egin ondoren, ihes egin zuen eta Frantzia-España-Gibraltar bidean zehar Londresera iritsi zen 1942. urtearen hasieran. Han zerbitzu sekretu britainiarreko M19 atalean hasi zen lanean. Atal horren zeregina soldadu aliatuei Europa okupatutik ihes egiten laguntza zen, eta orduan harreman estua izan zuen “Comète” sarearekin. Alderdi Kontserbadoreko ordezkari garrantzitsua izan zen eta Margaret Thatcherren hurbileko lankidea. IRAK hil zuen 1979an.

“Comète” sareari buruzko bere liburuau Florentinoren atze-aureak mirespenez kontatu zituen:

“Gaua etorri eta Florentino “Dédée”k gidatzen zuen ilararen buru jartzen zen. Bikote aparta, mendiko erraldoi hori eta haren lagun zimela!

Florentinok berezko sena, berezko ezagutza zuen mendian ibiltzeko! Gaurik ilunenean, elurterik gorrienean edo behe-lainorik itxienean, infernuko abiadura berean ibiltzen zen beti, sekula ere galdu gabe.

Noizik behinka gelditu eta arrastoa usaintzen zuen ehiza-zakur baten antzeria; lurra jotzen zuen espartinarekin eta are arinago jarraitzen zuen, bere erraldoi-ibileraz; leher egindako gizon haien jarraitzen zioten, iluntasunean estropezuak eta irristaka, eta astiroago joateko alferrik erregutzen ziotela. Halako eta holako enborraren ondotik pasatzean edo ezagutzen zuen haitz batera iristean, besoa sartu eta koñak botila edo espartin pare bat ateratzen zuen, hilabete batzuk aurrerago han ezkutatu zituenak. Euskaraz baino ez zuen egiten, frantsesez *doucement! doucement!* eta *tais-toi!* besterik ez zuen esaten, esapide horiek sarri askotan erabiltzen bazituen ere.

Frantxiaren (Usandizaga) baserritik abiatu aurretik, “Dédée”k hainbat gomendio egiten zizkien bere ardurapekoei, eta Florentinori jarraitu behar ziota la azaltzen zien, bata bestearen atzetik, isiltasun osoan, eta bidean emango zitzazkien aginduei kontra egin gabe. Horren ondotik, Florentinok bere egundoko bizkar-zorroa ixten zuen, koñak zurrupada luzeak muturretik edaten zituen bitartean, eta, gero, abiadoreek jantzitako espartinak aztertzen zituen. Jarraian, mendiko makila sendoak banatzen zitzazkien.

Ehun iragazgaitzez egindako galtza urdinak eta jertsea jantzita, “Dédée”, bitartean, alde batera gelditzen saiatzen zen eta bizkar-zorroaren uhalak finkatzen zituen bere sorbalda ahuletan.

Errenkada gauez abiatzen zen, Urruñatik urrundu eta mendiari aurre egiten zion, lehenengo aldean hamabi bat kilometroko bidea eginez, Hondarribiako itsas-argia ikustera iristeraino, zeinaren argiak inguruko mendixken tontorrak korritzen baitzituen bere distira horiarekin.

Ordubete geroago, Espainiako herrietako lehenengo argiak agertzen ziren, eta, ibarraren azpialdean, Irún muga-hiria, Bidasoaz harago<sup>7</sup>.

Hemendik aurrera abendura arriskutsua izaten zen –eguraldia kaxkarra baldin bazen, batez ere–, ibairaino jaisteko bide-zidorra malda handikoak baitziren eta euriak edo elurra guztiz irristakor bihurtzen baitzituzten. Ibaia inguratzetan zuten haitzarte sakonetan barneratu ahala, gero eta ilunagoa zen gaua. Batzuetan, ur-lasterraren goraldi handiegi batek ibitik igarotzea galarazten zuen eta itzulinguru luze bat egin beharra zegoen, ondo argituta eta karabinero espainiarrek zainduta egoten zen zubi batera iristeko.

Ibaira hurbildu zirenean, iheslariek Espainiako ur-ertzaren ondoko errepidea eta haren azpiko trenbidea ikusi zituzten. Ibaiko ura bortizki eta orroka oldartzen zen itsasorantz. Han, Florentinok eskua jaso eta geldi zitezela eta sasien artean kokoriko jar zitezela agintzen zien denei, berak aurrerago egiten zuen bitartean, bazterrak aztertzeko. Gaua argitsua zenean, karabineroren bat errepidean zehar igaro zitekeen patruilatzen, ibaiaren beste aldean, eta kontuz ibili beharra zegoen, gizon haiek mugitzen zen guztiari aurre-abisurik gabe tiro egiteko agindua baitzuten.

Dena lasai zegoela baiezttatu ondoren, Florentinok keinu bat egiten zion “Dédée”ri, eta honek, hotsik atera gabe, galtzak kentzeko eta lepo-inguruan lotzeko agintzen zien denei.

Taldexoaren aurretik, Florentino ur-lasterrera jaisten zen orduan, hondoa ikertzeko. Ibitik pasatzea bazegoela irudituz gero, gizonek kate bat osatzen zuten eskua elkarri emanet eta, euskalduna gidari, ibaiaren zeharkatze arriskutsua hasten zen, gerriraino ur izoztuan sartuta. Pausu txiki bat gaizki egiteak itotzea ekar zezakeen!<sup>8</sup>.

“Dédée” azkena izaten zen, eta makina bat aldiz lagundu behar izan zion baten bat. Haren ardurapeko gizon haiek harriturik gelditzen ziren neskak egoera guztieta erakusten zituen indarra eta iraupena zirela-eta.

Espainiako ibai-bazterrera iritsita, hotzez hezurretaraino, gizonek galtzak janzen zituzten trenbidearen ezponda harritsuan gora igotzeari ekin aurretek. Igoera gogorra zen, baina egin beharrekoa, trenbidea zeharkatu behar baitzen errepidera ailegatzeko. Sasitzan uzkurturik, trenbidetik hurbil, Florentinok errepidea eta muga-postu espainiarren argiak aztertzen zituen. Postuaren surrealdean, mugazain bat zegoen, oinak lurrazen kontra joka berotu nahian, Florentino ezkutaturik zegoen lekutik tarte batera.

Karabineroak bira egin bezain laster, Florentinok ezpondari ekin zion, eta, jauzi batez trenbidea gurutzatuta, errepidera iritsi zen. Harago, beste ezponda bat zegoen, alboetan sustraiak eta sasi arantzatsuak zeuzkana. Besoen indarraz altxaturik, segundu batzuk aski zituen euskaldun ahaltsu hark sasien babesean gordetzeko, eta haraino jarraitzen zioten banan-banan abiadoreek, lur iota.

<sup>7</sup> Ibai horrek Frantzia eta Espainia bereizten ditu 12 km-tan eta Bizkaiko Golkoan itsasoratzen da. Ibai horretan Faisai uhartea dago, non Pirinioen Ituna izenpetu baitzen 1659an.

<sup>8</sup> Horrela hil zen 1943ko abenduan Antoine de Ursel kondea, “Comète” sarearen agintaritzan Jean Greindol ordezkatu zuena.

Sarri askotan, abiadore bat edo beste bidean erori eta “Dédée”k esku hartu behar zuen, errepidearen beste aldean zegoen ezpondaren aldapa pikoa igotzen lagunduz.

“Dédée” sekulako ausardiaz eta iraunpen fisikoaz horniturik zegoen, eta ez zuen behin ere ahuleziarik agertzen. Bere ereduarekin eta bere adore menderaezinarekin, bidekideen bihotza altxatzen lortzen zuen beti, eskumuturrez baliaturik ere batzuetan!

1942ko uztailaren gau gabea, Florentino, “Dédée” eta abiadore-talde bat Espainiara bidean zihoazela ia-ia erori ziren zuhaixken artean ezkutaturiko bi soldadu alemaniarrek mugatik hurbil jarri zieten segadan.

Iheslariek ozta-ozta ihes egin zuten jazarleen zelatatik eta basoan barreiatu ziren. Han egon ziren ezkutuan, arriskua noiz bukatuko zain. “Dédée”k bildu zituen orduan, eta Frantxiaren (Usandizaga) baserrira itzuli ziren. Handik bi egunera abiatu ziren berriz, eta helburua lortu zuten bigarren hartan.

Behin edo behin gizonen bat galdu zen gauean –oso-oso gutxitán baina–, eta, Espainiako Guardia Zibilak atxiloturik, Miranda de Ebroko preso-esparrura bidaltzen zuten usteltzera.

Muga igarota, Florentino Espainiako isurialdea igotzen hasten zen, Aiako Harriko tontorrera zeraman mendian gora. Abiadoreek asnasestuka jarraitzen zioten, ziraldoka ibiliz nekea zela-kausa. Haietako batek egun batean aitortu zidan “Dédée”ren zango lirainak ikusteak, bere aurretek baitzihoa nekaezin, eman ziola azkeneraino jarraitzeko borondatea! Ordu batzuetan ibili behar horrela oraindik ere.

Gizonen bat etsitzen hasten zela ikusiz gero, “Dédée”k atzera egin eta haren ondoan ibiltzen zen alai hizketan, animoak emateko, eta ez zuen onartzen inondik inora bere mutilak koñak edo ardo zurrutada bat edatea babeslekura iritsi arte, gehiegiz lasaitu eta ibiltzeko gogoa galduko zuten beldurrez! Aiako Harriko gailurretik behera, jaitsiera leuna zen, belardi zabaletan zehar, non ezin konta ahala artalde baitzebiltzan bazkan.

Kontu handiz, zerumugan Guardia Zibilaren uniforme berdea agertzeko beldurrez, talde txikiak atseden hartzen zuen baserri bakarti batetik hurbil, azkenerako.

Florentino bakarrik aurreratzen zen etxeraino, gainerakoak belar luzeen artean ezkutaturik gelditzen ziren bitartean, eta harri koxkor bat leihoa batera boteaz iragartzen zen iritsiak zirela. Atea zabaltzen zen azkenerako, etxe-koandراءaren aurrean, eta honek keinu bat egiten zion Florentinori inguruan dena lasai zegoela adierazteko. Abiadoreak zorioneko sukalde hartako epelean sartzen ziren oldarrez, eta blai-blai egindako arropak lehortzen jartzen zituzten segituan, etxe-koandراء patata-tortilla eder bat prestatzen zien bitartean.

Sabela berdinduta eta bero-bero, gizonak ahal bezala paratzen ziren lotarako eta indarberritzeko. “Dédée”k, bitartean, blusa eta gona berriz jantzi eta bost kilometro gehiago egiten zituen mendian zehar, Errenteriako hiri txikira iritsi eta, han tranbia hartuta, Donostian sartzeko.

Bere lagun Bernardoren etxera joaten zen [Arakama], eta han atseden hartzen

zuen gauera arte. Gero, elkarrekin autoa hartu eta baserriraino joaten ziren, abiadoreak hartu eta Donostiako errepidean aurrera abiatzeko.

“Monday” (Michael Cresswell) autoaren bolantean zain zuten guneraino ailegatzen ziren; “Dédée”k eta Bernardok (aracama) harekin hitz eta argibide batzuk trukatu eta nork bere bidea hartzen zuen.

“Monday”k eta abiadoreak kontsuletxe britainiarreko bidea hartzen zutén orduan, eta Bernardo, bitartean, “Dédée” baserrira eramatzen zuen. Han Florentino zeukan zain.


“Monday”k Jean Greindlentzat emandako mezuak eta dirua aldean zeramatzala, “Dédée”k Frantziako bidea hartzen zuen berehalia.

Kontaketa zoragarri eta zirraragarri hori entzun nuen astero-astro, 1942. urtearen bukaera arte! Lekukotasun horiek bihotzeraino hunkiturik, nire artean esan nuen nahiatezkoa zela M19 atala bere esku zegoen guztia egitea bai “Dédée”ri laguntzeko bai etsaien eskuetan eror ez zedin kosta ahala kosta sainesteko!

Atxilotuz gero zer gertatuko zitzaion ondo baino hobeto jakin arren, “Dédée”k sekula ez zuen onartu bere zeregin arriskutsuan ordezkatua izatea!<sup>9</sup>

---

<sup>9</sup> Airey Neave: *Les chemins de Gibraltar*. Editions France Empire. Paris, 1972, 268-273. or.



**"DÉDÉE", FRANTXIA USANDIZAGA  
ETA JUAN MANUEL LARBURUREN  
ATXILOTZEA. FLORENTINO LIBRE**

## "BIHAR, EURIRIK EZ"

1943ko urtarrilaren 13ko gauean, "Dédée" eta "Franco" (Jean François Nothomb) Paris-ko Austeritzeko tren-geltokitik abiatu ziren Donibane Lohizune aldera, abiadore-talde batekin. Haiez gain, tren bereko beste konpartimentu batean "Dédée"ren aita zegoen, Fréderic de Jongh, Londresera eraman behar baitzuten alemaniarrak haren atzetik zebiltzalako. Hilaren 15ean Urruñako "Bidegain-Berri" baserrirainoko ibilaldia antolatu zen. Han, Frantzia Usandizaga baserri-jabeak hartuko zituen, Juan Larburu errefuxiatu herrianiarraren laguntzaz, gauez Bidaso aldera egiteko unea etorri arte. Hiru errefuxiatu euskaldun, Mariixu Anatol, Ambrosio San Vicente eta Alejandro Elizalde iheslariei lagundu zieten mendiko bidearen hasieran:

"Laster utzi gintuzten –gogorarazten zion "Dédée"k Rémy koronelari- eta Frantxiaren baserrirantz abiatu ginen. Gure hiru mutilak nekatuta zeuden ordurako eta ez zuten ekipo egokirik eguraldi txarrari aurre egiteko; eta badariz jeneralean abiadoreei ez zaiela ibiltzea gustatzen. Gainera, hiruetako batek sendatu gabeko zauri bat zuen eta hanka bat arrastaka zeraman. Ibilaldiak ez zuen batere xarmarik; hori baino gutxiago ezin esan: gogoan dut nola euri-bolada izoztuek jotzen gintuzten elur urtu moduko bat gure gainera boteaz.

Bidean Florentino elkartu zen taldearekin. "Zer? Gaur gauean pasatuko gara, zure ustez?" galduet zion Andréeek. Euskaldunak zalantza erakutsi zuen burua astinduz, hiru abiadoreak nola zebiltzan ikusita. "Bihar euria egingo du?" jakin nahi izan zuen Andréeek. Florentino bide-zidorraren ondoko errekasto baten aurrean gelditu zen eta euria uretan nola erortzen zen begiratu zuen. "Bihar –esan zuen gazteleraz–, eurirk ez".

–Ondo da –esan zuen Andréeek–. Gizonak baserrira nola iristen diren ikusi eta orduan erabakiko dugu zer egin.

Urruñako baserrirainoko bidea bi ordukoa zen gutxi gorabehera, eta lur heze eta lokaztuetan barrena igaro behar zen askotan, errepidea alde batera utzi behar baizen arriskua txikitzeo. Hiru gizonek Frantxiaren baserrian sartzean zer itxura zuten ikusita, Andréeek pentsatu zuen bere artean: "Gaur gauean ezin dira inondik inora pasa". Leher eginda zeuden, izan ere.

Tante Go (Elvire De Greef) Donibane Lohizunera jaitsi zen berriz, Florentinok utzitako bizikletarekin, eta, bitartean, Andréeek gaua gidariarekin eta hiru gizonekin Frantxiaren etxeen ematea erabaki zuen. Frantxiak kontra egin zion, ordea. "Beldurrak nago –esan zuen–. Espainiara pasatzen den jendea hartzen dutela esaten ari dira bazter guztietan. Ez dut nahi zuek gaua hemen pasatzerik".

–Baina –protesta egin zuen Andréeek–, nora joatea nahi duzu? Gorde egingo gara, ez gara behin ere agertuko.

–Ondo da –onartu zuen Frantxiak–, atzoko gelara joan zaitezte eta ez zaitezte handik mugitu. Ez dut nahi inork aurrealdean ikus zaitzaten.

Surik ez zegoen sartu ziren gela hartan. Barruko harrak bultzaturik, Frantzia

segituan itzuli zen: "Zatozte berotzera –esan zien gizonei, hotzez akabatzen bai–tzeuden–. Ez da inor etorriko euri honekin.

Andréek keinu bat egin zien hiru abiadoreei bere atzetik joateko, eta sala handira igaro ziren Florentinorekin. Zurezko su ederra erretzen ari zen tximinia garai batean. Berehala, Frantxiaren zakurra zaunka egin zuen gauean. Andrée altxatu zen, mundu guztia lehengo gelara atzera ere eramateko prest, baina Frantxiak ez mugitzeko adierazi zion keinu batez, eta bere semea bidali zuen zer gertatzen zen ikustera. Mutil pijoia berehalako batean itzuli zen, amari zerbaiz euskaraz esan zion, eta amak azaldu zuen: "Ezer ez da, datorrenak ezagutzen zaituzte, eta badaki gizonak pasatzen laguntzen dudala." Andréek baserriko morroia sartzen ikusi zuen. Bitarteko gisa erabili zuen gizon hori, bere bizkar-zorrotik hainbat gauza falta zirela konturatu zen arte. Gizon hark lapurtu zituen? Edo haren patroiak? Andréek ezin zuen esan, baina ez zuen batere atseginik sentitu gizon hark arratsalde-tarte bat Frantxiarenean ematen zuela ikusirik.

Biharamun goizean, Florentinok Donibane Lohizunerako joateko proposamenta egin zion neska gazteari, erosketa batzuk egin behar baitzituen han, baina Andréek uko egin zion gonbiteari: "Ez –errefusatu zuen–. Ez dut ezer egiteko han behean eta, behingoz atseden hartzeko aukera izanda, nahiago hemen gelditu."

Florentino Donibane Lohizunera joan zen. Herri hartara iristean, San Vicenteren etxetik pasatu zen, eta Tante Go-rekin elkartu zen han.

—"Nik han pasatu nuen aurreko gaua –esan zidan Greef andreak–, bezperan beranduegi egin zitzaidan-eta Angelura itzultzeko eta, gainera, blai-blai eginda nengoen. Maritxuk [Anatol] txabusina bat utzi zidan eta nire arropak lehortzen jarri zituen, pontxe bero-bero bat edaten nuen bitartean. Ni larriturik nengoen, "Dédée" arriskuan zegoela susmatzen nuen, eta gogoan dut nola esan nion Maritxuri: "Aizu, Maritxu, susmo txarra hartu dut. Bihar goizean Angelura joango naiz eta arratsaldean baserrira itzuliko naiz. Zerbait gertatzen bada, badakizu zer egin behar dugun: Baionako telefono-zentralera deitu eta, ez baduzu lortzen Dassié jaunarekin hitz egitea, esan ezazu "lehengusina txikia gaixo dagoela", besterik ez. Emango diote mandatua, eta jakingo du horrek zer esan nahi duen. "Ulertu duzu?" Hala egingo zuela agindu zidan".

"Goizean Florentino iritsi zen. Zaila zen zer esan nahi zuen ulertzea harekin hitz egiteko ohiturarik ez zenuenean, eta "Dédée" k baserrira itzultzeko manda-tua eman ziola esan nahi zidala ulertu uste nuen. "Egun argiz!" –esan nuen–, erokeria da hori! Ez diozu erantzun segur asko joango nintzela?"

"Florentinok burua astindu zuen, eta zera zioela ulertu nuen: "Ez, ez, behar-bada." Atseden hartzera joateko aholkatu nion, eta eguna ilundu arte zain ego-teko, itzultzeko bideari ekin aurretik. Nire arropak lehor zeuden, eta etxera itzu-li nintzen, bidean "B" rekin [Albert Johnson] gurutzatu nintzela oharkabean. "B" Frantxiaren etxera ziohan, beti bezala, abiadoreei azken unera arte uzten zizkien nortasun-agiri faltsuak berreskuratzera. Angelun inork ere ez zekien mugazharkatzea hogeita lau orduz atzeratu zela".

Gau osoan ondo lo egin ondoren, abiadoreek indarrak bildu zituzten, eta eguerdian atzoko gelan eseri ziren Andréerekin bantzatzeko. Andréek Frantxiari

bazkaria prestatzen lagundi zion. Hiru gizonetako batek oliba-kolorea zuen; Venezuelako zen jatorriz.

Frantzia Usandizagaren baserriak "Bidegain-berri" izena zuen, eta handik hurbilen zegoen baserriak, Kattalin Agirreren laguna zen Gracy Ladouce ande-renoaren amaren sortetxeak, "Bidegain", besterik gabe.

*"1943ko urtarriaren 15 harten –Ladouce andereñoak idatzi zidan–aita, ama eta Jean anaiarekin nengoen. Zerria hil berria genuen, eta sukaldia mukuru zegoela oroitzentzela."*

*Eguerdi aldera, betiko lasaitasun handiaren erdian, motore batzuek sortutako iskanbila entzun genuen, eta bat-batean isildu egim zen: zer gertatzen zen? Orduan, pausu-hotsa entzun genuen, presaka zebiltzan, eta alemaniar batzuk sartu ziren sukaldian: "Nortasun-agiriak!". Gure txartelak erakutsi genizkien lehiaz.*

*–Etxean nor gehiago dagoen jakin nahi dugu! –esan zuen buru egiten zuen alemaniarra.*

*Nork bere burua aurkeztu zuen, baina ez ziren gure bila etorri. Ordurako konturatuak ginen nora zihoazten...".*

Handik pixka batera, Andréek eta hiru abiadoreek auto bat gelditzen zela entzun zuten. Txantxetan, Andréek esan zuen: "Gestapo!", eta abiadoreetako batek, jolasari jarraituz, labana sakelatik atera, ahoa ireki, eta ate aldera joan zen mehatxuzko keinu barregarriak eginez. Baina salan bota-hotsak durundi egin zuen, eta aginduak ematen zituzten oihuka alemanez. Andréek eta hiru gizonek atea nola pixka bat zabaltzen zen ikusi zuten, bai eta nola agertzen zen zirrikutik metraileta-kanoi bat. "Hände hoch!" esan zuen ahots batek garrasika, eta atea ostiko batez bultzatu zuten. Men egin behar eta horma aldera bira egin, eskuak buruaren parean, guziek, Andréek izan ezik, betebehar horretatik salbuetsi baitzuten.

—Non dago bosgarrena? —galdetu zuen buruzagiak. Galdera horrek kontu-razi zion Andréeri bezperan Frantxiaren etxera bisitan etorritako baserriko morroiaik saldu zituela. Nola, bestela, jakin baserrian bost lagun zeudela? Florentino baino ez zen falta koadroa.

Morroi horren izena Kattalin Agirreren etxean ahoskatu zuten nire aurrean. "Hura izango zen segur aski –esan zuen Ivonne Lapeyre–. Mundu guztia salatzen joan zen alemaniarrengana. Beste aldetik –gogoratzen da Kattalin–, libera-zioan Espainiara ihes egin zuen, eta inork ez du behin ere ikusi.

Alemaniarrek bazter guztietaan bilatu zuten Florentino, mandioko saralean ziztaka ere ibili ziren baioneta-kolpez, han ezkutaturik ez zegoela ziurtatzeko. "Non dago bosgarrena?", errepikatu zuen buruzagiak. Eta, inork erantzunik eman ez zionez, iseka-barre egin eta honela esan zien: "Hitz egingo duzue, lagunok, hitz egingo duzuenez!"

Baserriaren aurreko aldera denak aterarazi eta agindu bat eman zuen zakar. Ehun lodizko jaka eta galtzak jantzita, Andréek Frantxiari begiratzen zion disi-

muluan. Aurpegia zurbil, nahasmenduak jota, haren laguna bere hiru seme-alabei begira zegoen. Negarrez ari ziren isilean.


Hamar soldadu armatu inguruan, eta bidea zabaltzen zuren bi *Feldgendarmen* atzetik, atxilotuak ilaran jaisten ziren Andréek hainbeste aldiz ibilitako bidean behera. Florentinok bezperan sumatu bezala, ez zuen euririk egin.

Abiadore ingelesa buru zihoan, haren atzetik bi amerikarrak, Andréeren aurretik, eta Frantzia hurrengoa. Juan Larburu azken lekuak sorbaldean, hiru abiadoreak bezala.

"Eguraldi bikaina muga pasatzeko!" zioen Andréek bere artean, burua atzera biratzen zuela etengabe, mendi aldera begiratzeko. Grazia egin zion alemaniarren begiradetan kezkatzen hasiak zirela ikustea, Andréek alde hartatik laguntza espero zuela uste baitzuten. "Urdazuriren gaineko zubia igarotzean –esan zuen berekiko–, uretara salto egin eta bi uren artean lasterka ihes egiten saiatuko naiz, ibaien gora. Baliteke aukera izatea."

Baina zorte onak, luzaro haren alde agertu ondoren, bizkarra eman zion orduko hartan: marea behean zegoela ikusi zuen Andréek, zubira iristean.

... Segizioa Donibane Lohizunen sartu zen, bertan zebiltzanen begirada atsekabetuen artean. *Villa Angèle* deitzen zuten espoxera eraman zitzutzen sei presoak<sup>10</sup>.



Ilustrazio honetan "Dédée" eta Florentino abiadore iheslariekin, Bidasoa aldera abiatu baino lehen ("Abiadoreak eta erresistentzia-kideak: Comète". ICARE, Frantziako abiazioaren aldizkaria, 151, 4. liburukia).

<sup>10</sup> Rémy: *Réseau Comète*. Librairie Académique Perrin, Paris, 1966, 1. liburukia, 371-76. or.



**FLORENTINO BRITAINIA  
HANDIKO ZERBITZUEK  
“BAHITUÁ”**

## "FLORENTINO, BIHAR! BIHAR, FLORENTINO!"

1944ko ekainaren 6an, "Tante Go", hau da, Elvire de Greef errefuxiatu belgikarra, "Comète" sareak euskal eremuan izan zuen euskarrietako bat, Donostiara iritsi zen, mugatua Saran igaro ondoren. Bere seme-alabetako birekin joan zen, haien Londresera eramatea erabaki baitzuen, arriskuan zeuden-eta, Gestapo haien etxera, "Voisin" egoitzara, hainbat aldiz agerturik. Gipuzkoako hiriburuan elkarrizketa bat izan zuen Michael Creswell-ekin ("Timothy"rekin), zeina MI 9 atalak (Escaping Section) Madrileko enbaxada britainiarrean zuen ordezkaria baitzen, bai eta "Comète" sarearekiko harremanen arduradun ofiziala ere. "Tante Go", Antonia Sarasolaren etxearen bizi zen Donostian (Antonia Sarasola, "Dolores" goitizenekoa, Bernardo Arakamaren emaztea zen, eta bakarrik zegoen garai hartan, Bernardo atxilotu eta Madrilera hesbesteratu baitzuten), eta Angelura itzultzea erabaki zuen, nahiz "Timothy" esan eta esan aritu horrelakorik ez egiteko eta seme-alabekin batera Londresera joateko. Handik urte batzuetara, "Tante Go"k honela kontatu zion Rémy koronelari nola aurkitu zuen Florentino, haren bila joan zenean, Angelura bueltan Bidasoa zeharkatzen lagundu ziezaion:

"Orduan, seme-alabak besarkatu eta Donostiara itzuli nintzen, Doloresekin batera. Berehala konturatu nintzen "Timothy"k ezkutuan hainbat jarraibide eman zizkiola Doloresi, eta hau ez zen behin ere urrunten niregandik. "Edonola ere, ezin zara itzuli –esan zidan–. Ingelesek Florentino bahitu dute."

–Bahitutu egin dutela?

–Hain kezkatuta zegoen zuregatik, non jateko gogoa ere galdu zuen. Orduan ingelesek edanarazi zioten goizetik gauera, eta oraindik ez zaio aitzurra pasatu.

–Dolores –erantzun nion–, nik ez dut inoren beharrik Frantziara itzultzeko; bakarrik joan naiteke Saran barrena, edo Bidarraian barrena, bai eta abiadoreen bidean barrena ere. Baino nahiago nuke Florentinorekin joan, han haren beharra dugu eta.

Doloresen senarra iritsi zen une hartan. Hark arrazoia eman zidan eta, bihar-ramunean, Florentino ekarri zuen niregana. Ezagutzen du, ezin hartaz esan hitzontzia denik... Hainbeste alkohol irentsarazi zioten, non aldi hartan ezinezkoa zen guztiz hitz bakar bat ere ateraraztea. Baino hainbeste aldiz errepikatu nion: "Florentino, bihar! Bihar, Florentino!", ezen azkenerako xuxurlatu zuen: "Bai, bai, bai." Gero, harengan jarri nuen konfiantzaz ohartu izan balitz bezala, zera gehitu zuen, alkoholez mozkor-mozkor eginda oraindik ere: "Moi plus boire. Fini" (Ez dut gehiago edango. Kito).

Abiatu egin ginan, bada. Indarrik ez hanketan, Florentino nekez aurreratzen zen ukuiluaren hurbiltasuna sumatzen duen abere gaixo akitu baten pare, eta nire zorroa hartu nahi zuen kosta ahala kosta. Zorroan komandante alemania-rrak normaltzat hartuko zituen hornidurak neramatzan, bai eta "Timothy"rekiro elkarrizketan hartutako oharrak eta mugaz bestaldean jantziko nuen arropa ere. Arropa horiek eta Spainian jantzi nituenak oso bestelakoak ziren, alemaniarrek informazioa nork emango baitzeukaten Donostian. Beti bezala, atsedean

hartzeko leku bat baguenen bide-erdian; baserri apal bat zen, non kontrabandoan zebiltzan gure ezagun batzuekin topo egin behar baikuenen.

Ezin izan nuen galarazi Florentinok zahatotik maiz zurrutada ederrak hartzea, haren agindua gorabehera, kontu handiz beteta zuen-eta koñak españiarraza, nahiz eta baserrian gidarietako batek –gerra ondoren modu misteriosuan desagertua– honela esan zidan: “Ez duzu ikusi zer gaizki dagoen Florentino? Gera gaitzen hemen mozkorraldia pasatu arte, eta geroago jarraituko dugu elkarrekin”. Ezezkoa eman nion, nire printzipioetako bat baita aurrera jarraitza hasierako oldarraz baliaturik, behin abian jarriz gero, eta “Dédée”ren atxiloketa gertatu zen moduak printzipio hori zuzena zela erakutsi zidan. Arropa aldatu nuen eta mutil bat bezala jantzi nintzen. Lan-jantzi urdina soinean, espartinak oinetan, eta euskal txapela, ilea ezkutatzeko, mendia zeharkatzen duten andre guztien antzera, baina nire zorroa han utzi nuen, gidariari esanez Florentinori jasoaraziko niola geroago. Florentinok eta biok bideari ekin genion.

Goizean goiz iritsi ginenean Bidasoara. Badakizu nola, Españiako aldean, erre-pidea zeharkatu behar zen lehenago eta trenbidea gero, ibaira ailegatu aurretik. Errepidea guardia-postuz betea egoten zen, eta karabineroak bidean ibiltzen ziren etengabe, bata bestearengana joan, elkartu eta buelta ematen zuten. Elkarrekin topo egin eta buelta eman arte zain egon behar zen, ibaira iristeko falta ziren berrehun-hirurehun metroak egiteko. Ibai-bazterrak malda handia zuen; lauoinka igo behar zen beste norabidean etorriz gero, eta bizkarra lurraldi emanez jaitsi, Frantziara joaterakoan, goiz harten bezala. Ondo joan zen dena, estuardi txiki bat kenduta. Florentino egarriak itotzen zegoen; ibaia igaro ondoren, ahoz behera hasi zen ura milika edaten, zakur batek bezala, eta harri batzuk bota zituen, altzatzerakoan. Haserre, niregana bihurtu zen, nik erorarazi izan banitu bezala, eta “chut!” xuxurlatu zuen (ixo!). Florentinok atseden pixka bat hartu behar zuela ohartu nintzen eta gerritik tiraka eserarazi nuen, esanez: “*Moi fatigué*” (“nekatuta nago”). Bizkarra lurrean, luze-luze jarri zen, oinak zuhaitz txiki batzuen enborren kontra bermaturik, eta zurrungaka hasi zen berehala. Karabineroak ikusi gintzuten beste ur-ertzean, eta garrasi handiz deitu ziguten, baina nik kasurik ez: mugaz bestaldean geunden. Florentino esnatu zen azkenetako, zutik jarri eta bideari lotu ginen. Goizeko zazpiak inguruau iritsi ginenean bigarren babes-baserrira. Han, Florentino zerraldo erori zen iritsi bezain laster.

–Ene Jainkoa! –oihu egin zuen etxeoaandreak–. Zer egin diozue?

–Et, et, et; ea zer esaten duzu! –erantzun nion–. Ez da nire kontua izan! Ni Frantziara ekartzea galarazi nahi izan ziotenek dute errua!

Angelura joateko jantzi nahi nuen arropa Españia aldeko baserrian utzi nuen zorroan neukan. “Zer egingo zaio –esan nuen nire artean-. Saiatuko naiz inoren atentzia hartu gabe etxeraino joaten arropa honekin”. Katilu bat esne irentsi ondoren, prestatu zidaten gizon-bizikleta hartu-horrelakoetan ibili ohi nintzen; emakumeenak astunegiak iruditzen zitzazkidan-, eta Kattalinen (Aguirre) etxeraino jaitsi nintzen ziztu bizian, norbaitek ikusiz gero mutila nintzela pentsatzeko moduan. Han, arropa aldatu, lan-jantzia eta bizikleta utzi, eta Villa Voisinera joan nintzen lasai-lasai. Han ikusi nuenez, nire senarrak lan ederra egin zuen, ni kanpoan emandako denboran.

“Timothy”rekin adostu zuen hegoaldetik iristen jarraituko zuten abiadoreak han elkartzeko, eta Florentinoz baliatu ginene beste bizpahiru alditan oraindik ere. Doloresen etxera joaten zen gure postarekin; han Doloresi eman eta honek “Timothy”ri helarazten zion, eta “Timothy”k Donostiara guretzat eramanarazitako posta Florentinoren esku uzten zuen<sup>11</sup>.

<sup>11</sup> Rémy: *Réseau Comète*. Librairie Académique Perrin, Paris, 1968, III. liburukia, 384-7. or.



## **OFIZIOAREN ARRISKUAK: FLORENTINOREN ATXILOTZEA ETA ASKATZEA**

## "BIHAR, ORDU BIETAN"

Florentinok, zaitasun handiei aurre eginez, hiru urtez zeharkatu zituen Pirinioak, Donibane Lohizunetik Espainiako lautadaraino. Berrehun abiadoreri baino gehiagori lagundu zien muga igarotzen. Normandiako lehorreratzearen ondoren, alde batetik bestera pasatzen jarraitzen zuen, Bidasa gurutzatzen eta Aiako Harria inguratzen, Espainiako kostaldea ikusten zuen arte.

"D" egunetik hilabetera, azken aldiz igaro zen. Aldi hartan, abiadorerik ez, paper-zati ñimiño batzuk zeramatzan, Inteligentzia-Zerbitzu aliatuentzako mezuak.

Esku onetan utzi eta gero, itzuli egin zen, beti bezala, Frantzia aldera.

Goizeko hiruretan, Florentino Bidasoa zeharkatu eta Urruña aldera jaisten ari zen. Bat-batean, gau beltzean, tiro bat entzun zen. Florentino lurrera erori zen; hanka bat hautsia zuen eta odoletan. Oinaze zorrotz batek hartu zuen, baina, adorez betea beti bezala, brusatik paper sekretuak atera eta haitz baten azpian sartu egin zituen.

Gero, jasaten ari zen min zorrotza gorabehera, maldan behera erortzen utzi zuen bere burua, iluntasunean. Alemaniarren oihuak hurbildu ziren... azkenerako aurkitu eta inguratu zuten, eta galderaz josi.

Ez zuen erantzun, eta torturak pazientziaj jasan zituen, muga-postu batera zeramaten bitartean. Handik, poliziaren koartel nagusira eraman zuten autoz, Hendaia. Autotik baldar altxatu eta lurrean utzi zuten bulego batean.

-Nola duzu izena?

Florentinok etzanda iraun zuen, begiak itxita, erantzun gabe. Interpretreak ekarri zitzuten, frantsesez, gazteleraz eta euskaraz galdeka ziezaioten, baina ez zuen hitzik esan nahi izan.

Alemaniarak duda-mudan ibili ziren luze, eta, azkenerako, Baionako ospitale zibilera bidali zuten. Haren hanketako bat ikaragarri hautsita zegoen: hezurra erabat txikituta zegoen.

Tante Gok gertatutakoaren berri izan zuen. Zerbait egiteko irrika biziz, abiatu egin zen zernahi egiteko prest.

Hogeita lau ordutan lortu zuen, bere lagun eta laguntzaileekiko harremanen bitartez, istripuari zegokion guztiaz jabetza. Bazekien Florentino non zegoen, zein ospitaletan, zein gelatan eta zein zen haren ohearen zenbakia.

Florentinoren ondoan gazte frantses bat zegoen, bombardaketa batean zauritua. Gazte haren izena jakin zuenean, "Tante Go"k hari bisita egin eta pastelak eta frutak eramateko plana egin zuen.

Goiz batean, gela hartan ausardiaz sartu eta, gaztearen ohera joanda, haren aurrean geratu zen zutik.

Florentino ez zen mugitu, ez zuen inolaz ere adierazi ezagutzen zuela. Ordu erdi batean, Tante Go oheburuan egon zen, gaztearekin hizketan, zeina poz-pozik baitzegoen bisitarekin. Gero, alde egiterakoan, poltsa lurrera erortzen utzi eta, hura jasotzeko bi ohean artean makurturik, honela esan zuen gazteleraz xuxurla batean:

-“Mañana a las dos”.

Florentino, ordea, batere ez zen mugitu orduan ere. Etzanda zegoen han, loi- txuran. Apenas hitz egin zuen inorekin, ezta sendaketa egiten zioten mojekin ere, inori ezer ez esatera deliberaturik.

Ordu bietan zarata atera zen, eta zalaparta txiki bat izan zen gelako sarreran. Alemaniar batzuen ahots zakarrek gaixoak izutu zituzten. Begitarte serioko hiru tipo eztabaidan ari ziren Errukiaren mojekin.

-Ezin da hemendik eraman! Arriskutsua litzateke! -esaten zuten mojek garra- sika.

Gizonek, protestei entzungor, mojak gogor utzi zituzten alde batera; batek paper bat erakusten zuen. Kapelak buruan kiribilkatuta, Gestaporen ohiturari jarraiki, Florentinoren oheraino hurbildu eta beste ospitale batera eraman behar zutela esan zioten alemanez, hizkuntza horretan tutik ulertzen ez bazuen ere.

Florentino sorgor zegoen, zirkunik egin gabe, esku zimel handiak maindirearen gainean zituela.

Haren aurpegi zimurrak, mendiko bizimodu gogorrak zailduak, ez zuen ezer ere adierazten. Arin ekarritako esku-ohe batek hartu zuen haren gorputza, eta esku-oheak instant batean irentsi zuen barrura. Gizonak ez ziren orain alemanez mintzatzen, eta haien keinu serioak desagertu ziren. Florentinok buruzagia eza- gutu zuen berehala: “Oncle” (Fernand De Greef) kementsua zen, “Tante Go”ren senarra, haren bi lagunekin.

De Greef jaunak, Angeluko udaletxean interprete zegoela aprobetxatz, Gestaporen agindu faltsu bat egin zuen, Florentino Baionatik Miarritzera erama- teko. Agiri horrekin, Baionako udal anbulantzia bat bahitu zuten.

Florentinoren erreskateak ez zuen hogei minuti ere iraun; tarte horretan, Angelu inguruko etxe batean ezkutatu zuten kontu handiz. Eta han zegoen, hain zerbitzu ona eman zien aliatuek herria liberatu zutenean, handik aste gutxi bat- tzuetara.

Zoritzarrez, haren hanka, zirujau on baten faltaz gaizki sendatua, desitxura- tuta gelditu zen.

Askatzaileek Parisko ospitale batera eraman zuten, baina, tamalez, ezinezkoa izan zen hanka bat bestea baino laburragoa geldi zedin saihestea.

Florentino mendiko erregea zen. Goietako egurats basatiaren parte zen eta han bizi zen benetan, gailurretako argi urdin, berde eta urre-kolorekoan. Ezin aurrerantzean bide harritsuetan zehar ibili, haren ibilera dotorearekin, “;Espera un poco!” esaka.

Hala ere, barreka jarraitzen du, edontzi bat ardo edaten duen bitartean, gau gogor-gogor haiiek gogoan hartuta. Euriak, aurpegian jotzen zionean, tontorre- ra bultzatzen zuen. Leher eginda eta arnasestuka zebiltzan abiadore ingeles eta amerikarrei honelaxe esaten zien, atseden txiki bat egiteko geldi zitezen erregu- tzen ziotenean:

-¡Doscientos metros!

Haren zorioneko “berrehun metroak”, bidexka ilun eta irristakorrean!

Florentinon Ziburun bizi da gaur egun, Tante Go, “B” Johnson, Franco eta

beste hainbaten oroitzapena gogoan. Baino bat bada besteetatik bereizten zaiona, haren handitasunarenengatik.

“Dédée”z hitz egingo dizue nahasketez beteriko bere hizkera bitxi horretan, egunsentia Donibane Lohizuneko badiaren arrantza-ontzien gainetik gora egiten hasten den arte. Begirunez mintzo da neska hartaz: mendian gizonak baino hobeto ibiltzen zen, eta denei adore ematen zien gauean aurrera egiteko”<sup>12</sup>.

## EGINKIZUN AUSARTA ETA ARRISKUTSUA

Florentino Baionako ospitalean zegoen, Gestapo galdekatzeari ekiteko noiz agertuko zain -eta agertzeko zorian zegoen-, eta lagun batzuek sartu eta eraman egin zuten handik. Behin baino gehiagotan kontatu izan da nola askatu zuten, baina bertsioen artean des- berdintasunak daude eta hainbat puntu garrantzizko argitu gabe uzten dituzte. Gainera, pasadizoaz ez dute zuzenean kontatu hartan parte hartu zutenek. Horregatik, orain arte inon agertu gabeko bertsioa argitaratzen dugu hemen. Antoine Lopezek idatzi zuen, duela zenbait urte, askatzearen antolatzaila eta egile nagusiak berak.

Antoine Lopez jatorri espanyiarreko polizia gazte bat zen sasoi hartan -haren gurasoak Aragoitik Frantziara 1880an joandako etorkinak ziren-, eta, aspalditik erresistentziako kidea izanik, hainbat ekintzetan jarduna zen. 1943an Miarritzera bidali zuten Mont-de- Marsandik, eta erresistentziaren hainbat saretan ibili zen, “Andalousie” izenekoan, esaterako, eta batez ere Lyon aldeko taldeetan. Ehun bat nortasun-txartel eskuratu zizkien eskualde hartako taldeei. Mauleko makiek harremanak izan zituen, herri hartan bizi izan baitzen tarte batean bere familiarekin. Lopez Hendaiako komisario berezia izendatu zuten 1944an, gero Perpignanera aldatu zen, eta, geroago, Afrikan eta Parisen aritu zen lanean. 1944an ekintza bat antolatu zuen Jules Artola bere lagun eta lankidearekin, “Masuy” torturatzaile nazia Donostian bahitzeko (“Masuy”, Georges Delfane nazi bel- gikar famatuaren izengoitia zen, Parisen Abwehr-eko agentea izan zen eta “bainuontzia” izeneko torturaren asmatzailea izan omen zen). Bahiketak porrot egin zuen azken unean, eta Lopez atxilotu eta Ondarretako presondegian sartu zuten.

Miarritzen bizi izan zen, erretiroa hartuta, eta hantxe hil zen 2005eko uztailaren 9an. Testu labur hau, non lehenengo aldiz protagonistetako batek kontatzen baitu nola libera- tu zuten Florentino 1944ko uztailean, garai hari buruzko ‘Oroitzapenak’ idazlan argi- taragabearen zati bat da. 1944ko uztailaren 26an gaude:

<sup>12</sup> Airey Neave: *Petit Cyclone*. Editions Novissima. Bruxelles, 1954, 218-23. or.

"Biharamun arratsaldean, sei eta erdian, Artola bisitan etorri zitzaidan etxera. Bertako erresistentziaren kide batek berarekin hitz egin zuela adierazi zidan. Konfiantza osoko laguna zen eta ekintza arriskutsu bat aipatu zion. Hartan parte hartzea onartuz gero, biharamunean bederatzietan Georges Delord jaunaren etxera joan behar nuen. Miarrizko hiriko ingenaria zen Delors jauna. Ados etorri nintzen eta, biharamunean, Artola eta biok ekintza-plana antolatzeko bilerara agertu ginen. Sei lagun zeuden han.

Bat baizik ez nuen ezagutzen: Delord jauna. Besteak ez nituen behin ere ikusi ordura arte. Delord jaunak Lazari andrea eta jauna, Miarrizko haginlaria, aurkeztu zizkidan, bai eta beste bi lagun ere, zeinen ez izenik ez aurpegirik ez ditu dan gogoratzen.

Delordek De Greff andreati eman zion hitza. Hark zuen interesik handiena. Andre txikia zen, ilehoria, begi urdin distiratsuak zituen, eta itxura ausarta. Egoeraren laburpena egin zigun. Hiru aste lehenago, alemaniarrek Comète sarearen mugalaria, Florentino, ezustean harrapatu zuten, Espainiatik Frantziara pasatzeko muga zeharkatzen ari zela. Ihesi joaten saiatu zen, baina alemaniarrek geldiarazi zuten metrailetz tiro eginez. Lau bala hartu zituen sorbaldan eta iztretan. Zauritua egon arren, zeramatzen agiriak harri baten azpian ezkutatu zituen eta mendian behera pirritan bota zuen bere burua, leku hartatik ahal zen gehienetan urrunzeko. Horregatik alemaniarrek merezi zuen garrantzia ez zioten eman euskaraz baizik mintzatzen ez zen kontrabandista hari. Edo beharbada galdekatzeo larrigi zegoela pentsatu zuten. Kontua da Baionako ospitalera eraman zutela, han zaindu zezaten. Baina gauzak bat-batean aldatzekotan zeuden, antza. Bezperan, Florentino zaintzeko ardura zuen sendagile frantsesari Hendaia Gestapoko buruak deitu zion telefonoz.

Biharamunean entregatu behar zuen berandu gabe. Sendagilea entrega atzeratzen saiatu zen, hankan igeltsua berriz jarri behar zitzaiola eta biharamunean arratsalde bukaeran egingo zuela esanez. Gero De Greff andreati ohartarazi zion. Hurrengo orduetan egin behar egin beharrekoa. De Greff andreak han geunden guztiei zuzendu eta bi boluntario eskatu zituen Florentino Baionako ospitaletik ateratzeko. Barre egin nuen nire artean, hasieratik bainekeen Jules eta biok han baldin baginen ekintzaren ardura guk hartzeko zela.

Aitzakia bila hasi ziren denak, arrazoi serioez justifikatuta, noski. Kontua ez zen txantxetako, eta ni eta nire laguna arduratuko ginela Florentinoren erreska-teaz esan nuen. De Greff andreak ereskatea egiteko taxututako planaren berri eman zidan. Jules Artolarekin eta nirekin baino ez zuen hitz egiten. Bileran zeuden gainerakoak dekoratuaren parte besterik ez ziren. Eguerdiko ordu batetik ordu bat eta bostera bitartean egin behar zen ekintza, hori baitzen, andreak berak egindako ikerketaren arabera, ordurik egokiena ospitaleko hainbat puntutan guardian zeuden soldaduak saihesteko.

Bi agiri eman zizkidan, Gestaporen zigilua zutenak. Batek Florentino agiria-ren eramailearen esku uzteko agintzen zien agintari frantses guztiei. Bestean Baionako udal anbulantzia egun horretako 12 eta erditik ordu bat erdira konfisatuta zegoela adierazten zuen. Salto egin nuen, irakurri bezain laster! Nola pla-

neatu zuten horrelako operazioa? Anbulantziako bi gidari ezezagunek egiten genuen guztiaren berri izango zuten; bizkortasuna zen gure ekintzaren oinarria, eta bi lagun horiek trabatu zezaketen eta arriskuan jarri bai Florentino, bai hura bere etxeen gorde behar zuen laguna.

Beste alde batetik, ezin alde batera utzi anbulantzia hori ez ote zuten egun hartan bertan alemaniarrek konfiskatuko, maiz egiten zuten bezala, eta, Bainako agintari alemaniarrek Hendaia Gestaporekin telefonoz hitz eginda, ez ote zen agerian geldituko dokumentu hori gezurrezkoa zela eta guri ez ote ziguten antolatuko harrera-batzorderik ospitalera iristen ginenerako. Kalkulu-akats horrek kezka handia sortzen zidan, eta De Greef ospitalari buruz emandako argibideak zalantzan jartzen hasi nintzen. Kamioneta bat eta esku-ohe bat eskatu nituen. Nahitaezko baldintza zen nik parte hartzeko. Ibilgailu horrek, konfiantzazko txofer batekin, Artola eta biok 12:50ean jaso behar gintuen ospitaletik ehun metrora. Gainerakoa nire kontu: De Greff andrea asaldatu zen nire doinuarekin, baina segituan oneratu eta, bere senarrari zuzenduz, zeinari tutik ez nion entzun ordura arte, esan zion edo, hobeto esanda, agindu zion esandako leku eta orduan ibilgailu horrekin agertzeko. Aise moldatuko zara Angeluko udaletxean -esan zion-, ordu horretan inor ez da egoten eta!

De Greff jaunak lan egiten zuen udalean, alemanezko interpretea baitzen, eta lagunak zeuzkan han. Arazoaren alde hori bazter batera utzi nuen, jaiki egin nintzen, denok agurtu nituen eskuarekin keinu bat eginez, eta aretotik atera nintzen Artolarekin. Miarrizko erdigunera iristean, nire beldurrak kontatu nizkion. Inondik ere, Erresistentziaren kide ilustre haien hasiberriak baino ez ziren, eta segur aski sekula ez zioten aurre egin zuzeneko arrisku bat. Ikus zitekeenez, ni ez nengoen lasai. Abentura hartara itsu nindoala iruditzen zitzaidan.

De Greff andreak horrelako kontuetan eskamenturik ez zuela agerian utzi zuen goizeko bileran, eta horrek haren ikerketaren seriotasuna zalantzan jartzeara bultzatzen ninduen. Eguerdiko ordu bata pasa bezain laster jarduteko adierazi zuen, zer esan nahi zuen horrek, guardia alemaniarak magiaz-edo desageratzen zirela ordu horretan? Datu zehatz-zehatz hori susmagarria iruditzen zitzaidan. Nik ez nuen Baionako ospitalea ezagutzen, ez eta hango guardia-zerbitzu alemaniarren antolaketa ere. Florentinoren oheak areto komunean non zegoen, horixe zen argibide baliagarri bakarra. Areto horretara zuzenean iristen zen sarreratik, non harrera-lekua baitzegoen. Sarbidearen ezkerraldean, korridore luze bat zegoen; gure aldekoa zen hori, 15 metro baino ez baikenituen egin behar, kamionetaren atzelaldea sarbidera igotzeko eskaileraren kontra jarrita. Nire plana bizkor egitekoa zen guztiz; ez zegoen beste planik arrakasta lortzeko egokia, eta, horrekin batera, gure segurtasuna gordetzeko modukoa zenik. 12:50ean, De Greff gure aurrean gelditu zen, atzean atea zuen kamioneta beix baten bolantean. Igo aurretik, Artolak aurreko eta atzoko matrikula-plaketan ukitu batzuk egin eta irakurrezinak utzi zituen. Atzeldean igo zen, eta ni, aldiz, aurrean, De Greff jaunaren aldamenean.

Ospitalera iritsi eta autoa errepidearekin elkarzut geldiarazi nuen, kapota burdinesi itxiaren parean zuela. Gestaporen agente baten larruan sartuta, burdi-

nesiko bi ateak zabaldu nituen autoritatez, autoa pasatzen uzteko. Espero nuen bezala, aezaina agudo baino agudoago atera zen garitak, deabruak ekarrita, guri erriean bortitz. Gestaporen zigilua zuen dokumentu faltua jarri nion muturraren aurrean, eta berehala lasaitu zen, ziklope baten begia bezain itxurazkoa izanik. Ez nintzen gelditu. Segituan joan behar genuela- eta ateak zabalik uzteko agindu nion frantsesez, baina azentu aleman nabarmenez. Orrazkera ere aldatua nuen. Ni jeneralean ilea atzeka orrazten dut baina, ospitalera joan aurretik, erdian artesia eginda bereizi eta belarrien gainera erortzen zitzaidan, horrela nire itxura alemaniarragoa zelakoan! Aezaina, agiria ikusi ondoren lasaiturik, garitara itzuli zen, batere gustatu ez zitzaidan moduan begiratzen zidala. Bainaz ezin orduan denbora galtzen hasi. De Greefek eskaileren aurrean gelditu zuen autoa eta, ibilgailuaren atzealdea eskaileren kontra uzteko 180 graduko bira egiten zuen bitartean, motorea ez itzaltzeko aholkatu nion. Artola eta biok batera atera ginen. Esku-ohea zeraman hark. Kanpoan ezker-eskuin begiratu nuen. Uniforme alemaniarrak ez zen inon ageri, ezer susmagarririk ez atarian, ezta harrera-lekuaren edo korridorean ere. Zorionez, ondoko ohean ez zegoen inor. Artolak esku-ohea han jarri eta, hitzik esan gabe, burusiak jaitsi, Florentino hartu, hark hanketatik, nik sorbaldetatik, arin-arin baina kontu handiz eskuohean jarri eta goazen hemendik ziztu bizian! Lasterka kamionetan jarri eta Artolak atea itxi zuen. Eskailera-maila gutxi haietako jaistekotan nengoela, esku indartsu batek oratu zidan besotik eta ahots haserre batek kontuak eskatu zizkidan nire jokamolde kalifikaezin hura zela-eta. Moja erizain bat zen, eta haren ahotsa gero eta ozenagoa zen, kezkatzeko moduan. Askatu nintzen, paper famatua eskuetan jartzen niola, eta zera esan nion: "Andre hori, barkatu, polizia alemaniarrak". De Greefen ondoan jarri nintzen, eta honek formula 1eko pilotu bat bezain bizi abiatu zen. Igarotzean, aezaina ikusi nuen, gure autoaren matrikulazienbakia zein zen ikusi nahian. Irregularitasunen bat antzeman zuen zalantzarak gabe, eta ezin alde batera utzi beharbada postuko alemaniarrako guardie oharrazi ez zienik. Ospitalean bi minutu baino gehiago ez genuen egin. Burniesia zeharkatzean, Miarritzera zuzenean joan beharrean, Kanboko errepidea hartzeko esan nion De Greefi. Okerrenean, hamar minutu kenduko genien, tarte hori behar baitzuten alemaniarrek Gestaporen agindua egiazatzek; eta Spainiako errepidea hartu genuela sinestarazita bilaketa zailduko genien.

Miarritzera itzultzeko, Arrangoitze aldera biratu ginien, eta, bide nagusiak saihestuz, Miarritzera iritsi ginien arazorik gabe, Reine Nathalie ibilbidera, Charles Gaumont jaunaren etxera. Gaumont jauna Erresistentziaren aspaldiko kidea zen, eta dudarik ez zuen egin Florentino bere etxeen hartzeko. Lehenago, Arrangoitzeko errepidea hartu aurretik, geldialdi bat egin genuen, matrikulaplatak lehen bezala uzteko, eta nik atzean igotzeko aprobetxatu nuen, Artola eta Florentinorekin joateko. Florentinok izerdi-tanto handiak zeuzkan eta begi finkoek beldurra adierazten zuten. Lasaitzeko, eskua estutu eta esan nion gazteleraz: "Lagunak gara, salbatua zaude!". Nire hitzak ez ziren haren burmuinean sartu eta etzanda jarraitu zuen pixka batean. Aurrerago esan zidan azken ordua iritsia zitzaiola uste zuela, ezin baitzuen sinestu salbatu genuela.

Erreskate horrek alemaniarrak utan jarri zituela gehitu behar. 15 egunez kontrolak handitu zituzten geltoki eta autobusetan, barrera gehiago jarri zituzten errepideetan eta posta lupaz aztertu zuten Miarritz, Baiona eta Angelun, baina batere arazorik ez genuen izan".



Florentino Goikoetxea Baionako ospitaletik 1944ko uztailean ihes egin berrian, ohean oraindik, Miarritzen, Charles Gaumont-n etxeen ezkutaturik. (Argazkia: Antoine López).

<b>ÉTAT FRANÇAIS</b>		<b>CARTE D'IDENTITÉ</b>
		N° 6630
Nom <b>Etcheto</b>		Prénom <b>Jean</b>
Domicile <b>rue des champs</b>		Profession <b>cultivateur</b>
Né le <b>25/10/1900</b>		
à <b>Ascarain</b>	Dpt <b>B.P.</b>	
Il de _____	et de _____	Emprisonné _____
Nationalité <b>France</b>		Timbre d'Etat Cachet de timbre Camille Jamme
Signature du titulaire		
IMP. CHATEL		
<b>SIGNALLEMENT</b>		<b>Changements de Domicile</b>
Taille <b>175</b>	Timbre humide	
Visage <b>mat</b>		
Teint <b>foncé</b>		
Cheveux <b>noirs</b>		
Moustache <b>non</b>		
Front <b>large</b>		
Yeux <b>bruns</b>		
Nez <b>fort</b>		
Bouche <b>mince</b>		
Menton <b>large</b>		
Signes particuliers <b>nez</b>		
16 JUILLET 1943 194		
